

S. ONAINDIA

EUSKAL LITERATURA

(I)

LINGVAE VASCONVM PRIMI-
tiz per Dominum Bernardum Dechepare
Rectorem sancti michelis veteris.



ETOR

S. ONAINDIA

EUSKAL

LITERATURA

I

XVI, XVII ta XVIII mendeak

Bilbao, 1972



1972.01.10. - 1972.01.10.

BEAR DIRAN BAIMENAKIN

Depósito legal: BI 2866 - 1972

«GRAPICAS BILBAO» — Gardóniz, 28 — BILBAO

SARRERA

I—GURE EUSKERA

Ederra ta aberatsa dugu euskera. Azken mendeotan izkera barrutian zerbait izan diran izkuntzalariak (filologuak) biotz eta ago batez aitortu dute: Europa'ko sarkaldean, Auñamendi'n arre-lepo dagoen euskal erriak mintzatzen duen izkera, gure euskera, munduko izkuntzetan pitxirik bikaiñenatarikoa dala.

Intxauspe apaizak, «Le Verbe Basque» idatzi zuenak, ondo ikasi zuen euskeraren muiñean datzan edertasuna. Liburu eder orren itzaurrean onela dio: «Arrigarria da euskal izkuntza...; ta aditza da bere galdorra, bere goragarria, aditzean agertzen bait ditu bere aunditasuna ta bazter gabeko aberastasunak. Bat bakarra da, ta au da bere berezko edergarri aundienetakoa; bere bakartasunean, ordea, ain aundia, ain emakoia, ain aberatsa, ain abarra da!, beste izkuntza guzien gañetik dago, gure basoetako aritzak beren adar aundien azpian sortzen diran landaratxoan gañetik dauden bezala».

Aurrera darrai: «Izateak dituan izkutuko guziak ostutzen, edesti edo istoriak dituan illunbeta guziak argitzen, aspaiditako oroigarri guziak izkututik ateratzen eta zeru-lurrak gizonaren argitasunari eskeintzen dioten asmagarri guzia agertzen gizonak bere egiñal guziak jartzen dituan mende onetan, jakintsuen begiak ezarri dirala euskaldunen izkuntzagan, izkuntz ain arrigarrri, ain berezko, ain gozo ta ain ederki gordetako onetan. Oro-

garri polit eta agugarria, lenengo gizonen seaskaraño bere jatorriz igotzen dana, eta erri ta izkuntzak nasi dituen urteak, ez bere izaneran, ezta bere itxuraz ere aldatu ez dutena. Lengo erri aundi baten oroigarri izanik, bere inguruan erri aundi ta erridiak purrukutzen ikusi dituen ©ta ekaitzaldi gogorrenari beti aurpegia eman dioten Sorkaldeko Pirámide zentoi antzeko aiek bezalaxe da gure izkuntza».

ATZERRITARRAK ZER DIOTEN.—Amar bat izkuntza zekizkin

J. Cejador'ek, bere «El Lenguaje» liburuan, onela dio: «1530'an, Merineo Siciuo'k, 50 bat euskal itz eman zizkigun, gaur ere ikutu gabe daudenak. Gaztelera, ordea, literatura eukita ere, askotxo aldatu zaigu ordutik ona; euskera, berriz, literaturarik gabe, ezta zer aundirik aldatu XII'garren gizaldiko *Codex Calixtinus* deritzanean datozten itzak, orain 7 gizaldi bezela ots dagite gaur ere... Mugaz andiko euskalkiak emendikoen itz berberak eta gramatika ere berbera dauzkate. Jesukristoren ondorengo IV'garren mendetik batez ere, latiña aldatuz etorri da, ta bere altzotik sortuak dira gaztelera, prantsesera, italera, ta abar. Euskera ere, gramatikazko egitura samurragoarekin eta literaturaren laguntzarik gabe, naitaez zatitu bearra zuen urte oien eragite gogorrez; oraindik, alere, ba-dirau... Euskal aditza erraldoizko adimendun batzuk egiña dugu, bere aunditasun eta eztitasunez; soiltasuna eskatzen du onek izkuntzari buruz, ta onela amil-beera dijoa euskerak ez duela itz soillik (abstrakturik) aldarrikatzen dutenen gezurkeria. Aditz au ez tute eratu, iñolaz ere, gaur-egunean ezagutzen ditugun baserritar batzuk; onek, bada, kultura mailla eskerga bat eskatzen du, ta aur-jolasa dirudite aien aurrean griego ta latinaren asmaketa guztiak».

Magunzia'ko Ikastetxe nagusian buru izandako Hilkman jaunak, 1953'an, onela zioan: «Euskaldunak beren euskera utziko ba'lukete, gaztelera edo prantsesez mintzatzeko, alegia, iñork eluke Europa'n ezer irabaziko. Olakorik gerta ba'ledi, Europa osoa txirotuko litzake, beste ordurik urrutienara bere ada-

rrak luzatzen ditun izkuntza galduko litzakigu-ta; onek bakarrik eskuratu lezaikegu, ba, ezkutu askoren giltza. Au gogotan izanik, izkuntzalarientzat bakarrik ez da jakingarri, baita edozein gizaseme jakitunentzat itzal aundiko ta begiramengarri dugu».

Lefevre, Sorbona'ko Ikastetxe nagusian Irakasle zegonak, idazten zigun: «Maggiar, turkera, suomi ta abar, Europa'n sartu zitzaizkigun euroi dagozkien erriakin batera; Euskalerrria ta beronen izkuntza, berriz, Edestia baiño aurreragokoak ditugu Pirene aldean, ta ez antropologuak, ez etoologuak, ez izkuntzalaririk ezin izan dute oraindik bertan nola sartu ziranik zeaztatu. Europa'ko izkuntza guztiak, iru bat milla urte lez dirala, indo-europearren eraso ta zapaltzeaz suntsiturik geldito ziran; euskerak bakar-bakarrik eramian zuen, ondatu gabe, aien zigorraldia; onetxek bakarrik iraun zuen zutik, eta gaur ere orrela daukagu: gertakari miresgarria benetan, eta bakarria Europa'n eta mundu osoan, bear bada».

Euskera ta euskal literatura funtsez ikasi zituin J. Vinson frantses izkuntzalari jatorrak ere, onela: «Ziurra gauza bat da bakar-bakarrik: euskera dala noski izkerarik lenengoena ta Europa'ko zarrena, ta gaiñera, zerbait aldatua izan arren, bere tokian iraun duena, ta Edesti-aurreko len-garaietatik iraun ere. Euskal itzak galduaz eta arrotz batzuk artuaz, iztegia aldatua izatea, ditekena duzu; baiña joskera, aditz-jokua ta gramatika egitura, au da, izkuntza baten muiña egin daroana, ori osozorik bere baitan du euskerak».

Huxley ingles jakitunak: «Euskera dugu jakitunen etsipena, ta ezagun ditugun izkuntzetatik ezkutuena». Du Meril'ek: «Euskerak eta kaukasar izkuntzak ba-dituzte beren baitan antz edo analoji batzuk gramatikari buruz naiko zeatzak eta joskeran, aditzean eta izen-saillean bat lez datozenak». Salamanka'ko Ikastetxe nagusian buruzagi izan zan A. T. ovarek: «Euskeraren iraupena dugu Filoloji-kondairaren gertakaririk arrigarri-netarikoa. Izkera zahar baten bizirik iraultzea noski,mendez

mende, gizaldi askoren buruan, beste izkuntza batzuen eraso-aldiai gogor egiñik, bere nortasuna bizi-bizi zaindu duena». Eta, azkenez, Menendez-Pidal'ek: «Ba liteke munduan beste izkuntza bat ez aurkitzea, euskerak duen lako jarki-gaitasuna duenik; bere iztegian, bada, arrotz-gaien batzuk sartzen utzita ere, zintzo eusten dio bere jatortasunari».

Amas-emaille bitez guretzat erbestetarron kitzi, gogo ta egiztapenok. Izan ere, gaur-egunean gure euskera kinka larrian daukagun ezkerok, etsai biurriz —prentsa, irrati, urrutikuskin, liburu ta abar— inguratuta alegia, iñoizkorik zolien arduratu ta alegiñik gartsuenak egin bear ditugu, berau ta beronekin geure nor-izate berezia betiko galdu ez dakizkigun. Geu gara, jakintsuen aburuz, Europa'ko izkuntzarik zahar eta balioetsuenaren jabe; berau galduko balitz, Europa osoaren galpena izango 'litzateke. Beraz, etxean gurasoak, elizan apaizak, ikastola ta eskoletan umeak, alkar izketa ta billeretan. danok, kale ta baserri, ur ta lur, gazte ta zar, guztiok ikasi ta erabilli bearra daukagu. Ta onezaz gaiñ, guztion onerako dan egiteko ontan lan dagienak, zein kultura-erakundeak, zein erri-agintariak, zein ikastetxeak, egiaz txalogarri ditugu.

II—EUSKAL LORRATZAK OR-EMEN

EUSKERAREN LUZE-ZABALA.—Ertz oni buruz ez da errez iritzi egoki bat ematea. Ba-dira Jakintsuak —Humboldt, A. Fita, Cejador, Menendez-Pidal ta beste batzuk— iber-izkuntza ta euskera batera lez bizi izan zirala, aintziña baten, diotenak. Iber-izkuntza, ordea, Espaiña'n sortaldean eta egoaldean itzegin zan batez ere, aspaldi danik galdua. Espaiñar eremu zabalean or-emen aurkitzen diran ainbat toki-izenek olako zerbait aitzen eman nai digu. Iber-idazkunetan ba-ditugu euskal jasa duten itzak, ez gutxi.

Dana dala, lenago baten gaur baiño edadura zabalagoa eukan gure izkuntzak; erromatarren denborako latin-idazkunak dituzu lekuko; gero, apurka apurka, atzera egiñaz joan zitzai-gun mugalde medar ta estuagoetara. Erromatarren aginpide garaian, gaiñera, abagune larrian aurkitu zan, ia osorik galtzeko zorian, eta galdu ez baldin ba'zitzaigun aiek beren aunditasu-netik jetxi ta lurralde auek utzi bear izan zkuztelako izan zan, dudarik gabe. Orain bi milla urte bezela euskerak izan zitun bere ondore onak eta utsak, piztu-aldiak eta porrot-orduak.

Jakintsuen artean ba-dira orairidio beste uste ta iritzi ausart bezin bitxiak: E. Lewy'k dioskunez, esaterako, euskera omen dugu Europa osoko Izkuntzen zerki edo substrato zaharrena; eta Uhlenbeck'ek dio aspaldi bateko izkuntz-azal (geruza) dala, oraindio ere bizkik dkauana. Geruza onek etzun euskera ba-karrik bere baitan arcuko, baita Europa eguerdi-aldeko beste izkera batzuk ere.

ERROMATAR IDATZ-IZENAK.—Erromarrak naiko luzaro bizi izan zitzaizkigun Akitania lurraldeetan; Akitania au Garona ibaitik Auñamendi'raiño luzatzen zan; ementxe bizi zan, jatorriz bezela, *Ausci* (auski) gizatalde garrantzitsu bat: ortik datorkigu, antza, *eusko* ere. Lurralde ontan aurldtzen dira gaur ere, euskeraz idatziriko agerkairik zar eta seguruenak; Jainko ta pertsonen izenak dituzu, M. Luchaire'k estalgetuak batez ere. Ortxe agertzen dka, latíñez idatzita, euskal izen ezin-nas-tuak: *andere*, *nescato*, *cison* (gizon), *sembe* (seme), ta abar; baita jainko batena ere: *aherbelste* (*arbels*, «aitz beltz» ala «aker beltz»?).

Erdi-Aroan pertsonen izenak agertzen dira agiri ta kroni-keetan, gero ta geiago agertu ere; dokumentuetan, gaiñera, ez pertsona-izenak bakarrik, euskera poliki argitzen duten izen arruntak ere bai: Gomiz *Belatza*, 963'garrenean, *aita* 980'garre-neko agki baten, *izurra* 980'an, *ozzua* (otsoa) 981'an, *ataburu* 1007'an, *eskerra* (ezkerra) 1024'an, *moza* (moztua) 1026'an,

seitegi (saillelu) 1030'an, Eneko *Beltza* ta *laburra* 1072'an, Sanr txo *Begiederra* 1080'an, *zarra*, *zuria*, *menditxo* 1085'an, eta beste.

XGARREN MENDEAN.—Erdi-Aroan euskeraz itz-egiten zan, gaur euskal erritzat ez dauzkagun toki askotan ere: Ueska aldean, Errioxa'n eta Burgos'ko mugaldeetan, ziuarki. Amargarren menderantzekoak dituzu Errioxa'n, San Millan de la Cogolla deritzaion lekaretxean aurkitu ziran esku-idatzietan datozen euskerazko ertz-oarrak. Baita ementxe bertan dator gaztelerazko agiririk zarrena ere; «espaiñar izkeraz idatzitako lenengo testua» dio Damaso Alonso'k. Otoitz bat da. «Glosas Emilia-nenses» deritzanean daukagu.

Praillea —ez dakigu gazte ala zar zanik— Agustin deunaren kzaldi bat aztertzen ari zan nunbait, eta latinez ongi ulertzen ez zitun itzai ertzean jartzen zizkien oar batzuk argibide bezela: ortxe, latinezko liburu ortan dauzkagu itz eta esaldiak, euskeraz batzuk eta gazteleraz beste batzuk. Eta itz eta esaldi auek, ain zuzen ere, espaiñarrentzat erdal literaturaren «lensaioab) ba'dira, guretzat ere ezin ba gutxiago izan (D. Alonso, *Primavera y Flor de la Literatura Hispdnica*, I, 3 orr.). Oarrok jarri zituen prailleak erderaz ta euskeraz zekizkin *antza*, Menendez - Pidal'ek dioskunez (*Orígenes del español*, Madrid, 1950, 466 orr.).

Egal ortan datozen euskal itzak auek dituzu: «izioqui» (ixio, izio, exeki, iexeki), «guc ajutuez dugu» (aiotu, abitu). Zearo ez dakigu baiña, itzok zer adierazi nai duten, esakun txit motzak bait dira. Berzeo'k ba-darabilzki euskal itzak —Don *Bildur*, adibidez, bere bertsoetan (Ikus J. Bautista Merino y Urrutia, *El Vascuence en el Valle de Ojacastro (Rioja Alta)*, Madrid, 1931).

XIGARREN MENDEAN,—Pertsonen izenak eta tokien izenak ez-ezik, oen azalpenak eta adierazgarriak, ere, sarri-samar ager-

tzen dira amaikagarren gizaldian zear. Ona batzuk: *Izpea* (aitz-pea), Busturiko Axpe; *aker zaltua* (1074), Iruña'ko katedralako pergamino baten; *zaldu-burua*, *Uztai-zuar-be*, *zullitia*, *arbea*, *erretzubi*, *buruzagi*, *azeari*, ta abar.

XII'GARREN MENDEAN.—Amabigarren gizaldian, au da, 1140'an, Ainiery Picaud, Parthenay-le-Vieux'ko semea, edo zana zalakoa, Euskalerritik igaro zan erromes edo beilari zurrian. Bidekari (gufa) bat idatzi zuen ark, Prantzi'tik Konpostela'ra zijoaiztenai laguntzeko; bidekari onek, naiz-ta euskaldu-netzaz gaizki itz egin, euskal iztegi txiki bat dakar, guretzat estimagarria noski, ta iztegietan zaharrena. Ona bertan dakazkin itz batzuk: *Urzia*, *Andrea Maria*, *ogui*, *ardum* (ardao), *aragui*, *sagar*, *sagardo*, *araign* (arrain), *echea*, *iaona* (jauna), *andrea*, *elicera*, *belaterra* (apaiza), *gari*, *uric* (ura), *ereguia*, *laona domne lacue*, ta abar.

IKUR-ITZAK.—Erdi-Aroko ikur-iztiak (epigrafiak) baditu euskal izen batzuk errez adieraztekoak ez diranak.

Abadiñoko (B) arri batean, eta ba leiteke berau amaikagarren mendekoa izatea, idazki au dator: «Iauninco/ne ego/iei no». *Iauninko* Jaungoikoaren izena dugu, Gómez-Moreno, J. A. Basanta ta A. Tovar'en iritziz; beste itz erdiak illunago, daude. Kristoren aurretiko euskaldumak, bear bada, *Inkoa*, *Inka*, *Jinko* deituko zioten, eta ondorengoak, Jauogoikoa, goietako Jauna.

NAPARRUKO FORU-LIBURUAN.—Naparruko *Foru Orokorra* deritzaion liburuan ere ainbat euskal itz eta adierazpen datoz, guztiz jakingarriak: *opil arinzada*, *on bazendu avaria* (afaria), *açaguerico* (aza-gerriko), *ozterate* (ozte-ra-te), *erret bide* (errege-bide), *guirissellu corr* (krisellu zor), *ilumbe corr* (ilumbe zor), *echaiaun* (etxeko jaun), *echandra* (etxeko andra), *daucari* (dauka-ri), *gaices berme* (gaitzez bere gain artu), *ones berme* (onez buru eman), *babaçorra* (baba-zorra), ta gaiñerakoak,

ERRI-OTOITZ BAT.—Iruña'ko katedralean dago Amalt Barbazan (1318-1355) gotzaiñaren lan bat, Zazpigarren kodize deitua. Kodize onen azken aldean, askoren artean idatzita, orrialde oso bat dator latiñez, erromentzez eta euskeraz, aren edo onen goraiamenez orrialde ortan zerbait ezarri nairik bezela egiña. Gaur ordea, dagoen lez, ezin dezakegu errez irakurri: naikoa ezeztu ta gain-marratua dago idatzi orren urrengo ostoaren ertza, azak jartzean jan zutelako edo, eta irakurri dezakeguna ere naikoa lerrok osatua duzu.

Ala ere otoitz bat da zati ori, aise adierazo dezakeguna gaiñera. «Erri-otoitz bat da —dio L. Mitxelena'k—, aztikerizko otoitza». Gure Aita txiki bat noski. A. Donosti'k *Egan* (1956, 2, 34-52) aldizkarian dakazkigunen antzekoa. Ona: «Pater noster txikii,/ Jesus penitentzu./ Lurrak dakar ogi,/ txotxak arduan gorrii». Eta Azkue'k Matxinbenta'n (*E. Yakintza*, IV, 7 orr.) bildiutako au: «Pater noster txikia,/ lurrak dakar ogia,/ txotxak ardo gorria, Paradisuko gloria» (Ikus L. Mitxelena, *Textos arcaicos vascos*, 58 orr.).

LOPE GARTZIA SALAZAREK LIBURUA.—L. Gartzia Salazar (1399-1476) Bizkaian, Somorrostro ibarreko Muskes udal-barrutian dagon Muñatones torre-etxeke semea gendun. Bi liburu idatzi zizkigun gizaseme jakintsu onek: 1) *Cronica de siete Casas de Vizcaya y Castilla* (1454), eta 2) *Las Bienandanzas e Fortunas* (1471-1475); 25 liburu ditun bigarren au bere zartzaroen idatzi zuen, bere semeak Muñatones etxean preso zeukala idatzi ere.

Ogetairugarren liburuan Lope Gartzia Salazar'ek edesten digu, beste gauza askoren artean, Juan Santxez Salzedo, Aiala'ko jaunak eta onen taldekoak, nola il zuten Balmasedako Juan Ortiz, Erregearen Diru-zai nagusia, dedu edo ohorezko zer batzuk zirala-ta, il ere, Iltzailleak ondoren Igesari emanik. Emetik sortu zan Bizkaia'n eta inguruetan esan au: *Ceruarrri* (zer ba-

rri?). Besteak erantzunik: *va-barria*, *galdocha coçaldia ildala valmaseda conestarra* (bada-barria, Galdotxako zaldia (k) il da (ue) la Vaiknasedako oñeztarra).

Beste antzeko esakun batzuk ere ba-dira liburu orren orria'l-deetan (*Bienandanzas e Fortunas*, Bilbao, 1955, 252 orr.),

ARNOLD VON HARFF'EN IZTEGITXOA.—Kolonía'ko zaldun au erromes ibilli zitzaigun urietan, azkenik Errotña'rakoa, Jerusalem'erakoa ta Konpostela'rakoa osoturik. 1496 ta 1499 bitartean Euskalerritik igaro zan, aurrerago Aimery Picaud legez. Joan-etorri oiek zirala-ta, liburu bat biribildu zuen. Naparru zear bildutako itz-mordotxoa euskeraz ta doitxeraz dakazki liburu ortan. Irakur batzuk: *ogea*, *arduwa* (ardo), *oyra* (ura), *aragi*, *gasta*, *gaza*, *oluwa* (olo), *huetza* (lasto), *norda* (nor da?), *schambat* (zenbat?), *hytzokosanma* (etxeko jauna), *gangon dis-sila* (Jainkoak gau on dizula), zenbakiak eta abar (L. Mitxelena, *Textos...*, 63 orr.).

EUSKAL ESAKUNAK ESKUTITZETAN.—Aspaldi bateko oitura dugu, agiri danez, egiten ditugun gutunetan, erderaz ari ta ere, euskal itzak naiz esaerak, luze ta labur, bertan sartzea. Gaur ori da gure ekandua, ta paper zaharretatik dakigunez, era berdiñean jokatu oi zuten orain bosteun urte ere. Juan Irañeta'k 1549-I-8'an Erromatik Pedro Itero Saldias'ko abatari egiñiko kartan datoz itzok: «...eta Jaincoac parcaderozola Migueli, cerringen ni emen nayzala eçuen scribatu bear berceri». Miguel Itero iruñar au, kanonista oso ospetsua zan bere egunetan.

Aita Antonio Araoz oiñatiarrak (bergararra?) ere berdin egin zuen bein baiño geiagotan. Erderazko karta (gutun) batean, onan esaten zion bein Iñaki deunari: «aunque las causas principales *eztitut scrivicen*», 1545-2-9'an Evora'tik egindakoan noski. Orobat 1545-I2-11'an Valencia'tik egin zionean ere: «paresçe muy conueniente mirar sobre resçiuir *gente verriac*».

Onelaxe, azkenez, beste textu, gutun eta esaera asko antziña bateko gizaldi ta urteak zear; eta guztiok ditugu, jakiña, gure literaturaren len-zitu ta pitxi estimagarriak. Fr. Rabelais (1495-1550) berak bere aletxo ipiñi zuen ospe aundia eman zion bere *Pantagruel eta Gargantua* liburuan.

Naparruan batez ere, Iruña'ko artxibuetan, Leire'n, Iraixe'n, /rantzu'n, eta Errioxa'n, Kalagurri'ko katedrailean, Valpuesta'ko ta San Millan'go artxibuetan alako asko aurkitzen dira. Dokumentuak eurak euskeraz egon ez arren, au da, latinez ta erromantzez dagozala ere, toki oietako lekaretxeak zeuzkaten ondasunak, lurraldeak, erriak eta jabetasunak aipatzen dituzte, ta oietariko askok, geienak ezpadira, euskai izenak daramazkite. San Millan'go bei-larruak, esate baterako, Errioxa'ko ta Araba'ko euskal izen mordoak dakar. Ona batzuk: *Zuhazu, Naffarrate, Hillarrazaha, Galharreta, Harriolha, Narbaiza, Hurizahar, Hamarita, Erretanna, Hascarzaha, Haspurua, Elhorriaga, Gordova, Elhosua*, ta abar. Lekaidetxe ospetsu ari zerbait ordaindu bearra zuten errien izenak dituzu auek eta beste asko. Emetik atera dezakegunez, izen aiuen alorrean h ereiten mutillak ziran esku-idazle aiek; baiña ez ortaz arta izan, orduko ta geroko askotxo ere gai ortan .egiazko ez-jakiñak ditugu-ta.

EUSKAL LITERATURAREN LEN-ASPERENAK.—Orrela dira, egiaz, oraiñarte aipaturiko euskal oroigarri guztiak. Bitartean, or ziran gure bertsolariak ere, beren *kopla zakarrez* erriaren go-goari alertu gabe amas-emaille. Baita or ditugu laister aitatuko diran *kanta zaharrak*, XIV ta batez ere XV'grran gizaldietan jazotako gertakari pasadizuekin egiñak. Erdi-Aroaren azkenerantz, Bizkai, Araba ta Gipuzkoako famili ta alderdi burrukalarien arteko egiñak abesten dituzten kanta oiek; poesi epikua dugu sarritan, naiz-ta guganañño bertso-zati batzuk baiño ez iritxi. Orrelakoak dira izan ere Urrexola'ko burruka kanta, Arrasate erre zutenekoa, Sanda-Uiarena, Bereterretxe'rena ta abar.

Gure *eresiak* ere aztu gabe, jakiña: Lastur'eko Milia'rena, Alos torrekoa... Eta gure errietan, oraintsurarte, gorpuaren atzean negarrez ta erostari zijoazten emakumeen antsi bioztiak.

III.—EUSKERAREN ZATIAK

EUSKALKIAK.—Izkerak, mintzoerak aldatuz doaz, izkuntz-
iariak dioenez; munduko denak joan ere, nagusiak eta txikiak,
«geldi baiña geratzeka». Dauzat'ek onela: «Mendez mende ber-
rirtatzen ari da izkera; ta berrirtuz aurreratze au berdin eta
jarraian gertatu oi da, ikusgaxi-ro» (*Philosophie du Langage*,
a. I. 53). Gregoire'k: «Izkera bizia bere bizi-unerik pitiñenean
exe, ezin daiteke aldatu barik egon» (*Petit Traite de Linguis-
tique*, 56 orr.).

Emendik bada izkerak, barruan duten bultz-gai bati jarrai-
tuz, zema bizidun bezela, aldatu egiten zaizkigu!; milla edo
bosteun urte, edo gutxiago, bear-ta ere, itzak, itz-otsak, izkiak,
adizkiak, joskera bera, lehenetik urrundu egki oi dira. Ondo-
rioz, ba, oar beste gertakari oni ere: aldakuntza oek lene-
ragotzea ezta zailla, baiña egoki ote zaigu? Izkuntzaren izateak
berak egiña ez ote degu? Ura beetik gora eramatea ez da errez.
Nola it-azo barmko sena? Ta ilda ere, nola ill orri, lengora-
tzeko, bear duen kemena sar-azi? Bizpairuren gogo ona ez
dezu aski.

Azkue'k onda: «Izkera baten aldakuntzak bitarikoak dira:
batzuk, berezkoak; besteak ezarriak, eraginak, eratsiak, gane-
ratuak. Orain mila, bi mila urteko aldakuntzak eunetatik laro-
geta amabost, berezkoak ebazan gure izkera zar onek. Gure
egunetan oartu al daikeguzanak geien-geienak gure artean da-
gozan erdaldunak eta gure buruetan irakurtez sartzen doguzan
erdalkeriak eragindakoak dix» (*Euskera*, 1921, 55 orr.).

Izatezko aldakuntz-lege ontatikoak ditugu, zati bat beintzat, gure eleak ditun izkelgiak ere: ederra da gure izkuntza, aberatsa ta joria, baiña arripitxi bikain puskatu baten antzera, zati askotan berezitua daukagu. Izkuntz arrigarritzat jotzen dute euskera gaurko izkuntzalari guztiak; euskal aditza, berboa, bat bakarra da, maixuki osatua; iztegia berriz txit joria, joriegia bear bada, ta itz berriak sortzeko griegoak eta alemanak duten aiñako erreztasuna. Baiña, arrigarria irudi arren, adar-pillo bat dugu izkelgitan.

Adar nahasi auetan era pixkat jarri nai izan zigun L. L. Bonaparte printzeak; Euskalerra osoko Euskera adarrak kidetzen eta saiilkatzen saiatu zitzaigun, eta aren kidetze ta sailkatzeari jarraitzerakoan, «Bilbo-tik Biamora ta Naparroako mugaradino-ko eskualkiak berrogei eta hamar dire bederen», diosku G. Lakonbe'k. Izelgi oietatik, ordea, «batzuk elgar dirudite», ta ogei ta bostean gelditzen dira, eta ogei ta bost eskualki txikiok berriz zortzi anditan laburtzen dira, ta zortzi auek ere iruetara gutxitzen dira azkenik.

G. Lakonbe'k darrai: «Hitz batez, gure Printzeak derragu lehenbizikorik Bizkaiko eta auzoko herri zombaiten eskuara dugula; bigarrenekorik Gipuzkoatarra, Laphurtarra eta Naparroako zati batena, hirugarrenekorik Baxe-Nabarreko eta Xuberokoa; bai eta ere lehen aldikotz kidekatze hortaz ezagutzen gintuen Erronkariko, Zaraitzuko, Aezkoako eta herri gorde batzuen eskuara ere. Eta bi mapa margodun haunditan dakusagu Bonapartek eskualkietako harat-hunatak norainokoak zauzkan... Anitz orrialdetan, bereziki *Le Verbe basque* deritzaion idazti ugarian, metaka bere eskual-gogoak zabaldu ditu» (*Euskera*, 1921, 55 orr.).

Ona, jakingarri bezela, Bonaparte'ren euskalki-laukia, zerbait ikutua.

- | | | |
|---|------------------|--|
| I | <i>Bizkaikoa</i> | 1. <i>Sortalde</i> : Markina. |
| | | 2. <i>Sartalde</i> : Gernika, Bermeo, Plentzi, Arrati, Orozko, Arrigorriaga, Otxandio. |
| | | 3. <i>Gipuzkoan</i> : Bergara, Leintza ibarra. |

- | | | |
|------|-----------------------------------|--|
| II | <i>Gipuzkera</i> | 4. <i>Iparralde</i> : Ernani, Tolosa, Azpeiti.
5. <i>Egoalde</i> : Zegama.
6. <i>Naparroan</i> : Burunda^ Etxarri - Aranatz. |
| III | <i>Goi-Napar
Iparraldekoa</i> | 7. <i>Ultzama</i> : Lizaso.
8. <i>Baztan</i> : ELLzondb.
9. <i>Bost Urieta</i> : Bera.
10. <i>Arakil</i> : Uarte-Arakil.
11. <i>Aráitz</i> : Intza.
12. <i>Gipuzkera</i> : Irun. |
| IV | <i>Lapurdikoa</i> | 13. <i>Bere-berea</i> Sara, Ainhoa, Donibane Lohitzune.
14. <i>Nahasi</i> : Arrangoitze. |
| | <i>Goi-Napar
Egoaldekoa</i> | 15. <i>Iruñaz onuntz</i> : Egues (gaur illa), Olai-
bar Artze, Erro, Auritze.
16. <i>Iltzarbe</i> : Gares (gaur illa).
17. <i>Iruñaz andik</i> : Oltza (gaur erdizka), Zi-
zur (berdin), Gulina. |
| VI | <i>Bee-Napar
Sortaldekoa</i> | 18. <i>Garatzi-Amikuze</i> : Garatzi, Amikuze, Bar-
dotze, Arboti.
19. <i>Adur alde</i> : Beskoitze, Urketa.
20. <i>Zaraitzu</i> : Zaraitzu. |
| VII | <i>Bee-Napar
Sartalkoa</i> | 21. <i>Baigorri</i> : Baigorri.
22. <i>Lapuri</i> : IJztaritze, Mendiondo.
23. <i>Aezkoa</i> : Aezkoa. |
| VIII | <i>Zuberokoa</i> | 24. <i>Bere-berea</i> : Atarratze.
25. <i>Erronkari</i> : Bidangotze, Urzainki (gaur
illa), Uztarrotz (gaur erdi euskaldun). |

Euskalkiok ez dka ain bereiz-errexak. Bonaparte'k berak oartzen digu ibar edo bailara batetik bestera ba-dala diferentzi ta aldea, toki berean sarri ain zuzen ere. Esate baterako: «Baztan ibarreko euskera —dk>— artu liteke, ezeren eragozpenik gabe, Lapurdiko irugarren euskalldtxo bat bezela». Ta orrdaxe, aditz-garaitan bereziki, Luzaide'n, Auritzperri'n, Zaraitzu'n, Etxarri-Aranatz'en eta abar. Au da: euskalkiak, bereizgarri ta

lits askotan, nahaste xamar dabiltzala esan nai du onek. A. Damaso Intza'k lan bikain bat du onetaz (*Euskera*, 1922, jorrailla-garagarria, 65 orr.).

Sakonago jo ezker, galdetu genezake: euskera bat-bakarretik irtenak ote dira euskalkiok, aik asieran izkuntza kidekoak, bai, baiña bestelakoak ote ziran? G. Lakonbe'ren gardiz, bizkaierak, adibidez, nortasun gotorra du beste izke'lgiei buruz, ta ezin dezakegu errez kabiatu lendabiziko euskera bat-bakarraren altzoan. Rene Lafon'ek, ordea, gurbilki aitortzen digu Euskalerriko sartaide-sartaldeko bizkaierak eta sortalde-mugako zuberorak ba - dutela alkarrekin zer - ikusi miki bat, aintziña bateko euskaldunon erri-batasun arrunta adieraziz bear bada. Are geiago: J. K. Baroxa'k aintziñako euskaldun errialdeak ere aipatzen dizkigu: bizkaiera noski karistiotarren izkera, gipuzkera bardulotarrena ta aspaldi bateko euskaldunak —vascones— zeritzenena izango litzake napar eta zuberotar euskalkien aurrelari.

Baiña gorago aipatu dugun izkeren aidaketa-legea gogora ba'dakargu, ez dugu u&te ain urruti jo bearrrik dugunik. Arira datorkigu emen Larramendi'k bere «Eziña egina» idaztean, jalgi zuena: «Atsegingarri degu euskera, bere izkelgien askotan ederragatik». L. Mitxelena'rentzait eliz-barrutiak ere izango zuten beren lana euskera zatitze ontan. Eliz-barrutiak, ala ere, naiz iparraidekoak naiz egoaldekoak, oso gaurkoak dira Euskalerrian edu ortako eragiña izateko.

Orixe'k, beste edozein erritako izkera baizen Mteraturarako gai dala gure euskera aitortu ondoren, euskalkiai buruz au dio: «Lau euskalki izan ditugu Ikeratairadunak: Laphurdi'koa, Xubero'koa, Gipuzkoa'koa, Bizkai'koa. Zein baino zein euskalki diren obe, galde alperra ta gorrotogarria da. Bakoitza gai da, ta aski dugu» (*Euskal Esnalea*, 1927, 152 orr.).

GURE JOKABIDEA, EUSKALKIAI BURUZ.-Eta guk ainbat euskalkiren aurrean «Or konpon!» esanik, besoak gurutzetu? Ori

litzake errezena. Baiña zerbait egin bearra dugula, argi dago: euskalkiak bat ere il gabe, euskera batu baterantza jo bear dugu.

Aurtengo (1972) «Txomin Agirre» nobela saria irabazi duen Mikel Zarate idazleak bere kezak ditu, ta oien artean, bat euskalkiai buruzkoa alegia. Sariztu dioten nobela, ots, *Haurgintza Minetan*, nola osatu duen ta zer gai duen azaldu ta gero, bizkaitar ta idaz-batasun-zale agerturik, onan mintzatzen zaigu: «Bizkaitarra naiz, bai. Eta bizkaitarra izango naiz, nahi ta nahi ez eta zorionez, M arte, Bizkaian eta bizkaierazko giroan hazi ninduelako ta hazi nintzelako. Gainera, batasun-zale izateko ere, orokorra izateko ere, bizkaitarra izan behar, nahi ta nahi ez eta zorionez, Gipuzkoara, Lapurdira..., Euskalerriko edozein lurraldetara joateko bidea (eta bizkaieraren aberastasunak edonoz ta edonora eroan ta edonori erakutsi ta irakasteko biderik Onena) bizkaiera dudalako. Ezin, bada, nik bizkaiera baztertu, plazaratu baino. Nire jokabidea hauxe da: euskera baturantz».

Zelan? Euskaldun izanik, euskera ondo ikasiaz. Nun ote? Erriaren altzoan eta liburu zaharrak irakurriz; erririk erri ioanez, eta euskaiki orotako gaiak xurgatuaz. Erriak ditu, benetakako erriak, iztegi ugaria ta joskera jator-jatorra. Euskalkietan, ordea, makiña bat bkxi ba-dauzkagu sakabanaturik; egoki zaigu euskalkiotako liburu zaharrak irakurtzea. Erddl-kutsua dariotela? Or gure trebetasuna: akatsak utzirik, bitxiak batu. Ederki zioan L. Villasante'k: «Euskeraren una ta iriña edoski ta beretu nahi duenarentzat, ezin utziak dira idazle zaharrok».

Gaur-egun, iñoizkorik gartsuen ari gara euskalkien batasun ortan; dakigunez aspaldiko guraria da, izan ere. Baiña gabil-tzan zentzunez ta ez itsu-itsuan. Il-zorian daukagu euskera, ta eri bati bezela, ez zirkin geiegi, ez estutze gogorrik, etzaio kome-ni, il egingo litzakigu-ta. Gaiñera, L. Mitxelena'k digu-tenez: «gu gara hizkuntzari makurtu behar gatzazkionak, ez izkuntza guri, gogoak ematen digunean eta gogoak ematen di-gun bezaila». Izkuntza, beti ere, gauza sakratua da.

IV.—EUSKERAREN AIDEAK

/zkuntza zientziak, XIX'garren mende azkenerantza, zapar-tada ederra eman zuen, lengo bide zaharrak utzi ta berrietatik aurrera saiatuaz. Zeintzuk ziran bide berriok? Izkuntzai iturburu billa zebiltzan jakintsuak, eta ortan alegindu-ala, laister konturatu ziran egiazko aria zala ango ta emengo Izkuntzen artean. Bi millatik gora dira, gaur ere, munduko izkuntzak.

Ekin eta ekin zer atera zuten izkuntzalariok? Ipar-aldeko erri txiki batzuk eta geuk izan ezik, Europa guztian eta Asia'ko zati aundietan itz egiten diran izkera guztiak, ama batetik sortuak dirala. Indo-europear deritzaie oeri. Izkuntza oien izaera ta edesti, ordea, errez ezagutu ditzakegu: nolako aldakuntzak izan dituzten iru edo lau milla urtez onantza; batzuk illak dira, beste batzuk garai irten dute.

Emendik agertu zitzaigun munduko izkera askok alkarrekin duten aidegoa. Izkera asko pillaka jarririk, laister nabarmendu zan beren senidetasuna, ez indo-europearra bakarrik, baita beste aunitzena ere. Guzti oien sail barruan euskera geratzen zan baztertua, arrimokor gaillendua, ugarte bat bezela, amarik gabe, izkera zurtz.

Izkuntzalariak alere gaur ez daude ortan: euskerak ba omen ditu bere aideak, senideak. Zelan atera dute ori? Azken urteotako izkuntz-jakintzaren legeak euskerari ere ezarriaz.

Lau aidekera eman ditzakegu: 1) odolekoa, berez dato-rrena; 2) zearrekoa; 3) auzo-aidetasuna, ta 4) atze-aidetza.

ODOL-AIDETASUNA. Esan dugunez, bala-bala zebillen XIX'garren gizaldian Izkuntzen aidetasuna. Izkerak sailkatu zituzten: indo-europearrak, latiñetikoak, jermendarrak, eta abar. Ortik datoz izkuntza amak —latin, esate baterako— ta izkuntza alabak —latiñetik sortuak—, eta izkuntza aizpak —gaztelera, prantsera, italera, portugaler, katalana ta beste—; ta ondorenez, Izkuntzen aidetasunaz mintzatzen asi ziran jakintsuak.

Sailkatze ortan nun daukagu gure euskera? Antonio Tovar'ek onan: «Familia aundietan ematen diran aidetasunak gogoan artu ezker, izkuntza bakarra duzu euskera, soil-soilla, aiderik gabea» (*El Euskera y sus parientes*, Madrid, 1959, 11 orr.). Euskerak ez du, beraz, gaurko izkuntzalariak diotenez, munduko izkera batekin ere *odolezko* aidetasunik.

ZEAR-AIDETASUNA. Geroztik etorki senikera utzi ta beste bide ta metodu batzuk asmatu dira; gaur odolaren artu-emanari baiño kulturaren zer-ikusiarri arreta geiago ezarten zaio. Ta bide berri oietatik jo zuten izkuntzalariak, izkuntzak gramatikari buruz aztertzen asi ziran batez ere; orrela egin ziguten Bopp'ek, Grimm'ek eta auen atzekoak.

Era ontan barruko egitura edo estrukturan, au da, gramatikari, joskeran eta Olakoetan, berdin samarrak diran izkuntzak, aideak dira, naiz-ta *zearka*; labur: urteak urte zatitu egin zan lenengo izkuntzaren izkelgiak, dialektuak. Bide ontatik ekiñik ere, euskerak ez du «anairik». Tovar'ek: «Ibar-izkera, ibero-izkuntza zakarra ere ezin dezakegu euskeraren guraso edo anai-tzat artu» (O. cit., 14 orr.).

AUZO-AIDETASUNA. Euskeraren nolabaiteko aidegora iritxi nai baldin bada, beste bide batetik abia bearra dago; metodu gaurkoagoak ba-dira, eta auen bitartez idoro genitzake bear bada euskerarentzat ere zerbait aidetza pareko danik: auzo-aidetasuna, adibidez. Euskerak, aintziñatik izan ditu inguru-mari latiñetiko izkelgiak, Espaiña'n len-gaztelera ta napar-ara-goiera ta Prantzia'n, ego-aldera, gaskoiña batez ere, ta auekin —ezin dezakegu uka— alkar-ikutzea ez-ezik, barru-barruko zer-ikusi ta artu-emana ere, bi milla urietan beintzat, izana dugu. Alboko izkuntza auekin euskera ots eta itz, artu eta eman bizi izan zitzaigun luzaroan.

Baiña, zer esan gura du onek? Euskera latiñaren izkelgi bat dala? Auxe bakar-bakarrik: millaka urteetan alkarrekin elebitsuan bizi izanik ere, artu-eman soilla izan dala izkuntza auen

artekoa; urteetan aldamenka bizi arren, *auzo-aidetasuna izan* dutela bakarrik. Zer da au? Euskerak erromantze oietatik itzak eta fonetika bereizgarriak jaso ditula; eta ordaiñetan berak ere itzak eta abots bereizgarriak, ez urri, eman dizkiela. Artutako ta emandako guztiak pixatu ezkeru, beraz, euskerak, ba liteke, artua beste emana izatea.

Gai oeri gagozkiela iritzi ematean, eme jokatu bearrean gaude. Euskeraz *pago*, *bago*, *fago* esaten duguna, latiñetik —*fagus-i*— edo griegotik —*fegos-ou*— omen datorkigu. Mundu guztiak esango du, jakintsuak aurrenen dirala, orain bi milla urte erromarrak guri esku-erakutsi bezela utzitako itza dugula. Baiña, egia ote? Errazoiketa au, bederen, egin dezakegu: Euskalerriko mendiak, gaur ere, pago tantai ederrez beterik dauzkagu. Bi milla urte baizik ez al ditu gurean laudare ponpox onek? Aurretik orduan, zer laudare ote zan Aralar'en, esate baterako? Eta, lendik ere pagoak ba'ziran gure mendi-pendizetan, euskaldunak ez ote zuten itzik pagoa adierazteko? Gerroago gaztaifia bezela, ez al zuten janari arrunta aritzaren ezkurra ta pagoaren bagatxa? Egiazki euskerak ba-ditu beste itz batzuk *ere pago* esateko: *darte* (BN), *barza ta zakarda* (R), ta besteak.

Baiña zentzunez jokatzea dagokigu, beti ere, iritzia emate-rakoan laprast egin eta erori ez gaitezen.

ATZE-AIDETASUNA. Illunpean datza izkeren sorrera. Batzuk, alere, beste batzuk baiño kultura geiago izan zuten. Joanak bere kolkoan du ixilpeko ori, baiña izkuntza batzuk aurrera egin zuten kultura itxasoan, beste batzuk gibelean gelditurik. Errialdeen ara-onako goraberaen ondorena dugu sarritan; Europa sarkaldean, urrutiago joan gabe, bertoko izkuntzak atzera egin bear izan zuten lendabizi keltarrak eta gero erromarrak aurrean erabillita; azkenik, ondo dakigu, Erroma'ko kulturak eta politikak zapaldu ta alderazi zitun keltarrak berak eta auek utzitako izkuntz-ondarrak.

Euskera dugu, zorionez, oldar oien atzapar artean jausi etzana; kelta ta latiñaren aurretiko Izkuntzen erakusgarri bakarra, Europa'ko lurralde ontan sarkaldeko indo-europear izkerak baiño lenagokoa.

Nolako kultura alako zabalera izan ornen zuten izkuntzak. Baita jazo liteke kulturazko izkuntza bik, alkarren auzo-samar ibilliak izan arren, beren artean ar-eman aundirik ez izatea, idatzirik ez zan garai aspaldiko aietan batez ere. Ta aidego au izan daiteke urrutiko izkuntzakin ere, istori-aurretik izkuntzak eta giza-taldeak alkarrekin izan zituzten artu-emanetatik sortuak noski. Gaurko kultura Izkuntzen alkarrekiko ikuskizun aria ta aintziñakoena, alere, ez dituzu berdiñak iñolaz ere. Gaur irarkola —inprenta— daukagu ta izkuntza idatzia, ta irratia ta telebixta. Lenago etzan olakorik; lenago, erriak —arat-onat zebiltzanak sarri— beren arteko zer-ikusi ta goraberak zituztelarik, bizitzen asi-berri ziran oraindio.

Oien saillekoa dugu euskera; aintziñakoa, baiña auzoekin ar-emana izan zuena. Baita aoz-aozko literatura eder baten jabe izana ere. Ta auxe aztertu ta ikasten saiatu dira euskaltzaie jakintsuak. Eta, /par-Afrika'ko bereber izkelgiak arakatu dituzte, eta semitarrenak, biokin atze-aidetasun zerbait aurkiturik; baita fino-ugriar eta paleo-siberiar izkuntzak eta Kaukaso menditsuan itz egiten diran izkelgiak ere arakatu dituzte, ta euskerak bai ornen zuen izan oiekin ere, iñoizkoren baten antza, artu-eman pixka bat: itzen batzuk eta gramatika lege batzuk aurkitzen omen dira oietan euskerazkoen antz pitiña dutenak.

Amaitzeko, Tovar'ek au: «Edesti luzeko izkuntza dugu euskera; bere aidetasuna, beraz, istori zakarra duten izkuntzak dituzten ezaugarriakin ornitua dago». Oso aintziñakoak, istori aurrekoak dira bai ezarri genitzaizkioken senideak. Beude, guenez, bi gauza argi: Lenengo: jakintsuak gaur arte, alegiñak alegin, ez diotela euskerari anairik, edo «aizparik» idoro, gaztelera ta prantsera beren artean aizpa ditugun bezelakorik beintzat.

Bigarren: euskerak izan ditula, oso antziñatik, bere artu-emanak bai auzoko erriekin, bai edesti aurrean txit urrutikoekin, kulturazko artu-emanak nunbait (Ikus A. Tovar, *El Euskera y sus parientes*, Madrid, 1959, ta L. Mitxelena, *Sobre el pasado de la Lengua Vasca*, Donostia, 1964).

V.—EUSKERA IDATZIAREN BATASUNA

Premiñazkoa ote degu? Gure izkeraren il edo bizikoa ez beldin ba'da ere, literaturan bear genuke nolabaiteko batasuna. Erri xeak, jakiña, ez digu onartuko berari eder etzaion zerik. Eta ona koxka: idazleak idazten du ta erriak, naiz xea naiz ikasia izan, irakurtzen digu; atsegín ez duenik, baiña, ez du irakurriko, ta irakurri ezik ez du ikasiko, ta ikasi ezik ez du jakingo, aitzu ta bertanbera laga baizik. Zentzunez jokatu bearra degu ontan.

Erri xeari, beraz, bere izkera ta dialektuan eskeiñi bear zaio irakurriko duena, errez ta bizi. Zer esan nai du onek? Oraíndik, urte mordo batean beintzat, erriak irakurri bear duena erritar euskeraz pentsatua, esana ta idatzia izan bear duela; iñolaz ere ez gaskoiñez, auntz-erderaz, edo-ta «koine»-z. Urrats laburragoak eman bear. Bestelan, zer gertatu zaigu azken urteotan? Muzin egin digu erriak, ez du guk idatzitakorik irakurtzen; oso zail egiten omen zaio, ulertu eziña, euskera berri ori.

Euskal literaturan maiz izan dira lendik ere olako saio-egin naiak, Bidasoz andik eta emendik. Arana-Goiri'k burutu zigun ontan lanik ederrena ta sakonena, bere garaian; gero, Euskaltzaindia sortuta laister, 1920'an, Campion, Broussain eta beste batzuk lan ederra osatu zuten, «Euskera» —1922, ilbeltza-epai-lla— aldizkarian agiri danez. Baita geroago ere Azkue, Altube,

Orixe ta besteak ortan arduratu zitzaizkigun. Oraintsu, berriz, urrats tinko bat eman bearra zegola-ta, 1969'eko urrillaren 3-4-5'an, Arantzazu'n ospatu zan billera zaratatsuan erabaki batzuk artu ziran euskera idatziaren batasuna aurrera eramateko.

Euskaltzaindiaren deiak onela: «Batasunez mintzatzeko ordua eldu da. Euskeraren etorkizunak ain bearrezkoa duen batasuna. Literario batasuna. Eta literatura batasuntzat artzen da euskera idatzia orobat». Ortarako batzorde batzuk eratu ziran; eta bazkideak, aztertu ta ondo ikasirik, eraman bear zituzten batzar nagusira, puntu auek: 1) *Batasuna Zergatik eta zertarako*; 2) *Idazkera edo ortografia*; 3) *Itzen formak*; 4) *Itz berriak* eta 5) *Itz-joko edo deklinazioa*.

Egin zan batzarra; lanak irakurri ta abar. Baiña, zoritxarez, an bildu ziran euskaltzain eta euskal idazle askoren artean etzegon oraindiñokarren batasunerako giro larregirik. Eztabaida latzak sortu ziran. Eta azkenez, labur ta laiñoki esanda, ausartenak eraman zuten ura beren boluetara. Ekaitz bat zirudien. Erabaki batzuk onartu zirala-ta, araudi apal bat atondu zan, geienak bear bada aintzat artuko zutekeena; baiña geroztik, beste ausartago batzuk, dena batera egin nairik, beste lege batzuk ere argitara zituzten. Ortik, gaur, olako anarki ikaragarri baten bizi gara, erria ez ustez artua ta idazleok nora jo ezean.

Ona Euskaltzaindiak Arantzazu'ko batzar ostean argitara emana:

«Lehenik ikusi doguna da, guztion ustez gure izkuntzearen batasuna behar-beharrezkoa dogula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin daiken gauzea, eta oraindino gutxiago batbatean egin daikena. Batasun hori, euskera idatziaren batasunaz mintzatu garean ezkerero, euskal idazle ta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dabelarik».

Auzi ontaz, baiña, luze ta sakonago itz egingo degu urrengo aleetan.

Orain bego au argi: makillaka ez degula batasunik lortuko, urtez eta zentzunez baizik; eta gizaldi onetako 65 urteotan, berez - berez goazala orren biziro billa gaziltzan euskera idaziaren batasunera.

VI.—LIBURU ONEN ARIA

Urteetan eme-min ekarri dugun liburu oni itxura ta jasa ematen asi giñanean, ez gendun asmotan egin-nai orren zabala. Baiña gerora, sarri gertatu oi danez, ariak berak ekarri digu topoz-topo ugaritasuna. Lenengotan, adibidez, bi liburu naikoa zala uste izanik, gero lanari ekiñez gai ugaria agertu zaigu. Ta euskal literaturan, euskeraz beintzat, edu onetako ezer, amas auditan, egin gabe daukagun ezkeru, jasogarri dan oro arduraz biltzea erabaki dugu. Gero ere izango beta, errezago da-ta, lan arin azaletikoagoak burutzeko.^r !

Ortaz *Euskal Literatura* onek zabal xamarra izan nai du, ase ta zeatza al danik, lenengotik asi ta gaurko zizki-mizki gutietaraiñokoa. Egitamu edo asmo bat ere ba-dugu aski zeatz jakiña: euskeraz zerbait idatzi duten guztiak aipatuko ditugu, iru mail oetan tenk egiñik batez ere: 1) idazle bakoitzaren bi-ziari buruz zerbait; 2) idatzi dituzten lanak eta auen mamia arrotu, ta 3) egille bakoitzaz zer esan duten adierazi. Labur: idazle bakoitzaren bizitza, idaz-lanak eta emandako iritziak. Onelaxe zirriborrotu dugu *Euskal Literatura* onen egitamua.

Aitortu bearra dugu au ere: egiteko ontan —jakiña da, nosld— autore, idazle batzuei leku nasaiagoa eman diegu; batzuk, izan ere, eguzki bezela ditugu euskal elerti zeruan, eta izar txiki bezela beste batzuk. Ulertzekoa duzu. Aipatu, orraitio, zeozer idatzi duten guztiak aipatuko ditugu, uste gabetarik

edo, nor edo nor bazter uzten ez ba'dugu bederen. Aspaldi gabiltza euskal klasiku guztiak liburu-sail eder batean argitara eman bear lirakelakoan; ortara jo aurretik, bear-bearrezko zan gure literatura barrutian zer geunkan jakitea. Orain ba-dakigu, beraz, gure asabak zer idatzi zuten eta zer laga ziguten.

Esku artean daukazun *Literatura* onek beste onako bost ale izango ditu. Edo obeki: lan osoaren asmua au duzu, sei aletan bananduta: 1) Euskal literaturaren asieratik —Etxepare ta Leizarraga aroa, Axular aroa, Larramendi aroa— amazortzigarren mendea barru dala, *lenengo alea*; 2) emeretzigarren mendea osorik, *bigarren alea*; 3) 1895'an asi ta 1920'rarte —Arana ta Azkue'ren belaunaldia—, *irugarren alea*; 4) 1921'tik 1940'rarte —Aitzol'en belaunaldia—, *laugarren alea*; 5) 1941'tik 1960'rarte —Zaitegi ta Orixe'ren aroa—, *bostgarren alea*, ta 6) 1961'tik gaurko egunetaraiño, *Seigarren alea*.

Amas aundiko egitamua, dakusazunez. Baiña, Jainkoa lagun, aurrera eramango duguna. Egiñik daude lenengo iru aleak, eta laister izango dituzu eskuetan. Eta zuri, euskaltzale zintzo orri, lan au biribillagoa izan dedin, bertorako laguntasun pixkat eskatu ere egingo genizkizuke: gure idazle zahar naiz berriei buruzko edozer berri pozik jasoko genuke. Millesker! Baita, era berean, eskertzen ditugu Ierro auen bidez oraiñarte lagundu gaituzten guztiak ere. Esker-ona, beti eder.

VII.—BIBLIOGRAFIA

Ona emen literatura au osotzean esku artean erabilli ditugun liburu batzuk:

- Aita Zabala: *Noticia de las Obras vascongadas* (1856).
- Francisque Miohel: *Le Pays Basque* (Paris, 1857).
- Jose Manterola: *Cancionero Vasco* (Donosti, 1877-1880).
- Allende Salazar: *Biblioteca del Bascofilo* (1887).
- Sorrairain: *Catdlogo de Obras Euskaras* (1891).

- Julien Vinson: *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (Paris, 1891) eta *Complement et Supplement* (Paris, 1898).
- Nikolas Ormaetxea: *Euskal Literaturaren atze edo edesti laburra* (Euskal Esnalea, 1927, 148 orr.).
- Pierre Lafitte: *Eskualdunen Loretegia* (Baiona, 1931) eta *Le Basque et la litterature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* (Baiona, 1941).
- Isaak Lopez-Mendizabal: *Euzko Idazti Izendegia. Catdlogo de Obras referentes al Pais Vasco* (Tolosa, 1934).
- Manuel Lekuona: *Literatura oral euskerica* (Donosti, 1935).
- Jesus Maria Leizaola: *Estudios sobre la Poesia Vasca* (Buenos Aires, 1951), *1808-1814 en la Poesia Popular Vasca* (Buenos Aires, 1965) eta *Romances vascos y Literatura prehistorica* (Buenos Aires, 1969).
- S. Onaindia: *Milla Euskal Olerki Eder* (Zarautz, 1954) eta *Gure Bertsolariak* (Bilbao, 1964).
- Juan Gorostiaga: *Antologia de Poesia Popular Vasca* (Donostia, 1955).
- Antonio Tovar: *La Lengua Vasca* (Donostia, 1954) eta *El Euskera y sus parientes* (Madrid, 1959).
- Jon Etxaide: *Amasei seme Euskalerriko* (Zarautz, 1958).
- Angel Irigarai: *Prosistas navarros* (Iruña, 1958).
- Luis Mitxelena: *Historia de la Literatura Vasca* (Madrid, 1960), *Sobre el pasado de la Lengua Vasca* (Donosti, 1964) eta *Textos Arcaicos Vascos* (Madrid, 1964).
- Luis Villasante Kortabitarte: *Historia de la Literatura Vasca* (Bilbao, 1961), «Gero» —*Despues*— (Barzelona, 1964) eta *Literatura Vasca* (Madrid, 1972).
- Antonio Zabala: «*Auspoa*» *liburutegia* (Tolosa, 1961) ta *Bosquejo de Historia del Bersolarismo* (Donosti, 1964).
- Antonio Maria Labaien: *Teatro Euskaro* (Donosti, 1964).
- N. Kortazar: *Cien Autores Vascos* (Donostia, 1966).
- Juan San Martin: *Escritores Euskericos* (Bilbao, 1968).

- Karmelo Etxenagusia: *Euskal Idazleen Lorategia* (Donostia, 1969).
- Mikel Zarate: *Bizkai'ko Euskal Idazleak* (Bilbao, 1970).
- Estomes Lasa (Auñamendi): *Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco. Literatura, I* (Donostia, 1969) eta *Literatura, II* (Donostia, 1970).
- Jon Bilbao: *Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco. Bibliografía, I* ta *II* (Donostia, 1970-1972).
- Ibon Sarasola: *Euskal Literaturaren Historia* (Donostia, 1971).
- Juan San Martin eta Serafin Basauri: *Hegatsez* (Zarautz, 1971).
- Joshe Erzibengoa - Patxi Ezkiaga: *Euskal Literatura, I* (Bilbao, 1972).

* * *

Aldizkariak: «Revista Euskara» (Iruña, 1878-1883); «Euskalerria» (Donosti, 1880-1917); «Euskalzale» (Bilbao, 1897-1899); «Ibaizabal» (Bilbao, 1902-1903); «Euzkadi» (Bilbao, 1901-1915); «RIEV» (1907-1936); «Euskalduna» (1887); «Euskal Esnalea» (1907-1931); «Euskalerrriaren Alde» (1911-1931); «Jaungoiko-Zale»; «Ekin» (1932-1936); «Euzko-Deya»; «Argia» (1920-1936); «Euskera», Euskaltzaindiaren lan eta agiriak (1919-.....); «Eusko-Folklore» (1921); «Jesus'en Boitzaren Deya» (1917-1967); «Zeruko Argia» (1919-.....); «Euzkerea» (1929-1936); «Karmengo Argia» (1931-1936); «Jakintza» (1933-1936); «Eusko-Jakintza»; «Gernika» (1945-1953); «Aranzazu» (1919-.....); «Karmel» (1949-.....); «Euzko-Gogoa» (1950-1959); «Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos»; «Prfcicipe de Viana»; «Olerti» (1959-1969); «Herria»; «Gure Herria» (Baiona, 1921); «Anaitasuna»; «Goiz-argi»; «Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del Pais»; «Otoizlari»; «Jaunaren Deia»; «Agur»...

Larrea, 1972-12-14

*AINTZINAKO AOZ-AOZKO
LITERATURAREN ZATIAK*

I

ERESI ZAHARRAK

Gure bertsokritza noiztikoa dan ez dakigun arren, ba-ge-
nitun lenago artan ere koplak ontzen zekitenak. Eta Oraingo
alde nagusiai gagozkiela, gaiztagin aiek aurrera eramaniko gau-
zarik asko —gatzeluak nola erre, «nor geiago» esaka elkar il,
eta abar— eresi zab.arretatik dalcizkigu. Gorago aipaituriko Ga-
ribai, Zaldibia, Ibarguen-Katxopin, Isasti, Lazarraga ta Saentz
Puerto'ren kondairetan aurkitzen dira, naizta zatika, olako ba-
tzuk.

Aide nagusien arteko guda-egoera naskagarri au amabiga-
rren mendea ezker, izan zan gure lurrean. Gizaldi batzuk ge-
roago, amabostgarrenean, Endika IV'garrenak, batzuk il eta bes-
te batzuk erbestera bota zitnn. Irureun urtez, ba, izu gorrian
egona dugu euskal erria, ia zergati gabe, giza-erailtz, lapurreta,
saldukeri, jauregi-erretze ta oldar-erasoz betea. Gertakari aueta-
tik asko, osorik ezta ere, bertsolariak abestu zuten; eta gero, aoz
ao, gizarte ta familetan ber-esan eta oiuzkatuaz, iraun-aziak
izan dira.

Gureganaiño irritxi diranak puska batzuk baiño ez dira; baiña poiska auek ere merezi dute, gure elerti-asikiñak bak-dira, guk jaso ta axolaz zaitzea. Euskera aldetik, berriz, kanta zahar auen izkera ez da orren atzeratua. Begira erdel literatura kon-daira ta ikusi nola zeuden garai artan gaztelera ta prantsera. Izkuntza auen iehen-marraskak bildiu zituztenean beintzat bil-tzailleak euskera zerabilten, auzoko izkuntza oiek bezin ederra noski. Gatz-ozpiña zuten orduan ere gure beritsolariak.

1.—BEOTIBAR'KO GUDU-KANTA (1321)

Kanta onek, napar eta gip'uzkoarren arteko muga burrukak dakazki gogora. 1321'an gertatu zan nunbait. Eta jazoera onek kanta batzuk sor-azi zitun, bai erromantzez bai euskeraz. Era-soan, ots, irailaren 19'an, gipuzkoarrak irten ziran garaille urrean. Garibai'k bere *Compendio* deritzan kondairan, 26'gar-ren 'liburuko 15'garren atalean dakar zatitxo bat.

Mila urte igarota
Ura bere bidean,
gipuzkoarrok sartu dira
Gaztduko etxean,
nafarrokin batu dira
Beotibar'en pelean...

Zaldibia'k *Suma de las cosas cantabricas y guipuzcoanas* (1654), Isasti'k *Compendio Historial de Guipuzcoa* (1625), Argote Molona'k *Discurso sobre la poesia castellana...* (1575) dalakoetan ere berdin dakarte. Francisque-Micherek bere *Le Pays Basque'n* (1857) eta Gerra'k aipatzen dute. Burruka on-tan katigu artjuen artean Martin Oibar zalduna dugu aurrenena. Zaldibia'k edesten digunez, naparrak miñetan oiú:

Beotibar, Beotibar,
bik diadutak
Martin de Oibar.

Poema onek ez du nolanaiko asiera, klasiku kutsuz osatua baizik.

filkus L. Mitxelena, *Textos arcaicos vascos*, 66 orr.; S. Onaindia, MEOE, 37 orr.).

2.—AKONDIA'KO GUDU KANTA

Zelai au Kalamu ta Arrate bitarteko mendi gaintxo bat duzu. Burruka tokia noski: azken gudatean ere (1937) latz jokatu zan bertan. Ibarguen-Katxopin'ek dioskunez, ementxe bildu zirañ, 1390'an, Juan Lopez Ganboa ta Durango'ko Ibarguendarrak, Untzueta'ren aurka; oiñaztarrak ziran azken auek, eCa Butron etxeko Gomez Gonzalez zaharrak ere laguntza eskeiñi zien.

Antxe, Untzuetarren jauregi gaiñean dagoen bizkarrean burrukatu ziran, etsai gorri antzera burrukatu ere. Azpiratuak izan ziran ganboarrak, eta Juan Ibarguen, beste askorekin, iila. Bizirik irten ziranak, iskillu, asto ta janari bertanbera lagarik, iges egin zuten azkarki. Ortik dator kanta zaharrean esan oi zana:

Akundia,
lexarra
lexar baga.

Ganboarrentzat lexarra, izan ere, Lope Gartzia Salazar'ek dioanez, zurik bikaiñena zan.

filkus L. Mitxelena, *Textos*, 69 orr.).

3.—URRUXOLA'KO GUDU-KANTA

Esetsaldi gordin au, J. K. Gerra'ren iritziz, 1388 ta 1401 bitartean jazo zan. Eta Larrea etxe-dorreko jaun, arabar edes-tigille Lazarraga'k, 1588'an idatzi zuen «Relación genealógica del linaje de Lazarraga» liburuan dator.

Oiñatiarren eta Leinztarren arteko burruka dugu. Mugal-deak, usak, abere-Jarrak eta bazkalekuak ziralata, sarri izan oi zituzten auek beren asarre ta istilluak. Bein Leniz ibarreko lau leiñuk eta Oiñati'ko bik, ots, Garibai'k eta Uribarri'k beren arteko gauzak zurkzea erabaki zuten. Oiñati'koak Pedro Garibai ta Joan Ibañez Elazarraga ziran; Leniz ibarrekoak, ordea, Galartza etxeakoak. Urruxola gaiñean, Oiñati ta Leniz bitartean, batu zitzaizkigun egun izentatua iritxi zanean burrukan lazkiro saiaturik. Oiñatiarrak irabazi zuten; beren buruzagi Pedro Garibai galdu zuten, orraitio; onek alere, leniztarrak garaituak izan ziralako, zaurietatik odola zerioia ere, lelo zahar au abesten omen zuen:

Gaiza zenduan lenizanok
Urruxola'ko lekaioa,
sendo zenduan odoi ori
biurtu ja(t)zu gazaioa.

flkus L. Mitxelena, *Textos*, 69 orr.).

4.—MARTIN YUANES LABIERO'REN IL-ARTITZA

Zaldun onen illobi gaiñean idazpuru au jarri zuten, iru bertsoz egiña:

Marti Yuanes, Labieruko zalduna,
Bizkaiko konsejua ta zenzuna,
nor ete zan zuri lo(t)sa igorrosi egizuna?

Foruko alkate onen eriotza indarrez gertatu zan 1393'an edo 94'an. Luze jarduna dugu onetzaz J. K. Gerra kanta-zar biltzaillea. Onek uste duenez, Endika II'garrenak 1393'an bizkaitarrai emaniko eskubideen ondorena bezela izan zan, alegia; au da, auk ere Gaztela'n bezela, beren auziak beren artean zuritu ta erabaki litzaketela, baita buru-buruzko gudaz ta iskilluz ere. Edu ontako gertakariak maiz ikusi ziran Bizkaia'n, erregearen eta aren lagunkideen kontra batez ere. Negurri orrek, bestetik, XV'garren mende barruan naikoa garbitu zitun emengo alderdien erronkak.

flkus L. Mitxelena, *Textos*, 74 orr.).

5.—MILIA LASTURKOREN ERESIA

Lastur'ko (E)miKa, Peru Gartzia'kin ezkondata, Arrasate'ra aldatu zan bizi izaten. Aur egitean il zan, gazterik. Onen Senarra andik laster, omena zanez, aurretiaz ere adiskide zuen Arrazola'ko Marina'rekin berriz ezkondu naiean zebillen. Au ez zitzaion eder MiMa zanaren aizpa bati, eta Deba'tik Arrasate'ra joanik, garai artan oitura zanez, eresi auk abestu zitun bere aizparen Illeta egun batez.

Zortzi ahapaldi lau bertsoko ditu eresiak, eta ez dira denak neurri berdiñekoak. Milia'ren aizparenak dira lenengo laurak, eta mingaiñean lausorik gabe aitortzen du aren Senarrak ez zuela ongi artu bere aizpa, ta Lastur'era eraman bearra zegoela: aitik an abere-taldea zekarren illetetarako, ta amak illobia zion atontzen. Beraz, Milia'ren gurasoak bizi ziran oraindik, ua ii zanean. Arri zakar bat eroti zan zerutik Lastur'en dorre gaiñera, goiko almenari erdia irikirik.

Peru Gartzia'ren arrebak, au da, Santxa Ortiz'ek erantzuten dio iru ahapalditan: ez omen zuen bere nebak errurik izan,

emaztea gazte il ba'zitzaion ere; zeruak erabakia zan. Gizakume sotillaren andre izan zan, ate-arte zabalaren jabe, giltz-porra askorekin. Ez al zuen aski?

Illaren aizpak jardesten dio berriz ere, beste iru koplakin. Mandatariak gaizki egin zion Milia'ri; abea erori da ortzitik, Lastur'ko dorrea jo jauna ta andrea alkarren ondotik eramanaz. Karta bat bialdu zuten zerura etxeko andreak eman zezaiotela eskatuz. Go'rrotoa artu omen dio Arrasate'ri, gaizki artu bait ditu giputz andrak. Iru aipatzen dizkigu: Maria Balda'ko, /tu-rriotz kalean; Otxanda Gabiola'ko arte kalean, eta Milla Las-tur'ko, errebaean.

(*"Ikus S. Onaindia, MEOE, 37 orr.; L. Mitxelena, Textos, 75 orr.*).

6.—GONTZALO MORO'REN KOPLAK

Bizkaiko korrejidore zan Moro Irakasle au, 1394'tik 1424 bitartean. Ogetamar urtez bete zuen endoretza ori. Berak ber-ritzu ta nasaitu zuen Gernika'ko batzar etxeko elizatzoa, eta il zanean, bertan lurra eman zioten.

Aginpidea zeukan bitartean esku gogorrekoa omen zan. Maite zitun zugatzak eta ez zitzaion bat ere gogoko aiek moztu edo puskatzea. Ona Ibarquen'ek ontaz diona: «Gontzalo Moro, dei egiten zioenean, gabaz ere berdin joan oi zan bide ta etxe[^]-etan zear, eta arrapatzen zuena aurrean zeukan zugatzetik zintzilika jartzen zuen, Ontaz agindu zuen ez zezatela osoan zugatzik moztu edo iñausi, bakoitzean bi adar utzi gabe, urkamendi ta ikurrin zeritzenak noski, gaizkilleak zigor[^]-azteko. Oitura orrek gaur arteño dirau Bizkaian».

Egiazko izu-ikara edatu zuen onek oiñaztar eta ganboarren artean ere. Orixegatik dio euskal esakun edo errefrau batek:

Gontzalo Moro, tati, tati,
gaxtoa gaxtigaetan daki.

flkus Auñamendi, *Literatura*, I, 38 orr.).

7.—BIZENTE FERRER DEUNA

Valencia'n jaioa. Dominikar praille. Inglat'erra'n, Eskozia'n, eta Irlanda'n mixiolari izan ondoren, Espaiña'xa itzuli ta Valencia'n, Granada'n, Andahizia'n, Toledo'n, Guadalajara'n Kristo'ren irakatsiak zabaltzen ibilli zitzaigun; azkenez, 1408'an, Euskalerrira ere etorri zan, aldikada batean beintzat Arrasate'n bizi izanik. Emendik, beti argi-izpi jarioka, naikoa ibilli zitzai-gun Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n. Berak sortu zuen Mikel donearen Anaidia Arrasate'ko eliz nagusian; eta gaur ere, ark orren maiz predikatu zuen pulpitura igotzen diranak, ara orduko, beeko malladi barrenean, musu ezarri bearra dute: orla egiña naiz ni ere.

Orrez gaiñ, santu ark gaiztakeria ta batez ere biraoa gogotik zigorkatzen zitulako, aren esanen goratarre bezela, euskal literaturan badira bi bertso Jainko-gizonaren aotiko itz indartsu ta ziña iraun-azten digutenak. Auek:

Prai Bizente'k esala
fedea zina lizala.

flkus Auñamendi, *Literatura*, L, 39 orr.y

8.—URRUTIA'KO ANDERIA

Zubero'n Altzuruku'ko Menanton, Urrutia jauregiko zalduna ta Ahetze'ko Domenja ezkondu ziran 1422'an; Senarra, 1435'tik 1464'ra Zubero'ko epaikari izana, susmotia ta biurria

zan oso; emaztea, ordea, etorki argikoa ta zintzo samurra. Bazituzten beren artean tika-mika ta lipiztak, berezko izakera ezberdiña zala-ta. Ortik dakat, noski, *Ahetze'ko anderia* deritzan amabost ahapaldiko olerkiak oiñarria. Ona asiera:

Ahetzeko anderia
Urrutian korpitzez;
or dizu bere buria,
kanpoan da bihotzez.

Jauregi aberatsean bizi zan; baiña maite zitun ezeukiak. Olakoeri zerbait eramaten irten oi zan etxetik, naiz-ta bere Senarrak beste susmoren bat izan. Azkenik, baiña, jakin du nola zan gauzea, ta parka eskatzen dio. Irakur azken koplá:

—Parka izadazut, arren,
bekaitz enuzu izanen:
emazte un zirela
Orái badit nik proba.

flkus S. Onaindia, MEOE, 45 or:”),

9.—PERU ABENDANO'REN A/ERIA

Frantzisko Mendieta'k bere «Quarta parte de los Anales de Vizcaya»-n dioskunez, Urkizu ta Abendafio etxe'ko ta Legutiano'ko alde nagusi zan Peru Abendaño'k, bere senitarteko guztiak alkartu zitun 1443'garren urtean Butron'go Gomez Gontzalez, Oiñaz alderdikoa'ren erronka ta gaizki-egiñai erantzuteko. Otxandio'tik zear Abadiño'ra eldu zan bere taldeakin; Aramaio'ra zuzendu ta, uri osoa suntsitu nairik, Mendiola jaunaren dorreari su ematen dio. Mendiola'k alere bidera irtetzen, eta Abendaño, oiñak bizkor, Araba aldera iges egin bearrez aur-

kitu zan, Izarraga'n gora ain zuzen ere. Bost gizon galdu zitu-
tuan; bat Gaxto Apala. Eraso-aldi ori egiñez damutu ei zan.
Gizon talde itzela zeukan atzetik, eta pendiz gogorra aintzi-
-ean. Koplak onela dio:

Izarraga'ti gora elzian joela
jaun Peru Abendañokok esala:
oñetako lur au jabilt ikara,
gorputzeko lau aragiok berala.

Oi aldi oneri al banegi enpara,
barriz enendorke Aramaioko kontrara.
Mendiola, il deustak Gasto Apala,
bere laguntzat beste asko ditubala.

Utsala zan, alere, Peru Abendaño'ren damua. Urte berean,
lengo urratsetara itzulia dugu. Butroitarrakin Larrabetzu'n era-
so-aldi ikaragarria izanda gero, Zamudio'n aurkitzen dugu Die-
go Landeta'ren etxea erretzen; Begoña'n eta Txadoarri'n gero,
baita urte bete geroago, Butroitarrak azpiratu ondoren, Gan-
guren gaiñean igeska ere. Baiña berriz agertuko zaizu oraindik
Mondragoi'ko erretean.

flkus L. Mitxelena, *Textos*, 19 orr., eta Auñamendij *Literatura*,
I, 37 orr.y

10.—ARRASATE ERRE ZUTENeko KOPLAK

Alkar-jotze gordiña izan zuten alde nagusien bi alderdiak,
ots, ganboarrak eta oiñaztarrak, 1448-6-23'an batez ere. Gan-
boarrak, Peru Velez Gebara, Oiñati'ko jauna buru zutela, sutan
jarri zuten Arrasate, oiñaztarrak, Butron'go jauna buru zutenak
barruan zeudelarik. Ganboarrak ezinbestez su eman zioten.

etsaiak andik irtengo ziralakoan. Butroiko jaunak uste zuen Bergara'rako bidetik iges egingo zuela; baiña saldua izan zan, eta an erori ziran bere seme Juanikote ta bere illoba Presebal, oiñaztarren alderdiko beste Zenbait zaldunen artean.

Oiñaztarren irten-naia, Butron'go Gomez Gontzalez'en azpiratzea ta Juaniko ta Presebal'en eriotza dira, batez ere, Ibarguen-Katxopin'ek bere kronikan ematen dizkigun eresi ta koplazatiak. Alderdi bietakoen koplak bildu zituzten, bai, Lope Gartzia Salazar'ek eta Garibai'k ere. Oiñaztar koplariak onela egozten du Gomez Gontzalez Butroikoa bazter utzirik iges joan ziranen aurka:

Gal didila Unzueta ta Bergara,
Zaldibarrek bere partea debala;
Aramaio, suak erre azala
tia sumi azala Guraiarra;
zerren euren jauna ez zenkan enpara.

Ganboarrek ere oribera kanta zituzten berenak. Naiz-ta gureganaiño pusketak bakarrik eldu, bertso argiak dira, gaztelarren pareko zortzikoetan egiñak. Ona lenengo koplak:

Gomez andia zan-arren,
an zan Presebal bere,
bai Jaunikote bere.
Madalenaan ei dau(t)za
biok, tronpeta bage.

Oitura zan orduan edu ontako koplak atefa ta errian kantari zabaltzea. Bosteko onen ostean, beste bi koplak datoz, bederatzi bertsokoa bata ta amarrekoa bestea; ta azkenez beste bi zortzi bertsoko. Koplak, dudarik bage, ikuspegi izugarria darakusate: iltze nekatu gabekoaren ondoren, Madalena auzo-

tegia gorpu illez beterik agertzen da. «Giputzak ondo ederrak ziran, koplakariak dionez, bizkaitarrak «urduri gogorrak». Lehen biola ta tronpeta jotzen zuten; orain ixilla dute lagun.

Gaur bizirik dauzkagun bertsuok zati batzuk besterik ez dira; baiña oietan ere agiri zaigu, ta ez gutxi, bertsolariaren irudimen urduria. *Itz* labur, bizi ta egokiak darabiltza, gaiak eskatzen duenari erantzunaz. Alkar izketa ere sartzen du noizik bein.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 36 orr.; L. Mitxelena, *Textos*, 81 orr.;

11.—OLASO'REN EZKONLZAKOA

Arrasate'ko alkar-zapaltze aurretxoan, oiñaztar eta ganboarrak paketsu samar zeudela, Butroiko Gomez Gontzalez'ek eta Ganboa'ko Martin Ruiz'ek, ots, Olaso etxeko jaunak, itun berezi bat osatu zuten 1443-3-13'an. Zer zan? Gomez Gontzalez'en alaba Juana Martin Ruiz'ekin ezkondu nai zuten.

Mondragoiko gertakariak alere asmo *ta* itunok porrokatu zituztela zirudien. Gomez Gontzalez, esan dugunez, an il zan, Martin Ruiz etsai zalarik burrukaldian; beraz, Gomez jaunaren emazte alargunak ez zion utzi nai bere alabari Martin'ekin ezkontzen; Juana gazteak, baiña, Olaso'ko jaunarekin ezkondu nai zuela esaten zion. Azkenez ere azpiratu zuen bere ama Elbira'ren mukertasuna, baita bere alderdikoan berezko eznaia ere.

Amaren ezetzari alabak erantzun ziona koplak zaharrak iraunazi du gizaldiz gizaldi. Damuz ez dakarkigute gogora auxe baiño:

Berba orren berba gazia,
berba orri nai ez dakiola balia;
dardoak egiñarren bere aldia,
Olaso da ene egoteko aulkia.

Alabaren gogoia ta senidarteko batzuen naia ikusirik, amak eta onen neba Juan Alonso'k amor eman zuten, eta ara bialdu zuten alaba, Unzueta'ko Lope, Bellela'ko Fortun Santxez, Zaldibar'ko jauna, Arana'ko batxillerra ta Ortarako aukerakoak ziran beste barzuekin. Guztiok, bada, irten ziran gazteari lagunduz 1450-1-15'an eta eztegua Olaso'n ospatu zan urrenge igandez, oiñaztar asko ta senargaia euren alderdikoa zalako ganboar geiago bertan ziralarik.

flkus L. Mitxelen^ *Textos*, 88 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 44 orr.").

12.—SANDAILI KANTA

Pixerto de Oñate maixuaren paper artean aurkitu ziran kanta erdikin auek, naiz-ta gerorantza sarri argitara emanak izan. Puerto'k onela dio: «Oñati'ra, Santxo Gartzia Garibai'gana jo oi zuten inguru guztiko lal^aioak, eta bein batean auek, San Adrian mendi-zintzurrean, Juan Zaar zeritzan emaniar zaldizai bati, egarri zirala-ta edaten emateko eskatu zioten; baiña zaldizaiak etzien eman nai izan, eta besteak indarrez emaniarrak aldean zeraman dirua kendu zioten. Ark, ordea, korrejidoreari aitzen eman zion, eta onek merinoa bialdu zuen Oñati'ra. Igarri zuten Santxo Gartzia'ren lakaioak nola zetozten merinoa ta onekin lagun asko, ta iges egin zuten Sanda Iliaren axpera. Baiña an geratu ziran inguratuta. Artzulo onek ateka du bestaldetik ere, ta etsaiak ez zekitela andik ematen zizkien jaten beren lagunak, Zalagarda izeneko morroi baten bitartez. Orduan egiña dugu kanta au:

Ala Zalagarda,
Zalagarda mala,
Zalagarda gaisto
oiñaztarra oendako.

Ardao zuri, ardao Madrigal'goa,
ardao zuria Mendoza'gana doa;
alabaña Sandaili gogoa,
Zalagarda Sandaili'ra doa.

Mendoza au merino nagusia zan, eta onentzat zijoan ardaoa, bidean arrapaturik, Sanda Ilia'n inguratuta zeudenai eramaten zioten. Egun batzuen buruan beintzat, eikarte osoa egon zan artzulo ura esitzen; baiña atenez, amor egin nai ez zuten ezkerero, urdai lodizko txintxortaz itxi zuten presondegiko atea, su emanik; uste zuten guren eta koipe aiekin kiskalduko zirala barrukoak, baiña ezta, toki seguruan zeuden antza. Paketan utzi zituzten azkenez.

Garai artan ondua dugu kanta au:

Sanda Illak atek ditu zizarrez,
nola zizarrez da ala zendalez...
Hermandadea arean doa negarrez,
Asno Garziak gaztelu ori emunez
ezen uin da ezitikitxa esan ez.

Laskau arroen igesetako lasterra!
Laskau arrok ostatuan onela:
«Gabaz ere urtunika obela
argi izarrok ditugula kandela;
ostatuan gera, dio, iguk emenda».

Zati maskalduak dira ta ez dugu errez esan-naiaren zentzunaz jabetzea. Asiera, alere, bertsolari zaharrak egin oi zutenez dago.

filkus L. Mitxelena, *Textos*, 92 orr. ¹).

13.—MARTIN BAÑEZ ARTAZUBIAGA'REN ERIOZ-ILLETA

Ibarretan il zuten Martin Bañez, Arrasate'tik Garagartza'ra doan bide ertzean, 1464'ko maiatzean ain zuzen. Juan Ibañez Barrutia ere an jausi zan. Ilketa au asperkunde bat izan zan: 1448'an Arrasate'n izan zan burrukaldian ganboarrak Butroi'ko Gomez Gontzalez il zutelako ziuurki. Ozaeta'ko Santxa Otxoak, aren emazte alargunak, bere ta bere seme-alaben bakartadea zala-ta, ainbat eresi osotu zitun. Garibai'k dioskunez, gaur ere ba-diraute banaka batzuk bertako jendearen oroimenean. Ona bat:

Oñetako lur au jabilt ikara,
lau aragiok berean berala.
Martin Bañez Ibarreta'n il dala...
Artuko dot esku batean gezia,
bestean zuzi iraxegia,
erreko dot Aramaio guztia.

Seiko onek argi darakusgu alargunaren sentipen oiñazegarria. Iru bertsotan bizi alatzten du Senarraren eriotza, ta beste Iruretan asper-min agiri zaigu. Asiera, ordea, itz gutxi aldatuz, Aramaio'ko kanta bezela dugu. Era ori, zalantzarik gabe, Erdi Arako euskal epikan erabillia da.

flkus Auñamendi, *Literatura*, I, 48 orr.).

14.—DOMENJON ANDIA'REN KANTA

Gipuzkoa'ko idazkari ospetsu izan zan Domenjon Andia. Agintari bizkorra, «azkar eta kementsua», J. K. Gerra'k dioenez, Gipuzkoa'ko erri-jarduna trebe ta moldakor eraman zuen

bere garaian. 1457'ko pakerako zuzemenak ederki antola zitun; baita 1474'an eta 1482'an, kalte-ordaiñak eta sal-erosketak ziralata, /nglaterra'kin osotu ziran egiune ta alkarteak ere.

Ondorengo lau onek poliki adierazten dizkigu jaurlari aren askotariko gaitasunak. Aren garaikoren batek ondua dugu.

Sagarra eder gezatea,
gerrian ere ezpatea;
Domenjon de Andia
Gipuzkoa'ko erregia.

Elkus Auñamendi, *Literatura*, I, 47 orr.).

15.—SALINAS'KO KONDEARENA

/barguen-Katxopin'en kronikan dator. Eta gaztelarrak 1471'an, bizkaitarrak emanda Mungia'n artu zuten jipoi berotze ederra dakarkigu gomutara. Haro'ko kondea zetorren gaztelar gudarien buru, ta arekin batean Salinas'ko kondea ta onen anai Luis ta Anso Belasko. Harokoa azpiratua izan zan, zeinbat gudari illak, eta Salinas'ko kondea ta Belasko katigu artuak.

Onatx liskar au gogorazten digun kanta puska bat:

Lelori lelo zara i leloa,
Bilbao'n katigu dago Salinas'goa.
Kalea bera burua bax (.) n daroa.
Zer ete dan amoradu gexoa?

Elkus Auñamendi, *Literatura*, L, 50 orr.).

16.—FERNANDO V'GARRENAREN KANTA

Ei millatik gora izan ziran Espaiña'ko errege katolikuak Toro'n, Zamora'n eta Burgos'en moltzo ta esiturik aurkitu ziranetan lagundu ziotenak; berdin gertatu zan antzeko estualdi ta gerra-erasoetan ere. 1475'garrenean jazo zan oraingo au; erregea eizara joan zan batean, andik etzala itzultzen ikusirik, gipuzkoarrak, itz-jate edo azpikeriren bat zalakoan, asaldata ta ikaraz bete ziran; alere erregeren menpeko leial izanik, aren billa urten zkan: basoan aurkitu zuten.

Jazoera auxe gogoratzen du, J. K. Gerra'k dioskunez, ondorengo kantak:

Gure errege jauna
billatu degu basoan,
goizean eizera joana.
Pozkida bete osoan
berak dituelako ikusi
batzuk il eta besteak bizi
portugesak amilka igesi.

flkus Auñamendi, *Literatura*, I, 50 orr.).

17.—JUAN LAZKANO'RENA

Gipuzkoarren buruzagi izan zan zaldun argi au, batez ere 1476'garren urtean, Prantzia'ko Luis XI'garrenak guda-gizon askorekin Ondarribi inguratuta zeukala, uri au askatzen trumilka joan ziranean. Kementsu saiatu zitzaizkigun euskaldun gudariak, eta prantsesak, inguraturik zeukaten uria utzi ta beren aberriera jo bear izan zuten ankotsean.

Jarraika daukazun kanta-zatiño onek Lazkau nagusiaren adorea goratzen du laiñoki:

Juan de Lazkano, beltzarana,
Gipuzkoa'ko kapitana,
frantsez osteak jakingo du
ura Ondarribi'n zana.

Clkus L. Mitxelena, *Textos*, 99 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 51 orr.).

18.—NAPARRU'KO KONDESTABLEAREN KANTA

Luds Beaumont, Lerin'go bigarren kondea, beaumontarren alderdiko buru ta Naparru'ko kondestable izan zitzaigun. 1493'-garrenaren azkenerantza, Juan III'garrena, Naparrua'ko erregea ta onen emazte Katalina, Iruña'n koroatzekoak zirala-ta, urirantz zetozela, Lerin'go kondeak itxi egin zizkieten uriburuko atea; eta uriz kanpo egon bearra izan zuten erregeak eta auen jarraigo osoak, arik eta alkar-izketa luze ostean, Lerin'goak sartzen utzi zien arte. Koroatzea 1494-1-10'an ospatu zan, jai ta festa aundiak egiñik.

Onakoan abestua dugu, bertsolariaren batek bear bada, urrengo koplau:

Labrit eta Errege
alta seme d'rade,
kondestable jauna
ar bizate anaie.

Irrigailu bezela daude itzok. Ortarako izan ziran izan ere, A. Alenson'ek dionez, an zeudenak eztitzeko ez, baiñan nardatu ta gaitz egin nairik esanak. Norbaitzuk diote antzerki birtarte baten toki izan zutela olako ixeka, zear-itx eta zipladak; beste norbaitzuen iritziz, antzerki osteko solasaldietan. Dana dala, etsai ziranai eztenka erauziak dira.

("Ikus Auñamendi, *Literatura*, I, 51 orr.).

19.—ALOS'KO BELTRAN'EN ERESIA

Alos-toneko nagusi Reltran'ek alaba bat izan zuen lenda-biziko ezkontzatik: Usoa zeritzan, neska lirain Zintzoa. Baiña Beltran, alargundu zanean, Azpeiti'ko Basozabal jauregiko ugazabaren alaba Otxanda'rekin ezkondu zan biganenez, eta bi alaba izan zituzten: Milla ta Ximene. Baiña etziran zoriontsuak izan, esan oi danez: ari ta ari, asarre ta tild-miki uin artean eraman zuten beren bizimodu arlotea.

Ortan gudara doa Beltran, Gaztela aldera. Otxanda'k artean aur bat izan du izorkeriz; Usoa'ri botatzen dio errua. Ondorio bezela, naste beltzak sortzen. Samiñaren samiñez iltzen da Beltran, eta Usoa'k il-gauez, bertsotarako zuen doala erakutsiz, alta illaren zerraldo aurrean, alde ta lagunak biran zitula, Otxan da'ren likiskeria ezagut-arazten du.

Beltran etzegon ilda: gertatua jakin nai zuen iliarena egiñik. Eta orduantxe, gaubelaz, argitaratu zitzaion ezkutua. E-kutxatik jaiki ta aldetik aldera ezpataz zatzatu zuen erruduna, merezi zuen ordaiña emanik.

Usoa'k garai artan abesturiko amabi ahapaldi ezberdin dakazki J. K. Gerra'k, gertatu zana ederki asko azaltzen digutenak noski. Ona gaur ere kanta oi degunaren zatitxo bat:

Alos-torrea, bai!, Alos-torrea!
Alos-torreko eskallera luzea!
Alos-torrea nenguanean
goruetan,
bela beltzak kua!, kua!
leiuetan.

Olerki bizia, ederra duzu; gau-illetan oi zanez taiutua. Badu alkar izketa ere, neurtitzari gora geiago ezarri naiez. Baita sa-

murra ere noizka, ta guztiz larria azkena; sotil sutsua bein edo berriz, euskal poema zaharrak oi diranez.

(Ikus J. B. Arakistain, *Tradiciones vasco-cdntabras*, 36 orr.; Etxaide'tar Yon, *Alos-torrea*, Zarautz, 1950; S. Onaindia, MEOE, 41 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 51 orr.).

20.—DIEGO LOPEZ HAROKOARENA

Ibarguen-Katxopin'ek bere kronikan biltzen du urrengo koplak, Diego Lopez Arokoa il zanean bizkaitarrak abestu zutena noski. Onela dio:

Jaun Diaoz Arokoa,
zaldun ahdi Espaiña'koa,
ezek ezer eziegion,
egian Jaunak ba(da)roa.

Au abestu zioten —^dio kronikeak—, ñ-agiñik zegoenak, bizkaitar kopletan kantatzen zutena zer zan jakin nai zuelako. Koplariak zeuden antza aren oge urbillean kantari, ta ez da arritzekoa iltzear zegoenaren jakin-miña. Goratzarrezko kantak zirala erantzun ziotenean, poztu egin ornen zan biziro; baita, Bizkaian oitura zanez, geiago ta geiago erostak joteko eskatu ere.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, I, 57 orr.).

21.—PERUTXO'RENA

Gaspar Gomez'ek idatzitako *Tercera parte de la tragicomedia Celestina* (Toledo, 1536) deritzan amaseigarren autoan dator kanta au. Bizkaitarra zan Perutxo, zaldi-morroia, ta onen

aotan ipiñi zuen egilleak, ugazabaren motxal bat garbitzen ari zala abestua. Urruti artan ere, jendearekin erdera mordoilloz mintzatu arren, lan bitartean euskal kantaz poztu-azi oi zuen zaldi-zai ark bere biotza. Ahapaldi bi ditu; ona lenengokoa:

Lelo lirelo, zarai leroba:
yaz zoegia nintzan,
aurten erua;
ai, joat gabiraia
astor usua.
Lelo Hrelo, zarai leroba.

Lelo onek badu piperra, gazte aren ezpaiñetan batez ere. Sentipenez gaindika dagon biotz-muiña agki zaigu ur oztña bezin garden. Txanbeliña dalako edo, askok ikutua egin diote zerbait azaldu nairik. Auek bai beintzat: J, Urkixo'k, RIEV, 1910, 470 orr.; J. M. Leizaola'k, *Estudios sobre h Poesía Vasca*, Buenos Aires, 1951; S. Onaindia, MEOE, 39 orr.; L. Mitxelena, *Textos*, 102 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 56 orr.

22.—KARLOS V TA SORABILLA'KO BI ETXEJAUN

Jazokun au I539'an gertatu zan, Iburguen-Katxopin'ek bere kronikan dioskunez, Karlos V Gipuzkoa'tik zear Flandes'era zijoalarik. Bi etxejaun sorabildar irten zitzaizkion bidera, ongi etorria ematen. Alere ez zeuden konforme zerga ta petxuak zirala-ta; origatik, bidenabar, dalako au bota omen zioten:

Kosk, Errege, kapela gorri,
atxul ona, Sorabilla'n bost etxe;
bost etxeak, bots urre.
Errege jauna, egiezu
alkabalez mertxede.

Olgetan-benetan erregeari eskatu ziotena lortu zuten beintzat. J. K. Gerra'k onela: «Abegi au eder eretxirik, erregea poztu zan eta sorabildarrai parkatu zien alkabalaen kontribuzioa. Beste gipuzkoar guztiai ez ordea, diru-premia zeukan eta; ortik zerbait bekaizkeri sortu zan eta bekaiztiak beste esaera zar au atera zuten:

Karlos kintoren baratzen
akerrak ezpata dantzan.

(Ikus J. K. Gerra, *Gure olerki zar-zarrak*, 134 orr.; L. Mitxelena, *Textos*, 106 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 59 orr.).

23—XANFARRON JAUNAREN KANTA

Kanta onek 1545'garren urteko gertakaria du oiñarri, Zaldibia'k dionez. Guganaño ez da gauza aundirik iritxi: bertso bi bakarrik, itz aldatu batzukin. Jaun prantses guztiz azkar au Ondarribi ta Irantz bitarteko izagara etorri ornen zan, buruz-buruzko gudarako zelai egoki billa: biotzean zeukan suarra adierazi nai zuen antza. Juan Perez Azkue ondarribitar kapitanak irten zion bidera, ta biak iskillu berdiñekin adoretu saiatu.ziran; ondarribitarra geiago zan nunbait, eta burua moztu zion prantsesari.

Ordukoa dugu oroigailu bezela gelditzen dan euskal koplau:

Mosieur Xanfarron, jaun andia,
/run (go) kalean datza illa.

(Ikus L. Mitxelena, *Textos*, 105 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 59 orr.).

24.—LELOREN KANTA

Zazpi bat ahapaldi ditu; aintziñakoa dirudi, baiña ez dakigu noiz ondua danik. Erromatarrak emendik ibilli zitzaizkiguneko burruka ta nasteak dakarzkigu gogotara. Galdua gendun nunbait, ainbat euskal kanta zar bezela; paper auts-ontzitu artean lo zegoen. Baiña Humboldt doixtarrak aurkitu zuen Marikiña'n, P. B. Mugartegi'ren liburutegian zeuden /barguen eta Katxopin'en paper artean, eta, 1817'an argitara ekarri zuen. Asko ditugu arrezkero lelo onetzaz jardun dutenak: Mogel, Manterola, J. Urkixo, L. Lezama-Legizamon, J. K. Gerra ta abar. Azken urteotan ere bai: J. Garate, *Boletín de la R. S. de los Amigos del País* (Donostia, 1950); J. Gorostiaga, *Epica y Lirica vizcaina antigua* (Bilbao, 1952); S. Onaindia, MEOE (Zarautz, 1954), eta Auñamendi, *Literatura*, I, (Donostia, 1969).

Euskalari batzuk, illunetatik iges egin naita agiri danez, ez diote olako gora aundirik eman gura; L. Mitxelena'k, esaterako, etzun lelo au atotsi textu zaharretan. Alere badu zar-zunda: 1529'rantza ondua degu, diotenez. Bizkaitarra zan egillea, Arrati aldekoa, ibar ortako euskeran egiña da-ta. Anton Bedia arratiar zaldunak *Tratado de las cosas de Vizcaya* idatzi zuen; Karlos V erregearen jauregikoa zan berau; onena ote dan susmoa du Lelo kanta ain ederki aztertu ta argitara ekarri zigun J. K. Gerra idazle argiak.

Entzun berari pixkat: «Menendez Pelayo jakintsuak, bere jakinduri ta guzti, kantu au, gezurrezko bezela lurperatu bear zala idatzi zuanean, aztu zan noski berberak ez zeuzkala lurperatzeko ustean Karpio'ko Bernardo eta Lara'ko Infanteen kantak, gezurrezkoak izanagatik... Nork egiztatuko dizkigu Uli-ses eta Eneas'en jazarra ta ibilkerak? Ordia iñortxok ez diete kenduko Omero'k eta Birgilio'k eman zieten bizitza illezkorra. Bere taiuan eta garri ederraren aunditasunean ez det nik berdinduko ez antzenduko Lelo'ren kanta Odisea eta Eneida'rekin;

ori ez. Gezurtasimean berdindu dezaket, ordea; eta irakurgai bi oiek ez badira latindarrentzat lurperatzekoak, ez daukagu euskaldunak zertan eta ez Zergatik lurperatu Le'lo'ren kanta» (*Gure olerki zar-zarrak*, 126 orr.).

Ez dakigu zenbat ahapaldik osatzen zuen. Iburguen'en bilduman aldatuak datoz. Gaur, nola idazten diran, zazpi edo amalau ezagutzen ditugu, oso samar. Onela dute asiera:

Lelo il Lelo, Lelo il Lelo,
Leloa, Zarak il Leloa.
Oktabiano munduko Jauna,
Lekobidi Bizkaikoa.

Lelo onek jatorriz *kanta* esan nai zuen, XHI'garren gizaldi osteko textu batzuetatik agiri danez. Ori berori dakar Perutxo'ren kantak; eta Salinas'ko kondearenak. Etxepare'k onela, *Potaren galdatzia* deritzan lanean: «Eta ielori bai lelo/, pota ñango,/ bertzia bego»; eta *Sautrelaren* bukaeran: «Etai Ielori/ ba'lelo leloa/ zarai leloa». Iñoiz, dakusgunez, abestiaren asieran artzen zan, iñoiz baita amaitzerakoan; bertso-esaldiari neurria ta jasa emateko erabiltzen zuten, bear bada. (Ikus R. M. Azkue, *Canc.* X, 1054).

Itz ori geroago nortu egin zuten, lelo Lelo biurtu noski. Gerra'ren irudimenak batez ere, nortasun berezia ezarri zion; idazle azkar onek, egia esan, ba-zuen Ortarako errazoirik, aintz kanta zar iñork ez bestean adierazi bait zitun. Eta zillegi zaio dakianari i-lhm artean ere bide egitea. Eta Gerrak diosku Txanton Bedia gizaseme azkarra zala, Karlos V'garrenak txit maitatua. «Orrek, nere ustez —dio^—, euskerara biurtu nai izan zuen Agamenon'en kondaira eta otu zitzaion esatea Lelo zala erromarren aurka gudan ari zan bitartean bere emazte Tota ladiskidetui zala Zara deitzen zan gazte batekin; onek Lelo gudatik etorri zanean il zuala Lelo, eta euskaldunak naigabeturik bota zituztela erritik kanpora arrika Tota eta Zara, eta Le-

lo'ren izenak beti-betiko iraun zezan erabaki zutela kanta guzien asieran aipatutzea bere eriotza negargarria» (*Gure olerki zar-zarrak*, 125 orr.).

Aurrenik Lelo'ren eriotza edesten du egilleak; ondoren bizkaitarrak erromarrai egindako gudan bost urtez izan zituzten goraberak azaltzen ditu. Aski zatitua egonik ere, badu bizitasuna ta maiña.

25.—BERETERRETXE'REN KANTORIA (1440)

Baxe-naparrako agramuntar eta beamuntarren arteko eskatima ta borrokak gogorazten dizkigu kanta onek. Bi etxeok, izan ere, guztiz etsai zitzaizkigun XV'garren mendean; odoHxurtze ugari egiñak. Bereterretxe agramuntarra zan, Zuberoa'ko zaldun argia. Maule'n bizi zan garai artan Luis Beamunt ere, beamuntarren buruzagi. Ezin zuen onek Bereterretxe eraman, eta Pazko gau batean, giza-taldetxo berekin zuelarik, ark Larrañe'n zeukan jauregira abiatu zan, ura bitartetik kendu naita.

Jaun kontiak, aren etxe ondora zanean, irtetzeko eskatuzion, itz egin nai ziola-ta. Baiña Bereterretxe atarira jetxi zanean, beamuntarrak ixillik zeuzkan gizon iskillotuak aren gain erori ziran ots-otsean, eriotza egiñaz. Bereterretxe'ren gorpua Maule'rako bidean agertu zan, Atarratze ondoan. Gaur ere, Etxebar'tik Ezpeldo'rakoan, bost gizaldi dirala an jarritako arri-mokor berezi bat daukagu, oroigarri bezela.

Apaindura geiegi barik, bilois ta murriz idatzita dago poema bera, ta orixegatik bear bada, gainontzeko alderdi-kantak baiño sentikorrago iruditzen zaigu. Asi-antz-iruditik azken laburrerañoko guztian gertatua ezta agertzen bere gordintasunean; eta orrek dakarkio ain zuzen odol ixurtzearen beltzari olako garrantzi apartekoa. Amabost lauko ditu, neurriari ta bukaerari gora berezirik ezarteke. Neurtitzak, baiña, bikainki osatuak daude. Onela asten da:

Haltzak eztu bi'hotzik,
ez gaztanberak ezurrik:
enian uste erraiten ziela
aitunen semek gezurrik.

Poema osoan barrena, irudimen bizia erakusten dizu bertsolariak.

(*Ikus Sallaberry, Chants populaires du Pays Basque*, 150 orr.; Jaurgain, *Tradition Basque*, 368 orr.; Azkue, *Cancionero*, 393 zenk.; J. K. Gerra, E. E., 1921, 295 orr.; A. Riezu, *Flor de Canciones populares vascas*, 262 orr.; H. Gavel, *Bereterretxen Khantoria*, Baiona, 1924; S. Onaindia, MEOE, 43 orr.; Auñamendi, *Literatura*, 1, 74 orr.").

II

BERTSOLARIAK

Gure artean, izen aundia du bertsolariak. Beste izkuntzetan ez dute onakorik, aintzat artzekorik beñik-bein. Guk auek ditugu, izan ere, erritar izkuntzaren eredurik bikaiñen, gaiak legun egosi ta nortasunik goi-luzeenean guri adierazten dizki-gutenak. Ba Kteke gizon ikasien izkera ez erabiltea, baifia bai egiazko euskera, jatorra noski, mintza-molde joria, esakun aberatsez oretua, euskaldunak berezko duen filosofi zorrotzez jantzia.

Ezta gauzak aritik ateratzea. Zenbatetan entzun diogun battersitar bertsolariari izkera miresgarrian gogaketa sakonak, batbateko jardunean, eio ta kurkuiltzen. Ikasiak ba al dira gai Ortarako? Dala ardangela baten, dala erriaren erdiko plaza baten,

edozein eratako gaiak jarrita ere, bertatik erantzungo du ark itzez ta joskeraz ederra dan euskera zirtolarian. Aren bertsoak ez dituzu arrazoi gabeak, buru gabeak, sentimentu gabeak. Baserriara, beraz, eta bertsolariengana jo izan dute euskal idazlerik giarrenak —Axular, Mogel, Prai Bartolome, Orixe ta abar— beren liburuen ardatzari eder ta atsegingarri izateko bear zuen eztigaia ezarterakoan.

EUSKO OITURA ZAKARRA.—Eusko oitura zahar bat omen dugu bertsolaria; txistu, dantza, idi-proba ta onako kirol-jolasen antzekoa. Ba liteke. Bertsolariak egiki gizarte-giroko sentimenduak eta oiturak bere-bere egin oi dizkigu ta, auekin jabetu ostean, eusko endaren aririk barrukoenak dardarazi, etengabeke bertso-saillak abestuz. Ez du musika aundirik, baiña badu doiñua ta doiñu orren ritmu ertsian abestuko du, miresgarriro; ez du jakituri aundirik ere, baiña gaiñ-gaiñeko agertzen da bere kidekoen altzoan. Eztu izenik ere, baiña, txoria oianean lez, kantari dabilkigu, bera bizi dan erriaren biotz eta amasa dalarik. Arrigarri da arrotzentzat, eta arrigarri zaigu guri ere. Baserreak ez du arbuatzen izadiak eman dion oiugai gozoa.

Euskera bezin aintziñakoa dugu oitura au. Ortxe datorkigu, beraz, gure asaben izpiritu, arima, jatortasuna. Bertsolariak egokitu digu, mendez mende, gure aozko literatura. *Gure Bertsolariak* (Bilbao, 1964) osatzean, au idatzi nuen gai ontaz: «Erri-oitura onen sorburuaz jabetzeko, kondaira aurretiko laiñotza arakatu bear da; au, ostera, agerbide ziurrez beintzat, gauza txit zailla yaku, ustezko errazoiak sailkatzea naikoa errez yakun arren. Erdi-Arotik datorkiguzan erri-kanta zarrak bertsolarien asmamenak sortuak dira, zalantzarik bage, baita gure atsoitiz eta izkirimiri bikote asko be. Gorago ikusi dogunez, emakumeak be etziran etziran muker ibilli eresi orreitan: Butroe'ko Joana'ren laukoa ezagun dogu, bardin Ozaeta'ko Santxa Otxoa'ren seikoa. Eta gerta-eresi biok XV'garren gizaldi erdi aldekoak dira.

«Orrezaz gaiñera, zerbait lenagokoak ziran aitatu dogun Gillen Urtsua (1412), zitola ta uztaidun biboliñez kantari ebi-Uena; Antxo Etxaieku naparra, laut-jotzaillea, ta Gartzia Txurri, 1428'an Aragoi'ko erregiñagandik saria artu ebana. Menendez Pidal'ek «juglares vascos» izenez aitutzen ditu irurok. Baiña bertsolarien kideko ete ziran ala bertso-kantatzaille bakarrik? Beste izkuntzetan edozelango musikagailluz lagunduta ibilli oi ziran bertso-esale; gurean izki-jartzailleari bertso-jartzaille esan oi dautsagu, baiña oneik geienetan bertsolari izaten dira, bertsoak bat-batean botaten dakienak. Iru orreik bertsolari ala bertso-kantatzaille ete ziran soilki? Iparragirre'ren antzeko, noski, gitarra zartxoia lagun, euskaldun artista» (*Gure Bertsolariak*, 203 orr.).

AOZ-AOZKO LITERATURA.—Eta bertsolarien literatura, ots, aotik aorakoa, gutziz aberatsa izan dugu, ta dugu gaur ere. Oberena aurkeratu ta liburu mardul bat eratzeraz ezker, gai ortan Europa'ko beste errien poesi ta olerkia baiña eskaxagoa danik ez liguke esango W. Webster'ek. Ala ere arrotzai au ulertzen ematea ez litzakigu gauza erreza izango. Zergatik? Zati bi ditu gure erri-olerkiak: itzak eta doiñua. Maiz ezin ditugu itzak, iñolaz ere, beste izkuntza batera aldatu, idatzita dauden jatortasun betean noski, ta ezta itzen musikea bakar-bakarrik: gogoan euki bear da erri-kanta oiek duten doiñua ere. Euskal bertso guztiak, naiz-ta auek asimasiko zertxo batzuk baiña ez izan, beren doiñua daramate. Ta bi, gaiok duten gurrilla norberarena eztan izkuntza bati jartzea, txit gaitza danik ezin dezakegu uka.

Aspalditik, aoz-ao datozten erri-neurtitzai *kopla zarrak* deritzegu. Oietakoak, metaka ditugu gizaldi bakoitzean, eta litekena da oietatik asko makur samarrak, akatsdunak izatea, baiña ederra poliki darietenak ere ez gutxi. Euskeraz, egia esan, errezto ondu litezke bertsoak, izkerak berak lagunduta; euskerak beintzat atzizkiak ba-ditu ugarixe ta itz-amai askotxo ere oso errezak azken berdiña edo rima borobiltzeko.

BERTSOLARIEN TREBETASUNA,—Baiña bertsolariak darabilzkiten neurriak —eta bakanenak idoro nairik dabilkiguz sarri— ez dira bat ere errezak. Bederatzi puntukoa, adibidez, arras zaila duzu, baiña gure bertsolarietan gutxi baizik ez dira olakoren bat onduteko trebetasunik ez dutenak. Ortan, len batez ere, gizasemeak bakarrik etziran trebe, emakumeak ere beren jasa ta etorria erakutsi oi zuten: Garibai'k aipatzen dizkigunak ola-koak ziran, eta 1890'rantza, Kanbo'ko Mari Argain eta Azparne'ko Ane Etxegoien, beti muturka zebiltzan bertsolari bi genitun.

Bertsolariataz iritzi emateko, azken baten, buruko argiak eta biotz zabalak osatzen duten nortasuna, bertsoak aletzean darabilen eten-iduriko aria, idurikizunen bizkortasuna, arat-onak urduri xamar ibillirik daglizkian bertso aldrebesak, oroimen arrigarria, doiñuaren apaiña, erriaren bertsolaritasuna, koplari eskolatuak eta eskola gabeak, beren ateraldi bitxi ta bizi-zeatasunak jakin nai ditunak, Irakur beza *Gure Bertsolariak* (Bilbao, 1964) liburua, 199'garren orriaidetik aurrera.

Bat-bateko neurtzilari trebeon esan bizi ta ateraldi zorrotzak idatzi gabe zeuden geientsuenak; beste asko paper zaharretan ere bai. Azken urteotan lan bikaiña egin digu A. Zabala'k, bai aiek bai auek, ale ederretan bildurik argitara emanaz. (Ikus *Auspoo* bertso-sailla, baita bere beste liburu *Bosquejo de Historia del Bersolarismo* (Donostia, 1964) deritzana ere.

III

ESKALE-KANTAK

Eske-lelo edo kantai buruz onela idazten du Orixe'k: «Urtearo batzuetaz ibili oi dire mutilak eske, eguberriz, Santa Age-

da'z, San Tuan'ez, San Nikolas'ez, t.a. Poesi au aspaldikoa da, Axular ta baino askoz lenagokoa, ta Erroma'ko paganoengandik ixuria aldez aldez» (*E. Esnalea*, 1927, 170 orr.).

Eskale-kantok —toberak ere, ots, ezkondu aurreko gauan «andregaiari mutilek kantatzen zizkieten kantak», ementxe sartu genitzake— oso ugariak izan ditugu Euskalerrian, eta gaur ere dira. Kalez kale ta etxez etxe ibilli oi dira umeak eta gazte elduak. Abesti oien letrea ondoz ondo datorrena da; alere, gai berdiña izan arren, erri bakoitzean ez dituzte ahapaldi berdintsuak; eta geien bat, bertso bizi egokiak dira. Ona Donibane'ri dagokion au:

Izar eder bat ateratzen da
urtean egun batean;
urtean egun batean eta
ua San Juan goizean.

Atarira irten dan etxeko andre gerri mea ikusiaz, eskaleak botatzen dio, esker-agur bezela:

Askan eder da garia
aren gaiñean txoria,
eraztuneak bildu dezake
andretxoaren gerria.

Onako asko dituzu batez ere *Eusko - Folklore* (1922, II, 47 ta abar) aldizkarian.

GABON-KANTAK.—Kanta oetatik batzuk zar-zarrak dituzu, beste batzuk ez ainbeste. M. Lekuona'k lau maillatan bildu zizkigun guztiak: 1) zaharrenak, *Gabon-agurrak* (diosalak); 2) berriagoak, *Misterio-kantak* (Marijesak Bizkaia'n eta Noelak mugaz andik); 3) artzai-kantak, *billantzikoak*, eta 4) berrien-berrienak, *gaurkoak* (Ikus, oso luze, *Gure Bertsolariak* 167 orr. ta abar liburuan).

«Gabon-jaiak Euskalerrian •—dio M. Lekuona'k—, bi izaera dituzte: kristau aurrekoa bata, eta kristau garaikoa bestea... Euskaldun jentillak —orain milla ta geiago urte— Eguzkiaren gertaera bat jaitzen eta ospatzen zuten Gabonetan, San Juan'-etan bezela-bezelaxe. Bi jai oietan bi *solsticio* gertatzen dira Eguzkiaren urteoroko ibillian. Eta antzin aietako euskaldun artzaiak ezagutzen zituzten ederkitxo Eguzkiaren urteoroko bi gertaera oiek. Eta alako garrantzi ta inportantzia ematen zieten gertakari oiei, jai aundiak egiten zizkioten Eguzkiari —Eguzki Jaunari— urtearen bi egun oietan.

«Gure Elizak —darrai—, sortu zanean —orain bi milla urte—, Eguzki-jai oiek etzituan kendu, kristautu baizik; aur batekin egin oi dana: bataiatu, kristautu. Eta Ortarako, Udarako *solsticioan* San Juan'en Jaiotza ipiñi zuan; eta Neguko *solsticioan*, Jesus'en Jaiotza» (*Zeruko Argia*, 1965, 148 zenbk.).

Antziña-antziñako jai aien zerbait dugu Olentzero ere, eta Zanpantzar, bi gizaki tripazai, naiz-ta gaur urteen buruan oso aldatuak aurkitu. Onela kantatzen zioten Olentzero'ri:

Orra! Orra!
gure Olentzero!

Pipa ortzien dula,
exerita dago.
Kapoiak ere baitu,
arrautzatxuakin,
biar berendatzeko
botil-arduakin.

Onela dugu gure Olentzero: jatuna oso, gizon arlote bat, «kosta-aldean arrantzalea; mendi-aldean, ikazkiña; eta biotan tripa-zai, jale amorratua».

ĨAUTERI KANTAK.—Mugaz andik, gaskoin-errian eta Biar-
no'n batez ere, *Zanpantzar* dute Olentzero'ren antzekoa. Izaki
parregarria berau, Ipar-aldekoa izan arren, onantza ere naikoa
zabaldua. Donosti'n eta Donosti inguruan onela kantatzen da,
edo kantatzen zan, iñauterietan, *Zanpantzar* eskea egitean:

Guazen! Guazen
gu pelegriñatzen,
Zanpantzar Jaunagana
promesa kunplitzen.

Utzi Alemaniya,
artu Donostiya;
kantari eske gatoz,
lizentziyua.

Izaki zirtzil oni, Prantzi'ko Biamo'n, *Saint Pansard* deitzen
diote; santu bat dugu, beraz, iñauterietako santua. Askok, izan
ere, sabela du jainko. Guk aintziñako norki (pertsone) bi auek
—Olentzero ta *Zanpantzar*—, len agurgarri ziranak, «jateko ta
edateko aitzaki biurtu» ditugu (Ikus M. Lekuona, *Egan*, 1956,
5-6, 9 orr.).

Begoz emen, azkenik, aipatuta maia-kantak eta Mendekoste
edo Maiatz-Pazkoko eskaleak, «emaiten dutenean onetsiz, eta
ez dutenean gaitzetsiz» abesten dituztenak ere. Eta trikitixak.
(Ikus *Gure Bertsalariak*, 193 orr.).

IV

KANTUTEGIAK

Gure literatura, besteak beste, oso aberatsa dugu erri-olerkian; landuetan azken-urteotara arte ainbat nabarmendu ez bagara ere, erriak asmatu ta aoz-ao ekarri duen orretan Inguruko edozein literatura bezain eder ta jori da gurea ere. Kanta zaharrak, auek dira gure literatura baratzeko kimurik lenengoenak, mendez mende zar-amasaz beterik gureganaiño iritxi diranak. Asko ta asko musikari esker eldu zaizkigu.

Orixe'ren iritzia eder zaigu onetan ere. Onela dio: «Poesia naiz erritarra, naiz landua, bereiz ariko dugu. Amaboskarren mendean ba-dituzu «eresiak», euskeran den literaturarik ederrnatakoak, beste gainerako poesi ta itz neurrigabe ta oro barne. Aoberokeriren bat esan ote dizut? Ez naski, adiskidea, ez-paituzu balinba ezagutzen poesi ori, ta ez da erraz, batean liburuka argitara gabe baitago, beste euskal liburu askoren gisa, puskalaka, an-emenka» (*E. Esnalea*, 1927, 152 orr.).

Gaur erritar poesi ori, asko beintzat jaso dugu, baiña beste asko erriaren ezpainenetan dabil oraindik, liburuetan edo kasetetan jaso gaberik. Ba-ditugu azken aldi onetan lan txalogarria egin dutenak, erri-poesi ori, musika ta itz, jaso ta txeraz zaintzen arduratu diranak. Ots: J. K. Gerra, R. M. Azkue, Aita Donosti, Aita Riezu ta abar, oraintsu; eta lenago: Fr.-Michel, P. Lamazou, J. D. J. Sallaberry, J. Vinson, C. Bordes, Mante-rola ta abar.

Azkue zanak, bere *Euskalerrriaren Yakintza* deritzan liburuan, laugarren alean, *erri-olerkiak* eta *aur-jolasak* dakaz bereziki. Lenago ere, bere *Euskal-kantutegian* millatik gora argitaldu zitun musika ta guzti. Beste onetan, berriz, 267 dakaz, amai-ka pillotan bananduta: 1) *aldartezkoak*, edo umore onekoak; 2)

dantzarakoak; 3) edaleenak; 4) elizarakoak; 5) eskelarienak; 6) ezteietakoak; 7) gertaridunak; 8) illetak; 9) ipuiñak; 10) oneritxizkoak; 11) seaska-ondokoak

Nikj ordea, orain 18 urte, Mz/fo *Euskal Olerti eder* osotzerakoan, sei zatitan banandu nitun kanta zahar auek: 1) *gerta olerkiak*; 2) *maite-lebak*; 3), *irri ta negar*; 4) *ardo-kantak*; 5) *jainkotiak*, eta 6) *pastoralak*

Bekizu, beintzat, irakurle, gure erri-poesia guztiz aberatsa dala. Baita balio aundikoa ere.

V

PASTORALAK

LEN-ANTZERKI SAIOAK.—Europa sarkaldean, Erdi-Aroan ain zuzen, eliz altzotik jalgi ziran lenengo antzerki kimuak; amaikagarren mendearen azkenerantza, gerkar teatruaren gisara nunbait, eliz-jarduera edo kultutik sortuak dira *pastoralak*. Prantzia'n, eta Bretaiña'n bereziki, garai artan ba-ziran olako liturji-dramak: *Adan*, *Neskatx zoroak*, *Kristoren Igarleak* eta onakoak genitun, lenengo elizako koruan bertan antzezten ziranak, eta gero elizpetan.

Amairugarren mendean Santuen Bizitzetatik ateratako *Mirariak* ere aurkezten ziran; Andra Maria'ren elezarretatik atera ta atonduak ere, ez ziran gutxi; auek, matasa laua izan arren, orduko oitura ta irakaspenez beteak dagoz. Auetariko bat, guztiz ospetsua, Jean Bodel'en *Jeu de Saint Nicolas* deitua dugu, gertirudi epikua, erlijio-gaiak eta sendi-auziak nastean dituna.

S. ONAINDIA

EUSKAL

LITERA TURA

I

XVI, XVII la XVIII mendeak

Bilbao, 1972



**ETORBIDEAN
KVLTVRA**

BEAR DIRAN BAIMENAKIN

Depósito legal: BI 2866 - 1972

«GRAFICAS BILBAO» — Gordóniz, 28 — BILBAO

SARRERA

L—GURE EUSKERA

Ederra ta aberatsa dugu euskera. Azken mendeotan izkera barrutian zerbait izan diran izkuntzalariak (filoioguak) biotz eta ago batez aitortu dute: Europa'ko sarkaldean, Auñamendi'n arre-lepo dagoen euskal erriak mintzatzen duen izkera, gure euskera, munduko izkuntzetan pitxirik bikaiñenatarikoa dala.

Intxauspe apaizak, «Le Verbe Basque» idatzi zuenak, ondo ikasi zuen euskeraren muiñean datzan edertasuna. Liburu eder orren itzaurrean onela dio: «Arrigarria da euskal izkuntza...; ta aditza da bere galdorra, bere goragarria, aditzean agertzen bait ditu bere aunditasuna ta bazter gabeko aberastasunak. Bat bakarra da, ta au da bere berezko edergarri aiundienetakoa; bere bakartasunean, ordea, ain aundia, ain emakoia, ain aberatsa, ain abarra da!, beste izkuntza guzien gañetik dago, gure basoetako aritzak beren adar aundien azpian sortzen diran landaratxoan gañetik dauden bezala».

Aurrera darrai: «Izateak dituan izkutuko guziak ostutzerij edesti edo istoriak dituan illunbeta guziak argitzen, aspaiditako oroigarri guziak izkututik ateratzen eta zeru-lurrak gizonaren argitasunari eskeintzen dioten asmagarri guzia agertzen gizonak bere egiñal guziak jartzen dituan mende onetan, jakintsuen begiak ezarri dirala euskaldun'en izkuntzagan, izkuntz ain arrigarrri, ain berezko, ain gozo ta ain ederki gordetako onetan. Oro-

garri polit eta agugarria, lenengo gizonen seaskaraño bere ja-torriz igotzen dana, eta erri ta izkuntzak nasi dituen urteak, ez bere izaneran, ezta bere itxuraz ere aldatu ez dutena. Lengo erri aundi baten oroigarri izanik, bere inguruan erri aundi ta erridiak purrukutzen ikusi dituen ©ta ekaitzaldi gogorrenari beti aurpegia eman dioten Sorkaldeko Piramide zentoi antzeko aiek bezalaxe da gure izkuntza».

ATZERRITARRAK ZER DIOTEN.—Amar bat izkuntza zekizkin J. Cejador'ek, bere «B1 Lenguaje» liburuan, onela dio: «1530'-an, Merineo Siciuo'k, 50 bat euskal itz eman zizkigun, gaur ere ikutu gabe daudenak. Gaztelera, ordea, literatura eukita ere, askotxo aldatu zaigu orduitik ona; euskera, berriz, literaturarik gabe, ezta zer aundirik aldatu'. XH'garren gizaldiko *Codex Calixtinus* deritzanean datozten itzak, orain 7 gizaldi bezela ots dagite gaur ere... Mugaz andiko euskalkiak emendikoen itz berberak eña gramatika ere berbera dauzkate. Je»ukristoren ondo» rengo IV'garren mendetik batez ere, latiña aldatuz etorri da, ta bere altzotik sortuak dira gaztelera, prantsesera, italera, ta abar. Euskera ere, gramatikazko egitura samurragoarekin eta literaturaren laguntzarik gabe, naitaez zatiitu bearra zuen urte oien eragite gogorrez; oraindik, alere, ba-dirau... Euskal aditza erraldoizko adimendun batzuk egiña dugu, bere aunditasun¹ eta eztitasunez; soiltasuna eskatzen du onek izkuntzari buruz, ta onela amil-beera dijoa euskerak ez duela itz soillik (absitrukturik) aldarrikatzen dutenen gezurkeria. Aditz au ez tute eratu, iñolaz ere, gaur-egunean ezagutzen ditugun baserritar batzuk; onek, bada, kultura mailla eskerga bat eskatzen du, ta aur-jolasa dirudite aien aurrean griego ta latiñaren asmaketa guztiak».

Magunzia'ko Ikastetxe nagusian buru izandako Hilkmán jaunak, 1953'an, onela zioan: «Euskaldunak beren euskera utziko ba'lukete, gaztelera edo prantsesez mintzatzeko, alegia, iñork eluke Europa'n ezer irabaziko. Olakorik gerta ba'ledi, Europa osoa txirotuko litzake, beste ordurik urrutienara bere ada-

rrak luzatzen diitun izkuntza galduko litzakigu-ta; onek bakarrik eskuratu lezaikegu, ba, ezkutu askoren giltza. Au gogotan izanik, izkuntzalarientzat bakarrik ez da jakingarri, baita edozein gizaseme jakitunentzat Itzal aundiko ta begiramengarri dugu».

Lefevre, Sorbona'ko Ikastetxe nagusian Irakasle zegonak, idazten zigun: «Maggiar, turkera, suomi ta abar, Europa'n sartu zitzaizkigun euroi dagozkien erriakin batera; Euskalerrria ta beronen izkuntza, berriz, Edestia baiño aurreragokoak ditugu Pirene aldean, ta ez antropologuak, ez etoologuak, ez izkuntzalaririk ezin izan dute oraindik bertan nola sartu ziranik zeaztatu. Europa'ko izkuntza guztiak, iru bat milla urte lez dirala, indo-europearren eraso ta zapaltzeaz suntsiturik geldito ziran; euskerak bakar-bakarrik eraman zuen, ondatu gabe, aien zigorraldia; onetxek bakarrik iraun zuen zutik, eta gaur ere orrela daukagu: gertakari miresgarria benetan, eta bakarra Europa'n eta mundu osoan, bear bada».

Euskera ta euskal literatura funtsez ikasi zituin J. Vinson frantses izkuntzalari jatorrak ere, onela: «Ziurra gauza bat da bakar-bakarrik: euskera dala noski izkerarik lenengoena ta Europa'ko zarrena, ta gaiñera, zerbait aldatua izan arren, bere tokian iraun duena, ta Edesti-aurfeko len-garaietatik iraun ere. Euskal itzak galduaz eta arrotz batzuk artuaz, iztegia aldatua izatea, ditekena duzu; baiña joskera, aditz-jokua ta gramatika egitura, au da, izkuntza baten muiña egin daroana, ori osozorik bere baitan du euskerak».

Huxley ingles jakitunak: «Euskera dugu jakitunen etsipena, ta ezagun ditugun izkuntzetatik ezkutuena». Du Meril'ek: «Euskerak eta kaul<asar izkuntzak ba-dituzte beren baitan antz edo analoji batzuk gramatikari buruz naiko zeatzak eta joskeran, aditzean eta izen-saillean bat lez datoztenak». Salamanka'ko ikastetxe nagusian buruzagi izan zan A. Tovar'ek: «Euskeraren iraupena dugu Filoloji-kondairaren gertakaririk arrigarri-netarikoa. Izkera zahar baten bizirik irautzea noski, mendez

mende, gizaldi askoren buruan, beste izkuntza batzuen eraso-aldiai gogor egiñik, bere nortasuna bizi-bizi zaindu duena». Eta, azkenez, Menendez-Pidal'ek: «Ba liteke munduan beste izkuntza bat ez aurkitzea, euskerak duen lako jarki-gaitasuna duenik; bere iztegian, bada, arrotz-gaien batzuk sartzen utzita ere, zintzo eusten dio bere jatortasunari».

Amas-emaille bitez guretzat erbestetarron kitzi, gogo ta egiztapenok. Izan ere, gaur-egunean gure euskera kinka larrian daukagun ezkerok, etsai biurriz —prentsa, irrati, urrutikuskin, liburu ta abar— inguratuta alegia, iñoizkorik zolien arduratu ta alegiñik gartsuenak egin bear ditugu, berau ta beronekin geure nor-izate berezia betiko galdu ez dakizkigun. Geu gara, jakintsuen aburuz, Europa'ko izkuntzarik zahar eta balioetsuenaren jabe; berau galduko balitz, Europa osoaren galpena izango 'litzateke. Beraz, etxean gurasoak, elizan apaizak, ikastola ta eskoletan umeak, alkar izketa ta billeretan. danok, kale ta baserri, ur ta lur, gazte ta zar, guztiok ikasi ta erabili bearra daukagu. Ta onezaz gaiñ, guztion onerako dan egiteko ontan lan dagienak, zein kultura-erakundeak, zein erri-agintariak, zein ikastetxeak, egiaz txalogarri ditugu.

IL—EUSKAL LORRATZAK OR-EMEN

EUSKERAREN LUZE-ZABALA.—Ertz oni buruz ez da errez iritzi egoki bat ematea. Ba-dira jakintsuak —Hurnboldt, A. Fita, Cejador, Menendez-Pidal ta beste batzuk— iber-izkuntza ta euskera batera (lez bizi izan zirala, aintziña baten, diotenak. Iber-izkuntza, ordea, Espaiña'n sortaldean eta egoaldean itzegin zan batez ere, aspaldi danik galdua. Espaiñar eremu zabalean or-emen aurkitzen diran ainbat toki-izenek olako zerbait aitzen eman nai digu. Iber-idazkunetan ba-ditugu euskal jasa duten itzak, ez gutxi.

Dana dala, lenago baten gaur baiño edadura zabalagoa eu^u kan gure izkuntzak; erromatarren denborako latin-idazkunak dituzu lekuko; gero, apurka apurka, atzera egiñaz joan zitzai-gun mugalde medar ta estuagoetara. Erromatarren aginpide garaian, gaiñera, abagune larrian aurkitu zan, ia osorik galtzeko zorian, eta galdu ez baldin ba'zitzaigun aiek beren aunditasu-netik jetxi ta lurralde auek utzi bear izan zkuztelako izan zan, dudarik gabe. Orain bi milla urte bezela euskerak izan zitun bere ondore onak eta utsak, piztu-aldiak eta porrot-orduak.

Jakintsuen artean ba-dira orairidio beste uste ta iritzi ausart bezin bitxiak: E. Lewy'k dioskunez, esaterako, euskera omen dugu Europa osoko Izkuntzen zerki edo substrato zaharrena; eta Uhlenbeck'ek dio aspaldi bateko izkuntz-azal (geruza) dala, oraindio ere bizkik dkauana. Geruza onek etzun euskera ba-karrik bere baitan arcuko, baita Europa eguerdi-aldeko beste izkera batzuk ere.

ERROMATAR IDATZ-IZENAK.—Erromarrak naiko luzaro bizi izan zitzaizkigun Akitania lurraldeetan; Akitania au Garona ibaitik Auñamendi'raiño luzatzen zan; ementxe bizi zan, jat-orritz bezela, *Ausci* (auski) gizatalde garrantzitsu bat: ortik d-torkigu, antza, *eusko* ere. Lurralde ontan aurlدتzen dira gaur ere, euskeraz idatziriko agerkairik zar eta seguruenak; jainko ta pertsonen izenak dituzu, M. Luchaire'k estalgetuak batez ere. Ortxe agertzen dka, latíñez idatzita, euskal izen ezin-nas-tuak: *andere*, *nescato*, *cison* (gizon), *sembe* (seme), ta abar; baita jainko batena ere: *aherbelste* (*arbels*, «aitz beltz» ala «aker beltz»?).

Erdi-Aroan pertsonen izenak agertzen dira agiri ta kroni-keetan, gero ta geiago ageritu ere; dokumentuetan, gaiñera, ez pertsona-izenak bakarrik, euskera poliki argitzen duten izen arruntak ere bai: Gomiz *Belatza*, 963'garrenean, *aita* 980'garre-neko agki baten, *izurra* 980'an, *ozzua* (otsoa) 981'an, *ataburu* 1007'an, *eskerra* (ezkerra) 1024'an, *moza* (moztua) 1026'an,

seitegi (saillelu) 1030'an, Eneko *Beltza* ta *laburra* 1072'an, Sanr txo *Begiederra* 1080'an, *zarra*, *zuria*, *menditxo* 1085'an, eta beste.

XGARREN MENDEAN.—Erdi-Aroan euskeraz itz-egiten zan, gaur euskal erritzat ez dauzkagun toki askotan ere: Ueska aldean, Errioxa'n eta Burgos'ko mugaldeetan, ziuurki. Amargarren menderantzekoak dituzu Errioxa'n, San Millan de la Cogolla deritzaion lekaretxean aurkitu ziran esku-idatzietan datozen euskerazko ertz-oarrak. Baita ementxe bertan dator gaztelerazko agiririk zarrena ere; «espaiñar izkeraz idatzitako lenengo testua» dio Damaso Alonso'k. Otoitz bat da. «Glosas Emilianenses» deritzanean daukagu.

Praillea —ez dakigu gazte ala zar zanik— Agustin deunaren kzaldi bat aztertzen ari zan nunbait, eta latinez ongi ulertzen ez zitun itzai ertzean jartzen zizkien oar batzuk argibide bezela: ortxe, latinezko liburu ortan daukagu itz eta esaldiak, euskeraz batzuk eta gazteleraz beste batzuk. Eta itz eta esaldi auek, ain zuzen ere, es»paignarrentzat erdail literaturaren «lensaioak) ba'dira, guretzat ere ezin ba gutxiago izan (D. Alonso, *Primavera y Flor de la Literatura Hispdnica*, I, 3 orr.). Oarrok jarri zituen prailleak erderaz ta euskeraz zekizkin *antza*, Mendendez - Pidal'ek dioskunez (*Origenes del español*, Madrid, 1950, 466 orr.).

Egal ortan datozen euskal itzak auek dituzu: «izioqui» (ixio, izio, exeki, iexeki), «guc ajutuez dugu» (aiotu, abitu). Zearo ez dakigu, baiña, itzok zer adierazi nai duten, esakun txit mo^tzak bait dira. Berzeo'k ba-darabilzki euskal itzak —^Don *Bildur*, adibidez, bere bertsoetan (Ikus J. Bautista Merino y Urrutia, *El Vascuence en el Valle de Ojacastr*o (*Rioja Alta*), Madrid, 1931).

XIGARREN MENDEAN,^—Pertsonen izenak eta tokien izenak ez-ezik, oen azalpenak eta adierazgarriak, ere, sarri-samar ager-

tzen dira amaikagarren gizaldian zear. Ona batzuk: *Izpea* (aitz-pea), Busturiko Axpe; *aker zaltua* (1074), /ruña'ko katedralako pergamino baten; *zalduburua*, *Uztai-zuar-be*, *zullitia*, *arbea*, *erretzubi*, *buruzagi*, *azeari*, ta abar.

XII^o GARREN MENDEAN.—Amabigarren gizaldian, ai^o da, 1140'an, Ainiery Picaud, Parthenay-le-Vieux'ko semea, edo zana zalakoa, Euskalerritik igaro zan erromes edo beilari zurrian. Bidekari (gufa) bat idatzi zuen ark, Prantzi'tik Konpostela'ra zijoaizenai laguntzeko; bidekari onek, naiz-ta euskaldu-netzaz gaizki itz egin, euskal iztegi txiki bat dakar, guretzat estimagarria noski, ta iztegietan zaharrena. Ona bertan dakazkin itz batzuk: *Urzia*, *Andrea Maria*, *ogui*, *ardum* (ardao), *aragui*, *sagar*, *sagardo*, *araign* (arrain), *echea*, *iaona* (jauna), *andrea*, *elicera*, *belaterra* (apaiza), *gari*, *uric* (ura), *ereguia*, *laona domne lacue*, ta abar.

IKUR-ITZAK.—^oErdi-Aroko ikur-iztiak (epigrafiak) baditu euskal izen batzuk errez adieraztekoak ez diranak.

Abadiñoko (B) arri batean, eta ba leiteke berau amaikagarren mendekoa izatea, ldazki au dator: «launinco/ne ego/iei no». *launinko* Jaungoikoaren izena dugu, Gomez-Moreno, J. A. Basanta ta A. Tovar'en iritziz; beste itz erdiak illunago. daude. Kristoren aurretiko euskaldumak, bear bada, *Inkoa*, *Inka*, *Jinko* deituko zioten, eta ondorengoak, Jauogoikoa, goietako Jauna.

NAPARRUKO EORU-LIBURUAN.—Naparruko *Foru Orokorra* deritzaion liburuan ere ainbat euskal itz eta adierazpen datoz, guztiz jakingarriak: *opil arinzada*, *on bazendu avaria* (afaria), *açaguerico* (aza-gerriko), *ozterate* (ozte-ra-te), *erret bide* (errege-bide), *guirissellu corr* (krisellu zor), *ilumbe corr* (ilumbe zor), *echaiaun* (etxeko jaun), *echandra* (etxeko andra), *daucari* (dauka-ri), *gaices berme* (gaitzez bere gain artu), *ones berme* (onez buru eman), *babaçorra* (baba-zorra), ta gaiñerakoak,

ERRI-OTOITZ BAT.—Imña'ko katedralean dago Arnalt Barbazan (1318-1355) gotzaiñaren lan bat, Zazpigarren kodize deitua. Kodize onen azken aldean, askoren artean idatzita, orrialde oso bat dator latiñez, erromentzez eta euskeraz, aren edo onen goraiamenez orrialde ortan zerbait ezarri nairik bezela egiña. Gaur ordea, dagoen lez, ezin dezakegu errez irakurri: naikoa ezeztu ta gain-marratua dago idatzi orren urrengo ostoaren ertza, azak jartzean jan zutelako edo, eta irakurri dezakeguna ere naikoa lerrok osatua duzu.

Ala ere otoitz bat da zati ori, aise adierazo dezakeguna gaiñera. «Erri-otoitz bat da —dio L. Mitxelena'k—, aztikerizko otoitza». Gure Aita txiki bat noski. A. Donosti'k *Egan* (1956, 2, 34-52) aldizkarian dakazkigunen antzekoa. Ona: «Pater noster txikii,/ Jesus penitentzu./ Lurrak dakar ogi,/ txotxak arduan gorrii». Eta Azkue'k Matxinbenta'n (*E. Yakintza*, IV, 7 orr.) bildiutako au: «Pater noster txikia,/ lurrak dakar ogia,/ txotxak ardo gorria, Paradisuko gloria» (Ikus L. Mitxelena, *Textos arcaicos vascos*, 58 orr.).

LOPE GARTZIA SALAZAREK LIBURUA.—L. Gartzia Salazar (1399-1476) Bizkaian, Somorrostro ibarreko Muskes udal-barrutian dagon Muñatones torre-etxeke semea gendun. Bi liburu idatzi zizkigun gizaseme jakintsu onek: 1) *Cronica de siete Casas de Vizcaya y Castilla* (1454), eta 2) *Las Bienandanzas e Fortunas* (1471-1475); 25 liburu ditun bigarren au bere zartzarogan idatzi zuen, bere semeak Muñatones etxean preso zeukala idatzi ere.

Ogetairugarren liburuan Lope Gartzia Salazar'ek edesten digu, beste gauza askoren artean, Juan Santxez Salzedo, Aiala'ko jaunak eta onen taldekoak, nola il zuten Balmasedako Juan Ortiz, Erregearen Diru-zai nagusia, dedu edo ohorezko zer batzuk zirala-ta, il ere, Iltzailleak ondoren Igesari emanik. Emetik sortu zan Bizkaia'n eta inguruetan esan au: *Ceruarrri* (zer ba-

rri?). Besteak erantzunik: *va-barria*, *galdocha coçaldia ildala valmaseda conestarra* (bada-barria, Galdotxako zaldia (k) il da (ue) la Vaiknasedako oñeztarra).

Beste antzeko esakun batzuk ere ba-dira liburu orren orria'l-deetan (*Bienandanzas e Fortunas*, Bilbao, 1955, 252 orr.),

ARNOLD VON HARFF'EN IZTEGITXOA.—Kolonía'ko **zaldun au** erromes ibilli zitzaigun urietan, azkenik Errotña'rakoa, Jerusalem'erakoa ta Konpostela'rakoa osoturik. 1496 ta 1499 bitartean Euskalerritik igaro zan, aurrerago Aimery Picaud legez. Joan-etorri oiek zirala-ta, liburu bat biribildu zuen. Naparru zear bildutako itz-mordotxoa euskeraz ta doitxeraz dakazki liburu ortan. Irakur batzuk: *ogea*, *arduwa* (ardo), *oyra* (ura), *aragi*, *gasta*, *gaza*, *oluwa* (olo), *huetza* (lasto), *norda* (nor da?), *schambat* (zenbat?), *hytzokosanma* (etxeko jauna), *gangon dis-sila* (Jainkoak gau on dizula), zenbakiak eta abar (L. Mitxelena, *Textos...*, 63 orr.).

EUSKAL ESAKUNAK ESKUTITZETAN.—Aspaldi **bateko oitura** dugu, agiri danez, egiten ditugun gutunetan, erderaz ari ta ere, euskal itzak naiz esaerak, luze ta labur, bertan sartzea. Gaur ori da gure ekandua, ta paper zaharretatik dakigunez, era berdiñean jokatu oi zuten orain bosteun urte ere. Juan Irañeta'k 1549-I-8'an Erromatik Pedro Itero Saldias'ko abatari egiñiko kartan datoz itzok: «...eta Jaincoac parcaerozola Migueli, cerringen ni emen nayzala eçuen scribatu bear berceri». Miguel Itero iruñar au, kanonista osp ospetsua zan bere egunetan.

Aita Antonio Araoz oiñatiarrak (bergararra?) ere berdin egin zuen bein baiño geiagotan. Erderazko karta (gutun) batean, onan esaten zion bein Iñaki deunari: «aunque las causas principales *eztitut scrivicen*», 1545-2-9'an Evora'tik egindakoan noski. Orobat 1545-I2-11'an Valencia'tik egin zionean ere: «paresçe muy conueniente mirar sobre resçiuir *gente verriac*».

Onelaxe, azkenez, beste textu, gutun eta esaera asko antziña bateko gizaldi ta urteak zear; eta guztiok ditugu, jakiña, gure literaturaren len-zitu ta pitxi estimagarriak. Fr. Rabelais (1495-1550) berak bere aletxo ipiñi zuen ospe aundia eman zion bere *Pantagruel eta Gargantua* liburuan.

Naparruan batez ere, Iruña'ko artxibuetan, Leire'n, Iraixe'n, /rantzu'n, eta Errioxa'n, Kalagurri'ko katedrailean, Valpuesta'ko ta San Millan'go artxibuetan alako asko aurkitzen dira. Dokumentuak eurak euskeraz egon ez arren, au da, latinez ta erromantzez dagozala ere, toki oietako lekaretxeak zeuzkaten ondasunak, lurraldeak, erriak eta jabetasunak aipatzen dituzte, ta oietariko askok, geienak ezpadira, euskai izenak daramazkite. San Millan'go bei-larruak, esate baterako, Errioxa'ko ta Araba'ko euskal izen mordoak dakar. Ona batzuk: *Zuhazu, Naffarrate, Hillarrazaha, Galharreta, Harriolha, Narbaiza, Hurizahar, Hamarita, Erretanna, Hascarzaha, Haspurua, Elhorriaga, Gordova, Elhosua*, ta abar. Lekaidetxe ospetsu ari zerbait ordaindu bearra zuten errien izenak dituzu auek eta beste asko. Emetik atera dezakegunez, izen aiuen alorrean h ereiten mutillak ziran esku-idazle aiek; baiña ez ortaz arta izan, orduko ta geroko askotxo ere gai ortan .egiazko ez-jakiñak ditugu-ta.

EUSKAL LITERATURAREN LEN-ASPERENAK.—Orrela dira, egiaz, oraiñarte aipaturiko euskal oroigarri guztiak. Bitartean, or ziran gure bertsolariak ere, beren *kopla zakarrez* erriaren go-goari alertu gabe amas-emaille. Baita or ditugu laister aitatuko diran *kanta zaharrak*, XIV ta batez ere XV'grran gizaldietan jazotako gertakari pasadizuekin egiñak. Erdi-Aroaren azkenerantz, Bizkai, Araba ta Gipuzkoako famili ta alderdi burrukalarien arteko egiñak abesten dituzten kanta oiek; poesi epikua dugu sarritan, naiz-ta guganañño bertso-zati batzuk baiño ez iritxi. Orrelakoak dira izan ere Urrexola'ko burruka kanta, Arrasate erre zutenekoa, Sanda-Uiarena, Bereterretxe'rena ta abar.

Gure *eresiak* ere aztu gabe, jakiña: Lastur'eko Milia'rena, Alos torrekoa... Eta gure errietan, oraintsurarte, gorpuaren atzean negarrez ta erostari zijoazten emakumeen antsi bioztiak.

III.—EUSKERAREN ZATIAK

EUSKALKIAK.—Izkerak, mintzoerak aldatuz doaz, izkuntz-
iariak dioenez; munduko denak joan ere, nagusiak eta txikiak,
«geldi baiña geratzeka». Dauzat'ek onela: «Mendez mende ber-
rirtatzen ari da izkera; ta berrirtuz aurreratze au berdin eta
jarraian gertatu oi da, ikusgaxi-ro» (*Philosophie du Langage*,
a. I. 53). Gregoire'k: «Izkera bizia bere bizi-unerik pitiñenean
exe, ezin daiteke aldatu barik egon» (*Petit Traite de Linguis-
tique*, 56 orr.).

Emendik bada izkerak, barruan duten bultz-gai bati jarrai-
tuz, zemai bizidun bezela, aldatu egiten zaizkigu¹; milla edo
bosteun urte, edo gutxiago, bear-ta ere, itzak, itz-otsak, izkiak,
adizkiak, joskera bera, lehenetik urrundu egki oi dira. Ondo-
rioz, ba, oar beste gertakari oni ere: aldakuntza oek len-
ragotzea ezta zailla, baiña egoki ote zaigu? Izkuntzaren izateak
berak egiña ez ote degu? Ura beetik gora eramatea ez da errez.
Nola it-azo barmko sena? Ta ilda ere, nola ill orri, lengora-
tzeko, bear duen kemena sar-azi? Bizpairuren gogo ona ez
dezu aski.

Azkue'k onda: «Izkera baten aldakuntzak bitarikoak dira:
batzuk, berezkoak; besteak ezarriak, eraginak, eratsiak, gane-
ratuak. Orain mila, bi mila urteko aldakuntzak eunetatik laro-
geta amabost, berezkoak ebazan gure izkera zar onek. Gure
egunetan oartu al daikeguzanak geien-geienak gure artean da-
gozan erdaldunak eta gure buruetan irakurtez sartzen doguzan
erdalkeriak eragindakoak dix» (*Euskera*, 1921, 55 orr.).

Izatezko aldakuntz-lege ontatikoak ditugu, zati bat beintzat, gure eleak ditun izkelgiak ere: ederra da gure izkuntza, aberatsa ta joria, baiña arripitxi bikain puskatu baten antzera, zati askotan berezitua daukagu. Izkuntz arrigarritzat jotzen dute euskera gaurko izkuntzalari guztiak; euskal aditza, berboa, bat bakarra da, maixuki osatua; iztegia berriz txit joria, joriegia bear bada, ta itz berriak sortzeko griegoak eta alemanak duten aiñako erreztasuna. Baiña, arrigarria irudi arren, adar-pillo bat dugu izkelgitan.

Adar nahasi auetan era pixkat jarri nai izan zigun L. L. Bonaparte printzeak; Euskalerra osoko Euskera adarrak kidetzen eta saiilkatzen saiatu zitzaigun, eta aren kidetze ta sailkatzeari jarraitzerakoan, «Bilbo-tik Biamora ta Naparroako mugaradino eskualkiak berrogei eta hamar dire bederen», diosku G. Lakonbe'k. Izelgi oietatik, ordea, «batzuk elgar dirudite», ta ogei ta bostean gelditzen dira, eta ogei ta bost eskualki txikiok berriz zortzi anditan laburtzen dira, ta zortzi auek ere iruetara gutxitzen dira azkenik.

G. Lakonbe'k darrai: «Hitz batez, gure Printzeak derragu lehenbizikorik Bizkaiko eta auzoko herri zombaiten eskuara dugula; bigarrenekorik Gipuzkoatarra, Laphurtarra eta Naparroako zati batena, hirugarrenekorik Baxe-Nabarreko eta Xuberokoa; bai eta ere lehen aldikotz kidekatze hortaz ezagutzen gintuen Erronkariko, Zaraitzuko, Aezkoako eta herri gorde batzuen eskuara ere. Eta bi mapa margodun haunditan dakusagu Bonapartek eskualkietako harat-hunatak norainokoak zauzkan... Anitz orrialdetan, bereziki *Le Verbe basque* deritzaion idazti ugarian, metaka bere eskual-gogoak zabaldu ditu» (*Euskera*, 1921, 55 orr.).

Ona, jakingarri bezela, Bonaparte'ren euskalki-laukia, zerbait ikutua.

- I *Bizkaikoa*
- i. *Sortalde*: Markina.
 2. *Sartalde*: Gernika, Bermeo, Plentzi, Arrati, Orozko, Arrigorriaga, Otxandio.
 3. *Gipuzkoan*: Bergara, Leintza ibarra.

- | | | |
|------|-----------------------------------|---|
| II | <i>Gipuzkera</i> | 4. <i>Iparralde</i> : Ernani, Tolosa, Azpeiti.
5- <i>Egoalde</i> : Zegama.
6. <i>Naparroan</i> : Burunda [^] Etxarri - Aranatz. |
| III | <i>Goi-Napar
Iparraldekoa</i> | j. <i>Ultzama</i> : Lizaso.
8. <i>Baztan</i> : ELLzondb.
9. <i>Bost Urieta</i> : Bera.
10. <i>Arakil</i> : Uarte-Arakil.
11. <i>Aráitz</i> : Intza.
12. <i>Gipuzkera</i> : Irun. |
| IV | <i>Lapurdikoa</i> | 13. <i>Bere-berea</i> Sara, Ainhoa, Donibane Lohitzune.
14. <i>Nahasi</i> : Arrangoitze. |
| | <i>Goi-Napar
Egoaldekoa</i> | 15. <i>Iruñaz onuntz</i> : Egues (gaur illa), Olai-
bar [^] Artze, Erro, Auritze.
16. <i>Iltzarbe</i> : Gares (gaur illa).
17. <i>Iruñaz andik</i> : Oltza (gaur erdizka), Zi-
zur (berdin), Gulina. |
| VI | <i>Bee-Napar
Sortaldekoa</i> | 18. <i>Garatzi-Amikuze</i> : Garatzi, Amikuze, Bar-
dotze, Arboti.
19. <i>Adur alde</i> : Beskoitze, Urketa.
20. <i>Zaraitzu</i> : Zaraitzu. |
| VII | <i>Bee-Napar
Sartalkoa</i> | 21. <i>Baigorri</i> : Baigorri.
22. <i>Lapurdi</i> : IJztaritze, Mendiondo.
23. <i>Aezkoa</i> : Aezkoa. |
| VIII | <i>Zuberokoa</i> | 24. <i>Bere-berea</i> : Atarratze.
25. <i>Erronkari</i> : Bidangotze, Urzainki (gaur
illa), Uztarrotz (gaur erdi euskaldun). |

Euskalkiok ez dka ain bereiz-errexak. Bonaparte'k berak oartzen digu ibar edo bailara batetik bestera ba-dala diferentzi ta aldea, toki berean sarri ain zuzen ere. Esate baterako: «Baztan ibarreko euskera —dk>— artu liteke, ezeren eragozpenik gabe, Lapurdiko irugarren euskalldtxo bat bezela». Ta orrdaxe, aditz-garaitan bereziki, Luzaide'n, Auritzperri'n, Zaraitzu'n, Etxarri-Aranatz'en eta abar. Au da: euskalkiak, bereizgarri ta

lits askotan, nahaste xamar dabiltzala esan nai du onek. A. Damaso Intza'k lan bikain bat du onetaz (*Euskera*, 1922, jorrailla-garagarriia, 65 orr.).

Sakonago jo ezkeru, galdetu genezake: euskera bat-bakarretik irtenak ote dira euskalkiok, aik asieran izkuntza kidekoak, bai, baiña bestelakoak ote ziran? G. Lakonbe'ren gardiz, bizkaierak, adibidez, nortasun gotorra du beste izke'lgiei buruz, ta ezin dezakegu errez kabiatu lendabiziko euskera bat-bakarraren altzoan. Rene Lafon'ek, ordea, gurbilki aitortzen digu Euskalerriko sartaide-sartaldeko bizkaierak eta sortalde-mugako zuberorak ba - dutela alkarrekin zer - ikusi miki bat, aintziña bateko euskaldunon erri-batasun arrunta adieraziz bear bada. Are geiago: J. K. Baroxa'k aintziñako euskaldun errialdeak ere aipatzen dizkigu: bizkaiera noski karistiotarren izkera, gipuzkera bardulotarrena ta aspaldi bateko euskaldunak —vascones— zeritzenena izango litzake napar eta zuberotar euskalkien aurrelari.

Baiña gorago aipatu dugun izkeren aidaketa-legea gogora ba'dakargu, ez dugu u&te ain urruti jo bearrrik dugunik. Arira datorkigu emen Larramendi'k bere «Eziña egina» idaztean, jalgi zuena: «Atsegingarri degu euskera, bere izkelgien askotan ederragatik». L. Mitxelena'rentzait eliz-barrutiak ere izango zuten beren lana euskera zatitze ontan. Eliz-barrutiak, ala ere, naiz iparraidekoak naiz egoaldekoak, oso gaurkoak dira Euskalerrian edu ortako eragiña izateko.

Orixe'k, beste edozein erritako izkera baizen Mteraturarako gai dala gure euskera aitortu ondoren, euska;lkiai buruz au dio: «Lau euskalki izan ditugu Ikeratairadunak: Laphurdi'koa, Xubero'koa, Gipuzkoa'koa, Bizkai'koa. Zein baino zein euskalki diren obe, galde alperra ta gorrotogarria da. Bakoitza gai da, ta aski dugu» (*Euskal Esnalea*, 1927, 152 orr.).

GURE JOKABIDEA, EUSKALKIAI BURUZ.-Eta guk ainbat euskalkiren aurrean «Or konpon!» esanik, besoak gurutzetu? Ori

litzake errezena. Baiña zerbait egin bearra dugula, argi dago: euskalkiak bat ere il gabe, euskera batu baterantza jo bear dugu.

Aurtengo (1972) «Txomin Agirre» nobela saria irabazi duen Mikel Zarate idazleak bere kezka ditu, ta oien artean, bat euskalkiai buruzkoa alegia. Sariztu dioten nobela, ots, *Haurgintza Minetan*, nola osatu duen ta zer gai duen azaldu ta gero, bizkaitar ta idaz-batasun-zale agerturik, onan mintzatzen zaigu: «Bizkaitarra naiz, bai. Eta bizkaitarra izango naiz, nahi ta nahi ez eta zorionez, M arte, Bizkaian eta bizkaierazko giroan hazi ninduelako ta hazi nintzelako. Gainera, batasun-zale izateko ere, orokorra izateko ere, bizkaitarra izan behar, nahi ta nahi ez eta zorionez, Gipuzkoara, Lapurdira..., Euskalerriko edozein lurraldetara joateko bidea (eta bizkaieraren aberastasunak edonoz ta edonora eroan ta edonori erakutsi ta irakasteko biderik Onena) bizkaiera dudalako. Ezin, bada, nik bizkaiera baztertu, plazaratu baino. Nire jokabidea hauxe da: euskera baturantz».

Zelan? Euskaldun izanik, euskera ondo ikasiaz. Nun ote? Erriaren altzoan eta liburu zaharrak irakurriz; erririk erri ioanez, eta euskaiki orotako gaiak xurgatuaz. Erriak ditu, benetakako erriak, iztegi ugaria ta joskera jator-jatorra. Euskalkietan, ordea, makiña bat bkxi ba-dauzkagu sakabanaturik; egoki zaigu euskalkiotako liburu zaharrak irakurtzea. Erddl-kutsua dariotela? Or gure trebetasuna: akatsak utzirik, bitxiak batu. Ederki zioan L. Villasante'k: «Euskeraren una ta iriña edoski ta beretu nahi duenarentzat, ezin utziak dira idazle zaharrok».

Gaur-egun, iñoizkorik gartsuen ari gara euskalkien batasun ortan; dakigunez aspaldiko guraria da, izan ere. Baiña gabil-tzan zentzunez ta ez itsu-itsuan. Il-zorian daukagu euskera, ta eri bati bezela, ez zirkin geiegi, ez estutze gogorrik, etzaio kome-ni, il egingo litzakigu-ta. Gaiñera, L. Mitxelena'k digu-tenez: «gu gara hizkuntzari makurtu behar gatzazkionak, ez izkuntza guri, gogoak ematen digunean eta gogoak ematen di-gun bezaila». Izkuntza, beti ere, gauza sakratua da.

IV.—EUSKERAREN AIDEAK

/zkuntza zientziak, XIX'garren mende azkenerantza, zapar-tada ederra eman zuen, lengo bide zaharrak utzi ta berrietatik aurrera saiatuaz. Zeintzuk ziran bide berriok? Izkuntzai iturburu billa zebiltzan jakintsuak, eta ortan alegindu-ala, laister konturatu ziran egiazko aria zala ango ta emengo Izkuntzen artean. Bi millatik gora dira, gaur ere, munduko izkuntzak.

Ekin eta ekin zer atera zuten izkuntzalariok? Ipar-aldeko erri txiki batzuk eta geuk izan ezik, Europa guztian eta Asia'ko zati aundietan itz egiten diran izkera guztiak, ama batetik sortuak dirala. Indo-europear deritzaie oeri. Izkuntza oien izaera ta edesti, ordea, errez ezagutu ditzakegu: nolako aldakuntzak izan dituzten iru edo lau milla urtez onantza; batzuk illak dira, beste batzuk garai irten dute.

Emendik agertu zitzaigun munduko izkera askok alkarrekin duten aidegoa. Izkera asko pillaka jarririk, laister nabarmendu zan beren senidetasuna, ez indo-europearrena bakarrik, baita beste aunitzena ere. Guzti oien sail barruan euskera geratzen zan baztertua, arrimokor gaillendua, ugarte bat bezela, amarik gabe, izkera zurtz.

Izkuntzalariak alere gaur ez daude ortan: euskerak ba omen ditu bere aideak, senideak. Zelan atera dute ori? Azken urteotako izkuntz-jakintzaren legeak euskerari ere ezarriaz.

Lau aidekera eman ditzakegu: 1) odolekoa, berez dato-rrena; 2) zearrekoa; 3) auzo-aidetasuna, ta 4) atze-aidetza.

ODOL-AIDETASUNA. Esan dugunez, bala-bala zebillen XIX'garren gizaldian Izkuntzen aidetasuna. Izkerak sailkatu zituzten: indo-europearrak, latiñetikoak, jermendarrak, eta abar. Ortik datoz izkuntza amak —latin, esate baterako— ta izkuntza alabak —latiñetik sortuak—, eta izkuntza aizpak —gaztelera, prantsera, italera, portugaler, katalana ta beste—; ta ondorenez, Izkuntzen aidetasunaz mintzatzen asi ziran jakintsuak.

Sailkatze ortan nun daukagu gure euskera? Antonio Tovar'ek onan: «Familia aundietan ematen diran aidetasunak gogoan artu ezker, izkuntza bakarra duzu euskera, soil-soilla, aiderik gabea» (*El Euskera y sus parientes*, Madrid, 1959, 11 orr.). Euskerak ez du, beraz, gaurko izkuntzalariak diotenez, munduko izkera batekin ere *odolezko* aidetasunik.

ZEAR-AIDETASUNA. Geroztik etorki senikera utzi ta beste bide ta metodu batzuk asmatu dira; gaur odolaren artu-emanari baiño kulturaren zer-ikusari arreta geiago ezarten zaio. Ta bide berri oietatik jo zuten izkuntzalariak, izkuntzak gramatikari buruz aztertzen asi ziran batez ere; orrela egin ziguten Bopp'ek, Grimm'ek eta auen atzekoak.

Era ontan barruko egitura edo estrukturan, au da, gramatikian, joskeran eta Olakoetan, berdin samarrak diran izkuntzak, aideak dira, naiz-ta *zearka*; labur: urteak urte zatitu egin zan lenengo izkuntzaren izkelgiak, dialektuak. Bide ontatik ekiñik ere, euskerak ez du «anairik». Tovar'ek: «Ibar-izkera, ibero-izkuntza zakarra ere ezin dezakegu euskeraren guraso edo anai-tzat artu» (O. cit., 14 orr.).

AUZO-AIDETASUNA. Euskeraren nolabaiteko aidegora iritxi nai baldin bada, beste bide batetik abia bearra dago; metodu gaurkoagoak ba-dira, eta auen bitartez idoro genitzake bear bada euskerarentzat ere zerbait aidetza pareko danik: auzo-aidetasuna, adibidez. Euskerak, aintziñatik izan ditu inguru-mari latiñetiko izkelgiak, Espaiña'n len-gaztelera ta napar-ara-goiera ta Prantzia'n, ego-aldera, gaskoiña batez ere, ta auekin —ezin dezakegu uka— alkar-ikutzea ez-ezik, barru-barruko zer-ikusi ta artu-emana ere, bi milla urietan beintzat, izana dugu. Alboko izkuntza auekin euskera ots eta itz, artu eta eman bizi izan zitzaigun luzaroan.

Baiña, zer esan gura du onek? Euskera latiñaren izkelgi bat dala? Auxe bakar-bakarrik: millaka urteetan alkarrekin elebitsuan bizi izanik ere, artu-eman soilla izan dala izkuntza auen

artekoa; urteetan aldamenka bizi arren, *auzo-aidetasuna izan* dutela bakarrik. Zer da au? Euskerak erromantze oietatik itzak eta fonetika bereizgarriak jaso ditula; eta ordaiñetan berak ere itzak eta abots bereizgarriak, ez urri, eman dizkiela. Artutako ta emandako guztiak pixatu ezkeru, beraz, euskerak, ba liteke, artua beste emana izatea.

Gai oeri gagozkiela iritzi ematean, eme jokatu bearrean gaude. Euskeraz *pago*, *bago*, *fago* esaten duguna, latiñetik —*fagus-i*— edo griegotik —*fegos-ou*— omen datorkigu. Mundu guztiak esango du, jakintsuak aurrenen dirala, orain bi milla urte erromarrak guri esku-erakutsi bezela utzitako itza dugula. Baiña, egia ote? Errazoiketa au, bederen, egin dezakegu: Euskalerriko mendiak, gaur ere, pago tantai ederrez beterik dauzkagu. Bi milla urte baizik ez al ditu gurean laudare ponpox onek? Aurretik orduan, zer laudare ote zan Aralar'en, esate baterako? Eta, lendik ere pagoak ba'ziran gure mendi-pendizetan, euskaldunak ez ote zuten itzik pagoa adierazteko? Gerrogo gaztaifia bezela, ez al zuten janari arrunta aritzaren ezkurra ta pagoaren bagatxa? Egiazki euskerak ba-ditu beste itz batzuk *ere pago* esateko: *darte* (BN), *barza ta zakarda* (R), ta besteak.

Baiña zentzunez jokatzea dagokigu, beti ere, iritzia emate-rakoan laprast egin eta erori ez gaitezen.

ATZE-AIDETASUNA. Illunpean datza izkeren sorrera. Batzuk, alere, beste batzuk baiño kultura geiago izan zuten. Joanak bere kolkoan du ixilpeko ori, baiña izkuntza batzuk aurrera egin zuten kultura itxasoan, beste batzuk gibelean gelditurik. Errialdeen ara-onako goraberaen ondorena dugu sarritan; Europa sarkaldean, urrutiago joan gabe, bertoko izkuntzak atzera egin bear izan zuten lendabizi keltarrak eta gero erromarrak aurrean erabillita; azkenik, ondo dakigu, Erroma'ko kulturak eta politikak zapaldu ta alderazi zitun keltarrak berak eta auek utzitako izkuntz-ondarrak.

Euskera dugu, zorionez, oldar oien atzapar artean jausi etzana; kelta ta latiñaren aurretiko Izkuntzen erakusgarri bakarra, Europa'ko lurralde ontan sarkaldeko indo-europear izkerak baiño lenagokoa.

Nolako kultura alako zabalera izan ornen zuten izkuntzak. Baita jazo liteke kulturazko izkuntza bik, alkarren auzo-samar ibilliak izan arren, beren artean ar-eman aundirik ez izatea, idatzirik ez zan garai aspaldiko aietan batez ere. Ta aidego au izan daiteke urrutiko izkuntzakin ere, istori-aurretik izkuntzak eta giza-taldeak alkarrekin izan zituzten artu-emanetatik sortuak noski. Gaurko kultura Izkuntzen alkarrekiko ikuskizun aria ta aintziñakoena, alere, ez dituzu berdiñak iñolaz ere. Gaur irarkola —inprenta— daukagu ta izkuntza idatzia, ta irratia ta telebixta. Lenago etzan olakorik; lenago, erriak —arat-onat zebiltzanak sarri— beren arteko zer-ikusi ta goraberak zituztelarik, bizitzen asi-berri ziran oraindio.

Oien saillekoa dugu euskera; aintziñakoa, baiña auzoekin ar-emana izan zuena. Baita aoz-aozko literatura eder baten jabe izana ere. Ta auxe aztertu ta ikasten saiatu dira euskaltzaie jakintsuak. Eta, /par-Afrika'ko bereber izkelgiak arakatu dituzte, eta semitarrenak, biokin atze-aidetasun zerbait aurkiturik; baita fino-ugriar eta paleo-siberiar izkuntzak eta Kaukaso menditsuan itz egiten diran izkelgiak ere arakatu dituzte, ta euskerak bai ornen zuen izan oiekin ere, iñoizkoren baten antza, artu-eman pixka bat: itzen batzuk eta gramatika lege batzuk aurkitzen omen dira oietan euskerazkoen antz pitiña dutenak.

Amaitzeko, Tovar'ek au: «Edesti luzeko izkuntza dugu euskera; bere aidetasuna, beraz, istori zakarra duten izkuntzak dituzten ezaugarriakin ornitua dago». Oso aintziñakoak, istori aurrekoak dira bai ezarri genitzaizkioken senideak. Beude, guenez, bi gauza argi: Lenengo: jakintsuak gaur arte, alegiñak alegin, ez diotela euskerari anairik, edo «aizparik» idoro, gaztelera ta prantsera beren artean aizpa ditugun bezelakorik beintzat.

Bigarren: euskerak izan ditula, oso antziñatik, bere artu-emanak bai auzoko erriekin, bai edesti aurrean txit urrutikoekin, kulturazko artu-emanak nunbait (Ikus A. Tovar, *El Euskera y sus parientes*, Madrid, 1959, ta L. Mitxelena, *Sobre el pasado de la Lengua Vasca*, Donostia, 1964).

V.—EUSKERA IDATZIAREN BATASUNA

Premiñazkoa ote degu? Gure izkeraren il edo bizikoa ez beldin ba'da ere, literaturan bear genuke nolabaiteko batasuna. Erri xeak, jakiña, ez digu onartuko berari eder etzaion zerik. Eta ona koxka: idazleak idazten du ta erriak, naiz xea naiz ikasia izan, irakurtzen digu; atsegín ez duenik, baiña, ez du irakurriko, ta irakurri ezik ez du ikasiko, ta ikasi ezik ez du jakingo, aitzu ta bertanbera laga baizik. Zentzunez jokatu bearra degu ontan.

Erri xeari, beraz, bere izkera ta dialektuan eskeiñi bear zaio irakurriko duena, errez ta bizi. Zer esan nai du onek? Oraíndik, urte mordo batean beintzat, erriak irakurri bear duena erritar euskeraz pentsatua, esana ta idatzia izan bear duela; iñolaz ere ez gaskoiñez, auntz-erderaz, edo-ta «koine»-z. Urrats laburragoak eman bear. Bestelan, zer gertatu zaigu azken urteotan? Muzin egin digu erriak, ez du guk idatzitakorik irakurtzen; oso zail egiten omen zaio, ulertu eziña, euskera berri ori.

Euskal literaturan maiz izan dira lendik ere olako saio-egin naiak, Bidasoz andik eta emendik. Arana-Goiri'k burutu zigun ontan lanik ederrena ta sakonena, bere garaian; gero, Euskaltzaindia sortuta laister, 1920'an, Campion, Broussain eta beste batzuk lan ederra osatu zuten, «Euskera» —1922, ilbeltza-epai-lla— aldizkarian agiri danez. Baita geroago ere Azkue, Altube,

Orixe ta besteak ortan arduratu zitzaizkigun. Oraintsu, berriz, urrats tinko bat eman bearra zegola-ta, 1969'eko urrillaren 3-4-5'an, Arantzazu'n ospatu zan billera zaratatsuan erabaki batzuk artu ziran euskera idatziaren batasuna aurrera eramateko.

Euskaltzaindiaren deiak onela: «Batasunez mintzatzeko ordua eldu da. Euskeraren etorkizunak ain bearrezkoa duen batasuna. Literario batasuna. Eta literatura batasuntzat artzen da euskera idatzia orobat». Ortarako batzorde batzuk eratu ziran; eta bazkideak, aztertu ta ondo ikasirik, eraman bear zituzten batzar nagusira, puntu auek: 1) *Batasuna Zergatik eta zertarako*; 2) *Idazkera edo ortografia*; 3) *Itzen formak*; 4) *Itz berriak* eta 5) *Itz-joko edo deklinazioa*.

Egin zan batzarra; lanak irakurri ta abar. Baiña, zoritxarez, an bildu ziran euskaltzain eta euskal idazle askoren artean etzegon oraindiñokarren batasunerako giro larregirik. Eztabaida latzak sortu ziran. Eta azkenez, labur ta laiñoki esanda, ausartenak eraman zuten ura beren boluetara. Ekaitz bat zirudien. Erabaki batzuk onartu zirala-ta, araudi apal bat atondu zan, geienak bear bada aintzat artuko zutekeena; baiña geroztik, beste ausartago batzuk, dena batera egin nairik, beste lege batzuk ere argitara zituzten. Ortik, gaur, olako anarki ikaragarri baten bizi gara, erria ez ustez artua ta idazleok nora jo ezean.

Ona Euskaltzaindiak Arantzazu'ko batzar ostean argitara emana:

«Lehenik ikusi doguna da, guztion ustez gure izkuntzearen batasuna behar-beharrezkoa dogula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin daiken gauzea, eta oraindino gutxiago batbatean egin daikena. Batasun hori, euskera idatziaren batasunaz mintzatu garean ezkerero, euskal idazle ta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dabelarik».

Auzi ontaz, baiña, luze ta sakonago itz egingo degu urrengo aleetan.

Orain bego au argi: makillaka ez degula batasunik lortuko, urtez eta zentzunez baizik; eta gizaldi onetako 65 urteotan, berez - berez goazala orren biziro billa gaziltzan euskera idaziaren batasunera.

VI.—LIBURU ONEN ARIA

Urteetan eme-min ekarri dugun liburu oni itxura ta jasa ematen asi giñanean, ez gendun asmotan egin-nai orren zabala. Baiña gerora, sarri gertatu oi danez, ariak berak ekarri digu topoz-topo ugaritasuna. Lenengotan, adibidez, bi liburu naikoa zala uste izanik, gero lanari ekiñez gai ugaria agertu zaigu. Ta euskal literaturan, euskeraz beintzat, edu onetako ezer, amas auditan, egin gabe daukagun ezkeru, jasogarri dan oro arduraz biltzea erabaki dugu. Gero ere izango beta, errezago da-ta, lan arin azaletikoagoak burutzeko.^r !

Ortaz *Euskal Literatura* onek zabal xamarra izan nai du, ase ta zeatza al danik, lenengotik asi ta gaurko zizki-mizki gutietaraiñokoa. Egitamu edo asmo bat ere ba-dugu aski zeatz jakiña: euskeraz zerbait idatzi duten guztiak aipatuko ditugu, iru mail oetan tenk egiñik batez ere: 1) idazle bakoitzaren bi-ziari buruz zerbait; 2) idatzi dituzten lanak eta auen mamia arrotu, ta 3) egille bakoitzaz zer esan duten adierazi. Labur: idazle bakoitzaren bizitza, idaz-lanak eta emandako iritziak. Onelaxe zirriborrotu dugu *Euskal Literatura* onen egitamua.

Aitortu bearra dugu au ere: egiteko ontan —jakiña da, nosld— autore, idazle batzuei leku nasaia goa eman diegu; batzuk, izan ere, eguzki bezela ditugu euskal elerti zeruan, eta izar txiki bezela beste batzuk. Ulertzekoa duzu. Aipatu, orraitio, zeozer idatzi duten guztiak aipatuko ditugu, uste gabetarik

edo, nor edo nor bazter uzten ez ba'dugu bederen. Aspaldi gabiltza euskal klasiku guztiak liburu-sail eder batean argitara eman bear lirakelakoan; ortara jo aurretik, bear-bearrezko zan gure literatura barrutian zer geunkan jakitea. Orain ba-dakigu, beraz, gure asabak zer idatzi zuten eta zer laga ziguten.

Esku artean daukazun *Literatura* onek beste onako bost ale izango ditu. Edo obeki: lan osoaren asmua au duzu, sei aletan bananduta: 1) Euskal literaturaren asieratik —Etxepare ta Leizarraga aroa, Axular aroa, Larramendi aroa— amazortzigarren mendea barru dala, *lenengo alea*; 2) emeretzigarren mendea osorik, *bigarren alea*; 3) 1895'an asi ta 1920'rarte —Arana ta Azkue'ren belaunaldia—, *irugarren alea*; 4) 1921'tik 1940'rarte —Aitzol'en belaunaldia—, *laugarren alea*; 5) 1941'tik 1960'rarte —Zaitegi ta Orixere'n aroa—, *bostgarren alea*, ta 6) 1961'tik gaurko egunetaraiño, *Seigarren alea*.

Amas aundiko egitamua, dakusazunez. Baiña, Jainkoa lagun, aurrera eramango duguna. Egiñik daude lenengo iru aleak, eta laister izango dituzu eskuetan. Eta zuri, euskaltzale zintzo orri, lan au biribillagoa izan dedin, bertorako laguntasun pixkat eskatu ere egingo genizkizuke: gure idazle zahar naiz berriei buruzko edozer berri pozik jasoko genuke. Millesker! Baita, era berean, eskertzen ditugu Ierro auen bidez oraiñarte lagundu gaituzten guztiak ere. Esker-ona, beti eder.

VII.—BIBLIOGRAF/A

Ona emen literatura au osotzean esku artean erabilli ditugun liburu batzuk:

- Aita Zabala: *Noticia de las Obras vascongadas* (1856).
- Francisque Miohel: *Le Pays Basque* (Paris, 1857).
- Jose Manterola: *Cancionero Vasco* (Donosti, 1877-1880).
- Allende Salazar: *Biblioteca del Bascofilo* (1887).
- Sorrairain: *Catdlogo de Obras Euskaras* (1891).

- Julien Vinson: *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (Paris, 1891) eta *Complement et Supplement* (Paris, 1898).
- Nikolas Ormaetxea: *Euskal Literaturaren atze edo edesti laburra* (Euskal Esnalea, 1927, 148 orr.).
- Pierre Lafitte: *Eskualdunen Loretegia* (Baiona, 1931) eta *Le Basque et la litterature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* (Baiona, 1941).
- Isaak Lopez-Mendizabal: *Euzko Idazti Izendegia. Catdlogo de Obras referentes al Pais Vasco* (Tolosa, 1934).
- Manuel Lekuona: *Literatura oral euskerica* (Donosti, 1935).
- Jesus Maria Leizaola: *Estudios sobre la Poesia Vasca* (Buenos Aires, 1951), *1808-1814 en la Poesia Popular Vasca* (Buenos Aires, 1965) eta *Romances vascos y Literatura prehistorica* (Buenos Aires, 1969).
- S. Onaindia: *Milla Euskal Olerki Eder* (Zarautz, 1954) eta *Gure Bertsolariak* (Bilbao, 1964).
- Juan Gorostiaga: *Antologia de Poesia Popular Vasca* (Donostia, 1955).
- Antonio Tovar: *La Lengua Vasca* (Donostia, 1954) eta *El Euskera y sus parientes* (Madrid, 1959).
- Jon Etxaide: *Amasei seme Euskalerriko* (Zarautz, 1958).
- Angel Irigarai: *Prosistas navarros* (Iruña, 1958).
- Luis Mitxelena: *Historia de la Literatura Vasca* (Madrid, 1960), *Sobre el pasado de la Lengua Vasca* (Donosti, 1964) eta *Textos Arcaicos Vascos* (Madrid, 1964).
- Luis Villasante Kortabitarte: *Historia de la Literatura Vasca* (Bilbao, 1961), «Gero» —*Despues*— (Barzelona, 1964) eta *Literatura Vasca* (Madrid, 1972).
- Antonio Zabala: «*Auspoa*» *liburutegia* (Tolosa, 1961) ta *Bosquejo de Historia del Bersolarismo* (Donosti, 1964).
- Antonio Maria Labaien: *Teatro Euskaro* (Donosti, 1964).
- N. Kortazar: *Cien Autores Vascos* (Donostia, 1966).
- Juan San Martin: *Escritores Euskericos* (Bilbao, 1968).

- Karmelo Etxenagusia: *Euskal Idazleen Lorategia* (Donostia, 1969).
- Mikel Zarate: *Bizkai'ko Euskal Idazleak* (Bilbao, 1970).
- Estomes Lasa (Auñamendi): *Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco. Literatura*, I (Donostia, 1969) eta *Literatura*, II (Donostia, 1970).
- Jon Bilbao: *Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco. Bibliografía*, 1 ta 11 (Donostia, 1970-1972).
- Ibon Sarasola: *Euskal Literaturaren Historia* (Donostia, 1971).
- Juan San Martin eta Serafin Basauri: *Hegatsez* (Zarautz, 1971).
- Joshe Erzibengoa - Patxi Ezkiaga: *Euskal Literatura*, 1 (Bilbao, 1972).

* * *

Aldizkariak: «Revista Euskara» (Iruña, 1878-1883); «Euskalerria» (Donosti, 1880-1917); «Euskalzale» (Bilbao, 1897-1899); «Ibaizabal» (Bilbao, 1902-1903); «Euzkadi» (Bilbao, 1901-1915); «RIEV» (1907-1936); «Euskalduna» (1887); «Euskal Esnalea» (1907-1931); «Euskalerrriaren Alde» (1911-1931); «Jaungoiko-Zale»; «Ekin» (1932-1936); «Euzko-Deya»; «Argia» (1920-1936); «Euskera», Euskaltzaindiaren lan eta agiriak (1919-.....); «Eusko-Folklore» (1921); «Jesus'en Boitzaren Deya» (1917-1967); «Zeruko Argia» (1919-.....); «Euzkerea» (1929-1936); «Karmengo Argia» (1931-1936); «Jakintza» (1933-1936); «Eusko-Jakintza»; «Gernika» (1945-1953); «Aranzazu» (1919-.....); «Karmel» (1949-.....); «Euzko-Gogoa» (1950-1959); «Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos»; «Prfcicipe de Viana»; «Olerti» (1959-1969); «Herria»; «Gure Herria» (Baiona, 1921); «Anaitasuna»; «Goiz-argi»; «Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del Pais»; «Otoizlari»; «Jaunaren Deia»; «Agur»...

Larrea, 1972-12-14

*AINTZINAKO AOZ-AOZKO
LITERATURAREN ZATIAK*

I

ERESI ZAHARRAK

Gure bertsokritza noiztikoa dan ez dakigun arren, ba-ge-
nitun lenago artan ere koplak ontzen zekitenak. Eta Oraingo
alde nagusiai gagozkiela, gaiztagin aiek aurrera eramaniko gau-
zarik asko —gatzeluak nola erre, «nor geiago» esaka elkar il,
eta abar— eresi zab.arretatik dalcizkigu. Gorago aipaituriko Ga-
ribai, Zaldibia, Ibarguen-Katxopin, Isasti, Lazarraga ta Saentz
Puerto'ren kondairetan aurkitzen dira, naizta zatika, olako ba-
tzuk.

Aide nagusien arteko guda-egoera naskagarri au amabiga-
rren mendea ezker, izan zan gure lurrean. Gizaldi batzuk ge-
roago, amabostgarrenean, Endika IV'garrenak, batzuk il eta bes-
te batzuk erbestera bota zitnn. Irureun urtez, ba, izu gorrian
egona dugu euskal erria, ia zergati gabe, giza-erailtz, lapurreta,
saldukeri, jauregi-erretze ta oldar-erasoz betea. Gertakari aueta-
tik asko, osorik ezta ere, bertsolariak abestu zuten; eta gero, aoz
ao, gizarte ta familetan ber-esan eta oiuzkatuaz, iraun-aziak
izan dira.

Gureganaiño irritxi diranak puska batzuk baiño ez dira; baiña poiska auek ere merezi dute, gure elerti-asikiñak bak-dira, guk jaso ta axolaz zaitzea. Euskera aldetik, berriz, kanta zahar auen izkera ez da orren atzeratua. Begira erdel literatura kon-daira ta ikusi nola zeuden garai artan gaztelera ta prantsera. Izkuntza auen iehen-marraskak bildiu zituztenean beintzat bil-tzailleak euskera zerabilten, auzoko izkuntza oiek bezin ederra noski. Gatz-ozpiña zuten orduan ere gure beritsolariak.

1.—BEOTIBAR'KO GUDU-KANTA (1321)

Kanta onek, napar eta gip'uzkoarren arteko muga burrukak dakazki gogora. 1321'an gertatu zan nunbait. Eta jazoera onek kanta batzuk sor-azi zitun, bai erromantzez bai euskeraz. Era-soan, ots, iraillaren 19'an, gipuzkoarrak irten ziran garaille urrean. Garibai'k bere *Compendio* deritzan kondairan, 26'gar-ren 'liburuko 15'garren atalean dakar zatitxo bat.

Mila urte igarota
Ura bere bidean,
gipuzkoarrok sartu dira
Gaztduko etxean,
nafarrokin batu dira
Beotibar'en pelean...

Zaldibia'k *Suma de las cosas cantabricas y guipuzcoanas* (1654), Isasti'k *Compendio Historial de Guipuzcoa* (1625), Argote Molona'k *Discurso sobre la poesia castellana...* (1575) dalakoetan ere berdin dakarte. Francisque-Micherek bere *Le Pays Basque'n* (1857) eta Gerra'k aipatzen dute. Burruka on-tan katigu artjuen artean Martin Oibar zalduna dugu aurrenena. Zaldibia'k edesten digunez, naparrak miñetan oiú:

Beotibar, Beotibar,
bik diadutak
Martin de Oibar.

Poema onek ez du nolanaiko asiera, klasiku kutsuz osatua baizik.

filkus L. Mitxelena, *Textos arcaicos vascos*, 66 orr.; S. Onaindia, MEOE, 37 orr.).

2.—AKONDIA'KO GUDU KANTA

Zelai au Kalamu ta Arrate bitarteko mendi gaintxo bat duzu. Burruka tokia noski: azken gudatean ere (1937) latz jokatu zan bertan. Ibarguen-Katxopin'ek dioskunez, ementxe bildu zirañ, 1390'an, Juan Lopez Ganboa ta Durango'ko Ibarguendarrak, Untzueta'ren aurka; oiñaztarrak ziran azken auek, eCa Butron etxeko Gomez Gonzalez zaharrak ere laguntza eskeiñi zien.

Antxe, Untzuetarren jauregi gaiñean dagoen bizkarrean burrukatu ziran, etsai gorri antzera burrukatu ere. Azpiratuak izan ziran ganboarrak, eta Juan Ibarguen, beste askorekin, iila. Bizirik irten ziranak, iskillu, asto ta janari bertanbera lagarik, iges egin zuten azkarki. Ortik dator kanta zaharrean esan oi zana:

Akundia,
lexarra
lexar baga.

Ganboarrentzat lexarra, izan ere, Lope Gartzia Salazar'ek dioanez, zurik bikaiñena zan.

filkus L. Mitxelena, *Textos*, 69 orr.).

3.—URRUXOLA'KO GUDU-KANTA

Esetsaldi gordin au, J. K. Gerra'ren iritziz, 1388 ta 1401 bitartean jazo zan. Eta Larrea etxe-dorreko jaun, arabar edes-tigille Lazarraga'k, 1588'an idatzi zuen «Relación genealógica del linaje de Lazarraga» liburuan dator.

Oiñatiarren eta Leinztarren arteko burruka dugu. Mugal-deak, usak, abere-Jarrak eta bazkalekuak ziralata, sarri izan oi zituzten auek beren asarre ta istilluak. Bein Leniz ibarreko lau leiñuk eta Oiñati'ko bik, ots, Garibai'k eta Uribarri'k beren arteko gauzak zurkzea erabaki zuten. Oiñati'koak Pedro Garibai ta Joan Ibañez Elazarraga ziran; Leniz ibarrekoak, ordea, Galartza etxeakoak. Urruxola gaiñean, Oiñati ta Leniz bitartean, batu zitzaizkigun egun izentatua iritxi zanean burrukan lazkiro saiaturik. Oiñatiarrak irabazi zuten; beren buruzagi Pedro Garibai galdu zuten, orraitio; onek alere, leniztarrak garaituak izan ziralako, zaurietatik odola zerioia ere, lelo zahar au abesten omen zuen:

Gaiza zenduan lenizanok
Urruxola'ko lekaioa,
sendo zenduan odoi ori
biurtu ja(t)zu gazaioa.

flkus L. Mitxelena, *Textos*, 69 orr.).

4.—MARTIN YUANES LABIERO'REN IL-ARTITZA

Zaldun onen illobi gaiñean idazpuru au jarri zuten, iru bertsoz egiña:

Marti Yuanes, Labieruko zalduna,
Bizkaiko konsejua ta zenzuna,
nor ete zan zuri lo(t)sa igorrosi egizuna?

Foruko alkate onen eriotza indarrez gertatu zan 1393'an edo 94'an. Luze jarduna dugu onetzaz J. K. Gerra kanta-zar biltzaillea. Onek uste duenez, Endika II'garrenak 1393'an bizkaitarrai emaniko eskubideen ondorena bezela izan zan, alegia; au da, auk ere Gaztela'n bezela, beren auziak beren artean zuritu ta erabaki litzaketela, baita buru-buruzko gudaz ta iskilluz ere. Edu ontako gertakariak maiz ikusi ziran Bizkaia'n, erregearen eta aren lagunkideen kontra batez ere. Negurri orrek, bestetik, XV'garren mende barruan naikoa garbitu zitun emengo alderdien erronkak.

flkus L. Mitxelena, *Textos*, 74 orr,).

5.—MILIA LASTURKOREN ERESIA

Lastur'ko (E)miKa, Peru Gartzia'kin ezkondata, Arrasate'ra aldatu zan bizi izaten. Aur egitean il zan, gazterik. Onen Senarra andik laster, omena zanez, aurretiaz ere adiskide zuen Arrazola'ko Marina'rekin berriz ezkondu naiean zebillen. Au ez zitzaion eder MiMa zanaren aizpa bati, eta Deba'tik Arrasate'ra joanik, garai artan oitura zanez, eresi auk abestu zitun bere aizparen Illeta egun batez.

Zortzi ahapaldi lau bertsoko ditu eresiak, eta ez dira denak neurri berdiñekoak. Milia'ren aizparenak dira lenengo laurak, eta mingaiñean lausorik gabe aitortzen du aren Senarrak ez zuela ongi artu bere aizpa, ta Lastur'era eraman bearra zegoela: aitik an abere-taldea zekarren illetetarako, ta amak illobia zion atontzen. Beraz, Milia'ren gurasoak bizi ziran oraindik, ua ii zanean. Arri zakar bat eroti zan zerutik Lastur'en dorre gaiñera, goiko almenari erdia irikirik.

Peru Gartzia'ren arrebak, au da, Santxa Ortiz'ek erantzuten dio iru ahapalditan: ez omen zuen bere nebak errurik izan,

emaztea gazte il ba'zitaion ere; zeruak erabakia zan. Gizakume sotillaren andre izan zan, ate-arte zabalaren jabe, giltz-porra askorekin. Ez al zuen aski?

Illaren aizpak jardesten dio berriz ere, beste iru koplakin. Mandatariak gaizki egin zion Milia'ri; abea erori da ortzitik, Lastur'ko dorrea jo jauna ta andrea alkarren ondotik eramana. Karta bat bialdu zuten zerura etxeko andreak eman zezaiotela eskatuz. Go'rrotoa artu omen dio Arrasate'ri, gaizki artu bait ditu giputz andrak. Iru aipatzen dizkigu: Maria Balda'ko, /tu-rriotz kalean; Otxanda Gabiola'ko arte kalean, eta Milla Las-tur'ko, errebaean.

(*"Ikus S. Onaindia, MEOE, 37 orr.; L. Mitxelena, Textos, 75 orr.*).

6.—GONTZALO MORO'REN KOPLAK

Bizkaiko korrejidore zan Moro Irakasle au, 1394'tik 1424 bitartean. Ogetamar urtez bete zuen endoretza ori. Berak ber-ritzu ta nasaitu zuen Gernika'ko batzar etxeko elizatzoa, eta il zanean, bertan lurra eman zioten.

Aginpidea zeukan bitartean esku gogorrekoa omen zan. Maite zitun zugatzak eta ez zitzaion bat ere gogoko aiek moztu edo puskatzea. Ona Ibarquen'ek ontaz diona: «Gontzalo Moro, dei egiten zioenean, gabaz ere berdin joan oi zan bide ta etxe^etan zear, eta arrapatzen zuena aurrean zeukan zugatzetik zintzilika jartzen zuen, Ontaz agindu zuen ez zezatela osoan zugatzik moztu edo iñausi, bakoitzean bi adar utzi gabe, urkamendi ta ikurrin zeritzenak noski, gaizkilleak zigor^azteko. Oitura orrek gaur arteño dirau Bizkaian».

Egiazko izu-ikara edatu zuen onek oiñaztar eta ganboarren artean ere. Orixegatik dio euskal esakun edo errefrau batek:

Gontzalo Moro, tati, tati,
gaxtoa gaxtigaetan daki.

flkus Auñamendi, *Literatura*, I, 38 orr.).

7.—BIZENTE FERRER DEUNA

Valencia'n jaioa. Dominikar praille. Inglat'erra'n, Eskozia'n, eta Irlanda'n mixiolari izan ondoren, Espaiña'xa itzuli ta Valencia'n, Granada'n, Andahizia'n, Toledo'n, Guadalajara'n Kristo'ren irakatsiak zabaltzen ibilli zitzaigun; azkenez, 1408'an, Euskalerrira ere etorri zan, aldikada batean beintzat Arrasate'n bizi izanik. Emendik, beti argi-izpi jarioka, naikoa ibilli zitzaigun Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n. Berak sortu zuen Mikel donearen Anaidia Arrasate'ko eliz nagusian; eta gaur ere, ark orren maiz predikatu zuen pulpitura igotzen diranak, ara orduko, beeko malladi barrenean, musu ezarri bearra dute: orla egiña naiz ni ere.

Orrez gaiñ, santu ark gaiztakeria ta batez ere biraoa gogotik zigorkatzen zitulako, aren esanen goratarre bezela, euskal literaturan badira bi bertso Jainko-gizonaren aotiko itz indartsu ta ziña iraun-azten digutenak. Auek:

Prai Bizente'k esala
fedea zina lizala.

flkus Auñamendi, *Literatura*, L, 39 orr.y

8.—URRUTIA'KO ANDERIA

Zubero'n Altzuruku'ko Menanton, Urrutia jauregiko zalduna ta Ahetze'ko Domenja ezkondu ziran 1422'an; Senarra, 1435'tik 1464'ra Zubero'ko epaikari izana, susmotia ta biurria

zan oso; emaztea, ordea, etorki argikoa ta zintzo samurra. Bazituzten beren artean tika-mika ta lipiztak, berezko izakera ezberdiña zala-ta. Ortik dakat, noski, *Ahetze'ko anderia* deritzan amabost ahapaldiko olerkiak oiñarria. Ona asiera:

Ahetzeko anderia
Urrutian korpitzez;
or dizu bere buria,
kanpoan da bihotzez.

Jauregi aberatsean bizi zan; baiña maite zitun ezeukiak. Olakoeri zerbait eramaten irten oi zan etxetik, naiz-ta bere Senarrak beste susmoren bat izan. Azkenik, baiña, jakin du nola zan gauzea, ta parka eskatzen dio. Irakur azken koplá:

—Parka izadazut, arren,
bekaitz enuzu izanen:
emazte un zirela
Orái badit nik proba.

flkus S. Onaindia, MEOE, 45 or:”),

9.—PERU ABENDANO'REN A/ERIA

Frantzisko Mendieta'k bere «Quarta parte de los Anales de Vizcaya»-n dioskunez, Urkizu ta Abendafio etxe'ko ta Legutiano'ko alde nagusi zan Peru Abendaño'k, bere senitarteko guztiak alkartu zitun 1443'garren urtean Butron'go Gomez Gontzalez, Oiñaz alderdikoa'ren erronka ta gaizki-egiñai erantzuteko. Otxandio'tik zear Abadiño'ra eldu zan bere taldeakin; Aramaio'ra zuzendu ta, uri osoa suntsitu nairik, Mendiola jaunaren dorreari su ematen dio. Mendiola'k alere bidera irretzen, eta Abendaño, oiñak bizkor, Araba aldera iges egin bearrez aur-

kitu zan, Izarraga'n gora ain zuzen ere. Bost gizon galdu zitu-
tuan; bat Gaxto Apala. Eraso-aldi ori egiñez damutu ei zan.
Gizon talde itzela zeukan atzetik, eta pendiz gogorra aintzi-
-ean. Koplak onela dio:

Izarraga'ti gora elzian joela
jaun Peru Abendañokok esala:
oñetako lur au jabilt ikara,
gorputzeko lau aragiok berala.

Oi aldi oneri al banegi enpara,
barriz enendorke Aramaioko kontrara.
Mendiola, il deustak Gasto Apala,
bere laguntzat beste asko ditubala.

Utsala zan, alere, Peru Abendaño'ren damua. Urte berean,
lengo urratsetara itzulia dugu. Butroitarrakin Larrabetzu'n era-
so-aldi ikaragarria izanda gero, Zamudio'n aurkitzen dugu Die-
go Landeta'ren etxea erretzen; Begoña'n eta Txadoarri'n gero,
baita urte bete geroago, Butroitarrak azpiratu ondoren, Gan-
guren gaiñean igeska ere. Baiña berriz agertuko zaizu oraindik
Mondragoi'ko erretean.

flkus L. Mitxelena, *Textos*, 19 orr., eta Auñamendij *Literatura*,
I, 37 orr.y

10.—ARRASATE ERRE ZUTENeko KOPLAK

Alkar-jotze gordiña izan zuten alde nagusien bi alderdiak,
ots, ganboarrak eta oiñaztarrak, 1448-6-23'an batez ere. Gan-
boarrak, Peru Velez Gebara, Oiñati'ko jauna buru zutela, sutan
jarri zuten Arrasate, oiñaztarrak, Butron'go jauna buru zutenak
barruan zeudelarik. Ganboarrak ezinbestez su eman zioten,

etsaiak andik irtengo ziralakoan. Butroiko jaunak uste zuen Bergara'rako bidetik iges egingo zuela; baiña saldua izan zan, eta an erori ziran bere seme Juanikote ta bere illoba Presebal, oiñaztarren alderdiko beste Zenbait zaldunen artean.

Oiñaztarren irten-naia, Butron'go Gomez Gontzalez'en azpiratzea ta Juaniko ta Presebal'en eriotza dira, batez ere, Ibarguen-Katxopin'ek bere kronikan ematen dizkigun eresi ta koplazatiak. Alderdi bietakoen koplak bildu zituzten, bai, Lope Gartzia Salazar'ek eta Garibai'k ere. Oiñaztar koplariak onela egozten du Gomez Gontzalez Butroikoa bazter utzirik iges joan ziranen aurka:

Gal didila Unzueta ta Bergara,
Zaldibarrek bere partea debala;
Aramaio, suak erre azala
tia sumi azala Guraiarra;
zerren euren jauna ez zenkan enpara.

Ganboarrek ere oribera kanta zituzten berenak. Naiz-ta gureganaiño pusketak bakarrik eldu, bertso argiak dira, gaztelarren pareko zortzikoetan egiñak. Ona lenengo koplak:

Gomez andia zan-arren,
an zan Presebal bere,
bai Jaunikote bere.
Madalenaan ei dau(t)za
biok, tronpeta bage.

Oitura zan orduan edu ontako koplak atefa ta errian kantari zabaltzea. Bosteko onen ostean, beste bi koplak datoz, bederatzi bertsokoa bata ta amarrekoa bestea; ta azkenez beste bi zortzi bertsoko. Koplak, dudarik bage, ikuspegi izugarria darakusate: iltze nekatu gabekoaren ondoren, Madalena auzo-

tegia gorpu illez beterik agertzen da. «Giputzak ondo ederrak» ziran, koplakariak dionez, bizkaitarrak «urduri gogorrak». Lehen biola ta tronpeta jotzen zuten; orain ixilla dute lagun.

Gaur bizirik dauzkagun bertsuok zati batzuk besterik ez dira; baiña oietan ere agiri zaigu, ta ez gutxi, bertsolariaren irudimen urduria. *Itz* labur, bizi ta egokiak darabiltza, gaiak eskatzen duenari erantzunaz. Alkar izketa ere sartzen du noizik bein.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 36 orr.; L. Mitxelena, *Textos*, 81 orr.;

11.—OLASO'REN EZKONLZAKOA

Arrasate'ko alkar-zapaltze aurretxoan, oiñaztar eta ganboarrak paketsu samar zeudela, Butroiko Gomez Gontzalez'ek eta Ganboa'ko Martin Ruiz'ek, ots, Olaso etxeko jaunak, itun berezi bat osatu zuten 1443-3-13'an. Zer zan? Gomez Gontzalez'en alaba Juana Martin Ruiz'ekin ezkondu nai zuten.

Mondragoiko gertakariak alere asmo *ta* itunok porrokatu zituztela zirudien. Gomez Gontzalez, esan dugunez, an il zan, Martin Ruiz etsai zalarik burrukaldian; beraz, Gomez jaunaren emazte alargunak ez zion utzi nai bere alabari Martin'ekin ezkontzen; Juana gazteak, baiña, Olaso'ko jaunarekin ezkondu nai zuela esaten zion. Azkenez ere azpiratu zuen bere ama Elbira'ren mukertasuna, baita bere alderdikoan berezko eznaia ere.

Amaren ezetzari alabak erantzun ziona koplak zaharrak iraunazi du gizaldiz gizaldi. Damuz ez dakarkigute gogora auxe baiño:

Berba orren berba gazia,
berba orri nai ez dakiola balia;
dardoak egiñarren bere aldia,
Olaso da ene egoteko aulkia.

Alabaren gogoia ta senidarteko batzuen naia ikusirik, amak eta onen neba Juan Alonso'k amor eman zuten, eta ara bialdu zuten alaba, Unzueta'ko Lope, Bellela'ko Fortun Santxez, Zal-dibar'ko jauna, Arana'ko batxillerra ta Ortarako aukerakoak ziran beste barzuekin. Guztiok, bada, irten ziran gazteari lagunduz 1450-1-15'an eta eztegua Olaso'n ospatu zan urrenge igandez, oiñaztar asko ta senargaia euren alderdikoa zalako ganboar geiago bertan ziralarik.

flkus L. Mitxelena[^] *Textos*, 88 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 44 orr.").

12.—SANDAILI KANTA

Pixerto de Oñate maixuaren paper artean aurkitu ziran kanta erdikin auek, naiz-ta gerorantza sarri argitara emanak izan. Puerto'k onela dio: «Oñati'ra, Santxo Gartzia Garibai'gana jo oi zuten inguru guztiko lal'αιοak, eta bein batean auek, San Adrian mendi-zintzurtean, Juan Zaar zeritzan emaniar zaldizai bati, egarri zirala-ta edaten emateko eskatu zioten; baiña zaldizaiak etzien eman nai izan, eta besteak indarrez emaniarrak aldean zeraman dirua kendu zioten. Ark, ordea, korrejidoreari aitzen eman zion, eta onek merinoa bialdu zuen Oñati'ra. Igarri zuten Santxo Gartzia'ren lakaioak nola zetozten merinoa ta onekin lagun asko, ta iges egin zuten Sanda Iliaren axpera. Baiña an geratu ziran inguratuta. Artzulo onek ateka du bestaldetik ere, ta etsaiak ez zekitela andik ematen zizkien jaten beren lagunak, Zalagarda izeneko morroi baten bitartez. Orduan egiña dugu kanta au:

Ala Zalagarda,
Zalagarda mala,
Zalagarda gaisto
oiñaztarra oendako.

Ardao zuri, ardao Madrigal'goa,
ardao zuria Mendoza'gana doa;
alabaña Sandaili gogoa,
Zalagarda Sandaili'ra doa.

Mendoza au merino nagusia zan, eta onentzat zijoan ardaoa, bidean arrapaturik, Sanda Ilia'n inguratuta zeudenai eramaten zioten. Egun batzuen buruan beintzat, eikarte osoa egon zan artzulo ura esitzen; baiña atenez, amor egin nai ez zuten ezkerero, urdai lodizko txintxortaz itxi zuten presondegiko atea, su emanik; uste zuten guren eta koipe aiekin .kiskalduko zirala barrukoak, baiña ezta, toki seguruan zeuden antza. Paketan utzi zituzten azkenez.

Garai artan ondua dugu kanta au:

Sanda Illak atek ditu zizarrez,
nola zizarrez da ala zendalez...
Hermandadea arean doa negarrez,
Asno Garziak gaztelu ori emunez
ezen uin da ezitikitxa esan ez.

Laskau arroen igesetako lasterra!
Laskau arrok ostatuan onela:
«Gabaz ere urtunika obela
argi izarrok ditugula kandela;
ostatuan gera, dio, iguk emenda».

Zati maskalduak dira ta ez dugu errez esan-naiaren zentzunaz jabetzea. Asiera, alere, bertsolari zaharrak egin oi zutenez dago.

filkus L. Mitxelena, *Textos*, 92 orr.¹).

13.—MARTIN BAÑEZ ARTAZUBIAGA'REN ER/OTZ-ILLETA

Ibarretan il zuten Martin Bañez, Arrasate'tik Garagartza'ra doan bide ertzean, 1464'ko maiatzean ain zuzen. Juan Ibañez Barrutia ere an jausi zan. Ilketa au asperkunde bat izan zan: 1448'an Arrasate'n izan zan burrukaldian ganboarrak Butroi'ko Gomez Gontzalez il zutelako ziuurki. Ozaeta'ko Santxa Otxoak, aren emazte alargunak, bere ta bere seme-alaben bakartadea zala-ta, ainbat eresi osotu zitun. Garibai'k dioskunez, gaur ere ba-diraute banaka batzuk bertako jendearen oroimenean. Ona bat:

Oñetako lur au jabilt ikara,
lau aragiok berean berala.
Martin Bañez Ibarreta'n il dala...
Artuko dot esku batean gezia,
bestean zuzi iraxegia,
erreko dot Aramaio guztia.

Seiko onek argi darakusgu alargunaren sentipen oiñazegarria. Iru bertsotan bizi alatzten du Senarraren eriotza, ta beste Iruretan asper-min agiri zaigu. Asiera, ordea, itz gutxi aldatuz, Aramaio'ko kanta bezela dugu. Era ori, zalantzarik gabe, Erdi Arako euskal epikan erabillia da.

flkus Auñamendi, *Literatura*, I, 48 orr.).

14.—DOMENJON ANDIA'REN KANTA

Gipuzkoa'ko idazkari ospetsu izan zan Domenjon Andia. Agintari bizkorra, «azkar eta kementsua», J. K. Gerra'k dioenez, Gipuzkoa'ko erri-jarduna trebe ta moldakor eraman zuen

bere garaian. 1457'ko pakerako zuzemenak ederki antola zitun; baita 1474'an eta 1482'an, kalte-ordaiñak eta sal-erosketak ziralata, Ingalaterra'kin osotu ziran egiune ta alkarteak ere.

Ondorengo lau onek poliki adierazten dizkigu jaurlari aren askotariko gaitasunak. Aren garaikoren batek ondua dugu.

Sagarra eder gezatea,
gerrian ere ezpatea;
Domenjon de Andia
Gipuzkoa'ko erregia.

Elkus Auñamendi, *Literatura*, I, 47 orr.).

15.—SALINAS'KO KONDEARENA

Ibarguen-Katxopin'en kronikan dator. Eta gaztelarrak 1471'an, bizkaitarrak emanda Mungia'n artu zuten jipoi berotze ederra dakarkigu gomutara. Haro'ko kondea zetorren gaztelar gudarien buru, ta arekin batean Salinas'ko kondea ta onen anai Luis ta Anso Belasko. Harokoa azpiratua izan zan, zeinbat gudari illak, eta Salinas'ko kondea ta Belasko katigu artuak.

Onatx liskar au gogorazten digun kanta puska bat:

Lelori lelo zara i leloa,
Bilbao'n katigu dago Salinas'goa.
Kalea bera burua bax (.) n daroa.
Zer ete dan amoradu gexoa?

Elkus Auñamendi, *Literatura*, L, 50 orr.).

16.—FERNANDO V'GARRENAREN KANTA

Ei millatik gora izan ziran Espaiña'ko errege katolikuak Toro'n, Zamora'n eta Burgos'en moltzo ta esiturik aurkitu ziranetan lagundu ziotenak; berdin gertatu zan antzeko estualdi ta gerra-erasoetan ere. 1475'garrenean jazo zan oraingo au; erregea eizara joan zan batean, andik etzala itzultzen ikusirik, gipuzkoarrak, itz-jate edo azpikeriren bat zalakoan, asaldata ta ikaraz bete ziran; alere erregeren menpeko leial izanik, aren billa urten zkan: basoan aurkitu zuten.

Jazoera auxe gogoratzen du, J. K. Gerra'k dioskunez, ondorengo kantak:

Gure errege jauna
billatu degu basoan,
goizean eizera joana.
Pozkida bete osoan
berak dituelako ikusi
batzuk il eta besteak bizi
portugesak amilka igesi.

flkus Auñamendi, *Literatura*, I, 50 orr.).

17.—JUAN LAZKANO'RENA

Gipuzkoarren buruzagi izan zan zaldun argi au, batez ere 1476'garren urtean, Prantzia'ko Luis XI'garrenak guda-gizon askorekin Ondarribi inguratuta zeukala, uri au askatzen trumilka joan ziranean. Kementsu saiatu zitzaizkigun euskaldun gudariak, eta prantsesak, inguraturik zeukaten uria utzi ta beren aberriera jo bear izan zuten ankotsean.

Jarraika daukazun kanta-zatiño onek Lazkau nagusiaren adorea goratzen du laiñoki:

Juan de Lazkano, beltzarana,
Gipuzkoa'ko kapitana,
frantsez osteak jakingo du
ura Ondarribi'n zana.

Clkus L. Mitxelena, *Textos*, 99 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 51 orr.).

18.—NAPARRU'KO KONDESTABLEAREN KANTA

Luds Beaumont, Lerin'go bigarren kondea, beaumontarren alderdiko buru ta Naparru'ko kondestable izan zitzaigun. 1493'-garrenaren azkenerantza, Juan //I'garrena, Naparrua'ko erregea ta onen emazte Katalina, Iruña'n koroatzekoak zirala-ta, urirantz zetozela, Lerin'go kondeak itxi egin zizkieten uriburuko atea; eta uriz kanpo egon bearra izan zuten erregeak eta auen jarraigo osoak, arik eta alkar-izketa luze ostean, Lerin'goak sartzen utzi zien arte. Koroatzea 1494-1-10'an ospatu zan, jai ta festa aundiak egiñik.

Onakoan abestua dugu, bertsolariaren batek bear bada, urrengo koplau:

Labrit eta Errege
alta seme d'rade,
kondestable jauna
ar bizate anaie.

Irigaillu bezela daude itzok. Ortarako izan ziran izan ere, A. Alenson'ek dionez, an zeudenak eztitzeko ez, baiñan nardatu ta gaitz egin nairik esanak. Norbaitzuk diote antzerki birtarte baten toki izan zutela olako ixeka, zear-itx eta zipladak; beste norbaitzuen iritziz, antzerki osteko solasaldietan. Dana dala, etsai ziranai eztenka erauziak dira.

("Ikus Auñamendi, *Literatura*, I, 51 orr.).

19.—ALOS'KO BELTRAN'EN ERESIA

Alos-toneko nagusi Reltran'ek alaba bat izan zuen lenda-biziko ezkontzatik: Usoa zeritzan, neska lirain Zintzoa. Baiña Beltran, alargundu zanean, Azpeiti'ko Basozabal jauregiko ugazabaren alaba Otxanda'rekin ezkondu zan biganenez, eta bi alaba izan zituzten: Milla ta Ximene. Baiña etziran zoriontsuak izan, esan oi danez: ari ta ari, asarre ta tild-miki uin artean eraman zuten beren bizimodu arlotea.

Ortan gudara doa Beltran, Gaztela aldera. Otxanda'k artean aur bat izan du izorkeriz; Usoa'ri botatzen dio errua. Ondorio bezela, naste beltzak sortzen. Samiñaren samiñez iltzen da Beltran, eta Usoa'k il-gauez, bertsotarako zuen doala erakutsiz, alta illaren zerraldo aurrean, alde ta lagunak biran zitula, Otxanr da'ren likiskeria ezagut-arazten du.

Beltran etzegon ilda: gertatua jakin nai zuen iliarena egiñik. Eta orduantxe, gaubelaz, argitaratu zitzaion ezkutua. E-kutxatik jaiki ta aldetik aldera ezpataz zatzatu zuen erruduna, merezi zuen ordaiña emanik.

Usoa'k garai artan abesturiko amabi ahapaldi ezberdin dakazki J. K. Gerra'k, gertatu zana ederki asko azaltzen digutenak noski. Ona gaur ere kanta oi degunaren zatitxo bat:

Alos-torrea, bai!, Alos-torrea!
Alos-torreko eskallera luzea!
Alos-torrea nenguanean
goruetan,
bela beltzak kua!, kua!
leiuetan.

Olerki bizia, ederra duzu; gau-illetan oi zanez taiutua. Badu alkar izketa ere, neurtitzari gora geiago ezarri naiez. Baita sa-

murra ere noizka, ta guztiz larria azkena; sotil sutsua bein edo berriz, euskal poema zaharrak oi diranez.

(Ikus J. B. Arakistain, *Tradiciones vasco-cdntabras*, 36 orr.; Etxaide'tar Yon, *Alos-torrea*, Zarautz, 1950; S. Onaindia, MEOE, 41 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 51 orr.).

20.—DIEGO LOPEZ HAROKOARENA

Ibarguen-Katxopin'ek bere kronikan biltzen du urrengo koplak, Diego Lopez Arokoa il zanean bizkaitarrak abestu zutena noski. Onela dio:

Jaun Diaoz Arokoa,
zaldun ahdi Espaiña'koa,
ezek ezer eziegion,
egian Jaunak ba(da)roa.

Au abestu zioten —^dio kronikeak—, ñ-agiñik zegoenak, bizkaitar kopletan kantatzen zutena zer zan jakin nai zuelako. Koplariak zeuden antza aren oge urbillean kantari, ta ez da arritzekoa iltzear zegoenaren jakin-miña. Goratzarrezko kantak zirala erantzun ziotenean, poztu egin ornen zan biziro; baita, Bizkaian oitura zanez, geiago ta geiago erostak joteko eskatu ere.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, I, 57 orr.).

21.—PERUTXO'RENA

Gaspar Gomez'ek idatzitako *Tercera parte de la tragicomedia Celestina* (Toledo, 1536) deritzan amaseigarren autoan dator kanta au. Bizkaitarra zan Perutxo, zaldi-morroia, ta onen

aotan ipiñi zuen egilleak, ugazabaren motxal bat garbitzen ari zala abestua. Urruti artan ere, jendearekin erdera mordoilloz mintzatu arren, lan bitartean euskal kantaz poztu-azi oi zuen zaldi-zai ark bere biotza. Ahapaldi bi ditu; ona lenengokoa:

Lelo lirelo, zarai leroba:
yaz zoegia nintzan,
aurten erua;
ai, joat gabiraia
astor usua.
Lelo Hrelo, zarai leroba.

Lelo onek badu piperra, gazte aren ezpaiñetan batez ere. Sentipenez gaindika dagon biotz-muiña agki zaigu ur oztña bezin garden. Txanbeliña dalako edo, askok ikutua egin diote zerbait azaldu nairik. Auek bai beintzat: J, Urkixo'k, RIEV, 1910, 470 orr.; J. M. Leizaola'k, *Estudios sobre h Poesía Vasca*, Buenos Aires, 1951; S. Onaindia, MEOE, 39 orr.; L. Mitxelena, *Textos*, 102 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 56 orr.

22.—KARLOS V TA SORABILLA'KO BI ETXEJAUN

Jazokun au I539'an gertatu zan, Iburguen-Katxopin'ek bere kronikan dioskunez, Karlos V Gipuzkoa'tik zear Flandes'era zijoalarik. Bi etxejaun sorabildar irten zitzaizkion bidera, ongi etorria ematen. Alere ez zeuden konforme zerga ta petxuak zirala-ta; origatik, bidenabar, dalako au bota omen zioten:

Kosk, Errege, kapela gorri,
atxul ona, Sorabilla'n bost etxe;
bost etxeak, bots urre.
Errege jauna, egiezu
alkabalez mertxede.

Olgetan-benetan erregeari eskatu ziotena lortu zuten beintzat. J. K. Gerra'k onela: «Abegi au eder eretxirik, erregea poztu zan eta sorabildarrai parkatu zien alkabalaen kontribuzioa. Beste gipuzkoar guztiai ez ordea, diru-premia zeukan eta; ortik zerbait bekaizkeri sortu zan eta bekaiztiak beste esaera zar au atera zuten:

Karlos kintoren baratzen
akerrak ezpata dantzan.

(Ikus J. K. Gerra, *Gure olerki zar-zarrak*, 134 orr.; L. Mitxelena, *Textos*, 106 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 59 orr.).

23—XANFARRON JAUNAREN KANTA

Kanta onek 1545'garren urteko gertakaria du oiñarri, Zaldibia'k dionez. Guganaño ez da gauza aundirik iritxi: bertso bi bakarrik, itz aldatu batzugin. Jaun prantses guztiz azkar au Ondarribi ta Irantz bitarteko izagara etorri ornen zan, buruz-buruzko gudarako zelai egoki billa: biotzean zeukan suarra adierazi nai zuen antza. Juan Perez Azkue ondarribitar kapitanak irten zion bidera, ta biak iskillu berdiñekin adoretu saiatu.ziran; ondarribitarra geiago zan nunbait, eta burua moztu zion prantsesari.

Ordukoa dugu oroigailu bezela gelditzen dan euskal koplau:

Mosieur Xanfarron, jaun andia,
/run (go) kalean datza illa.

(Ikus L. Mitxelena, *Textos*, 105 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 59 orr.).

24.—LELOREN KANTA

Zazpi bat ahapaldi ditu; aintziñakoa dirudi, baiña ez dakigu noiz ondua danik. Erromatarrak emendik ibilli zitzaizkiguneko burruka ta nasteak dakarzkigu gogotara. Galdua gendun nunbait, ainbat euskal kanta zar bezela; paper auts-ontzitu artean lo zegoen. Baiña Humboldt doixtarrak aurkitu zuen Marikiña'n, P. B. Mugartegi'ren liburutegian zeuden /barguen eta Katxopin'en paper artean, eta, 1817'an argitara ekarri zuen. Asko ditugu arrezkero lelo onetzaz jardun dutenak: Mogel, Manterola, J. Urkixo, L. Lezama-Legizamon, J. K. Gerra ta abar. Azken urteotan ere bai: J. Garate, *Boletín de la R. S. de los Amigos del País* (Donostia, 1950); J. Gorostiaga, *Epica y Lirica vizcaina antigua* (Bilbao, 1952); S. Onaindia, MEOE (Zarautz, 1954), eta Auñamendi, *Literatura*, I, (Donostia, 1969).

Euskalari batzuk, illunetatik iges egin naita agiri danez, ez diote olako gora aundirik eman gura; L. Mitxelena'k, esaterako, etzun lelo au atotsi textu zaharretan. Alere badu zar-zunda: 1529'rantza ondua degu, diotenez. Bizkaitarra zan egillea, Arrati aldekoa, ibar ortako euskeran egiña da-ta. Anton Bedia arratiar zaldunak *Tratado de las cosas de Vizcaya* idatzi zuen; Karlos V erregearen jauregikoa zan berau; onena ote dan susmoa du Lelo kanta ain ederki aztertu ta argitara ekarri zigun J. K. Gerra idazle argiak.

Entzun berari pixkat: «Menendez Pelayo jakintsuak, bere jakinduri ta guzti, kantu au, gezurrezko bezela lurperatu bear zala idatzi zuanean, aztu zan noski berberak ez zeuzkala lurperatzeko ustean Karpio'ko Bernardo eta Lara'ko Infanteen kantak, gezurrezkoak izanagatik... Nork egiztatuko dizkigu Uli-ses eta Eneas'en jazarra ta ibilkerak? Ordia iñortxok ez diete kenduko Omero'k eta Birgilio'k eman zieten bizitza illezkorra. Bere taiuan eta garri ederraren aunditasunean ez det nik berdinduko ez antzenduko Lelo'ren kanta Odisea eta Eneida'rekin;

ori ez. Gezurtasimean berdindu dezaket, ordea; eta irakurgai bi oiek ez badira latindarrentzat lurperatzekoak, ez daukagu euskaldunak zertan eta ez Zergatik lurperatu Le'lo'ren kanta» (*Gure olerki zar-zarrak*, 126 orr.).

Ez dakigu zenbat ahapaldik osatzen zuen. Iburguen'en bilduman aldatuak datoz. Gaur, nola idazten diran, zazpi edo amalau ezagutzen ditugu, oso samar. Onela dute asiera:

Lelo il Lelo, Lelo il Lelo,
Leloa, Zarak il Leloa.
Oktabiano munduko Jauna,
Lekobidi Bizkaikoa.

Lelo onek jatorriz *kanta* esan nai zuen, XHI'garren gizaldi osteko textu batzuetatik agiri danez. Ori berori dakar Perutxo'ren kantak; eta Salinas'ko kondearenak. Etxepare'k onela, *Potaren galdatzia* deritzan lanean: «Eta ielori bai lelo/, pota ñango,/ bertzia bego»; eta *Sautrelaren* bukaeran: «Etai Ielori/ ba'lolo leloa/ zarai leloa». Iñoiz, dakusgunez, abestiaren asieran artzen zan, iñoiz baita amaitzerakoan; bertso-esaldiari neurria ta jasa emateko erabiltzen zuten, bear bada. (Ikus R. M. Azkue, *Canc.* X, 1054).

Itz ori geroago nortu egin zuten, lelo Lelo biurtu noski. Gerra'ren irudimenak batez ere, nortasun berezia ezarri zion; idazle azkar onek, egia esan, ba-zuen Ortarako errazoirik, aintz kanta zar iñork ez bestean adierazi bait zitun. Eta zillegi zaio dakianari i-lhm artean ere bide egitea. Eta Gerrak diosku Txanton Bedia gizaseme azkarra zala, Karlos V'garrenak txit maitatua. «Orrek, nere ustez —dio^—, euskerara biurtu nai izan zuen Agamenon'en kondaira eta otu zitzaion esatea Lelo zala erromarren aurka gudan ari zan bitartean bere emazte Tota ladiskidetui zala Zara deitzen zan gazte batekin; onek Lelo gudatik etorri zanean il zuala Lelo, eta euskaldunak naigabeturik bota zituztela erritik kanpora arrika Tota eta Zara, eta Le-

lo'ren izenak beti-betiko iraun zezan erabaki zutela kanta guzien asieran aipatutzea bere eriotza negargarria» (*Gure olerki zar-zarrak*, 125 orr.).

Aurrenik Lelo'ren eriotza edesten du egilleak; ondoren bizkaitarrak erromarrai egindako gudan bost urtez izan zituzten goraberak azaltzen ditu. Aski zatitua egonik ere, badu bizitasuna ta maiña.

25.—BERETERRETXE'REN KANTORIA (1440)

Baxe-naparrako agramuntar eta beamuntarren arteko eskatima ta borrokak gogorazten dizkigu kanta onek. Bi etxeok, izan ere, guztiz etsai zitzaizkigun XV'garren mendean; odoHxurtze ugari egiñak. Bereterretxe agramuntarra zan, Zuberoa'ko zaldun argia. Maule'n bizi zan garai artan Luis Beamunt ere, beamuntarren buruzagi. Ezin zuen onek Bereterretxe eraman, eta Pazko gau batean, giza-taldetxo berekin zuelarik, ark Larrañe'n zeukan jauregira abiatu zan, ura bitartetik kendu naita.

Jaun kontiak, aren etxe ondora zanean, irtetzeko eskatu zion, itz egin nai ziola-ta. Baiña Bereterretxe atarira jetxi zanean, beamuntarrak ixillik zeuzkan gizon iskillotuak aren gain erori ziran ots-otsean, eriotza egiñaz. Bereterretxe'ren gorpua Maule'rako bidean agertu zan, Atarratze ondoan. Gaur ere, Etxebar'tik Ezpeldo'rakoan, bost gizaldi dirala an jarritako arri-mokor berezi bat daukagu, oroigarri bezela.

Apaindura geiegi barik, bilois ta murriz idatzita dago poema bera, ta orixegatik bear bada, gainontzeko alderdi-kantak baiño sentikorrago iruditzen zaigu. Asi-antz-iruditik azken laburrerañoko guztian gertatua ezta agertzen bere gordintasunean; eta orrek dakarkio ain zuzen odol ixurtzearen beltzari olako garrantzi apartekoa. Amabost lauko ditu, neurriari ta bukaerari gora berezirik ezarteke. Neurtitzak, baiña, bikainki osatuak daude. Onela asten da:

Haltzak eztu bi'hotzik,
ez gaztanberak ezurrik:
enian uste erraiten ziela
aitunen semek gezurrik.

Poema osoan barrena, irudimen bizia erakusten dizu bertsolariak.

(*Ikus Sallaberry, Chants populaires du Pays Basque, 150 orr.; Jaurgain, Tradition Basque, 368 orr.; Azkue, Cancionero, 393 zenk.; J. K. Gerra, E. E., 1921, 295 orr.; A. Riezu, Flor de Canciones populares vascas, 262 orr.; H. Gavel, Bereterretxen Khantoria, Baiona, 1924; S. Onaindia, MEOE, 43 orr.; Auñamendi, Literatura, 1, 74 orr.*).

I/

BERTSOLARIAK

Gure artean, izen aundia du bertsolariak. Beste izkuntzetan ez dute onakorik, aintzat artzekorik beiñik-bein. Guk auek ditugu, izan ere, erritar izkuntzaren eredurik bikaiñen, gaiak legun egosi ta nortasunik goi-luzeenean guri adierazten dizki-gutenak. Ba Kteke gizon ikasien izkera ez erabiltea, baifia bai egiazko euskera, jatorra noski, mintza-molde joria, esakun aberatsez oretua, euskaldunak berezko duen filosofi zorrotzez jantzia.

Ezta gauzak aritik ateratzea. Zenbatetan entzun diogun battersitar bertsolariari izkera miresgarrian gogaketa sakonak, batbateko jardunean, eio ta kurkuiltzen. Ikasiak ba al dira gai Ortarako? Dala ardangela baten, dala erriaren erdiko plaza baten,

edozein eratako gaiak jarrita ere, bertatik erantzungo du ark itzez ta joskeraz ederra dan euskera zirtolarian. Aren bertsoak ez dituzu arrazoi gabeak, buru gabeak, sentimentu gabeak. Baserriara, beraz, eta bertsolariengana jo izan dute euskal idazlerik giarrenak —Axular, Mogel, Prai Bartolome, Orixe ta abar— beren liburuen ardatzari eder ta atsegingarri izateko bear zuen eztigaia ezarterakoan.

EUSKO OITURA ZAKARRA.—Eusko oitura zahar bat omen dugu bertsolaria; txistu, dantza, idi-proba ta onako kirol-jolasen antzekoa. Ba liteke. Bertsolariak egiki gizarte-giroko sentimenduak eta oiturak bere-bere egin oi dizkigu ta, auekin jabetu ostean, eusko endaren aririk barrukoenak dardarazi, etengabeke bertso-saillak abestuz. Ez du musika aundirik, baiña badu doiñua ta doiñu orren ritmu ertsian abestuko du, miresgarriro; ez du jakituri aundirik ere, baiña gaiñ-gaiñeko agertzen da bere kidekoen altzoan. Eztu izenik ere, baiña, txoria oianean lez, kantari dabilkigu, bera bizi dan erriaren biotz eta amasa dalarik. Arrigarri da arrotzentzat, eta arrigarri zaigu guri ere. Baserreak ez du arbuiazten izadiak eman dion oiugai gozoa.

Euskera bezin aintziñakoa dugu oitura au. Ortxe datorkigu, beraz, gure asaben izpiritu, arima, jatortasuna. Bertsolariak egokitu digu, mendez mende, gure aozko literatura. *Gure Bertsolariak* (Bilbao, 1964) osatzean, au idatzi nuen gai ontaz: «Erri-oitura onen sorburuaz jabetzeko, kondaira aurretiko laiñotza arakatu bear da; au, ostera, agerbide ziurrez beintzat, gauza txit zailla yaku, ustezko errazoiak sailkatzea naikoa errez yakun arren. Erdi-Arotik datorkiguzan erri-kanta zarrak bertsolarien asmamenak sortuak dira, zalantzarik bage, baita gure atsoitiz eta izkirimiri bikote asko be. Gorago ikusi dogunez, emakumeak be etziran etziran muker ibilli eresi orreitan: Butroe'ko Joana'ren laukoa ezagun dogu, bardin Ozaeta'ko Santxa Otxoa'ren seikoa. Eta gerta-eresi biok XV'garren gizaldi erdi aldekoak dira.

«Orrezaz gaiñera, zerbait lenagokoak ziran aitatu dogun Gillen Urtsua (1412), zitola ta uztaidun biboliñez kantari ebi-Uena; Antxo Etxaieku naparra, laut-jotzaillea, ta Gartzia Txurri, 1428'an Aragoi'ko erregiñagandik saria artu ebana. Menendez Pidal'ek «juglares vascos» izenez aitutzen ditu irurok. Baiña bertsolarien kideko ete ziran ala bertso-kantatzaille bakarrik? Beste izkuntzetan edozelango musikagailluz lagunduta ibilli oi ziran bertso-esale; gurean izki-jartzailleari bertso-jartzaille esan oi dautsagu, baiña oneik geienetan bertsolari izaten dira, bertsoak bat-batean botaten dakienak. Iru orreik bertsolari ala bertso-kantatzaille ete ziran soilki? Iparragirre'ren antzeko, noski, gitarra zartzoa lagun, euskaldun artista» (*Gure Bertsolariak*, 203 orr.).

AOZ-AOZKO LITERATURA.—Eta bertsolarien literatura, ots, aotik aorakoa, gutziz aberatsa izan dugu, ta dugu gaur ere. Oberena aurkeratu ta liburu mardul bat eratzeraz ezker, gai ortan Europa'ko beste errien poesi ta olerkia baiño eskaxagoa danik ez liguke esango W. Webster'ek. Ala ere arrotzai au ulertzen ematea ez litzakigu gauza erreza izango. Zergatik? Zati bi ditu gure erri-olerkiak: itzak eta doiñua. Maiz ezin ditugu itzak, iñolaz ere, beste izkuntza batera aldatu, idatzita dauden jatortasun betean noski, ta ezta itzen musikea bakar-bakarrik: gogoan euki bear da erri-kanta oiek duten doiñua ere. Euskal bertso guztiak, naiz-ta auek asimasiko zertxo batzuk baiño ez izan, beren doiñua daramate. Ta bi, gaiok duten gurrilla norberarena eztan izkuntza bati jartzea, txit gaitza danik ezin dezakegu uka.

Aspalditik, aoz-ao datozten erri-neurtitzai *kopla zarrak* deritzegu. Oietakoak, metaka ditugu gizaldi bakoitzean, eta litekena da oietatik asko makur samarrak, akatsdunak izatea, baiña ederra poliki darietenak ere ez gutxi. Euskeraz, egia esan, errezto ondu litezke bertsoak, izkerak berak lagunduta; euskerak beintzat atzizkiak ba-ditu ugarixe ta itz-amai askotxo ere oso errezak azken berdiña edo rima borobiltzeko.

BERTSOLARIEN TREBETASUNA,—Baiña bertsolariak darabilzkiten neurriak —eta bakanenak idoro nairik dabilkiguz sarri— ez dira bat ere errezak. Bederatzi puntukoa, adibidez, arras zaila duzu, baiña gure bertsolarietan gutxi baizik ez dira olakoren bat onduteko trebetasunik ez dutenak. Ortan, len batez ere, gizasemeak bakarrik etziran trebe, emakumeak ere beren jasa ta etorria erakutsi oi zuten: Garibai'k aipatzen dizkigunak ola-koak ziran, eta 1890'rantza, Kanbo'ko Mari Argain eta Azparne'ko Ane Etxegoien, beti muturka zebiltzan bertsolari bi genitun.

Bertsolariataz iritzi emateko, azken baten, buruko argiak eta biotz zabalak osatzen duten nortasuna, bertsoak aletzean darabilen eten-iduriko aria, idurikizunen bizkortasuna, arat-onak urduri xamar ibillirik daglizkian bertso aldrebesak, oroimen arrigarria, doiñuaren apaiña, erriaren bertsolaritasuna, koplari eskolatuak eta eskola gabeak, beren ateraldi bitxi ta bizi-zeatasunak jakin nai ditunak, Irakur beza *Gure Bertsolariak* (Bilbao, 1964) liburua, 199'garren orriaidetik aurrera.

Bat-bateko neurtzilari trebeon esan bizi ta ateraldi zorrotzak idatzi gabe zeuden geientsuenak; beste asko paper zaharretan ere bai. Azken urteotan lan bikaiña egin digu A. Zabala'k, bai aiek bai auek, ale ederretan bildurik argitara emanaz. (Ikus *Auspoo* bertso-sailla, baita bere beste liburu *Bosquejo de Historia del Bersolarismo* (Donostia, 1964) deritzana ere.

III

ESKALE-KANTAK

Eske-lelo edo kantai buruz onela idazten du Orixe'k: «Urtearo batzuetaz ibili oi dire mutilak eske, eguberriz, Santa Age-

da'z, San Tuan'ez, San Nikolas'ez, t.a. Poesi au aspaldikoa da, Axular ta baino askoz lenagokoa, ta Erroma'ko paganoengandik ixuria aldez aldez» (*E. Esnalea*, 1927, 170 orr.).

Eskale-kantok —toberak ere, ots, ezkondu aurreko gauan «andregaiari mutilek kantatzen zizkieten kantak», ementxe sartu genitzake— oso ugariak izan ditugu Euskalerrian, eta gaur ere dira. Kalez kale ta etxez etxe ibilli oi dira umeak eta gazte elduak. Abesti oien letrea ondoz ondo datorrena da; alere, gai berdiña izan arren, erri bakoitzean ez dituzte ahapaldi berdintsuak; eta geien bat, bertso bizi egokiak dira. Ona Donibane'ri dagokion au:

Izar eder bat ateratzen da
urtean egun batean;
urtean egun batean eta
ua San Juan goizean.

Atarira irten dan etxeko andre gerri mea ikusiaz, eskaleak botatzen dio, esker-agur bezela:

Askan eder da garia
aren gaiñean txoria,
eraztuneak bildu dezake
andretxoaren gerria.

Onako asko dituzu batez ere *Eusko - Folklore* (1922, II, 47 ta abar) aldizkarian.

GABON-KANTAK.—Kanta oetatik batzuk zar-zarrak dituzu, beste batzuk ez ainbeste. M. Lekuona'k lau maillatan bildu zizkigun guztiak: 1) zaharrenak, *Gabon-agurrak* (diosalak); 2) berriagoak, *Misterio-kantak* (Marijesak Bizkaia'n eta Noelak mugaz andik); 3) artzai-kantak, *billantzikoak*, eta 4) berrien-berrienak, *gaurkoak* (Ikus, oso luze, *Gure Bertsolariak* 167 orr. ta abar liburuan).

«Gabon-jaiak Euskalerrian •—dio M. Lekuona'k—, bi izaera dituzte: kristau aurrekoa bata, eta kristau garaikoa bestea... Euskaldun jentillak —orain milla ta geiago urte— Eguzkiaren gertaera bat jaitzen eta ospatzen zuten Gabonetan, San Juan'-etan bezela-bezelaxe. Bi jai oietan bi *solsticio* gertatzen dira Eguzkiaren urteoroko ibillian. Eta antzin aietako euskaldun artzaiak ezagutzen zituzten ederkitxo Eguzkiaren urteoroko bi gertaera oiek. Eta alako garrantzi ta inportantzia ematen zieten gertakari oiei, jai aundiak egiten zizkioten Eguzkiari —Eguzki Jaunari— urtearen bi egun oietan.

«Gure Elizak —darrai—, sortu zanean —orain bi milla urte—, Eguzki-jai oiek etzituan kendu, kristautu baizik; aur batekin egin oi dana: bataiatu, kristautu. Eta Ortarako, Udarako *solsticioan* San Juan'en Jaiotza ipiñi zuan; eta Neguko *solsticioan*, Jesus'en Jaiotza» (*Zeruko Argia*, 1965, 148 zenbk.).

Antziña-antziñako jai aien zerbait dugu Olentzero ere, eta Zanpantzar, bi gizaki tripazai, naiz-ta gaur urteen buruan oso aldatuak aurkitu. Onela kantatzen zioten Olentzero'ri:

Orra! Orra!
gure Olentzero!

Pipa ortzien dula,
exerita dago.
Kapoiak ere baitu,
arrautzatxuakin,
biar berendatzeko
botil-arduakin.

Onela dugu gure Olentzero: jatuna oso, gizon arlote bat, «kosta-aldean arrantzalea; mendi-aldean, ikazkiña; eta biotan tripa-zai, jale amorratua».

ĨAUTERI KANTAK.—Mugaz andik, gaskoin-errian eta Biar-
no'n batez ere, *Zanpantzar* dute Olentzero'ren antzekoa. Izaki
parregarria berau, Ipar-aldetikoa izan arren, onantza ere naikoa
zabaldua. Donosti'n eta Donosti inguruan onela kantatzen da,
edo kantatzen zan, iñauterietan, *Zanpantzar* eskea egitean:

Guazen! Guazen
gu pelegriñatzen,
Zanpantzar Jaunagana
promesa kunplitzen.

Utzi Alemaniya,
artu Donostiya;
kantari eske gatoz,
lizentziyua.

Izaki zirtzil oni, Prantzi'ko Biamo'n, *Saint Pansard* deitzen
diote; santu bat dugu, beraz, iñauterietako santua. Askok, izan
ere, sabela du jainko. Guk aintziñako norki (pertsone) bi auek
—Olentzero ta *Zanpantzar*—, len agurgarri ziranak, «jateko ta
edateko aitzaki biurtu» ditugu (Ikus M. Lekuona, *Egan*, 1956,
5-6, 9 orr.).

Begoz emen, azkenik, aipatuta maia-kantak eta Mendekoste
edo Maiatz-Pazkoko eskaleak, «emaiten dutenean onetsiz, eta
ez dutenean gaitzetsiz» abesten dituztenak ere. Eta trikitixak.
(Ikus *Gure Bertsalariak*, 193 orr.).

IV

KANTUTEGIAK

Gure literatura, besteak beste, oso aberatsa dugu erri-olerkian; landuetan azken-urteotara arte ainbat nabarmendu ez bagara ere, erriak asmatu ta aoz-ao ekarri duen orretan Inguruko edozein literatura bezain eder ta jori da gurea ere. Kanta zaharrak, auek dira gure literatura baratzeko kimurik lenengoenak, mendez mende zar-amasaz beterik gureganaiño iritxi diranak. Asko ta asko musikari esker eldu zaizkigu.

Orixe'ren iritzia eder zaigu onetan ere. Onela dio: «Poesia naiz erritarra, naiz landua, bereiz ariko dugu. Amaboskarren mendean ba-dituzu «eresiak», euskeran den literaturarik ederrnatakoak, beste gainerako poesi ta itz neurrigabe ta oro barne. Aoberokeriren bat esan ote dizut? Ez naski, adiskidea, ezpaituzu balinba ezagutzen poesi ori, ta ez da erraz, batean liburuka argitara gabe baitago, beste euskal liburu askoren gisa, puskalaka, an-emenka» (*E. Esnalea*, 1927, 152 orr.).

Gaur erritar poesi ori, asko beintzat jaso dugu, baiña beste asko erriaren ezpainenetan dabil oraindik, liburuetan edo kasetetan jaso gaberik. Ba-ditugu azken aldi onetan lan txalogarria egin dutenak, erri-poesi ori, musika ta itz, jaso ta txeraz zaintzen arduratu diranak. Ots: J. K. Gerra, R. M. Azkue, Aita Donosti, Aita Riezu ta abar, oraintsu; eta lenago: Fr.-Michel, P. Lamazou, J. D. J. Sallaberry, J. Vinson, C. Bordes, Mante-rola ta abar.

Azkue zanak, bere *Euskalerrriaren Yakintza* deritzan liburuan, laugarren alean, *erri-olerkiak* eta *aur-jolasak* dakaz bereziki. Lenago ere, bere *Euskal-kantutegian* millatik gora argitaldu zitun musika ta guzti. Beste onetan, berriz, 267 dakaz, amai-ka pillotan bananduta: 1) *aldartezkoak*, edo umore onekoak; 2)

dantzarakoak; 3) edaleenak; 4) elizarakoak; 5) eskelarienak; 6) ezteietakoak; 7) gertaridunak; 8) illetak; 9) ipuiñak; 10) oneritxizkoak; 11) seaska-ondokoak

Nikj ordea, orain 18 urte, Mz/fo *Euskal Olerti eder* osotzerakoan, sei zatitan banandu nitun kanta zahar auek: 1) *gerta olerkiak*; 2) *maite-lebak*; 3), *irri ta negar*; 4) *ardo-kantak*; 5) *jainkotiak*, eta 6) *pastoralak*

Bekizu, beintzat, irakurle, gure erri-poesia guztiz aberatsa dala. Baita balio aundikoa ere.

V

PASTORALAK

LEN-ANTZERKI SAIOAK.—Europa sarkaldean, Erdi-Aroan ain zuzen, eliz altzotik jalgi ziran lenengo antzerki kimuak; amaikagarren mendearen azkenerantza, gerkar teatruaren gisara nunbait, eliz-jarduera edo kultutik sortuak dira *pastoralak*. Prantzia'n, eta Bretaiña'n bereziki, garai artan ba-ziran olako liturji-dramak: *Adan*, *Neskatx zoroak*, *Kristoren Igarleak* eta onakoak genitun, lenengo elizako koruan bertan antzezten ziranak, eta gero elizpetan.

Amairugarren mendean Santuen Bizitzetatik ateratako *Mirariak* ere aurkezten ziran; Andra Maria'ren elezarretatik atera ta atonduak ere, ez ziran gutxi; auek, matasa laua izan arren, orduko oitura ta irakaspenez beteak dagoz. Auetariko bat, guztiz ospetsua, Jean Bodel'en *Jeu de Saint Nicolas* deitua dugu, gertirudi epikua, erlijio-gaiak eta sendi-auziak nastean dituna.

MISTERIOAK.—Amaboskarren mendean, ordea, *Misterioak* edatu ziran, ugari xamar. Antzezleriak ez ziran ikasiak, erri xeetik irtenak baizik, Anaidietakoak batez ere: ospe aundia zuen Paris'eko *Pasio* Anaidiak.

Iru arotan, adibidez diot, zatitzen ziran Misterioak: 1) *Testamentu zarrekoak*; 2) *Testamentu Berrikoak*, eta emen aurkitzen dira misteriorik ederrenak, *Pasiokoa* baitik bat: Amould Greban (1439) eta Jean Michel (1486)'ek idatziak; eta 3) *Santuenak*.

Baita aipatu genitzake *misterio* profanu batzuk ere. Antzerki-mota auetan, baiña, naste bat sortu zan geroago: santu ta ez-santuaren arteko naspil matzurkeri bagea. Ala ere oztopo-arri egin ziran eta gobemuak, 1548-11-18'an, galazo egin zitun uriburuetan beintzat olako antzezkizunak. Zergatik? Protestanteak, katolikuai aztalak ebakitzen asi ziran, on eta txarraren arteko morgil ori ontzat artzen zutelako gaizki esaka; ikusle ta jokalarietan ere etzan dana santua, komeri ta trufa ta jostagaillu aiek zirala-ta; egiazko antzezleriak ere ugaritzen asi ziran erri xee ta anaidikoen ordezkoa egiñik; baita, azkenik, jente ikasiaren ao-xuria ere aldatuz zijoan.

Lau bat gizalditan, alare, onako antzerkiak jolastu zuten erria. Eliza bera zan misterio-antzezketa auek sustatzen zituna, eta agiri zarretatik dakusgunez, urte barruko liturji-egunetan, Eguberriz, Aste Santuz, Pazkoz eta olako garaietan ospatu oi ziran; eta Iñoizka, izurrite baten zerutiko babeska eskatzeko edo-ta artutako mesedeakaitik Jainkoari eskerrak emateko. Erriko etxeak ere —[^]etzan nagia egiazki<— olakoak eratu ta diruz laguntzen zitun, urteko patroï jaietan erriari jolas-bidea ematearren nunbait. Esku artzen zuten baita, ez gutxitan, aundiki, aberats eta printzeak, beren diru ta izen onez erri-oiturai eutsirik.

Misterioak aurkeztu aurretik anaidikoak edo antzerki-taldeen takoak erriz erri ta kalez kale zebiltzan deia egin eta urrengo jostaldian zer antzeztuko zan, nortzuk esku artuko zuten eta

onako zeaztasunak iragarriaz. Antzerkiak geienez luzeak ziran, eta euretan askok parte artzen ziguten: gorago aipatu dugun A. Greban'en *Pasioak* lau ekitaldi zituen, 34.574 bertso, ta ia 400 lagunek esku artzen zuten; eta J. Miohel'enak ere 65.000 bertso zituen, naiz-ta aurkeztu orduz aurrekoarena baiño laburragoa izan.

Auxo SAKRAMENTALAK.—Geroxeagokoak diralarik ere, Espainia'ko *autoak* Prantziako *Misterioen* antzekoak dira zer askotan beintzat. Erri-antzerkitik eta eliz-liturjitik sortuak, esan genezake, auek ere.

Karlos V'garenaren agintaldian (1517-1556) izan zan espainiar literaturaren lenengo goraldia, Pizkundea, eta orduantxe sartu ziran italiarren gai, bertso-era berri ta idazkera apaiña, Juan Boscan (1542'an illa) eta Garcilaso de la Vega (1501?-1536) olerkariakin. Lope de Vega (1562-1635) ta Calderon de la Barca (1600-1681) *auto sakramentalik* ederrenak idatzi zituztenak. Espainiar idazleen *autoak* eta prantsesen *misterioak* gauza berdin xamarrak izanik ere, ez dute adierazten zer izkutu bat bakarrik; baizikan ekintza bat, zerbitzu bat, antzetzte berezi bat aitzen eman nai dIgute.

GURE ERRI-ANTZERKIA.—Aberatsa dugu euskal erria, oiterra, siniskera, dantza ta jolasetan, ots, korografi-gaietan. Guztiok, berriz, ar-eman ertsia dute antzerkiarekin. Gai ontan oso jakintsua dugun Antonio Labaien'ek onela: «Asikin bezela teatru-gai sail joria aurkitzen dugu gure ekandu ta jaietan, ziñuketak, erakusketak, bizidun sentikorak, eliz-birak, antzekizunak. Gure folk-lorea ere erri-norki edo pertsonajen bilduma aberats dugu: *Olentzaro*, *Txanton Piperrri*, *Amona Mantagorri*, *Zanpantzar*, *Xelemon* eta abar; gai guztiok ditugu antzokira eramateko aiñakoak; eurotako batzuk, gaiñera, iritxi dute jadanik gorpuztasuna gure jostailuzko oltzetan» (*Teatro Euskaro*, Donostia, 1965, 1 alea, 18 orr.).

Ez dugu aitzu bear gizaldiak zearko gure liturji-antzerkia ere. Erlejoak eraginda jaiki dira erri ta aro guztietan antzerki-lanik jorienak, naizta guk geure teatru-zelaian ez ezagutu olako texturik. Beste errialdeetan egiña, ala ere, gure asabak ere egingo zuten, ez izan duda-mударik; beraz, Aste Santuko ibildeunak, Pasioko ta beste liturji-egun batzuetako zeremoniak ospe larria izan zuten gurean ere (Ikus J. Urkixo, *Del Teatro Liturgico en el Pais Vasco*, RIEV, 1931).

Dokumenturik euki ez arren, iñoiz esana da, gaztelerazko «auto» antzeko *Pasio* bat aurkeztu zala Lesaka'n, 1556'an. Egia ote? Izpazter'ko seme Agustin Basterretxea'ren *Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasiñoa* ere aipagarri danik ezin ukatu daiteke

ZUBEROAKO PASTUALAK.—Gai ontaz Zuberoa'ra begiratzen ba'dugu, auxe dakusagu bela-belakoan: erri-antzerkiak ba-duela an jasa ta garrantzia. Ta arrigarri zifiez gisa ontako antzerkiak lurralde artan bakar-bakarrik aurkitzea; beste sei euskal probintzietan ez dugu olakoen atze ta aztarrenik. Ba-liteke, beraz, gurean ere aintziña bateko oitura izatea, Prantziko eskualde askotan, amaikagarren gizalditik asita, oitura zanez. Zubero alde txit ugaria da kanta, dantza ta ekandu bitxietan. Nork igarri, auek ere, noizkoak diran?

Oraindik ere an dirauan pastoral-giroa Erdi-Aroko ondakiña dugu, egia esan. Gure pastualak «kantuz ta soiñuz ta dantzaz antzeztu oi dira —idatzi nuen lenago—, ta opera antzeko onei, ots, gorapen, artzain-lelo ta alegi onei, lenago, operaren asieran, andiki ta jauregitarrak zuritzea baiño beste asmorik ez eben jostaketa onei *Pastoralak* eritxen» (*Gure Bertsolariak*, 75 orr.). Eta nerraiian: «Garai atan ba-ziran Prantzi'n, batez be Bretaiña'n, olako misterio antzerkiak. Andik artuak ete? Arinkeri litzake baietz esatea. Bestalde, naiz-ta gaiak, ixtori-jazokunak, Santuen bizitza ta gaiñerakoak andik nai emendik mamiñez artu,

pizkaka pizkaka geuretu egin daroaguz ta, urteak joan urteak etorri, nok esan leiskigu orreik geureak ez diranik?» (Ibidem). Gaur ere orobat diot, eta ez dut geiegi esan uste.

Pastualok larogeta lau bat dira guztiz, eskuz idatzitako ingurrazkiak —cahiers—; gaur geienok, galdu ez ditezen, Bordele'ko erri-liburutegian dauzkagu. Argitara eman, ordea, lau bes-terik ez da oindio egin. Auek: *Antioki'ko San Julian*, J. Vinson eta Stempf jaunak 1891'an atera zutena; *Uskaldunak Ibañetan*, Baiona'ko «Eskualdun ona» kasetak azaldu zuena, *Konstantinopla'ko Helene*, Albert Leon'ek 1909'an, ainbat oarkizun jakingarriz omitua, Paris'en argitaldu zuena, ta igaz G. Aresti'k agerazitako *Kanixo eta Belxitina*.

Ingurrazti edo kuademu auek ikasi, sailkatu ta gaietan bandu dituna, G. Herelle jauna dugu. Ona nola zatitzen dizki-gun pastoral guztiok: I. Aintziña aroa (bi gai); II. Testamentu záhar aroa (8 gai); III. Testamentu Berri aroa (9 gai); IV. Santuen Bizitzak (18 gai); V. Gudu-abestiak (5 gai); VI. Adur-eleberriak (II gai); VII. Ipui-edesti aroa (13 gai); VIII. Iñau-teri-antzerkiak (bi gai), eta IX.. Zintzarrotsak (16 gai). (Ikus G. Herelle, *Les Pastorales basques*, Baiona, 1903).

Auetatik batzuk trajeriak ziran, beste batzuk komeriak. Eta aurkeztuteko aterpe bat, larrain zabal bat naiz atari bat zuten antzoki; emen jasoten zuten zurezko asto ta upelño gaiñean lurretik oin batzuk gorako oltza, bertora igotzeko iru edo lau mailla zitularik. Agaki luzeak zeuzkaten lau ertzetan ikurrin eta abar ezez apaindurik; aurrez aurre izaraz egiñiko errezel zabala, antzezlarien sar-irtenerako bi zirrikitukin; atzean, gora-go, kantari ta musikarientzat leku berezia. Gaur ere ba-dira munduan onako antzez-tokiak. Obanos'en...

Ogetamar bat antzezlari sartzen ziran geienik ekitaldi ba-kotxean; etzan andrazko ta gizonezko nasterik, gaur mutillak antolatzen ba'zuten, biar neskak eratuko zuten jaia; norgeiagoka txalogarriak ere sortu oi ziran gazte oien artean. Etsai dira beren artean: «gorriak», «urdiñak», «deabruak». Eta guztiok

beren eun margozko jantzi bakanez kokoturik dabilta. Trajeri batzuk, asi ta amaitu, ia egun osoa bear izaten dute; ikusleak alere eramankizun aundia erakutsi oi dute.

Gogora ditzakegu, atenez, *Xantibate* edo *Tobera-moustrak*; eta *Astolasterrak* berariz. Antzez-lan motzak ditugu, naiz neurriz naiz oituraz, burruka, dantza ta deabruaren zapokeritan matasa apartekoa dutenak. Gordiñak irutik bat, letraz ta egikeraz. Oietarik banaka batzuk besterik ez da gaur ezagutzen.

Azken urteotan, Zuberoa'ko antzerki-era ura suspertu nairik edo, euskal idazle azkar Fierre Larzabal'ek *Orreaga* ta beste batzuk osotu dizkigu. (Ikus P. Lafitte, *Bulletin du Musee Basque*, Baiona, 1964).

XVi M@\$2\$!®\$a

*Heuskara,
ialgi adi kanpora!*

*Lengoajetan ohi intzan
estimatzen gutitan;
Orai aldiz Mk behar duk
ohoria orotan.*

*Heuskara,
habil mundu guzira!*

(Etxepare, 1545)

AMASEIGARREN

MENDEA

Erdi-aroak (476-1453) frutu ederrak emanak zitun: Jainko birako bizitza zerutarra bermatu ez-ezik, kultura alorrean ere aurrerakuntza izugarriak egin ziran. Baiña mundua aldatuz zi-joan, eta beste aro argitsu bat zetorren izpi goriak or-emenka edatuaz. Aro berri onek era askotariko jazokunak zitun oiñarri: orduantxe eratua dugu giza-sail burgesa; ordukoak dira irar-kola ta itxas-orratza; Bizanzio'tik jaurtitako gerkar jakintsu askok Italia'ra jo zuten; Petrarka'k garai artan asi zitun giz-ikas-ketak, umanismuaren azpi-arriak egokituaz. Emendik sortu zan, bai, XV/garren mende asieran Europa osora zabaldu zan Piz-kunde eragiña, erti-bolada.

Igiera edo mogimentu au, elerti-zelaikoa genduan batez ere. Baiña arte-lan guztietara zabaldu zitzaigun laster. Elburu oni lotua zebillen besteak beste: Aintziñako gerkar ta erromarren jakintza ta literatura oiñarritzat arturik, gizonari ta munduari lehen baiño garrantzi geiago ezartzen saiatu, iGizonak Jainkoa zuen aurreko mendeetan ardatz eta jokabide; orain ordea gi-zona bera du, arro ta burgoi, ardatz eta elburu: gaiñetik ezta lokarririk nai, berak dagi bere elburua izadiaren katepean. Ger-zotik, beraz, gora aundia ematen zale errazoiari, sentipenari ta berezko senari berari. Izadiko zer guztiak, naiz bizitzan naiz artean, gorenengo maillan tinkotuko ditu. Ta izatez goitikoa baiño lenago izango da izatez beekoa.

Aro berri orren eragiñari esker, berebiziko aldaketak egin ziran jakintzan, politikan, erlijioan eta arte-gaietan. Literaturan, aurreko bideak saiets utzirik, Grezia'ko eta Erroma'ko klasikua artu ziran eredu. Ikaragarria noski Petrarka'k sartu zuen berriztea, onenak bait ditugu elertiko irudi txairoak, olerkera bereziak, izadiari buruzko alderdiak margo ederrez jaztea, maite-olerkiak eta giza-bamera jetxitzea.

Izkuntzari dagokionez, aurrena latin klasikua erabilK zuen Pizkundeak, txukun ta lerdin apaindua; baiña laster, berezkoari berea zor zaiola-ta, latiña auzo utzirik, bakoitza bere izkerari indar ematen aritu zan. Ondorioz, budtzada orri esker-rak, gorakada izugarria egin zuten erri-izkuntzak eta arte-gaiak.

Pizkunde au etzan enderri guztietan garai berdiñez jazo. Italia'n, esate baterako, XV'garren mende azkenerantza asi ta XVI'garren guztian indartsu jarraitu zuen, Angelo Poliziano, Sannazaro, Bembo, Mgel Anjel, Ariosto, I. Tasso, Maquiavelo ta besteak buru zirala; Frantzia'n, P. Ronsard, F. Rabelais eta M. Montaigne ditugu nabarietak; Alemania'n eta Olanda'n, Hans Sachs eta Erasmo; Espaiña'n, J. Boscan, Garzilas de la Vega, Valdes anaiak, Aita Antonio Gebara, Prai Luis de Leon, Herrera, Erzilla bermiotarra, eta mistikan Prai Lnis Granadako, Etxaide'tar Melon, Santa Teresa ta Gurutzeko Donibane; Portugal'en, Camoes, Ribeiro, Gil Bizente; Ingalaterra'n, Tomas Moro, Sidney, Spencer eta Shakespeare.

Euskal erria inguratzen zuten, eta beuren bi izkuntzak, ots, prantsera ta espaiñera, onela edo zeuden: Frantzia'n, 1515'garren urtean, asi berria zan Pizkundera, Frantzisko I'arekin noski; eremu zabal ontako literaturak izan zituzten beren goraldiak, baiña garai artan etzeuden orren loretsu. Izkuntza bera ere, lehendik bitan zatitua —*oc* izkuntza ta *oil* izkuntza— izkelgi askotan bereziturik zegoen. Baiña azkenik Prantzi-ugartekoak, au da, prantzi-dzkelgi edo dialektuak gainduko zitun besteak, izkuntza idatzi, bakar ta literatuzkoa egiñik. Eta ordukoak dira

gorago aipatu ditugun idazleak. Gaztelar literatura, ordea, obeto aurkitzen zan Pizkunde asieran ere; aurretikoak ziran Hita'ko Artziprestea, Aiala gazteiztarra, Mendoza'tar Iñigo Lopez, Juan Mena, Jorje Manrike ta abar.

Bi laterri oetako literaturari so-egin ezkeroz, auxe atera dezakegu garbi: sarkalde osoan alegia, urte luzeetan griegoa ta latiña izan zitzaizkigula nagusi; azkenez latiña bakarrik. Noiztik ez dakigula bertan zeuden erritar izkuntzak zapaldu, ito edo erkindurik, latiña nausitu zan, au baitzan millaka nrtez eskola, auzitegi ta liburuetan agintari, letrau, jakintsu ta Elizak erabiltzen zuena. X/I'garren mende azkenetik asi zan erri xeak zerabilzkin izkuntzetatik irugarren bat sortzen. Oni deritzagu erromantze edo latin-antzeko izkuntza.

Etzuen gure euskerak olako nasterik izan. Baiña ezta, berandu arteño, literatura esatekorik ere. Ezta arrigarri. Europa osoan, griego eta latinezkoa izan ezik, txit atzeratu zebillen erri-kultura. Jermandar izkuntzak, naizta beste erro batetikoak eta milloi askok itz-egia izan, etzuen amabost-amaseigarren gizaldirarte aurrerakada aundirik ezagutu. Irarkolari zor diogu batez ere, ta I450'an agertu zan, europar literaturaren zabaltzea.

Prantzian alere naikoa aurretik beren eskolak zeuzkaten, apezak eta prailleak zuzendnta, Paris'ko ikastetxe nagusia —Universite— X/II'garren gizaldiaren asierakoa dugu, ta andik sortu ziran besteak, Tolosakoa, Orleanskoa, Montpellier'koa ta abar. Auen eragiña etzan makala izan, jakintza ta arteak jasozteko baitik bat. Euskalerrian ez genduan, zoritxarrez, olako aukerarik izan, amaseigarren gizaldirarte: Oiñatikoa I542'an eregia dugu. Erri txikia noski gure euskal erria; eta Orezaz gaiñ, geienik beintzat, ixil ta nare bizi izatea atsegiñago ziztaigun. Eta iñoren mende.

Amaseigarren mendea ugaria dugu askotariko gertakarietan. Irarkola —inprenta— ere ba-gendnan Euskalerrian, Iruña'n bazan beintzat 1492'garren urterako; protestanteen Berriztatzea

(1521); Trento'ko Eliz-Batzarra (1545-1563), onen bitartez apaizgoa ta erlijio-ordenak ere eraberriturik; Ikeratura ta idaztizale biurtu ziran aundikiak eta burgesak. Jazokun guztiok indar berezia sartu zuten bazterretan.

Protestanteen oldarra etzan txikia izan Euskalerrian ere, Baxenabarre'n eta Zuberoa'n. Igiera berri onen seaska, Erantzi aldean alegia, euskal lurralde auek izan zitzaizkigun. Naparra erresuma, 16-garren gizaldian, Benabarre ta Zuberoa'ko bazterretaraiño edatzen zan; baiña garai artan Espaiña'n errege zan Femando katolikuak Naparrua indarrez artu zuenean, bi lur-zati aiek beren mende gelditu ziran oraindik, au da, Joana Albret erregiñaren mende. Guztiz minduta gelditu zan erregiñ au Naparruko aginpidea kendu ziotenean, eta, bere katolikutasunari uko egiñaz, protestanteen alderdira igaro zan; ondoren, mende zeuzkan lur-bazter guzti aietan kalbinisten irakatsia erakutsi ta zabaltzen alegiñak alegin ibilli zitzaizun, lenengo Biarne'n eta Benaparruan eta Zuberoan gero. Eskualde auek, orraitio, lendik katolikutasunari lotuak zeudelako oso, berrikeri oiek zirala-ta, ainbat naste, iskanbil eta gerra irentsi bear izan zituzten. 1572'an il zan Joana, berrogeta lau urtekin.

Arrezkero bi Euskalerrri dauzkagu, mugaz onunzkoa ta mugaz andikoa. Literaturaz aiek, ots, prantses euskaldunak, eredu bete aberatsagoak izan zituztenik ezin dezakegu uka, batez ere XVI-XV/I'garren mende barruan. Beti ere, guk eta aiek berezitasun berezi bat izan dugu; au da, bat izanik ere, naikoa alden-duak bizi izan gera, azken urteotara arte.

Mugaz andik euskal literaturak, amaseigarren gizaldian diñot, eredu bi ditu, besteak beste, oso gaillean daudenak: Etxepare ta Leizarraga. Etxepare'k batez ere, Inguruko literaturaen loratze bikaiña ikusiz, alegiñak dagizki berea ere zemaitarako gaitzen. Eta poema sail eder bat biribildu ta argitara emanik, mundu zabalera bialtzen du.

LABURPEN

i.º *Asiera gaitza*. Asiera gaitza izan zuen euskal literaturak. Baita iraupena ere. Euskerak, tamalez, ezin izan du iñoiz ere adierazi euskaldunaren bizitza. Eta euskaldunon zabarkeria? Neurririk ezagutu ez duena sarritan. Euskera ta euskalduna goratzeko, adibidez, erderara jo oi zuten geienak. Beraz, beste izkuntzetan argia noranai zabalduaz joialarik ere, gure euskera izkumtza illuna zan, zoko baztertu baten mintzatzen zana, literaturarik gabekoa.

Noizbait esnatu bearra zan, eta amaseigarren mendean, alboetako izkuntzak, frantsesa ta gaztelania batez ere, Pizkunde ederrean loratuz zijoaztela, bi gizaseme gotor ditugu euskal literaturari len-oiñarriak, gutziz sendo, ipifii zizkiotenak: *Etxepare* ta *Leizarraga*.

2." *Etxepare*. Beronen liburua: «Linguae vasconum primitiae», 1545'an argitara ekarria. Maite du euskera. Besteen idatziak zabal dabilta. Irri dagiote berari, euskeraz ezin idatzi daitekela esanez. Garratz dio: «...bertze nazione orok uste dute ezin deus ere skriba dai-teiela lengoaje hartan, nola bertze orok baitute skribatzen berian».

Eta Orixe'k diosku: «Detxepare'k erakutsi digu baietz argi ta garbi. Ez da biotzaldi aundiekiko poeta, baino bai leguna, itz utsik eztuna, jaso, lenbizikoa ez-ezik, gaurkoa ere izateko; idaztankera lasterra ta muinduna du, ebakia ta adi-erraza. Neurria erderaren *cuaderna via maizenik*, eta neurtitza amasei silabaduna, kantatu gabe mingatzeko nonbait-orkoa» (*Euskal Esnalea*, 1927, 192 orr.).

Irarkola garaia da, gizaldi erdi bat bezela asmatua. Berak ere, btsteen antzera, euskeraz idatziko du ta irarkolara eman. Euskera, bere izkuntza, bai, Europa'ko Izkuntzen Berbizkundean sartuko du, aiekin dantzatu dedin. Auxe zan Etxepare'ren asmo ta nai bizia, orrela gertatu ezpazan ere. Ezin dezakegu uka: Etxepare'k, asi ta ekin, biri-bilki bat, ziklo bat betetzen du euskal literaturan.

3. *Izar txikiak*. Baita Etxepare'ren ingurumari jarri bear ditugu, izar txiki bezela, beste auek ere: Jean Etxegarai, Arnaut Logras, San-

txo Elso, Betolaza, Nikolao Landucci, Andres de Poza ta Pedro Madariaga. Apalak izanda ere, ez ditugu utsean euki bear auen saioak. Bego, beraz, auen aipamena ere, Etxepare ta Leizarraga'ren erdian,

4.º *Joanes Leizarraga*. Mugaz bestaldetik protestanteen irakatsiak sartu nairik zebillen Joana Albret erregiñaren aginduz *Testamentu Berria* euskeraztu zigun Leizarraga'k. 1571'an argitara emana. Bereak ditu beste idazti biok ere: *Kalendrera* ta *ABC edo Christinoen Instructionea*; 1571'an argitaratuak, auek ere. Utsak izan aren, ezta itzulpen txarra. «Gramatikoak euskal aditz edo verbo'rik ugariena Leizarraga'n arki dezakete», dio Orixe'k. Arrobi bikaiña da, noski, orduko euskera ikasi nai duenarentzat. Aren lanak geroztik ere argitaratuak izan dira; Strasburgo'n, ig'co'garrenean bein, «I. Leizarragas Baskische Bucher von 1571» tituluaz, Schuchardt eta Linschmann'ek gertatuta; eta egunokaz, 1970'an, pusketa batzuk beintzat, G. Aresti'k antolatuak.

5.º *Esteban Garibai*. Euskal Idazlari izan ez-ta ere, gure erriaren agotik jasotako esaera zaharrak beintzat mordoka argitaratu zizkigun. *Memorial historico* dalakoan aitatzen ditu atsotitz eta errefracurik asko, geroago *Los refranes de Garibay* tituluarekin azalduak. Kanta zaharrak ere, or-emen aurkitzen zitunak, ez zeuzkan bertanbera uzteko.

6.º *Esaera zakar bilduma*. Onezaz gaiñera, Bizkaian bazan aurretik ere esaera zakarrez osoturiko txorta bat: *Refranes y Sentencias*, 1596'an argitara emana. Euskeraz eta erderaz. Nork egin ote zuen bilduma au?

1.—BEÑAT ETXEPARE (... 1545...)

LEHEN-IDAZLE?—Bai, gure bertsolari, esakun zahar, XIV ta XV'garren gizaldietako anai burraketako kanta ta maite eresiais aldebat utzita ere, ta Erdi-Aroko euskal poesia, aozkoa diot, aberats eta loratsu nabarmendu arren, Etxepare degu euskal idazle aurrenena.

Ezta arritzekoa, beraz, euskaldunon lehen idazleari buruz zerbait jakin nai izatea. Ta askotxo dira ortan saiatuak, len eta orain; euskalarien artean gutxi ditugu, onela edo arela, ari ukaturik egin gabeak. Aren aditzari ita gramatikari buruz, batez ere, Zenbait zeaztasun adierazi dizkigute auek beintzat: Fr.-Michel, Jaurgain, Huarte, Stempf, Urkixo, Schuchardt, Ernst Lewy, R. Lafon, Gil Reicher, L. Mitxelena, L. Akesolo, Berriotxo Anaiak eta abar. Nainondik so eginda, jakingarri zaigu, izan ere, orain lareun urteko idazle jator ura.

BIZITZA.—Etxepare'n biziaz zer gutxi dakigu, zoritxarrez. Eta dakigun apurra ere, bere poesi-liburudk erakarri dezakeguna besterik ez degu, ots, bere liburu «Linguae Vasconum primitiae» (1545) argitaratu zanean ere, itxuraz, Eiheralarre'ko erretore zala, ta nun-edo-nun baitegiratua egona zala. Lenbiziko zeaztasuna liburuaren azaletik dakigu, ta bigarrena, liburu

ortan datorren «Mossen Bemat Etxepare'ren kantuya» deritzan olerkitik. Deus ez dakigu besterik, seguru beintzat; ez nun ta noiz jaio zan, ez noiz ta nun ii zan, ez nortzuk zitun guraso, ez eta nun osatu zitun bere eliz-ikaskizunak.

Ark eta onek dioenetik, ala ere, eskubete zeaztasun bildu genezake. Bee-Naparruko Seigarren merindadean jaiotzen da. Noiz? 1493'an? Nun? Ditekena da, Eiheralarre, Donibane-Garatzi'tik iru kilometrora dagoen erritxo, aren sorterra izatea: inguru ontako izkerea darabil bere poesi-liburuan.

Edesti pizkat: Inguru ontatik igaro oi ziran, Ibañeta'tik zear Konpostela'ra zijoazten erromesak. 1516'an Etxepare Donibane-Garatzi'ko moltoan dago, erri au gudariz esitu zutenean ain zuzen, eta gezur-salakuntza ostean, giltzapean jarri zuten; 1518'an, ageri danez, Eiheralarre'ko erretore bezela, aurretik, Pedro Mendikoaga'ren ondoren, Donibane-Garatziko apaiz-buru, bikario izan zalarik. Nork izendatu zuen? 1520'an il zan Bertrand Lahet'ek, bear bada. 1545'an, oraindio bizi zala nunbait, bere liburu «Linguae Vasconum primitiae» argitaratua izan zan.

/ru eratan idatzia dager aren deitura: *Etxepare*, *Detxepare* ta *Etxapare*. Abizen au, aurki, Donibane Garatzi Inguruko aundikien jauregi-etxeetatik zetorkiona zan, onen izeneko etxeak gaur ere Sarraskete, Beorlegi, Zabaltze, Ostabaret, Ibarrola, Armendaritz eta Baigorri'n aurkitzen ditugu-ta. Eliz-gizonak ere ez dira urri Etxepare deiturakoak.

Beñat Etxepare, gure idazle trebea, Zintzoa izan zitzaigun gizaseme bezela, ta benetako arima-zaia izan zanik ere ezin dezakegu zalantzan jarri: orrelakoa agertzen bait zaigu bere olerki-lanetan. Inoizka esan danez, berrogei ta bat urte zitula egin zan apaiz, aurretik mundutar amets askok ustel irten ziolako. Ba liteke. Olako zerbait ere agertzen zaigu bere olerkietan.

ESPETXEAN/—Amaseigarren mende lenengoetan ba-zan az-tala-mazkeri ta arrabotsik Naparroan, Beame ta inguruetan; eta, azkenez, lendik beren lurraren jabe ziranak iñoren orpopean lotu ziran. 1512'an, Espaiña'ko errege Fernando Katolikua, Al-ba'ko dukeari esker, Napar erreinuaikin jabetu zan; baita ondo-[^]ren, Beame ta Foix'ko konderrian erabat nausi zan Joanes Al-bret I'goa, Naparrutik eta Baxenaparrutik uxatu ere. Andik lau urtetara, alare, Joanes II'garrenak —onen alta illa bait zan— Donibane Garatzi inguratu ta Baxenabarra osoa beregandu zuen berriki. Mugaldekp istillu latzak ostera ere; ta, atzenez, osorik erori zan Naparroa espaiñarren mende; Karlos V'garrenak, bai-ña, mendiz andiko erri-goraberak zeatz eramatea etzitzaiola errez izango ta, Foix'ko etxearen esku utzi zuen Baxenabarra. Garai artan ezarriak ditugu gaur ere zutik dauden Auñamendi-mugak.

Urte latzak, egiaz, aiek bertakoentzat. Izango zan bame-ga-rraztasunik. Ez gutxi gero eliz-gizonen artean ere: oso gaitz zaigu, ba, Olakoetan alderdikeritik iges egitea. Etxepare ordun Donibane-Garatzi-ko bikario zan, eta Eihelarreko erretore. Zer gerta zan? Batzuk uste dutenez, Espaiña'ko erregearen alde agertu zan, edo beñik-bein olakotzat salatu[^] zuten. Eta Joanes agintariak Bearne'ra dei egin zion, «maltzurkeriz», berak dioa-[^]nez, eta giltzapean jarri zuen poliki asko. Nun? Paube'n? Ap-aiz salatuak, alere, etzuen errudun ikusten bere burua; ark dio: «Erregeri dakidala nik eztizit faltatu».

Kezka bat zuen espetxean zegoelarik: izterbegiena, edo-ta iñoren oker-utsak nai gaiztoz biltzen diardutenen aurkakoa. Gi-zonki azaltzen du, etsaien mende jausitakoan, zer gertatu oi dan ere. Bere espetxe-kantuaren Seigarren ahapaldian taiu ontan negartzen zaigu:

Ni, gaixoa, etsaiari nihaur jin niz eskura,
ene untsa eginak ere orai oro gaitz dira.

Haren menian ezpanengo, nik nukeien zuzena;
mirakulu banagi ere, orai ene ogena.

Eta atxillo dago. Goi-pentsamentuz da alaitzen, barneratuaz:
on egiñez eta gaitza eramanez bear dugu salbatu. Gogapen bizi
ta zerutarrez gaiñezka dagerkigu ahapaldi guztietan. Oiñazez
samindua dago, baiña inpernuan daudenak are geigo pairatu
bearra dute. Adi;

Mosen Bemat, pentsa ezak, kartzel ori gaitz bada,
nonbait ere ifemuia are gaitzago dela.
Heben bik dadukek bana, haiek ez nork konsola.
Penak heben fin dik sarri, haienak ez sekula.

Azken aurrekoan ere izterbegiak dakazki gogora. Eta an ze-
gizkien ilketak. Ona sei bertsoa au, tristuraz betea:

Ingoikoa, orai dizit egiteko handia:
hiri honetan eriotzez hiltzen duzu jendia;
gatibutan hil enadin gizon ogengabia,
osorikj Otoi, ialgiteko Zuk idazu bidia,
izterbegiak eztakidan gibeletik irria:
«Ogenduru zuian eta han galdu dik bizia».

Ez dio eriotzak nun egiten zituztenik, Bearne'n edo beste
tokiren baten. Orduko kondairaz txit ikasia dan Tocco-Chala'k
dioskunez, ala ere, 1511'tik Oloren eta Orthez'en ere erri-
zaiñak ziralarik, Paube'n aurkitzen zan epaiak eman bear zituen
errege-batzordea; ango gaztehan baitzen zituzten aginterri ar-
tako gaizkilleak. Urkatzaille bat ere ba-zan bertan, 1519'garrena
ezkerotzik. Dana dala, Etxepare gatibu zegon lekuan eriotzak
egiten ziran.

Noiz ondu zuen espetxe-kantu au? Loturik zegoela? Ala
dirudi. Ez dezu kaskarra gero, gai ortan edozein elertitan egi-

ñari zorrik ez diona baizik. Giarra oso, piper-aletxuz zipriz-tindua. Ogetalau ahapaldi ditu guztira: 18 lauko, 3 seiko, bos-teko bat eta biko bat; au da: 102 bertso 15 silabako, 8/7.

IDAZ-LANA.—Ezagutzen degun lehen idazlea da Etxepare; beronen olerki-txorta auxe degu, beintzat, euskeraz idatzi ta irarkola lenengoz einana. Marpain liburu argitaratzaileak errege-ordezkariai egin zion eskabidetik atera genezakenez, Bordele'n argitaratu zan 1545'an. «Linguae Vasconum primitiae» (euskal leen-zituak) deritzaio; idazpuru sotilla ta arroska, du-darik gabe: latinez jarri zion egilleak, naiz-ta euskeraz emana izan bame-muiña, Oso-osorik. Etxepare'k, gaiñera, ba-zekian ondo ere bere liburua zala, bere olerki argitara emanak zirala, euskal literatura idatziaren lenengo aleak.

Arantza bat zekarren izate-barne josia. Euskaiduna •—ondo zekian— trebea zan zeinbat jakintza-gaitan, «letratu» andia; etzan, orraitio, iñortxo ere oraindik saiatu bere izkeraren «faboretan», euskeraz idatzi ta argitara ematen. Ezer idazterakoan erderara jo oi zuen faltatu gabe; erdel-izkuntzaz kultura ta gogo-lantze osoa artu ez-ezik, basa-izkeratzat zeukan euskera; ez omen zuen deusik balio gauzak azaldu ta adierazteko. Egoera ortan zeukan bere euskera zahar maitea, etxeok ezetsia ta kanpokoak aintzat artu gabea. Onek odoitzen zion biotza, ta, lotsakizun orren miesa urratzearren, or doa kalera bere liburua. Azkarki dio: «Heuskara, ialgi adi kanpora!».

Bemard Lehete'ri eskeintzen dio bere poesi-^orta, «erregeren adbokatu bidezko ta nobliari». Olanik itz-aurrean: «Eta Orai zuk, jaun noble eta naturazkoak bezala, baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen Heuskara; zuri, neure iaun eta iabia bezala, igorten darauritzut heuskarazko koplá batzu, ene iñorantziaren araura eginak; zeren, iauna, haiek ikusirik eta korreji-turik plazer duzun bezala, irudi bazautzu, inprimi-erazi ditza-zun». Jakin dezala munduak euskaldunak ba-dutela beren izkuntza, «berzek bezala», itzez eta idatziz erabilli daitekena.

Auxe da bere xedea koplak antolatzerakoan. Eta era bitako koplak antolatu zizkigun: ainbat erlijioari buruzkoak, «giren guziak lenkoari otoitz egitera» bultz-eragitekoak, eta beste ainbat kantatu ta atsegin artuz denbora ematekoak. Au da, Etxepare'k batetik euskera jaso ta gaillendu nai du ta besterik, au erabilliz, Jainkoa otoiztu. Labur: mundu onetan gizonari, «prosp-eroki» bizitzen lagundu, mugaz andikoan barru dnen zorion-egarria ase dakion.

OLERKI-MUIÑA.—Amabost edo amasei kopla ditu guztiz; eta azkenengo irurak, ots, espetxe-kantua ta euskal omenezko' biak kendu ezkeru, gaiñeko guztiak bi maitasun oso ez-berdin, Jainkozkoa ta gizatiarra, kantatzen dizkigu, Erlijiozko poesiak 595 bertso dituzte, maitezkoak 403; giltzape egon zaneakoak 102 bertso, ta Kontrapasak eta Sautrelak 59 bertso. Guztira: 1.159 bertso. Geienak 15 silabadun laukotan egin zituen, zortzigarren silaban ebakia dutela.

Lenengoetan Jainkoa du kantagai, edo obeki, kristau dotriña azaltzen du, garai artan oitutzen zanez, ahapaldi borobilletan. Jainkoak egiña da gizona, ez izadiak, eta Aren zerbitzuan jardun bearra du, batez ere. Ark eztu morroi nagirik gura. Ona berak ederM:

Ezein iaunek eztu nahi mutil gaixtoa eduki,
ez pagatu soldatarik zerbitzatu gaberik.
langoikoa ari duzu hala hala gureki:
gloriarik ez emanen hongi egin gaberik.

Eta kristauak, mutil gaixto bilakatu ez dedin, egunero zer egin bear duen derakusgu: goizean, arratsean, naiz elizan naiz illerrian, nolako otoitzez jokatu bear duen Jainkoarekin, Andra Mariarekin eta santuekin, fedezko egiak eta Jainkoaren lege- aginduak ere gogotan jarriaz.

Erlizozko neurtitzotan, askok uste duenez, *ludizio jenerala* dugu bikaiñenik. Izan ere, bizi-bizi margozten digu azken-epaia. Bi tokitan daudeke giza-semeak, zeruan edo inpernuan, saridun edo sarigabe.

Erioa manatzen du ezein falta gaberik
hilak oro dakatzela aitzinera bizirik,
hantik harat eztukela botererik iagoitik.
Mundu oro iarriren da bi lekutan hertsirik:
glorian ezpa ifemuian; ezta eskapatzerik.

Igesbiderik eztun epai latz ostean, zer zori dagokio munduari? Etxepare'k kanta:

Zeruia e'zta eabiliren hantik harat iagoitik;
iguzkia egonen da orienten geldirik,
ilhargia okzidenten begiz begi iarririk.
Egun honek iraunen du eben eta iagoitik,
alabana ez izanen heben gauza bizirik.

Amalan otoitz gartsu bat dakar Andra Mariari egiña, 15 ahapalditan. Bederatzigarrenak onan:

Zuri gomendatzen nuzu hila eta bizia,
neure gorputz eta arima eta dudan guzia.
Otoi, behar-orduyetan Zu zakitzat baha,
eta, Otoi, Zuk gobema ene bizi guzia,

Poema errotsua. Bertsoren batzuk ba-dute *Dies. irae* ta *Stabat Mater'&n* antza. Ez usteko alkar-etortzea noski, Etxepare ezpaitzan iñoiz ibilli besteren pentsamentu billa.

Amar dira guztira giza-maitasunari eskeiñitako kantuak:
1) *Amorosen gaztiguia*; 2) *Emazten fabore*; 3) *Ezkonduien koplak*; 4) *Amoros sekretuki dena*; 5) *Amorosen partitzia*; 6) *Amoros jelosia*; 7) *Potaren galdatzia*; 8) *Amorez errekeritzia*; 9) *Amorosen disputa*, ta 10) *Amore gogorraren disputa*.

Abesten duena ezta noski aragira garamazkin lera, irritsa; ezta Ondorioz letorkigun samin errea. Bein edo bein, bear bada, bere gaztaroko irakiñaldiak arrotzen ditu. Emazteen alde agertzen zaizu beti, gizonaren maite-su kaskarra zigor-biraz zaparrasturik. Eztu nai iñork aiengatik gaizki esan dezan. Txasta kazu bertso auek:

Andren gaitz-erraile orok behar luke pñentsatu
bera eta bertze oro nontik ginaden sortu.
Ama emazte luien ala ez, nahi nuke galdatu;
amagatil< andre oro behar luke goratui.

Irudimen sutsuz eioa dugu *Ezkonduen koplak* deritzaiona. Moral'esiak urratU' naiez dabiltzanen aurkakoa. *Amoros sekretuki dena* deritzanean, ordea, gaztez biotza artegarazi zion maite-sua dabilkio, antza, aize-motots-bizi. Ona kantatzen digu:

Artizarrak bertzetarik abantaila darama;
halaber da anderetan ni penatzen nuiena.
Hanbat da eder eta jentil, hartzaz erho narama.
Zori honian sortu date haren besoan datzana.

Era ontakoak dira besteak ere, giza-maitakeria ertz orotik so-eginda biziki kantatzen dutenak. Argia ta ikasia ematen du Etxepare'k bere koplak guztietan, makasunezko poema oetan baitatik bat. Dela Jainko-roaitasuna, dela giza-maitakeria, egiz adierazten digu beti barnean daraman sentipena, ezertxo ere estaldu gabe. Auxe ez al da egiazko olerkari izatea?

Atenez, goian aipaturiko espetxe kantuz gaiñera, *Kontra-pasa* ta *Sautrela* datoz; dantza parekoak dituzu biok, arin baizen dardaratiak. At, kanpora atera nai du euskera. Garazi'ra! Mundti zabalera!

Bertze jendek uste zuten
ezin skriba zateien;
Orai dute phorogatu
enganatu zirela.
Heuskara,
ialgi adi mundura!

LIZUNKOI OTE?—Aitor dezagun lehen-lerrotik: Etxepare, bere poesi-bilduma osoari ertsiki so ezkerro, gizaseme jatorra dugu, egizale porrokatua. Gauza bakoitzari beare izenez deitzen zion, asmamenak moldatu-eder billa etzitzaigun egundo ibilli. Egi soilla esatea, ala ere, gauza bere billoiztasun gorrian aurkeztea etzaigu ederregi. Onek lakaztuta edo, ausart lizunkoitzat jotzen dituzte askok Etxepare'ren maite-poemak. Onen liburu osoari begira P. Lafitte'k onan: «Oro neurtitz egina da. Zati ederrak baditu; bainan —egia egiari zor— apez batek segurik egin behar ez bezalako betarik ere parrasta bat». Azken itzok gogotan ditula noski, I. Sarasolak, Lafitte'ren kritika moldeari jarraituz, «garaiko literatura osoa arbuiaitu beharko lizatekeela» esaten digu.

Auzi ontan egoki zaizu zer batzuk begi aurrean eukitea. Biotzaren jabe gara gizasemeok, naimen-indarrez Jainkoak berak bait ginduan ornitu. Oroz gaiñ Jainkoa maitatu bear dugu; urko lagunari zor diogu ondoren maite-sua. Baiña ez maitakeria, legezko eztan aragi-lera itsua. Garbia izanik Jainkoa, gizasemeen biotz-griña ere bidezkoa opa du. Etxepare'k bere maite-olerkietan beztu ta azaltzen diguna, alako edo onako amodio lizunkoia duzu; griña ori iñoiz gordinxea azaltzen badigu ere, Jainkoari zor diogun alderdia dakar beti gogora.

Gure artian haur dakusat, itsutarzun handia;
nola dugun zerbitzaten hanbat gure etsaia,
langoikoa deskonozi, gure Salbatzalia,
eta orok ezagutzen dela bidegabia.

Emen Etxepare'ren joka-giltza. Gaiñera bere aldi ta giroko seme dugunik, gu gaurkoak garean bezela, ezin dezakegu uka. Erdi Arako poemagille dugu, naizta berandukor. «Hartan bezala —dio Sarasolak— ikus daiteke euskal idazlearen baitan erre-nazimenduaren berri ematen zuen elementu espiritualisten eta naturalisten nahaste eta burruka». Fede biziko gizona noski, goiko Aitaz oroitzen dana. Orrek darama Inguruko gizasemeak ere, bere anai-arrebak, goi-bizitzara bultz-eragitera. Ez dakigu orduko poeta arrotzen lanik irakurri zuenik, baiña aro artako giza-giroan buru-belarri sartuta bizi zana, bai, alegia. Etxepare lako olerkari baten lana zeatz epaitzeko, beronen aldiko giro, jokabide, gizarte-auzi ta ipi-apa nagusienak beintzat ikasi ta aztertu bearra dugu. Ortega y Gasset'ek dioañez, «gizona ta onen ingurua» ikasi bear, ertilariaren lanaz osorik jabetzeko.

Naiko nasaiak ziran orduko oiturak. Eta berreun urte lenago Juan Ruiz Hita'ko artzipresteak egin zuenez, jokatu zigun Etxepare'k apika. Eder-sena zuen eragingarri, ez iñolaz ere aragi-sena. «Beti gogoan euld —diosku J. Etxaide'k gai onetaz— Juan Ruiz'i bezala Eihalarre'ko erretorari ere edertiaren goitzeak eragin ziola batez ere olerkiak lantzean eta sekula ez erakuspide txarrik emateak. Lizunki idatzi ba'zun, aldi artako oitura nasaiak ala agintzen zutelako, edo ta garrantzirik ematen ez zitzaiolako beintzat egin bide zun» (*Amasei seme...*, 69 orr.). Aldiak aldi, dena bear da-ta, ez al ditugu gaur ere olako gordinkeriak, edo aunditxoagoak, errez xamar, bat ere lotsa gabe jartzen? Ortaz gaiñ, lau-bost besterik ez dira gordin-ixuriz dau-den ahapaldiak. Lan osoa begira ezketiño, zer gutxi iñolaz ere.

Larregi egotzi diogu, nik uste, gure lehen euskal idazle ausaritari. Bestalde, ez ote ditugu ainbat erri-kanta ere urarenak baiño labankorraok?

ETXEPAREREN OLERKI-ERA.—Neurriari gagozkiola eztu ugarria; au da, berdinxea darabil ia poema guztietan: 8/7. Etena ere, beti berdiña. Euskeraz bizki edo diptongo ez diranak—*ia*, *oa*, *ue* ta abar— olakotzat darabiltza sarri; baita, naiz bizkiak izan, bi itz erdian sinalefa egin ere. Auzoko izkuntzetan bezela jokatu zuen ontan, itxura danez. Noizik bein poto egiñagatik, bukaera edo rima bipilla du; eztu okerrik egiten. Erritar poesian geienik ageri dana 7/6 dalarik ere, batzuk ba-dira Eiheralarre'ko poetak darabilen gisaz egiñak, au da, 8/7 ere: Zubero'n kantatzen duten «Xori kantatzale eijerra», «Agota», «Xoritua, nurat hua» ta beste batzuk.

Silabak, R. Lafon'ek dio, beti dira zenbaki bakoitiak; 15, 11, 7. Bertsoak geienetan rimaz daude, banaka batzuk izanik ots-antza bakarrik daramatenak. *Amorez errekeritzia*, *Amorosen disputa* ta *Kontrapasa* izan ezik, beste poema guztiak Onelaxe —8/7— egiñak daude, erdian, au da, zortzigarren silabaren ostean, etena, ebakia dutelarik. Lau bertso edo piku dakarzte ahapaldiak, noiz edo bein agertu oi danarren bost edo sei bertsoko ahapaldiren bat. Iñoiz baita poema amaxzen da biko batekin. *Amosoren disputa* amaika silabadun bertsoan osatua duzu —7/6—, seigarrenaren gibelean etena dutelarik. Amazortzi ahapaldi lau pikoko guztiz.

Ba hteke erri-kantetatik artua izatea Etxepare'k geien darabilen neurkera. Joanes Etxeberri ziburutarrak ere, naizta lauko txikietan banatuta, neurkera berbera darabil ia beti; baita Harizmendi'k ere. E. S. Dodgson'ek, ordea, XI'garren mendeko gerkar poema *Les exploits de Basile Digenis Acritas* aztertu ondoren, onen eta Etxepare'k bere neurtitzetan darabilen ritmua ta pikua berdiñak zirala baieztu zigun {*Revue de Linguistique ei de Philologie Comparee*, 1893, 275 orr.}. Baiña ez da onen

zigurra. Neurkera oni —8/7^— «bertso politiku» zeritzen XI-garren mendez gero, edo-ta «quadema via»; au da: alejandriar ahapaldi bat, lau pikoduna, XIII ta XIV garren gizaldi barruan maiz erabillia. Neurkera au, ala ere, ez dator bat Etxepare'k eskukatu zuenarekm.

IRITZIAK.—Fr. Michel'en gardiz, oso txairoak dira Beñat'en koplak; noiz idatziak diran jakin ezkeru, ez dute ezer arritzekorik. Rabelais'ek berak ere, *Pantagruel* liburuetatik bat, Châtillon kardenalari eskeiñi zion iñork ere gaizkitzat airtu gabe. Lesbos'go lira.—dio oraindik— latindarrentzat durundazi zuen Horazio bezin aintzagarri dugu Etxepare, euskeraz idatzi ta argitaldu zigun Hburuagatik. Apaizgaitean bear bada, griego ta latin klasikuak irakurri zitun eta aien zerbait ba-zeraman oraindik bere barnean.

J. Urdxo'k, ordea, goi-amas urrikotzat zeuzkan Beñat'en lanok. Onela dio: «Euskeraz lenen idatzi ta argitaratutako liburuaren baliotasuna, izkumtzarekikoa dugu batez ere, ta bibliografikoa». Van Eys'ek bere aldetik: «Etxepare'ren poesirik asko eztira bulkoz ain goiak, ezta gramatika arauz ere» (*Introducción al «Linguae V. Primitiae», 14 orr.*).

L. Mitxelena'k: «Etxepare ezta liriku bakana, guk alere ezin nka genezaizkioke poeta artean goi-goi jar-azten duten trebetasun egiazkoak. Naiz erlijio barrutian naiz bestelakoetan, beti adierazi oi du txit jatorki barruan daraman biotz-eragiña, izkera nare, berezko ta bizian... Egizale, errealista duzu batez ere, eder-eredu billa etzebillena. Soila ta zeatza duzu maite minduen arteko ar-emanekiko margozketa labur bitxia, eta aien agotan jartzen ditun alkar-izketak, dramatikoak eta trufariak dituzu. Bertsoak eztu ura egundo ere lotzen» (HLV, 46 orr.).

Rene Lafon'ek: «Idazle txukuna dugu Etxepare, izkerari begiratu ezkeru; guztiz txukuna esango nuke nik, ainbat izkuntzatan argitaratutako lehen-liburuekin alkar jo ta berdinkatu ezkeru».

Eta Gil Reicher emaztekiak: «Aren olerkiak, euskerak gutxitan izan ditun lera, lirismu ta berotasunez daude. Nik ez dot uste bitxikeria danik, gure poeta bear bada aundienetarikoa dala esatea. Euskal literatura guztiko lanik yaiोजना noski».

Berdin A. Villasante'k: «Iñundikan ere olerkari aundia dugu Etxepare. Bere bertso zahar zakatzez bame-bamean dardarazten du irakudea. Ark jakin du, bai, nola bere baitan gauzea somatu ta nola gaiñekoai adierazi; gizonak izate-erroan daramazkin arropuzkeria ta zoramena, munduak eta aragiak tai gabe atzipetua nunbait: «eta beti erratua/ nola ardi itsuia/, mundu hunek, haragiak/ beti enganatua» (HLV, 55 orr.).

Eta, guenez, J. Etxaide'k: «Etxepare, eragin sendoak igitzen zuten gizon zindo ta martzala genduan, inñolaz ere. Bere olerkiak biotz zabal eta leratsu batek bakarrik darioken sugarrez igurtzirik dagoz. Eiheralarre'ko erretora etzen, noski, gizatan-keria otz, neurritasun kalkulakor eta itxurati oietakoa; are gi>txiako, bere biotzeko sentipenai, nola-naiko zirela, eragozpenik edo estalgarririk jartzen zekiena». Eta darrai: «Mossen Bernat'i euskeraren maitasun utsak eragin zion bere hbuma argitaratzea, eta Ortarako erlijijñoaz eta maite-bertsoaz baliatu zen... Euskera erabilli zizun elburu, eta erhjiñoa ta maitabidea beronen lagungarri. Bere ondorengo apaizik geienak, berriz, euskeraz idatzi ba'zuten ere, erlijijñoa izan zuten lenen elburu eta euskera maiteki erabilHarren, bitarteko, Erlijijño egiak erriari erakusteko. Axular'i berari ere, euskerak baiño erlijijñoak geiago eragin zion, Gero^ren itzaurrean somatu dezakegunez. Mogel'en *Peru Abarka* dugu noski lege onen urratzaille bakarretakoa» (*Amasei seme...*, 73 orr.).

Fr.-Michel'ek eta J. Vinson'ek «euskal Rabelais» deitu zioten. Zergatik ote? Frantses idazle biurria Pizkunde garaiko seme dugu, irarkola asmatu zanekoa. Etxepare ere piztaziko zuen Inguruko beroak, eta munduari erakutsi nai zion bere izkuntzak ere, «berze lengoajeak bezala», merezi zuela idatzi ta irartzea.

Bildur gabe esan genezake, beraz, Aitzol'ekin: euskal pizkundeko olerkari dugu Etxepare. Guk, ordea, erdi aitzurik euki dugu azken urteotararte. Euskalariak ere, zein etxeko zein kanpoko, etzuten gorai patu euskera amas berriz jantzi zuelako, linguistikak erdi itsututa baizik. Begoz, ba, aurrerantzean merezi duten maillan aren oler-amasa ta jantzi zakarra.

(Ikus F. Michel, *Le Pays Basque*, 1857, 440 orr.; R. Lafon, *La Langue de Bernard Dechepare*, BAP, 1951, 309 orr.; J. Urkixo, RIEV, 1933, 660 orr.; J. Vinson, *Bolet. Inst. Amer. de Estudios Vascos*, 1955, 100 orr.; Gil Reicher, *Le grand poete basque Bernard Dechepare*, «Gure Herria», 1957, 33 orr.; P. Lafitte, «Gure Herria», 1967, 348 orr.; L. Mitxelena, HLV, 45 ta 170 orr.; S. Onaindia, MEOE, 173 orr.; L. Villasante, HLV, 50 orr.; Auñamendi, I, 125 orr. eta abar).

2.—JEAN ETXEGARAI

Apaiza. Donibane Garatzikoa jaiotzez. *Artzain Gorria* zeritzan pastoral idatzi zuen, 1565'rantza, uri artan sarri antzeztutakoa. Olerkiak ere ondu zituan, Oiiienart'ek bere «L'Art Poetique»-an diñoanez. Bilduma bat zan nunbait euskal bertsoz geienak amabost silabatan biribilduak; azalean ba-zitun bere utsak.

Joanes Etxegarai au ote dugu Haristoy'k bere *Recherches historiques sur le Pays Basque* liburuan, len-alean, 354 orrialdean dioskun etxekoa eta Higanaute'k gaizki erabillia ta 1570'n il zan izen eta erri bereko apaiza?

ilkus P. Lafitte, *L'Art poetique basque d'Amaud d'Oihenart*, «Gure Herria», 1967, 228 orr.; Moreau, *Histoire de l'dme basque*, 176 orr.).

3.—ARNAUT LOGRAS

Etxepare'k emaniko eupadari erantzuki, ta lotaraziak esnaturik gerota geiago zabalduz zijoan euskal kezka. Eta —nola ez?— olerkariak zebiltzan aurrelari. Aipatuaz gain beste izen bat damakigu Oihenart'ek bere *Art poetique* dalakoan: Amaut Logras.

Utziat'eko Lekaidepuru zan olerkari au, ta Mixe'ko ta Ostabarate'eko bikario nagusi. Bertso pillo bat zeukan bere eskuz idatzita. Argitara ekarriak izan ote ziran? Ez dakigu.

Onek ere amabost silabako bertsotan eldn zion, eta Oihenart'en iritziz, etzan lendik taiu ortako neurririk erabili latin-darren artean, ezta prantses, espainiar edo italiar Olerkarien artean ere: aukeratu bat alexandriar bertsoak zerabilzkiten, au da, amairu silabakoak.

flkus «Gure Herria», 1967, 195-235 orr.).

4.—SANTXO ELSO

Dotriña bat idatzi zuen elsotar onek, euskerazko lenengoa nunbait, guganaiño aren ale bakarrik ere iritxi ez dan arren. *Doctrina christiana y pasto espiritual del alma para los que tienen cargo de almas y para todos estados, en castellano y vascuence* deritza, eta Nikolas Antonio'k bere «Bibliotheca hispana nova»-n eta Isasti'k bere «Compendio historial de Guipuzcoa»-n diotenez, Iruña'n antza irarri zuten 1561'an. Idazle askok —Kanpion, Sorarrain, Allendesalazar, Altadill— aipatu arren, ez d'gute beste berririk ematen, ez egilleari ez Uburuari buruz. Irar-tokia ezta ziurra; AltadiH'ek dionez, ba, Iruña'n etzegon argital-etxerik Lizarra'n baizik.

Elsu naparra zan, eta teatindar praillea. Nolako euskera erabili ote zuen? Zerk eraginda idatzi zuen? Garai artan, egia

esateko, Trenito'ko Eliz-batzarra —1545-1563— zala-ta edb, Iruña'ko ta Kalagurri'ko gotzaiñen aginduz argitaratuta, ugari samar zebiltzan or-emen kristau ikasbideak, edo dotriñak; lenngo latinez eta erderaz baiño erakusten etzana, euskeraz ere erakusten asi ziran. Orrela, XVTgarren mende azkenetik, orduan euskaldun ziran errietan —Naparruan, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian— euskeraz erakutsi izan zan dotriña.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 2.5 orr.; A. P&rez Goiena, *Ensayo de Bibliografía navarra*, I alea, 96 orr.; L. Mitxelena, HLV, 60 orr.; L. Villasante, HLVA 64 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 159 orr.).

5.—BETOLAZA

Orobat aitortu bear Bizkaiko arima-jardunez ere. Kalagurri'ko gotzai jaunaren esanez, lantxo bat osotu zuen Betolaza euskaltzaleak: *Dotriña Christiana en romance y bascuence* (Bilbao, 1566). Liburu bezela ez dugu gauza aundirik, baiña izkuntzari so egin ezkeru, badu bere balioa, naizta berandu samarreko alea izan.

Kalagurri'ko eliz-barrutiko buru zan Pedro Manso gotzai jaunak orduan bere menpean zeuzkan euskal probintzietan —Bizkai, Araba, Gipuzkoa...— euskerazko dotriñak zabaldu zituen. Baita 1600'garren urteko gotzai-batzarraren guraria zanez, aurrerantzean kristau dotriñak urtero euskeraz ta erderaz argitaratzeko agindu ere. Gotzai berberak, orrez gaiñ, bere agindu ortan aipatzen duenez, lendik ere bere aldian orrela egin oi zana zan.

Orrelaxe gertua dugu Betolaza irakaslearen dotriña, gotzaia-
ren mandatuz euskerara biurtua, ta sarri samar argitara emana. Geure egunotan ere, urte batzuk dirala, Mitxelena'k argitarazi zigun berriro.

(Ikus BAP, 1956, 83-100 orr.; L. Villasante, HLV, 60 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 159 orr.).

6.—NICOLAO LANDUCCI

/tabarra dugu, Luca-Toscana'n jaioa. Beronen lana: *Dictionarium Linguae Cantabrigiae*, 1562'an idatzia ta oraintsu Manuel Agud'ek eta L. Mitxelena'k lenengo aldiz argitara ekarritakoa. Euskalariak ba-zekiten iztegi onen berri. Ta, jakiña, badu bere garrantzia ere: lenengo euskal iztegia berau bait dugu.

Nola osatu zuen, eta nolakoa ote dugu? Euskaldun batzuen itz-mordoak edo txosten bereziak erabilli zitun lana osoratzean. Erdel itzez josita dago; beraz, Mayans'ek ba-zuen errazoia 18-garren mendean euskeraren itzik geienak erromantzetik artuak zirala esateko. Larramendi'k aren aurka eratu zuen bere lana, *Diccionario Trilingue'n*. esanaz: «Pieza es poir cierto muy despreciable, y que mas se compuso para irrision que para honor del bascuence» (Itzaurrean, XXXII). Nikolao onek ba-ditu beste bi iztegi ere —frantsesa ta italiara—, baiña euskerazkoak etzion ain bikain irten. Origatik edo, Azkue'k, bere Itzegi nagusi «Diccionario Vasco-Español-Frances» antolatu zuenean, aipatu ere etzuen egin Landucci'renik.

Itzak alere, esku askok ezarriak diran arren, ba-dute garrantzirik, eta ez gutxi. Euskal itzik asko galduak dira, dakigunez; beste batzuk, euskal abizenetan dauzkagun askok, ez dakigu zer adierazo nai diguten. Itz bitxi asko dituu Landucci'ren iztegiak, batzuk berak bakarrik dakazkianak.

(Ikus N. Landuchio, Donosti, 1958; J. Urkixo, RIEV, 1908, II, 109-117 orr.; L. Villasante, HLV, 64 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 159 orr.).

7.—ANDRES DE POZA

Orduña ondoko Lendoño-Beeko'n jaio zan antza, Madrid'en illik 1595-10-18'an. Legegizona zalarik ere, oso ikasia ta aitua

zan matematika, izar-jakintza ta itxas-gauzetan. Bizkai osoko letraua ta Donosti'ko itxas-eskolako maixu izan zan, luzaro samar.

Erdaraz idatzi ba zuen ere, euskeraren aldeze amorrabua genduan. Orren erakuskizun bezela, ona bere liburu: *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas* (Bilbao, 1587). Euskera, bere ustez, aspaldi baten Espaiña lur-buru guztian itz-egiten zana ornen dugu. Euskal esaera zahar batzuk ere sartu zituen liburu ortan.

Kosmografu ospetsu bezela, *Hidrografía* (Bilbao, 1585) idatzi ta azaldu zuen bi aletan, beriz ere 1675'an argitaratua.

flkus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 5,46 orr.; Espasa, 46, 1.132 orr.; L. Villasante, HLV, 65 orr.; S. Onaindia, «Karmel», 4-1971, 77 orr.).

8.—PEDRO MADARIAGA (...1537...)

Dima'ko semea; ez dakigu zein urietan jaio zan, baiña Oba'n du oraindik ere bere sortetxea, Baltzola'rako bide egalean, Axmutil aurrez aurre duelarik. Orduko euskaldun askori lez, mundua ikusteko miña sortu zitzaion gaztetatik, eta bere Sukalde ta mendiai agur egiñaz, joan zitzaizun adur-zale; ogei ta iru urterako beiñik bein, Esgaiña ta Italia naikoa arakatuak zintun. Zerk eragin ote zion? Nork jakin! Ibiltari bizkorra zana, bai, ba-dakigu; ©ta asko ikusiz asko ikasi zuen ikaslea.

Or-emengo izkuntzak ere^, bai, menderatu zitun. Eta azke-nez, oraindio gazte zala, ondo idazten eral<usteko eskola bat jarriz zuen Valencia'n, ango agintariak ere gartsu txalotu ziotena. Erakusbide edo metodu erreza zan berea: lehen ondo ikasten urteak egin bear zituztenai, berak ogei egunen buruan erakusten zien. Ikasle askoz inguratu zan bertatik, entzute aundiko egiñaz.

Lan eder bat ere azaldu zuen: *Honra de Escrivanos* (Valencia, 1565). Bigarrenez, idazpuru onekin argitaratu zuten: *Arte de escribir, ortografía de la pluma y honra de los profesores de este magisterio* (Valencia, 1777). Iru zati ditu: 1) Zazpd alkar-izketa, ondo idaztea goratoaz; 2) bost alkar-izketa, bi illabete-tan maixu gabe nola egoki idatzi erakutsiz, eta 3) latiñez, erro-mantzez naiz beste edozein izkuntzaz «egiazki idatzi ta oguzteko» ortografi-arte. Irugarren zatiko azken-atala Bizkaiko euskal ortografiari eskeiñia dago osorik. Titulu au darama: «Capitulo ultimo de los inventores de las letras, y de ia Ortiografia en Lengua Vizcayna, y quan elegante y antiguo es este lenguaje». J. Urdxo'k RIEV aldizkarian (1922, XIII, 249 orr.) eman zuen zati interesgarri au.

Zahar ta edertzat jotzen du Madariaga'k gure euskera, alboetako izkerakin kutsutu gabea. Ta ainitz izkuntzetan jakintsua dalako, maixuki ari da itzak eta letrak eta doiñuak nolako balioa duten adieraztean; gure letrak, batez ere z, ll, n, r gogorra, X, tz, ts, tx, h, ta abar idatzi ta oguztean. Lan laburra, baiña mamitsua.

Arrigarri guretzat aren azken lerroak. Asarre agertzen da bizkaitarrak beren idazki ta garatz-dokumentuetan euskera ez darabiltelako; ezin idatzi daitekela bizkaieraz iruditzen zale —dio—, «artarako liburuak egonik». Dimostar jakintsuak bizkaiera ezagutzen zuen bakarrik, ziur asko. Zeintzuk ziran, beraz, liburu oiek? Aren aurretikoak ziran euskal idazle bi: Etxepare (1545) ta Elso napartarra (1561); baiña etzitun ezagun auen lanak, euskai letraen doiñu ta otsetaz ark egiñiko ianetik atera dezakegunez. Ortaz, bizkaieraz idatzitako libururen batzuk ezagutzen zitun Madariaga'k. Nun dira? Azaldu ziran bear bada, baiña gaur ez daukagu aien aztarrenik ere. Ezta arritze-koa, beste euskal liburu askori gertatua jakiñik. Mordoa baita gure literaturan orrela gakkita.

(^{orr}Ikus Espasa, 31, 1.294-5 L. Akesolo, *Pedro de Madariaga, calígrafo y vascofilo*, BAP, 1966, 1, 37 orr.).

9.—BIZKAIKO ATSOTITZ BILDUMA ZARRA

Esaera zarrez osoturiko txorta bat dugu, *Refranes y Sentencias* izenarekin 1596'an —nork ez dakigu— argitara ekarria. Bizkai aldeko errefraiu bilduma da. «Itza ez ezik —dio L. Mitxelena'k—, bakan xamarra da liburu bera ere: gure egunotan beñipein eztu iñork ale bat besterik ezagutu, Alemania'ko Darmstadt'en zegoena» (*Eusker*a, 1961, 9 orr.).

Erderaz ere azalduak daude esaera zarrok. Izen-buru osoak onela dio: «Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romence con numeros sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas».

Geienik ongi azalduta dauzkagu, eta euskal literaturan eza gutzen ditugun beste antzeko bildumakin ez dute zer-ikusi aundirik; beraz, beren jatorria ta iturburua ez-ezagunak zitzaizkigun arren, bizkaieraz daude ta aietarik asko jatorrak dirudite. Sail ontan badira, gaiñera, itz bakanak, argirik naikoa ematen digutenak. *Jopu itza*, esate baterako, bild'uma ortan agiri da, «otsein», «morroi», «sehi» esan nai duelarik: «Etxean jopua ta oillarra urte betean asko da».

Gaur irrikaz gabiltza gisa ontako lanetan. Bedi, naitaezkoa ezpada ere, gure izkuntzaren onerako. Adizkiz, izkeraz eta joskeraz, batez ere, jakingarria zaigu gaur ta beti bizkaitar atso[^] titz bilduma zahar au. Urria, exkasa dala gure aspaldiko literatura, esan oi dugu. Ba liteke. Baiña... baita euskaldunon zabarkeriz gutxi aztertua ere. Urre-koskorrak ditugu, ala alarik, guk ezetsi bear ez ditugunak.

Bilduma au nork egiña dan ez dakigula ere, onako zerbait burura dezakegu: Pedro Madariaga arraitiara ez ote dugu 1596' an atera zan esaera txorta onen egille edo biltzaille? Olan galdetzen du L. Akesolo'k. Madariaga oso genduan errefirau zalea; euskal esaeren laburtasuna ta txairotasuna goratu zitun, adibide batzuk ekarriz bere iritzia sendotzeko; ark idatzitako bizkaitar ortografiak eta *Refranes y Sentencias'en* agertzen zaigunak ba-

dute alkarrekin zer-ikusia. Beraz, bere kasa jardunik, edo-ta Garibai'k Juan Idiakez'ek eskatuta egin zuen bezela, besteren batek ortara beartuta ez ote zuen burutu txorta eder au?

10.—JGANES LEIZARRAGA

Igaz —1971— ornidu ziran lareun utte Leizarraga'k *Testamentu Berria* euskeraz eman zigunetik: 1571'an argkaldu zuen Naparroa'ko erregiñak eskatuta egiñikako lana. Lan au «ez da berea —dio L. Akesojo'k—, Etxeparena dan bezela, gure euskal baratzeak berak sortua, ez biotzak eta euskal zaletasunak eragkida idatzia; auzoko alorretik aldatua da, erdal izkuntzetatik itzulia, eta iñoren aginduz egiña, Ala ere, gure egunetan iritxi degun gaindegitik begiratuta, euskera zaarraren lekuko bezela, ez dauka berdiñik, noski, eta itzultzaillaren izena gailen geldituko da bere aldiko ta geroagoko euskal idazleen artean» (*launaren Deia*, 33, 271 orr.).

Leizarraga'ri, beraz, asko zor diogu denok. Liburu Santuen itzultzaillae bezela ez dugu izan, aintziña beintzat —XVI'garren gizalditik XVIII'garrenerarte—, aren mugara kitxi danik. Urte askoz bera izan da «bakarra alor onetaa lan egiten». Idazle zahar onek merezi du, ba, gure begkune ta ederra.

GIZONA.—Idazle dan aldetik interesgarri ba'da, gizon mai-Uatik begkatuta ez dugu gu'cxiago. Aren bizitz-berririk, a'lere, oso gutxi dakigu, itzuil-lanetan asi zan arte beiñik bein; geroztik argi geitxoago dugu. Beraskoitz Baxenabarre'ko erritxu bat da; ementxe jaio zan, baiña oraindio ez dalldgu noiz munduratu zan, ez nortzuk zkan bere gurasoak, ez noiz il zan. Ez dakigu, gaiñera, noiz eta nun burutu zizkigun bere eliz-ikaskizunak. Apaiza zan, urrean, Joana Albret Naparroako Erregiñak, 1559' an, katoliku izatea utzi ta kalbindarren alderdia artu zuenean. Apaiz katolikua izan zan aurretik, baiña noiz apaiztua ta nun

apaiz egon zan ez dakigu oraindik. L. Akesolo'k: «Ontaz illunpe itsuan gaude. Testamentu Berria itzultzeko Pabera deitu ziotenean, Lapurdin zegoela besterik ez dakigu, ango errien batean apaiz edo erretor, nonbait. Lapurdin izana zala, bere euskeratik ere ateratzen zuten Duvoisin-ek eta beste batzuk» (Loc. cit. 272 orr.).

Joana Albret, bere katolikotasuna ukatu ondoren, laster asi zan protestanteen irakatsiak bere menpekoen artean, Baxenabarre'n eta Bearne'n batez ere, zirt eta zart zabaldu ta sartuazten. Ginebra'ra bialdu zitun beametarrak Kalbino'ren irakatsiak artzen; Ortez'en kalbindar Ikasgu bat sortu zuen bere pentzutan. Naspil izugarria ekarri zuen onek mugaz andiko euskaldunen arimetara, eta Baxenabarre'k batez ere gogor erantzun zien aren asmo nabarmenai; baiña indartsuak eramaten beti zatirik aundiena. Makiña bat eriotza, kartzela, zigortze ta naigabe izan zan urte negargarri aietan.

Leizarraga ere zirimol ortan itzulikatua izan zan. Kalbinisten alderdira egin zuen. Noiz? Haraneder'ek esan omen zueenez, 1550'tik 1560'ra bitartean. Baiña ezta susmoa baizik; 1563'garreneko azkenean edo 1564'garreneko asieran, orraitio, bide berriak artua zan. 1564'garrenean kalbindarrak batzar bat izan zuten Pabe'n, eta batzar artatik irtena dugu agindu au: «Lapurdin dagoen Leizarraga'ri ona etorteko agindu bekio». Zer egin bear zuen? Testamentu Berria, otoitz batzuk eta kristau-ikasbidea euskerara itzuli. Gero sari bezela, berak nai ba'zuen, eliz-artzai izateko gertatu ondoren, euskal erriko bazterren batean arima-zain izendatuko zuten.

Arrezkeroko berriak ona, laburki, L. Akesolo'k bildu bezela:

«1565-n, maiatzerako bukatutzat dago bere itzulpen lan guztia, eta Olorongo sinodoan lau artzai euskaldun izendatzen dira, Leizarragak egin duena ikusi ta zuzentzeko. Urte berean, Sauveterre-ko sinodoan, lau artzai oiek beren txostena ematen dute. On irizten diote itzulpenari; baiña eztabaida sortzen da

Leizarragaren euskerari buruz, Euskalerra guztiko ez dala-ta. Euskera ongi dakiten beste batzuekin elkar arturik, garbitu beite eztabaida ori.

Urrengo urtean, Nay-ko sinodoak Leizarragaren aipamen egin du: lainkoak doai andi ta ugariak eman ornen dizkio, eta Sauveterre-ko batzarkideei esaten zale on litzakela gizon argi ori, Nafarroako errien batera bialtzeko. Pabe-ko batzarrean, 1567-n, Leizarraga aztertu dute, beste batzuekin batean, eta fede-aitormena egiñazi die, eta besterik gabe, artzai izateko on artua izan da Beraskoiztarra, eta Labastidara bialia. 1569-n, Lescar-eko batzarrean aurkitzen da, beste euskaldun birekin batean, eta Leizarraga euskaldunen artean lan egiteko nai dute.

Goroexago, 1571-n, Rochellan degu bera, Testamentu Barria inprentatzen. Antxe idazten du Nafarroako Erregiñari egin dion liburuaren eskeintza. Pabe-ko sinodoak Labastidara bialtzen du berriz ere, Testamentua ateratzen izan dituen neke ta gastuak ordainduta gero; au, 1573-n gertazen da. Urrengo *m*-tean, 1574-n, Pabeko sinodoak beragana bialtzeko agintzen du iru ministro edo artzai euskaldunen semetxoak. Iru urte egingo dituzte berakin euskera ikasten; gero Lescar-era joango dira, Nafartarren eleiz-diruen lepotik, berikaspenak an bukatzeko.

Andik urte batzuetara, 1582-n, Labastida-ra eldu da Thou, aldi atako protestanteen istorigille ospetsua. An aurkitzen du Leizarraga, Testamentu Berriaren leenengo euskeratzaillea. Euskera nai erdera oso ederki egiten omen daki. Katolikoan eleizan bertan egiten omen zituen bere Itzaldiak, ordu gutxi batzuk beretzat arturik, baiña iñori miñik eman gabe, iñolako zaparradarik sortu gabe, pake giroan.

Azkenengo urteetan, 1593 eta 1596-n, Leizarraga ez da aurkitzen Pabe-ko sinodoetan; ordezkoa bialtzen $d < a$, zaarrez eta miñez bera ezin baita azaldu. Oraindio, 1598-n Labastidan jarraitzen du, artzai bezela. Eta azkenez, 1601-n, ondorengoa izendatzen diote: Bustanobi, Donapaleuko zerbitzaria. Beraz,

1598-tik 1601-ra bitartean il zala esan dezakegu, argibide zeatzagorik azaltzen ez dan bkartean» (*Jaunaren Deia*, 33, 273 orr.).

Joana Albret'ek bere egitamua zeukan Euskalerrria erlijio berriz jazteko; bat auxe zan: jendeak bear zitun libururik oikoenak euskeraz jarri. Leizarragak ondo zekian euskeraz; erregiñak bazuen onen izenaren otsa ta Bearne'ra eraman zuen, lai Ebanjelioak eta beste esku-liburuak euskerara itzuli zitza. Etzuen langille makala bereganatu. Jakintsua ez-ezik liburu-zalea zan beraskoiztarra; euskeraren muiña sakonki ezagutzen zuena.

Giza-izateari dagokiona da au ere: naizta erlijio' berrira jo zuten euskaldun gutxi batzuk ezkondu, Leizarragak ezkongejarraitu zuen bere bizitza guztian. Orrela agertzen da beti baztar-agirietan, eta lan-sari ere artzai ezkondu gabeari legez neurtzen diote. Labur: gizaseme artez, erabakitsu ta zeatz bezela agiri zaigu nainun ,ta beti.

EUSKAL-LANAK.—Iru' Uburu utzi zizkigun Leizarragak: *Testamentu* (429 orr.), *Kalendrer*a (40 orr.) ta *ABC* (120 orr.). Iurak La Rochela'n argitaratu ziran, 1571'an. Joana Albret'ek ikusi ote zitun liburu auk? Ona Akesolo'k: «Badirudi liburu au (*Testamentu Berria*) ez zala 1571-n berean banatu ta zabaldu. Urrengo urtean il zan Nafarroako Erregiña, eta norbaitek esana du liburu ori ikusi gabe il zala. Leizarraga bera ere Rochelian agertzen da 1573-garrenearte. Orduan, azillaren 12-an, ordaintzen zizkioten inprentatzean artutako nekeak, eta urrengo urtean, 1574-garrenean, Abenduaren 15-n Pabeko sinodoan erabaki zan *Testamentu berria* nola ta nortzuk zabaldu (*Loc. oit.* 280 orr.).

I) *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria* (Rochella, 1571). Tituluaren azpian Naparroa'ko erregiñaren arma-riia dator, eta onen azpian itzok: «Haur da ene Seme maitea, zeinetan neure atsegin ona baitut, huni beha zakizkiote». Liburu-erregiñari eskeiñita dago. Ale guztiak ez ziran antza berdi-

ñak izan, batzuk geiago ta beste batzuk gutxiago daukate-ta. Testamentu Berriaz kanpo, beste zer batzuk ere ba-datoz ale batzuetan: Kalbino'ren *Advertimendua*, bataioa, aparta, ezkontza, gaixoak nola ikertu, kristau-ikasbidea, fedeko aitortza ta abar. Argitalpen bat baiño geiago egin ote zituzten lendabizikio artan?

Ez dakigu zenbat ale atera zituzten, ezta nolako arrera izan zuen ere. Baiña askoren eskuetan ibillia dugu, ta orixegatik edo, orduko beste euskal liburuak baiño zori obeak babestua izan zan, dudarik gabe. Gaur ere Leizarraga'renak «ainbeste daude, ainbat lekutan zabaldurik: Euskalerrian, Madriden, Frantzian, Alemanian, Ingalaterran, Erroman». Gaiñera *Testamentu Berria* ainbat aldiz argia ikusia dugu, bai zatitan bai osorik; osorik biritan argitaldua izan da XX'garren mende onetan: 1) 1900'an, Strasburg'en, Alemania'n zeuden aleetatik Linschmann eta Schuchardt'ek egiña; Leizarraga'ren idazlan guztiak datoz argitalpen onetan; eta 2) 1903-1908'an, *Testamentu Berria* (Londres) bakarrik, Dogdson'en ardurapean, *The Trinitarian Bible Society* dalakoak argitara ekarria. Eta aurrerago J. Vinson'ek argitaratu zuen *Documents* (Baiona, 1874), Leizarraga'ren *Testamentu Berria'tik* artutako zati aukeratuenak, W. J. Van Eys'ek Mateo deunaren Ebanjdioa, Lizarraga'k itzulia (Paris, 1877), eta aurrerago oraindik, protestante alkarteak euskal errietan zabaltzeko, 1828'an, egin zituzten argitalpenak.

2) *Kalendrerera* (Roehella, 1571). Egutegi bat duzu, Pazko noz daten, illargi berria ta antzekoak noiz datozten dakazkiana.

3) *ABC edo Christinoen instructionea* (Rochella, 1571). Kristau on batek zer jakin bear duen, eta aparta ospatzen datoztenai egin bear zaizkien galde-erantzunak ematen ditu.

Esana dugu: agindutako lanak dira irurok; orrez gaiñera, Joana Albret erregeñaren kontseilluak ordainduak. Elburua ere etzan besterik, euskal errian Kalbino'ren irakatsi berriak sartzea

baiño. Lan neketsua, ziñez; berak ere orrela aitortzen digu. Zergatik? Izkuntza guztientzat zailla da noski liburu Santuen itzulpena, gurean ordea zaillagoa, ta Leizarraga zalantzan egon zan, Oloron'go batzarrak, Agramont'eko jaunak, Beltzuntze'ko ta Meharin'eko jaumak, eta Erregiñak berak ortara bultzatu arren; berak dio: «...karguaren hartzera bathirik ezin naidikeen, eta guti falta zedin non ezpainendin xoil gibelera, nakusanean hanbataz ene entirepresa handiago, zenbatez nik skribatu dudan lengoaje mota baita sterilenetarik eta diversenetarik: eta oreino, translazionetan behintzat, usatu gabea». Baiña, azkenik, jaun-andre oien esanak lanean ipiñi zuten; baita berak dion beste larrimin onek eraginda ere: «Alabaina segur izanez ezen Heuskaldunak berze nazione guzien artean ez garel hain basa, non gure lengoajez ezin ezagut eta lauda dezagun gure Iainko launa».

Eta zein euskalkitan idatzi zuen? Izan zitun bere buru-aus-teak, luma eskuratu ta *Testamentu Berria* itzultzen asi zanean. Iru euskalki zitun inguruan: lapurdiera, benabarrera ta zuberora. Auetako itzetatjk Zeintzuk aukeratu? Eta aditz-jokoetan? Ona berak nola azaltzen digun kezka au: «Batbederek daki heuskal-herrian kuasi etxe batetik bertzera ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta diversitatea den: razoin hunegatik sensu egiazkotik aldaratu gabe, lengoajeaz den bezenbatean, ahalik gehiena guziei iarreiki izan gaitzaitza, eta ea xoil edozein leku iakineko lenguaje bereziri».

Ona argi ta garbi nola erabaldtzen duen Leizarraga'k, orduan —eta gaur— euskaldunok geuxe izkelgiakin darabilgun arazo zailla. Ezta makurtzen izkelgi jakin baten aurrean, besteak bazter utzita. Be-napartar dugu SOrtzez, baiña gero Lapurdi'n ere urteen batzuk igarotakoa. Bi euskalkiotatik artu zitun itzak eta adizkerak. «Arkaismo batzuk kontuan artu gabe —dio L. Akesolo'k—, esan dezakegu, jakintsuen iritziz, bere euskerak Laputrdikoarena duela kutsurik geien, Lapurdiera dala geien batean; batez ere, *Testamentu Berrian*. Idazlan txikiagoetan,

Zuberokoaren aztarren geiago badu, esaterako, *gizoner*, eta ez *gizonei*. Testamentu Berrian, ordea, Lapurdiko bukaerak ditugu, fonetismoak Lapurdikoak dira, eta Lapurdiko aditza, naiz ta forma zaatretan».

Leizarraga'k ba-ditu itz berriak bere liburuetan, baiña baita euskera zahararren aztama ugari ere. Aditzareti agintze-jokoan, esaterako, maiz darabil geroago gutxi baiño aurkitzen ez dan forma bat, *albei* edo *albeit* aurretik doakiola; ots: *albeileki*, *gaurko jakin beza* esateko. Baita lehen-aldiko igaroan darabil gaur subjuntiboan bakarrik erabili oi dugun forma au: *ethor zedin*, *egin nezan*, gure *etorri zan* edo-ta *egin nuen* esateko. Gero *ika itz* eragiten die guztiai, naiz Jainkoarekin naiz beste edonorekin; *zuka* ari da, ordea, Testamentu Berriari itzaurre bezela jarrri zion Erregiñari egindako gutunean.

Euskalariak beste gaJdera bat dagite emen: «Nola atera zan liburu au —*Testamentu Berria*, noski— leenengoz Leizarraga'ren lumatik?». Ezta suster gabea duda-muda au. Oloron'go artzai-batzarrak, esan dugunez, batzorde bat izendatu zuen beraskoiztarrak egiñiko lana aztertu zezan; lau artzai euskaldun ziran auek; iru zuberotar: Tartas, Piarres Landetxeberri ta Tardets; eta Lapurdiko bat: Joanes Txeberri, Donibane Lohitzune'ko semea. Auen iritziz, etzan Leizarraga'ren lana ain ulerterreza. Euskalkien auzia sortu zan, edo beintzat lau batzarkide aiek orretaz konturatu. Eta auzia garbitzea beste batzorde baten eskuetan utzi nai izan zuten. Ez daldgu zer egin zuen batasun batera gauzea ekartzeko izentatua izan ziran gizon jakintsu talde ark.

Beste galdera bat: «Vulgata'tik ala gerkeratik egin zuen bere itzulpena?» Edo prantses itzulpenen bat euki zuen begi aurrean? Protestanteak ba-zuten beren Biblia, «Ginebrako Biblia» noski. R. Lafon'en ustez, «Leizarragak, 1560'ko argitaldia erabili zuen, bear bada. Orri jarraitzen dio, ez Vulgatari ez Gerkerazkoari jarraitzen ez dionean». Baiña beti ere Ginebrako Biblia dauka eredu bezela. Azkenez, bego au argi: bere itzulpenen-

rako kalbindarren Biblia erabili arren, «Leizarragak ez zion ezer kendu ez erantsi nai Jaunaren Itzari». Orixegatik edo, Larramendi'k, Baiona'ko kalonje batek emanda itzulpen-ale bat bere eskuetan euki zuenean, esan zuen: «Por lo demás, no se puede conocer que sea calvinista el txaductor, que esta a mi entender muy ajustado en su traducción» (*Diccionario trilingüe*, XXXII). Haraneder'ek, berriz, au diño: «Ezin gelditu da bere obrari eretxiki gabe Zenbait lekutan berak hartu zuen izurritik eta iretsi zuen pozoiñatik». Baiña, egiaz, Leizarraga'k ez zion bere Testamentu Berriari iziirrik ez pozoirik erantsi.

IRITZIAK.—Leizarraga'ren euskera txit zaharra dugu, R. Lafon'ek uste duenez; aren aditza ezin dezakegu gaur sailkatu, oso aldatua baita XVI'garren mendetik ona. Eta P. Lañtte'k: «Haren eskuara xahartua zaiku eta nahasixea. Detxeparena bezain irakur-errea behar litake, geroztikakoa, gu ganatagokoa delarik» (*Eskualdunen Loretegia*, Baiona, 1931, 11 orr.).

Artaz ari izana dugu Orixe ere. Jainkoaren «hitza deus edeki eztakion, ez eratxiki, egin ahal dudana fidelki egin» duela aitortzen du Leizarraga'k; eta zeatz egin bear ori gogoratuz, Orixe'k onela: «Etzezaken beste edozein gaietan bezala biurgaietik aldegin». Eta euskalkiaren bat-egiteari buruz: «Ba zekien Zenbait itz eta esaera obeki esan zitezkeela euskeraz, baino ale ere lardaska samar egin da euskeratze ori; latiñean dagon bezalatsu utzia. Ba dire itz eder bakar batzu, labaki zabalean zizek antzo. Oriek ar dezazkegu iruditu txarrik eta begi-okertzerik gabe, ezpazkion yaramon itz-berritzeari... Leizarraga'k, beraz, euskal aditza ugaria eman digu, itzulketa lardaska, izketa erraza, errazegia, ta idaztankera ez gisakoa» (*Euskal Esnalea*, 1927, 193 orr.).

L. Mitxelena'k: «Lizarraga'k ederki gaindu zitun, gauzak erabat artzerakoan, aurrean agertu zitzaizkion eragozpen ugarriak. Ura irakurriaz uste izango genuke, ainbat argibide ezpa-

genuzka bestera, luzaroko idatzHanez legepetua dan izkuntzan idazten duela. Baiña egiazki, Schuehardt'ek dionez, Leizarraga bera izan zan idatzi zuen izkuntza tinkarazi zuena».

Eta L. Villasante'k, beraskoiztarrak latīnetik eta griegotik artu zitun itzai buruz au dio: «Argi atera genezake Ledzarraga'ren izkeratik latin-gerkar itzak beretzeko euskerak duen erreztasuna, eta batera Europa'ko izkuntza landu geienak egin zuten bezela, aiekin bere kultura alorra aberastutzekoa noski... Oro ar, erraldoi bakar bat dugu Leizarraga euskal literaturan, ez aurrekorik ez ondorengorik gabea».

Ilewelin Thomas'ek *Urte'ren Ethortia*, protestante baten euskal itzulpena argitaratu zuen; itzaurrean aitormen au egiten zuen: Testamentu Eerria euskal errian asko zabaldua izan baltz, geroago Morgan'en Bibliak Gales'ko izkuntzari egin zion bezelako mesedea egin zezakeola gure euskerari: «euskerari literarioa sortu, euskerari batasuna eman, euskalkien arteko banatasuna ausi» ta abar.

Eta L. Akesolo'k: «Zer esan? Balizko errotak iTiñik ez omen du eiotan, eta alperrik ariko gera zer gerta zatekean asmatzen. Ala ere, Leizarragaren euskera ez zan, bere aldian bertan, euskaldxm guztien batasuna egitekoa, ez guztiek ulertzekoa. Berak ere bazekien ori. Nolabaiteko batasuna egin zezakean lapur eta nafartarren artean. Andik kanpora, ez ain errez. Zorionez gure euskerak Gales'ko izkuntzak baiño bizi ohea izan ote duen nago, eta Morgan'ik gabe, bere banatasunean, osasuntsuago iraun du beste izkuntza askotxok baiño. Ez da gauza utsa. Batasunik gabe ere, bizi gera. Eta bizi geralako, ospatu-nai degu gure Leizarraga, gure batasunaren sortzailletzat ez bada ere, bai gure izkuntzaren leen-friutu emaille eta iantzaille bikaintzat, bederen. Orain, beintzat, ez du arrera txarrak ez surik izango. Orain, beintzat, ez da aren aldiko gudu ta bumika-

girorik. Orain badakigu nor nor dan, non dan ta nora dijoan orduko eztabaidazko gaietan, eta elkar ongi artzeko giroa sortu da».

flkus G. Lacombe, RIEV, 1907, 180 orr. eta 1931, 363 orr.; J. jaurgain, RIEV, 1907, 288 orr. eta 1908, 601 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 5-41 orr.; H. Schuchardt, RIEV, 1911, 194 orr.; L. Mitxelena, HLV, 48 orr.; L. Villasante, HLV, 55 orr.; L. Akesolo, *Jaunaren Deia*, 33, 271 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 149 orr.; J. Etxaide, *Amasei seme Euskalerriko*, Zarautz, 1958, 125 orr.").

11.—ESTEBAN GARIBAI ZAMALLOA (1533-1599)

Jatorriz oiñatiarra izanik ere, Arrasate'n jaio zan 1533-IIT-9'an. Bere jaiotetxeak, 1873'an erre aurretik, idatzi au zeraman sarrerako ate-buruan irarrita: «Ementxe jaio zan Esteban Garibai ta Zamalloa, igandez, 1533'ko epaillaren 9'an, eta ementxe idatzi ta bukatu zuen, 32 urte zitularik, gurean lenengoz argitaratu zan «Historia General de España».

Lenengo ikaskizunak iru maixugandik —Bidazabal, Albistur eta Arriola— artu zituen. Oiñati'ko Ikastetxe nagusira joan zan gero; andik Gazteiz'era eta Santo Domingo de la Calzada'ra, nainun eta noiznai ikasle bizkorra ta argia agerturik. Nor-tasun aundikoa zetorren, dudarik gabe; ta oraindik gazte zala ere, orduko Loiola'n aurltzen zan Borja'ko Frantzisko'k berak idatzi zion esbutitz bat, 1555'an. Urrengo urtean, zezeillaren Tan ezkondu zan Arrasate'ko alaba Katalina Asurdui gaztearekin: seme bat izan zuten, 1558-4-27'an jaioa.

Mondragoiko alkate izan zan 1568'tik, baita Gipuzkoa'ko Batzarrekoa ta mugan bialgaien begirale ere. Baiña etzan agintzea bere berezko deia: istori-gauzai emana zebillen jo te ke la bukatua zeukan bere *Compendio Historial*, eta berau argitaratzeko Gipuzkoa'ko Batzarrari eskatu zion 'laguntasuna;

etzuen ala ere ezer iritxi. Orduan bere kontura argitaltzea erabaki zuen, eta 1569'an, Emani'ko Batzarrari bere karguen garbitasuna emanik, Flandes'era joan zan bere *Compendioa* argitaratzen. 1570 ta 1571 Amberes'en egin zituen, Plantino ospetsuaren irarkolan liburuaren ateratzeaz arduraturik. Lana bukatu ta etxeratuz, berriro asi zan bertatik, Bilbao'n, Madrid'en, Toledo'n, Sevilla'n... paper zaharrak arakatzen. Ontan emaztea il zitzaion, 1572-11-27'an, 16 urte alkarrekin bizi ondoren. Geroago, berriz ezkondu zan Toledo'ko alaba Luisa Montoya'rekin.

Argitaratu zuen Uburuak izen aundia ekarri zion Garibai'ri. Eta onen pozez edo, langille zail zebillen ango ta emengo artxibu ta paper txortak aztertu ta miatzen. Bere gauzetan zolia ta nekagaitza zalako, Felipe II'garrenak kargu aundiak eman zizkion: bere Ostatari egin zuen 1576'an, bere Hburutegi-zain eta Kronikalari 1592'an. Ziur ez dakigu nun —Madrid'en ala Toledo'n?— eta noiz —1599'an ala 1606?— il zan; eta aren gorpua Mondragoira ekarriko zuten noski, emen bait zeukan bere illobia: kronikalariaren seme Esteban Garibai ta Montoya'k, bada, 1611-10-25'an egiñiko testamentuan, Arrasate'ko frantziskotarren komentuan daukaten sendi-illobian beatzea nai du.

Komentu au, ain zuzen ere, berak ainbeste lagundurik jasotakoa dugu. Iru lekaretxe zitun begiko: frantziskotarrenak bi, Mondragoikoa >ta Azkoitikoa, ta Toledo'ko jesuitena. Asko lagundu zien aueri, bai diruz bai bere bitartekotasunez. Ordena auetako nagusietan ere ar-eman barrukoa izan zuen. Eta-nola ez?—Santa Teresa aundiarekin ere bai. Biok ziran, dakizunez, ibiltari aspergaitzak; baiña entzutez baiña etzuten alkar eza gutzen. Egun batez, orraitio, biak Toledo'n aurkitzen zirala, Garibai'k, ango karmeldar prailleen adiskide zanez, bertako nagusiar, Aita Yepes'eri txartel bat eskatu zion, eta txartel onekin

joan Teresa Amagana ta alkarrekin mintzatu ziran. Eta Garibai'k bere Oroitzapenetan onela: «Oraingoan asko poztu nintzan berarekin, baita beste batean ere; Teresa bera ere bai poztu zan, ni ikusten joan nintzakiolako» (*Memorias*, 372 orr.) 1577'garren urtean izan zan alkar izketa au.

BERE LANAK.—*Izkuntza* asko zekizkin, latin, griego ta abar, baiña Garibai'ren arlo berezia istori-gaiak ziran, eta ortan punterengo agertu izan zan beti. Bere ian ugarien artean, auelc dira beñienak:

1) *Compendio historial de las crónicas e Historia universal de todos los reinos de España* (Amberes, 1571). Lau ale lodi argitaratu zituen, XL liburutan. Espaiña'ko erreñu guztien lengo kondaira dugu, aldiz urren osatua; Ortarako, ordea, Espaiña ta Portugal'eko artxibu ta liburutegiak zeatz arakatu bear izan zituen. Eta arrigarria da, ziñez, arrasatetarrak egin zuen lana.

2) *Ilustraciones genealógicas de los Reyes Católicos de España* (Madrid, 1596).

3) *Grandezas de España*. Auxe noski Garibai'ren lanik garrantzitsuena, baiña zati batzuk izan ezik, oraindiño ere argitara eman gabea. Amaika ale aundi dira 243 foliotan bananduta. Azken aleak bakarrik argia ikusi du; Academia de la Historia'k argitaratu zuen 1854'garren urtean *Memorias de Garibay* izenarekin.

Iru liburu auetan datoz Euskalerrari buruzko ainbat gauza, berri ta kondaira. Bizkaiko, Gipaizkoako ta Arabako gauzarik asko Gaztela'ko erreñuan sartzen ditu; Naparruari, ordea, erreñu azke ta bere jabe batt zan, edesti berezia eskeñi zion, urrengo gizaldietan Aita Jose Moret jesulagunak jarraitua. *Memorias* derkzan liburuan etxeko gauza asko: sartu zituen, gure edesti-apur, esaera zahar, errefrau ta abar. Auetatik zer batzuk

J. K. Gerra'k argitaratu zituen, lenengo RIEV aldizkarian, 1908-1912, eta gero izen onekin: *Ilustraciones genealógicas de Garibay referentes a solares vascos* (Donosti, 1933).

ESAERA EDO ERREFRAUAic.—Txorta bi dira. Bata *Memorial histórico español* (VII alea) esan dugunean datorrena, ta bestea Francisque Michel'ek bere «Proverbes Basques recuillis par Arnauld Oihenart» (Rochella, 1847) argitara emaniko esakun zaharren artean, 255-266'rako orrialdeetan datoztenak. Txorta biok, Garibai'k berak dionez, beronek bialdu zizkion Juan Idiakez donostiarrari; Idiakez au, dakigunez, jatorriz asarratetarra genduan, eta Espaiña'ko Errege Felipe /rgarrenaren ministru, Aita Bañez dominikuak «gure endaren omena» deitzen ziona.

Bi xorta auetatik, alere, gureganaiño ezta bat ere iritxi, esku idatzi edo autografi bezela diot. «Liburutegi Nazionala» deritzanean aurkitzen da gaur ere G 139 itz-motz eta zenbakiak daramazkin kodes edo orri-xorta; baiña emengoa ezta Garibai'ren izkia, XVII'garren mendean egiñiko aldakia baizik, eta aldaki auxe dugu Academia de la Historia'k 1845'an argkara ziguna. Beste idatzia (Cc 79) lenago Laterri Liburutegian zegona ta Benito Maestre'k F. Michel'i emana da, onek «Proverbes Basques»-en geigarri bezela atera zuena. J. Urkixo'k berriz argitaldu zitun esaera oiek, azalduta, *Los Refranes de Garibay* (Donosti, 1919) deritzan liburuan.

Garibai'k darabillen izkerari so egin ezkeru, esaera auetan nabari da euskelkietako alde pixkat. Mondragoe aldean, Leintz ibar osoan bezela, bizkaiera darabille geienbat; eta izkedgi ontan daude Garibai'k bere lanetan eskeintzen dizkigun kanta zaharrrak: «Oñetako lur au jabilt ikara», «Milla Lastur» eta abar. Baita Cc 79 esaera xorta ere. Beste bildumak, orraitio, au da, G 139 xortak, *Memorias... Refrdnes en vascuence compuestos por Esteban de Garibay y Zamalloa* (Madrid, 1854) deritzan pilloan dauzkagunak, bizkaieraz dauden arren, badute giputzkutsua. Aldatzaillea gipuzkoarra zalako, bear bada?

Esakun auek, dudarik gabe, batzuk Garibai'k berak asma-
tuak izango dira; beste batzuk erriaren agotik jasoak, eta beste
irugarren batzuk, inguruko girotik iges egitea neketsu zaigun
ezkero, prantses, beames ta espaiñarren erara antolatuak. Dana
dala, geienak giza-gogotik berez sortuak dira; antziñatik alere,
ta agoz-ago gureganaiño iritxiak.

KANTA ZAHARRAK.—Euskaltzale jatorra gendun Garibai (S.
Muxika, RIEV, 23 ale, 620 orr.), eta eztuzu arritzekoa paper
zar artetik naiz erriaren ezpanetatik edozein gauza arretaz jaso
nai izatea.

Bere idatzietatik dakusgunez, naizta erbeste gauzetan buru-
belarri sartuta ibilji, gogoa beti zebilkion sorterra barna ega-
lari. Pitean pitean jarri oi zituen, ba, egoki jausi ezkero, or-
emen aurkitzen zitun esakun eta kanta antziñakoak. Kanta zaha-
rrak, geien bat, orduko alderdi ta senideen arteko burrukai
dagozkienak ditugu. Bera ere, gaiñera, ganboar alderdiko sendi
leiñargitik zetorrena zan.

Gai ezberdiñai buiuz asko idatzi zigun arren —Luis Sala-
zar, Gayangos, Fernandez Bethencourt eta J. K. Gerra'k dio-
tenez—, Garibai etzan oker gertatu bere iritzietan. Gerra'k,
gaiñera, «zorrozki egitia» zala diño. Eta izan ere, naiz-ta uts
gabea ez izan, orrela genduan.

Euskerazko atsotitzai gagozkiela ere, berdin dugu, txit egi-
zalea. Itzorkuetan iñoiz uts egin zuela? Ta arrigarri al dugu
ori? Bere garaiko seme ez al zan? Euskera errotik zekian.
Oihenart'ek zioan, beronen akats batzuk argitan jarriaz: «haec
lingua ipsi vernacula esset...». Ortaz, erdal literaturan idazle
orren gaillena ez ba'dugu ere, euskal arloan eta iztegitintzan
bereziki saiatu nai diran guztiak, ez nairik ere, ark bildntako
esakun eta kanta zaharretara jo bearko dute.

GARIBAI'AREN ARIMA.—Bada mitu bat Garibai'ren arima da-
la-ta. Nundik ote datorkigu ipui au? Arrasate'ko edestigille ar-
gia ote du oiñarri, ala besteren bat? Ba-da kontaerarik.

Batzuk diotenez, Garibai, bizi zalarik, kondaira-gai billa, beti urduri ibilli zitzaigun lez, ilda ere aren arima pake gabe arat-onat dabil. Beste batzuk uste dute aren arima etzala ez zerura ez inpemura joan, eta alderrai dabillega oraindik ere. Irugarren batzuk au esaten dute: Garibai il zanean, onek Arrasate'n eukan etxea itxirik egon ei zan urteetan; geroago, famili bat bertan bizi izateko asmoz ibilli omen zan, baiña atzera eragin omen zioten etxe artan gauez iskanbil aundia somatzen zalako; an azkenengoz bizi izan zanaren arima ez omen zegoen Zeruan ez inpemuan, eta barruti artan omen zebillen iper-loka.

«Garibai'ren arima lez dago» esan oi da erderaz. Zergatik? Kezkaz, told egoki gabe, kilimolo edo-ta txit nai auleko dagoa-nagatik. Noiztikoa dugu? XVI'garren mendeko liburuetan aurkitzen da. Quevedo'k bere *Visita de los chistes* liburuan onela dakar: «Garibai'ren arima naiz ni, nork maite izan billa nabil eta guztiak iges dagke niregandik; eta zuok biziok daukazute onen errua, *Garibai'ren arima* ez Jainkoak ez deabruak etzutela nai izan zabaldu duzutelako: gezurra ta erejia duzute ori. Erejia da Jainkoak etzula nai esatea: Jainkoak arima guztiak maite ditu, ta denakaitik il zan; arimak eurak dira Jainkoa maite ez dutenak; beraz, *Garibai'ren arima* ere Jainkoak maite izan zuen, besteak bezela. Gezurra duzute, berriz, deabruak etzula nai izan esatea. Ba ote da arimarik deabruak nai ez duenik? Ez, orixe! Ark, bada, ez ditu iguingarri'gozogilleen, jantzi-saltzailleen, jostunen eta kapelagiñen arimak: nerea ere ez du izango. Ni munduan bizi nintzalarik, emakume buru-soil eta ñimiño, lodi ta motz, zurbizki ta saskil batek izan nindun maite. Au ez baldin bada deabruak maite izatea, nik ez dakit deabrua zer dan; onen arabera dakust, ba, ordekoz maite izan ninduala ta emakume onek ordekoaren mandatuz deabrutu ninduela, eta orain neke-miñetan nabil etxe-barru ta illobi auetan zear».

(Espasa, 25, 863 orr.; J. Urkixo, *El Refranero vasco*, Donosti, 1919; F. Arocena, *Garibay*, Zarautz, 1960; L. Mitxelena, HLV, S2 orr.; L. Villasante, HLV, 61 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 96 orr.).

12.—BERTRAND DE ETXAUZ (1556-1641)

Baigorri'ko semea. Axular'en adiskidea; Baiona'n gotzai zegola *Gero* argitara ematen lagundu bait zion. Onela dio urdazubitarrak bere Gomendiozko kartan: «Nor da Euskalherrian aldez edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibilli zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua... Zu izan zara Eohaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinela eta begiraille bezala, iratzarririk dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundaiñoz gero, erregez enplegatuak, estimatuak, fin eta leial frogatuak).

Euskera zelaian ere lan txalogarria egiña zan nunbait, euskal liburuak argitaratzeko ta, egilleai amas emanik. Onela darrai Axular'ek: «Zer ere eskiribatuko baita eskaraz, hura guztia Eskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, eta arrazoiñez orai ere, zuri presentatu behar zaitzula». Au esan bearra zuen, bai, bere adiskide onaren omenez eta laudoriotan.

Baiona'ko gotzaitegitik Tours'eko «Arzipizpiku» izatera aldatu zuten. Eta antxe il zan 85 urte zitula.

Etzan euskal idazle izan, baiña zuzpertzaille lez merezi du, beste batzuen antzera, euskal literaturan olako aulki txiki bat, «bai orduko euskara dokument gisa, bai eta euskaldun eredu harendako ezagutza xumea bezala», dio' A. /rigarai'k. Onez gainera, badu gutun bat ere bere anai Frantzisko Etxauz'i, 1584'an, Bordele'ra egiña. Laburra da-ta, bioa emen gutun orren aldakia.

«Ene anaie iauna —diotsa—, hunekin hirur garrena dikezi ezkribatu derauzudala, batez ere arposturik eztizit ukhen, zoiñez pena baitut, zure berri hunen iakin gabiaz, bai eta halaber altaren eta amaren-ez; heben ahal bezala nuzu hortik ialgiz ge-

roz, zamariak pentsa araziten dirautzazu: nitien arropa guziak higatu baititut eta enizi pagatu nahi; conchit galdegin dirakozut eta erran dirautazu conchit de gascon nahi dudanez, hura emanen deraudala; berze zerbizariak orok uzi dizie eta batre eztizi pagatu nahi uken, seguraz zitut ezi gizon terrible bat dela; gutun haur daramena etxeko zerbizari bat duzu, othoi egiten darauzute zure berri hunen eta aita-ameñ-ez ezkribaziaz, zombaita gauza desirazen dudana lehiaz; eztauzute ezkribatzen luzazago, fin egiten dizite presenteko hunezaz yienkuari Otoi egiten darakodala zatuen osorik eta alegerarik berere gra. sainduian, eta ni ere halaber zurian, adio.

De S. Fierre de Oloron —noben-8 garrenian— hurtez 1584.

Ene eskusak othoi aitari eta amari igor izazu' plazer ba duzu ahalik eta hobekiena. Zure anaie leala eta hun desirazen dutana, eta zerbuzue egitera obedientia ni nukezu. Beltran de Echaux. (Ikus A. Irigarai, *Egan*, 1956, 3-4, 11 orr.).

KVU Mendea

«Har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia: haur dasta ezazu, haur eskuzta ezazu, irakurtzen duzula, ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuiatzeko kontuan

(Axular, 1643)

AMÑAZAZPSGÑRREN

MENDEA

LABURPEN

i.º *Loratze ederra*. Aurreko gizalditik, politikaz ta erlijioz ain zuzen ere, naikoa naspilduta zebillen Europa osoa, Ipar-Euskalerriak ere naste orren ondorenak gorri-samar ikusirik. Iraultza-urteak ziran erriarentzat eta erlijioarentzat.

Baiña ekaitz ostean eguzki dizditsua jaiki oi da sarritan. Eta orain-goan ere bai, kulturari dagokionez beintzat. Mugaz andik emendik baiño ezialdi ederragoa etorri zitzaigun gudu ta borroka latzen ondoren, eta Prantziko euskal erriak literaturan iñoiz ezagutu duen lore-tzerik joriena euki zuen.

Lapurdi ta Zubero kultur-itxasoa poliki ebakitzen asi zaizkigun, literatura bideak zear oldartuaz. Lapurdi'n batez ere, amas eta antze aundiko idazleak jaiki ziran, barnean zuten egon-eziña, sua ta gora-naia agertuaz. Axular eta Axular'en Inguruko taldea ditugu amas aundiko euskal idazle auek.

2." *Axular giroa*. Iparraldeko literaturak betetzen du amazapigarren euskal arlo guztia. Orixe'k onela: «Axular'en biribilkia edo cicloa, bera zilbor edo buru delarik ipini diteke aurrena, uka-mukarik gabe».

Sara'ko eskola ere deitzen diote euskal literaturak artu zuen bul-tzada oni. Izan ere, Axular etzan izan bakarrik garai artako aurre-rapena sortu zuena. Talde bat zan, alkar sustatuta, aren inguruan lan egin zutenak: Materre, Ziburu'ko Etxeberri, Haranburu, Argaiñaratz, Guillentena naparra, Hirigoiti osagillea, eta abar. Denak ez dute idaz-ker a berdiña, denak ez dituzte liburuak ere argitara eman; baiña denok ditugu lapurtar literatura goi-goira jaso zutenak.

3.º *Zuberotarrak*. Zuberoa'n, bazter zoragarri ontan ere, idazle bi jaiki ziran azkar eta bulartsu: Oihenart, edestigille, olerkari ta esaera zahar biltzaille bizkor, eta Joanes Tartas, liburu ederren jabe. Idazle auek, Lapurdi'koak bezain garaiak ezpadira ere, ederki erabili zuten gure euskera ango izkelgi goxoan. Ango izarño bi ditugu Bertrand Zalgiz eta Jakue Bela ere.

4. *Axular*. Naparroako Urdazubi'n jaio zan 1556'an. Or-emen, Salamanka'n dirudienez, eliz-ikaskizunak osotu ondoren, Tarbes'en apaiztu zan. Sara'ko erretore izendatu zuten, eta ementxe egin zuen arimazai bere bizitza guztia.

Jakituri aundiko gizasemea genun, asko irakurria, garai artan Europa osoan humanistak piztu zuten eskolakoa. Liburu bat idatzi zuen: *Gero*, 1643'an Bordele'n argitaratua; egitekoak geroko uzteak dakartzin kalteak, liburuaren mami. «Euskal Idazleen Printzea» deitu diote.

Egiaz, bere utsak ditun arren, azal ta mami oreka jakinëz egiñiko lana dugu: bizi ta jatorra, pentsamentu giarrez ta aipu aberatsez jantzia. Aldian batez, umore ona ta maltzurkerizko irria ereiten ditu, lanaren astuntasuna arin gozo biurtzearren. Iztegitz joria, naiz-ta latinetiko itz askotxo erabili.

5. *Axular'en aizea*. Eskola batek argia sortu oi du ingurumari. Orrelaxe Sara'koak ere, argia ta giroa sortu zituen. Eta amazapigarren mende barru guztian, eta urrengoan ere berdin, uraxe izan zuten eredu mugaz bestekaldeko euskal idazle guztiak, edo geienak.

Ordukoak dira Voltaire, Kristobal Harizmendi, Bernardo Gazteluzar, Silvain Pouvreau, Piarres Etxeberri, Aranbillaga, Belapeire, Mongongo Dassançã, Aita D. Bidegarai, ta besteak.

6.º Mugaz emendik, ordea, urritasun ikaragarria nabari da gizaldi ontan. Zergatik? Nork jakin! Ainbat bultz-gai ditugu gizonok itzaritzeko, baita lo-erazteko ere. Euskal-gaietaz naiko idazten da, baiña erderaz: Aita Moret'ek, adibidez, Naparroa jasotzen du, Lope de Isasti'k Gipuzkoa; Aita Gabriel Henao'k *Vizcaya Ilustrada* (Zaragoza, 1637) ta *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria* (Salamanka, 1689) idazten ditu. Beste batzuk euskera goratzen dute: Baltasar Etxabe zumaiarrak, eta abar. Baiña erderaz.

Kapanaga, Mikoleta, Beriain, Aleson ta antzeko batzuk ari dira euskeraz. Gizaldi baterako, oso gutxi.

1.—ESTEBE MATERRE

Aita frantziskotarra, Akitania'ko lekaide probintziko semea. Jatorriz etzan euskalduna, berberak bere liburuxka *Dotrina christiana* derkzanaren itzaurrean aitortzen digunez: lotsaz bezela ari dala dio, euskal lurreko seme ez izanik, euskeraz idazteko ausarta izan baitu.

Sara'n ikasi zuen euskera darabil, ots, laburdiera. Eliz-izlari zan nunbait, eta egiteko ortan zebilela ongi oartu zan alderdi aietako euskaldunen alfabetatze premiñaz, eta bere liburua bi-tarteko dutela ango euskaldunak ikasi al izan dute euskeraz nola irakurri ta nola idatzi.

Materre'k, euskaldun berri dugula ere, maixu bezela jokatu zuen. Eta ba-du onek, ezin dezakegu uka, gaur izen ori dararmaten batzuen antza. Dena berriztu bear! Aurretik idazlerik izan ezpaltiz bezela. Axular'ek bere Gero'ri eman zion itzaurrean dionez, idazkerari buruz ba-zan nastea garai artan ere; batak xedea, besteak *godea*; batak bcilik, besteak igilik idatzi oi zuten. Materre'k bigarren eratan idazten zuen, lenagoko tankerak saiets utzita. Zer duzu au? Iñork erakutsitako bideari lotu naieza, noski.

Ez dakigu nundik etorri zan euskal errira. Baiña euskeraz ziurrenik ikasi zuen 1611'garren urtean Ziburu'n jasotako prantziskotar komentuan bizi zalarik, Ziburu'n bertan, Doni-

bane - Lohitzune'n, edo Sara'n, orduan emengo erretore zan P. Axular'ekin. Idazle ospetsu onek, izan ere, eragin bizia zuen, dudarik gabe, Lapurdi aldeko apaiz eta prailleengan, eta etzaigu batere arrigarri euskaldun berri au ere aren gerizpean babestu ta aren esan-erantzuz euskeraren jabe egiña izatea.

Auzi onetzaz ona zer dion berak irakurleari zuzenduriko itzetan: «Gaiñerakoan badakit Euskal-Herrian ainhitz moldez minzaten direla, eta nori bere berriko Euskara zaizala hoberenik eta ederrenik; eta handik gogora emaiten deraut ene eskeribatze molde haur etzaiela guztiei ongi idurituko; baiña nahi dut jakin dezaten halakoek nik hitzkuntza hunetan dakidana Saran ikasia dudala eta bango Euskara ongi erabiltzen badut ez naizela gaitz erraiteko, eta ez arbuizatzeko, zeren ez paitakit nik hangoa baizen. Ordea ea Sarako Euskara denz Euskal-herriko hoberena eta garbiena, ez naiz ni hartan sartzen, bat-bederak emanen du bere iduririk. Eta Sarako Euskara hunetzaz kontent eztenak eskiriba beza bertze Euskara hobeago batez eta hobekiago, ez naiz ni hargatik bekaiztuko, eta ez inbidios izanen».

BERE EUSKAL LANA.—*Dotrina chñstiana* deritzana 1617'an argitaratu zuen Bordele'n, Petri de la Court'en irarkolan. Orduan Roela'ko komentuko nagusi zan A. Materre.

Liburuxka au etzan nolanaikoa, bost argitaraldi euki zituen beintzat. Bigarrenak titulu au darama: «Dotrina christiana. Bigarren impresioean debocinozco othoitz eta oracino batçuez berreturik, Aira Esteve Materre San Franciscoren Ordenaco Fraideac hirur partetan eguina» (Bordele, 1623, Jakues Millanges'enean). Irugarrena Agen'en egin zan, Joan Gayaurenean. Laugarrena Baiona'n, 1693'garrenean, eraskin eta geigarri batzuekin; Duronea apaizarenak ziran auek, eta liburuaren idazpuru osoak onan zioan: «Bouqueta lore divinoena, bereciac eta Duronea apeçac T. P. S. V. Aita Materren Hburuari emendatuac, iduquicen dituelaric Asthe guztico egunetaco Officioac, ungui confessatceco eta errebitceco molde eder bate-

quin, bethiereeo kalendarioarequin»; Baiona'ko Piarres da liburu-egilea; 1704'an egin zan bostgarrena, Baiona'n au ere, Maffre baitan, gaur Madrid'eko Laterri Liburutegian aurkitzen dana.

/ru zati ditu liburuak. Debozinozko otoitzak dakazki lenen, eta azken irarkaldian aurretikoak zekarzkiten utsak oro kendu zituzten Baiona'ko Jaun Ipizpikuaren manuz. Bi zatitan banatzen du dotrina; lenengoan kristauak zer jakin bear duen dakarkigu, azalpen barik, eta bigarrenean gai bera azaldurik, galdegiñez eta jardetsiz.

Ziburu'ko edo itxasaldeko mariñelai zuzendu zien nunbait bere lana. Ta onela dio liburuaren atarían jarri dituen otoitzez: «Anhitz baita Euskalherrian irakurtzen dakienik, baina ez Euskara baizen bertze hizkuntzarik aditzen, halatan egin ditut hala koentzat Euskaraz debizonozko otoitz eta orazino batzuk; goizetan, arratsetan eta bertze anhitz denboratan eta okasiooetan egin eta erran ahal ditez geihenak., zeinetzaz egiten baitut hirugarren partea. Guztiak dohazi borondate on batez eginak, egiezu begitarte eta errezibi zazu nik zureak balira errezibi nitzan nahi zendukeien bezala». Ta onela dakazki ekaitz aldian egin bear dituzten eskariak, igandeko bezperak, zazpi penitentzi-eresiak, lan ebangelariak dakartenez Kristo'ren Nekaldia, San Roke'ri izurrite aldian laguntasuna eskatzeko otoitzak eta abar.

Irudimenari egoak pixkat askaturik, onela dakuse batzuk Materre. Axular'en ikasle da, orduko beste euskaltzale batzuekin. Sara'n ango aritz-tantai baten ostopean exeritzen dira Axular eta bere lagunak, apaiz eta prailleak noski; euskal kezkek eraginda denak. Antxe esan eta entzun, alkar izketa xamurrean, asmo bikaiñak ere artu dituzte euskera ikasi ta jasoteko, erriari ere beren itzaldietan gorputzez eta arimaz nola bizi euskera gozoan erakusteko. Dana dala, garai artakoak ditugu Axular, Ziburu'ko Etxeberry, Argaiñaratz, Harizmendi, Haramburou ta

Materre. Seirok idazle bikain. Saiaketa ortan, nork bidea urratuko? Materre'k. Ausartena berau zan, iñolaz ere. Axular eta Guilantenak eman zuten eliz-baimena.

Ez darabil euskera txarra. Ta Larramendi'k bizi-ziro txalotzen du euskaldun berri aren lana, «euskera ederrean» idatzita da-goela esanik. «Katixima eder bat» dio P. Lafitte'k ere.

Aita Materre'k ba-du beste liburu bat ere, prantsesez idatzia: *L'horloge spirituelle* (Paris, 1606). Beronen liburu biok—euskerazkoa ta prantsesezkoa— Wadding'ek bere *Scriptores ordinis minorum* (Erroma, 1650) liburuan aipatzen ditu.

(Ikus P. Lafitte, *Eskualdunen Loretegia*, 21 orr.; L. Villasante, HLV, 69 orr.; R. Bozas-Urrutia, BAP, 1968, 191 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 159 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, a 11 ta II alea, 521 ta 533 orrietan).

2.—JOANES ETXEBERRI (...1630...)

Kantauri itxas-ertzean datzan Ziburu arrantzale erri txai-roan sortua dugu Joanes Etxeberri, beti ere bere izenari eran-tsita *Doctor* (Irakasle) *teologoa* daramana.

NOR DUGUN.—Ez dakigu zer askorik bere biziari buruz; ziburutarra zala, ozta-ozta. Gauza zaharren astintzaille bizkor dugun A. Akesolo'k oraintsu —1970'garrenean— argitara eman-iko idazle onen *Noelak* liburuari egin zion aintzin-solasean, au diño: «Ziburutarra zela esan dezakegu. Ziburutar egiten du berak bere burua. Baiña ez dakigu noiz jaio zen. Ziburu'n erre-tor izana ere omen da, or 1637 edo 1638-garren urterarte. Orduan utzi omen zuen erretorgoa, eriotzeak kendurik non-bait».

BERE EUSKAL LANAK.—[^]Euskal lanetan, baiña, bere gizaldiko idazlerik trebe ta ngariena bezela jo dezakegu. Iru liburu be-

deren argitaratu zizkigun: 1) *Manual Devozionezkoa*, Bordele'n bi aldiz argiazia; 2) *Noelak*, eta 3) *Elizara erabiltzeko liburua*. Azkenengo au iru aldiz —1636, 1665 ta 1666'an— Bordele'n argitarara ekarria dugu. Bertrand de Etxauz, aurretik Baiona'ko gotzai ta garai artan Tours'ko gotzai-buru zanari eskeiñita dago. Etxeberri'k liburu onen atarian bertan, gaur ere, zioz edo zio gabe ez diot nik, maiz samar darabilgun gai bati ikutzen dio; au da: Garibai'k eta Etxabe'k, euskeraz jaldñik, erderaz idazten zutelako, ixeka egiten die bertso batzuen bidez. Ona auek: «Burlatzen naiz Garibaiez,/ bai halaber Etxabez,/ zeñek mintzaten baitire/ erderaz Eskaldunez./ Ezen zirenaz gerotik,/ eskaldunak hek biak,/ eskaraz behar zituzten/ egin bere historiak» (L. Villasante, HLV, 71 orr.). Bertso auek, baiña, ez dira Etxeberri'renak, Claveria batenak baizik.

Manual debozionezkoa, edo ezperen, oren oro eskuetan erabiltzeko liburutxo euskerazko bertsutan egiña dugu; 200 orrialde ditu ta Bordele'n atera zuten 1627 eta 1669'an. Bi zati dauka: lenengoan, zortzikoetan, Kristoren bizitzako ezkutua kantatzen dizkigu; bigarrenak, titulu orde au darama: «Bigarren liburua giristinoak erran behar lituzken otoitzez», amalau silabako bertsotan osatua.

Noelak eta berze kanta espiritual berriak Jesus Kristoren biziaren misterio prinzipalen gainean eta sainduen ohoretan besta buruetakotz (Bordele, 1631); guztiz 246 orrialde; auxe dugu Etxeberri'ren liburuetan maizenik argitaidua Lau zati dauka: a) Kristoren sortze-aitzineko gauzak, agintzak, igarleen esanak, sibillen iragarkizunak, abendukoak, Gabriel aingeruaren agurra, ikertaldia... b) Kristoren sortze beraren gainean, Eguberri ta abar; guztiz 19 noel, gabon kanta edo abesti; d) Jesu Kristoren bizitzako ezkutapen bereizienak; amasei kanta guztiz; eta e) Jainkoaren eta Santuen ohorezko kantak. Loiola'ko Iñaki deunari eskerrak emanez bukatzen du liburua.

Maizenik argitara emana dala diogu *Noelak* deritzan liburu eder au. Baiña noiz azaldua ote dugu lendabizikoz? Euskalariak 1630'an edo 1631'an diote; ezta, alere, gauza ziurra. «Argitaratzeko baimenak —dio A. Akesolo'k— 1630'an emanak ditu; baiña urte orretako ateraldirik ez da ezagutzen. Amabost urte geroagokoa da, 1645'koa, ezagutzen dugunik zaarrena. Bordele'n egiña. Geroago, Baiona'n argitaratzen dute: 1697, 1699 (bi aldiz), Maffre'ren inprimerian, eta andik aurrera, lau edo bost aldiz, Fauvet-tarren etxean, urterik gabe» (*Noelak*, 12 orr.). Atzenez, A. Lino'k testu zaharrak berrikusi ta sarrera ta oarrez jantzirik, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones dalakoak argitara ekarri du (Donosti, 1970).

Aintziña bateko argitalpenak, ia denak, utsez beterik zeuden; azkenengo ontan, ala ere, nekeak neke artu ditu alta karmeldarrak utsok arteztu ta alik eta ekoizpenik zeatzena eskeintzeko. Ezta alere aldaketarik egin, irar-utsak zuzendu, ortografía gaurkotu ta bein edo bein berdindu izan ezik. Beraz, obetze auek egiñik, argitalpen guztietatik oberena dugu azken urteko au. Etxeberri'ren beste bi liburuak ere merezi lukete olako zerbait.

NOLAKO BERTSOAK. *ManuaVcn* eta *Elizara erabiltzeko* liburuan amabost silabakoak ere agertzen diralarik, *Noelak*, oso osorik, zortziko txikitan — $\frac{1}{7}$ — egin zituen. Zortziñakoekin nasterik asko egin ditzakegu, egia esateko, baiña Etxeberri'k darabillan era ez duzu euskal poesiani sarritan erabillitakoa; eta amazazpigarren mendeko olerkari jator onek, geientsuak, neurri ortan ondu zizkigun. Andik ondoan ere idatzi dira olakoak, baiña atsegiñago zaigu $\frac{10}{8}$ zortziko nagusia edo $\frac{8}{7}$ txikia. Idatzi, ordea, Etxeberri'k geientsu darabilzkin $\frac{8}{7}$ ta $\frac{7}{7}$ naiz laukoetan naiz bikoetan idatzi ditzakegu.

Neurkera au erabilli zuten, egiazkiro, amasei ta amazazpigarren mendeko olerkaririk geienak. Auxe Etxepare'k eskuarki, auxe Etxeberri'k, Harizmendi'k eta Argaiñaratz'ek; Oihenart'ek

eta Gazteluzar'ek ba-dituzte beste neurkera batzuk ere. Geure poetikako zera omen dugu, ta Orixe'k ain zuzen osatu zuen bere *Getsemani* poema, ots, 8/7 edo amabostekoetan, zortzi silabakoen ostean ixil-une egiñik. Oihenart, Etxeberri'ren neurreraren aurka ez, baiña onen bertso^moldearen aurka zegoen, zerabilzkin itz-bukaeren aurka batez ere. Etziran beretzat legezkoak *kontseilluz* eta *ereduz*, *ahantzi* ta *moldezki* amaiak; rima osoagoa eskatzen zion. Poto ere askotan egin oi du, zentzu berdiña duten bi itz berdiñekin azkena emanez, au da, *egia* ta *egia*, *entzutea* ta *entzutea* adibidez erabillirik.

Orri batzuetaz kanpo, aipaturiko iru lanak bertsotan osatu zitun Etxeberri'k. «Tamalez» dio Oihenart'ek, eta Mitxelena'k ari jarraituz; ziburutarrak, bada, egokitasun geiago zuen itz lauz idazteko. Zergatik egin ote zituen, ala ere, itz neurtutan bere lanak? Ona erantzuna: mariñel errikoa zan, eta aueri, itxas-gizonai atsegin izatearren, ekin zion bertsogintzan. Bere erriko itxastar aiek bertsozale ziran oso, ta euskerazkorik ez zutelako latiñezko eliz kantak abesten omen zituzten beren lan bitartetan.

Etxeberri'k berak damakigu errazoa. Ona itxastarrentzat baitik bat idatzi zuen Manuaretik artuta:

«Giristinoa, eman diat eskarazko bertsutan
katoliko manuala neure asti-ordutan.
/kusirik, nola bainaiz iaiotzez eskalduna,
gure nazioa dela koplamaite duena,
hartarakotz iakiaraz diat bertsuz ezarri:
lasterrago ikhas eta maizago aiphagarri».

Olerkari bezela, berriz, orduan prantsesez eta espaiñeraz zeudenen pareko ba-zan, nik uste. Aren neurtitzak ba-dute mamia, ba-dute giarra; azala ere, oso perkatxa; eta biok zaizkigu atsegin. Bizi zalarik gorespen bikaiñik artu zuen, Axurlar,

Hirigoiti, Urtubie, Argaiñaratz eta Apezte'k emanak bereziki. Geroago, ordea, P. Lafitte'k, Orixe'k, A. Onaindia'k, L. Mitxelena'k eta besteak gailen jarri dute beren kritika lanetan. Izkera erreza ta jariokoa darabil, irudikizun dotorez jantzia. Adibidez:

Agur, zeru goraren
Errege guzizkoa,
zu zare, ba-dakigu,
kreaturen Jaungoikoa.

Ahapaldi ontan bakarrik ederki asko dagerkigu bertsoaren bizitasuna. Itz-jarrai edo biperbatonen ba-duela naste pixkat? Au eta geiago ere laketu bear zale olerkariari, beste orduz Horati'k zionez.

Beste ezer idatzi ote zuen Etxeberri'k? Oihenart'ek dioskunez, ziburutarrak ba-ditu oraindio sendi-idazkiak, euskal iztegi bat, Lapurdiko adizkiak... eta «Egunerozkoa». Idatzi auek aipatuaz Oihenart'ek dio itz askatuan obeki aritu zela Etxeberri, bertsoz baiño. Auetan azaltzen omen du bere trebetasuna. «Egunerozkoari» buruz, ordea, ez dugu oraiñarte beste aztarrenik. Eta A. Akesolo'k: «Lengoez besta bat ote da, ala besteen zatien bat, edo besteen zatien bati eman ote dio Oihenart'ek izen ori? Gogoan ar dezagun *Elizara erabiltzeko* liburuak ere baduela zati bat «Egunerozko othoitz laburrak» titulutzat daramana. Eta, gaiez, berdintsu da Manuai'aren bigarren zatia ere» (Loc. cit.). Alare, ba litekena da beste hburu bat izatea.

(Ikus P. Lafitte, *Eskualdunen Loretegia*, 22 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 196 orr.; L. Villasante, *HLV*, 70 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 160 orr.; A. Akesolo, *Noelak*, Donosti, ^970, 5-16 orrialdeetan).

3.—OLERKI SARIKETA IRUÑA'N (1609)

Batzaldi au, dakigunez, euskal Olerkiz ospatutako lenengo izan zan. Iruña'n garai axtan apezpiku zan Antonio Venegas de Figueroa'ri otu zitzaion jaialdi ori antoilatzea Zergaitia? Uri artan Pesta-berri zalata. Gotzai argia Kristo'ren Gorpuzari txit emana baitzan, ots beteko jaiak eratu nai izan zitun bere egunetan.

Bertso-sariketarako egin zan deiak onela dio: «Naparruko erreñu ontan jai au ain aundikiro egiñik, bertoko izkuntza ama beztertuta geratzea egoki ez dalako, sariketa ontan amabi koplako euskal olerki bat ere eskatzen da, irutik iru kopiataro lelo edo errepika bat daramana. Eta oberenari, sari bezela, iru kana oial emango zaizkio; bigarrenari Olanda'ko bi kana, ta irugarrenari iru esku-zorro pare zuri». Jai ostean, batzaldira igorritako lan guztiak bildurik, iliburu bat osatu zuten Venegas berberaren aginduz, eta antxe datoz iru sarituak eta beste batzuk, sariztatu gabeak, baiña biltzailleai ederrak iritziak, euskerazkoak noski.

Ez dakigu Zenbait batzaldi egin ziran; bi bai bederen, 1609 eta 1610'an. Lanak erderaz, latinez naiz euskeraz aurkeztu litezken. Euskerazko iru sarituak izan ziran: Pedro Ezkurra'rena, Migel Aldatz'ena ta Joan Elizalde'rena; auek 1609'garreneko batzaldian. 1610'garrenekoan, ordea, besteen artean, euskerazko bat izan zan saritua, J. Vinson'ek «Revue de Linguistique de Paris» (1879, XH'gn. alean, 314 orr.) deritzan aldizkarian argitara emana.

Venegas jaunak Salamanka'ko San Bartolome'n osatu zitun bere eliz-ikasketak, eta 1606'an izendatu zuten Iruña'ko gotzai nagusi. Bere artzai-egitekoan arduratsu bezela, buru argiko ta elertiari emana agertu zan beti. Jakintza ta elerti-gaiak buruz noiztik noizera uri artan eratu oi ziran batzaldi ta nor-geiagoka guztietan buru bezela agertzen zaigu. Beronen izenak ba-zuen, beraz, ospe ta indarra. Garai artako gaztelar poetakin ba zuen

ar-emana, ta ain zuzen Luis Gongora Argote (1561-1627), kordobarra, ikusten joan zitzaion bein, eta egin-egiñean ere iker-taldi onen ostean eskeiñi zion gotzaiñak Burlada'n zeukan lan-detxeari egindako amalaukoa.

flkus A. Pérez Goyena, *Ensayo Bibl.*, 62 orr.).

4.—PEDRO EZKURRA (...1609...)

Nor dugu au? Ezkurra'koren bat? Ala izen-ordea? Iñoiz esana da, beintzat, Venegas de Figueroa, /ruña'ko gotzaia ote dan. Olerkari zala ba-dakigu, baiña ba ote zekin euskeraz? Dana dala, «Aldareko Gorputz sanduari» olerkia Pedro Ezkurra'k izenpetua dugu. Eta beronek irabazi zuen lenengo saria, ots, *iru kana tapetan*. Ona olerkiaren lenengo ahapaldia:

Jakitea izan banu
borondatea bezala,
ene anaia, erranen nizu
nor daukagun malean.

Amabi kopla ditu, irutik irura lelo batekin, batzaldiak eskatzen zuen bezela. Erdel tankeraz egiñak daude, rimaz askorik arduratu gabe. Gaztela'ko zortzikoan gisara onduak daudela dio Mitxelena'k, azken itzak, olerkariak bere naierara, zorrotz naiz astun bihurturik. Onakoetan, sarri, ez dakigu lege tinkoz ala ezjakiñez ari oi geran. Malatsak dira, bestalde, bulkoz ta azalez.

(Ikus L. Mitxelena, HLV, 67 orr.; S. Onaindia, MEOE, 192 orr.,i.

5.—MIGEL ALDATZ (...1609...)

Onetaz ere galde berdiña: Aldatz'koa ote genun? Venegas gotzai argiak eratu zuen bertso-leiaketara azaldu zitzaigun ama-bi koplako lanarekin. Ezkurra'rena bezela egiña dugu, mami ta azal naikoa txukun, gaztelar zortzikoaren sunda dariolarik ere. Napartar olerkariak galdua zuten nunbak, edo-ta etzuten iñoiz, benetakorik beintzat, gure euskal bertsolariak zuten •—eta duten— bame-kutsu ta jario berezirik.

Aldatz'ek eztu biotzondo nabarmenik; badu, ala ere, olako gatz-piperra. Irakur, agerbide bezd, *Gorputz santuari* buruzko zatia:

Gure begi bekatorek
eztakuske iguzkian;
ala Orai estalirik
datorkigu jatean.

Ez dago gaizki: aditz batua bi aldiz; azken bukatzea, berriz, naiko jantzia. Auek ziran orduan olerkari baten lanari eskatzen zkzaizkion gaitasunak. Benapar kutsua ornen du Aldatz'en izkerak. Bigarren saria eraman zuen, ots, bi kana *Olanda oial*.

(Ikus *Revista Euskara, Iruña*, 1879; S. Onaindia, MEOE, 193 orr.).

6.—JOAN ELIZALDE (...1609...)

Olerkari onetzaz ere, Iruña'ko sariketa artan irugarren saria irabazi zuela, ez dakigu besterik. *Gorputz sanduari* da bere lana. Eta bi aurretikoen antzera, batzaldiko deiak eskatzen zitun baldintzak betetzen ditu: amabi koplata ta irutik irura lelo bat, bi bertsoa. Bertsoz bertso urkultzen dizkigun ateraldi ta gogaiak ez dira noski ain arruntak, eta neurri ta rimari gagozkiola, beste biak —Ezkurra ta Aidatz— baiño zeatzagoa dugu.

Irugarren saria jaso zuen, au da, iru pare esku-larru zuri, ta merezia zuen noski; ez darabil, bada, euskera txarra. Ez da errez zein alderdiko izkeran ari zaigun -jakitea, baiña goi-napar iparraldekoa dala esan dezakegu. Ona leen-ahapaldiko zatiño au, irudikizun politez asia:

Ola goazen igitari:
ari gaitezen lanean;
Zeren garlan zoriturik
dago Jainkoa lurean.

Iru egille auen iru olerkiok, lenen jai-omenaldiko liburuan (1609) eta gero *Revista Euskara* (Iruña, 1879) deritzan aldizkarian argia ikusi zuten.

(Ikus P. Lafitte, *Esknaldunen Loretegia*, 15 orr.; S. Onandia, MEOE, 194 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 100 orr.).

7—AITA JOANES HARANBURU (...1635...)

Euskal idazle suar ontaz ere berdintsu esan bear: ez dakigula nun sortua zan, ez nundik nora ibillia. Auxe dakigu doidoi: Etxeberrri mirikuak dioskunez, Sara'koa zan jatorriz. Erlijioz fraidea zan; P. Lafitte'k onela: «Kaputxin eskualdun bat zen, predikari gaitza». Baiña J. Vinson'ek aren liburuari buruz ematen dizkigun zeaztasunetatik errez atera dezakegunez, prantsiz-kotarra genduan.

Otoitz liburu bat osotu ta argitara eman zuen: *Debocino escurra*, miraila eta oracinotegua. Virginaren debocinoa, marinelena, eta San Francesen beren Ordena, berce anhitz debocinozko othitcequin guiristinoen probetchutan gucia trailla-tua (Bordele, 1635). M. Larramendi'k eta Dabid Wilkins'ek damakigute onen berria. Berriz ere, nun ez dakigun arren, argitaratua izan zan, 1690'garren urtean. Bosteun orrialdetik gora-

ko ale txikia. Akitania'ko probintzian nagusi zan alta Frantzisko Bonal'ek eta Tarbes'ko gotzaiak eman zioten baimena; eta garai artan Sara'n arimazai zegoen Harizmendi'ren bertso batzuk dakazki sarreran.

Iru atalek osatzen dute liburua, ta itxas-gizonentzat egina dirudi; egun aietan oitura zanez, ordu liburua dugu, au da, eskari ta otoitzak orduz ordu daramazkina. Auetan batzuk jatorrak dira, beste batzuk itzuliak. «Te Deum» eta penitentziko zazpi eresiak euskeraz datoz; baita mariñelentzat kanta batzuk, agurtza ta San Frantziskoren Irugarren Ordenakoentzat eraspenak ere.

Ona, mariñelak, ekaitz zurrunbillotan daudenean, Jainkoari zuzendu bear dioten otoitzaren zatitxo bat: «Jauna, erakutsazu zeure boterea zure nahiaren pare; nabi duzu salba gaitezen, salba gaitzazu; urrikal bekizu gure premia! geldi haizeak, so-sega uhinak, argi hedoiak, eder denbora, kalma itsasoa, gal etsaiaren indarra, ken gure bihotzeko tristura, esportza gure espiritua».

(Tkus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 16 a; P. Lafitte, *Eskualdunen Loretegia*, 28 orr.; L. Villasante, HLV, 72 orr.; Aufiamendi, *Literatura*, I, 164 orr.).

8.—ARGAINARATZ (... 1641...)

Laiño miesa artean diraute apaiz onen bizi-zeaztasunak ere. I64ran «Ziburuko predikari ordinario» zan, baita I665'an ere. Ozta-oztan dakigu au bere liburuetatik. P. Lafitte'k: «Bi eskuara libururen egilea dugu P. dArgaignaratz. Lehena da I641-ekoa: *Avisu eta exortacionea probechosak*. Orduan aphez kharatsu hori «Ziburuko predikari ordinarioa» zen. Hogoi-ta-lau urtheren buruan argitaratu zuen *Devoten breviariora* (1665). Hun-

tan ikusten dugu Ziburun zagoela oraino bikario. Bertzerik ez-takigu erraiteko, eskuara ederki zerabillala baizib> (*Loretegia*, 30 orr.).

Bi liburu utzi zizkigun, bada. Bata itz lauz ta bestea bertso-tan. Lenengoa: *Avisu eta Exortacionea probechosak bekhato-rearentzat* (Bordde, 1641); amabi atal zitun liburu onek, 572 orrialde osoturik: gauar ez dugu aren ale bat ere ezagutzen. Bi-garrena: *Devoten Breviarioa* (Baiona, 1665); J. Vinson'ek bere pentzutan berriz argitaratu zuen, 1910'garrenean. (Ikus J. Ur-kixo, *RIEV*, 1910, 481 orr.).

Bigarren au itz neurtutan egiña dugu, ta mamiz auxe da: maitiñak eta eguneko otoitzak datoz lenen, gogasrte-sail bat gero, eta elizgoratzarre bateui<., euskerara itzulita, azkenik. Tra-kur au, eredu bezela, Breviariotik aterata:

Ezardazu bihotzean
arantzeko" khoroa,
mundutikan partitzean
dudan graziazkoa.

Qna nola itzultzen duen *Sub tuum praesidium*:

Zuregana heldu gara,
Ama lenkoarena;
har gaitzazu gerizera,
guarda gakzaketzuna.

Otoitzak heldu zaizkitzu
gure bihotzetarik,
beti begira gaitzatu
perill guzietarik.

Izkera ederra du, baita neurkera ere, naiz-ta L, Mitxelena, J. Vinson'en aoz antza, «en verso bastante mediocre» idatzia

dala esan *Deboten Breviarioa*. Argaiñaratz'ek bertso erreza du, ariña ta doia, bertsolari parekoa. Zortzi ta zazpiko neurria darabil, funtsez ta begiz taiutua. Adizki ta itz-jokuetan aberatsa duzu.

filkus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 21 ta 30; P. Lafitte, *Loretegia*, 30 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 221 orr.; L. Villasante, *HLV*, 72 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 165 orr.).

9.—VOLTOIRE (...1620 .)

Idazle onek, 1620'rantza, lan bat argitara zuen, iru izkuntzatan: gazteleraz, prantsesez eta euskeraz. Lion'en atera zan lendabizikoz, idazburu onekin: «L'Interpret ou traduction du françois, espagnol et basque». Gero, andik ogei ta bi urtera, irarri zan ostera ere. Bigarren go irartaldi ontan euskerazko titulua eman zioten: «Tresora birur linguaietaqua, francesa, espagnola eta hasquara» (Baiona, 1642). Geroztik ere, 1684'an asita, bost aldiz beintzat argitaratua izan zan titulu onekin: «Thresor des trois langues, française, espagnol et basque»; Baiona'n beti ere, Paul Fauvet'en irarkolan. Berton datozten euskal esaera zaharrek ere azaldu ziran iñoiz; bein titulu au zekarren: «Anciens proverbes basques et gascons, recueillis par Voltaire et remis au jour G. B.» (Paris, 1845), eta beste bein: «Anciens proverbes basques et gascons recueillis par Voltaire et remis au jour par M. Gustave Brunet» (Baiona, 1872).

Liburu onek badu bere garrantzia. Mendiz andik, auxe baita errefrau, esaera zahar, itzur eta suipitaz osoturiko liburuetatik lendabizikoa. Testua iru abetxotan dator—gazteleraz, prantsesez eta euskeraz— lenengo orrialdetik 39'raiño; abetxo bitan—prantsesez eta euskeraz— 41'tik 131'raiño, eta irutan—gazteleraz, prantsesez eta euskeraz— 132'tik azkeneraiño. Zerta-

rako olan? Iru izkuntzok errezago ikasteko nunbait. Esakunak, geien bat, ez dira erriagandik jasoak, prantseseratik eta gaztele-ratik itzuliak baiño.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 12 a, eta abarj L. Villasantej HL.V, 72 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 166 orr.).

10. PIARRES AXULAR (I556-I644)

Idazle ta Izlari zan Axular, bietan trebe. Leen naiz orain, guztiz aipatua. Atsegiña zuen mintzoa, eta egiñak; gizona, ain zuzen, egiñetatik dugu ezagun. Ezbaitasun izpirik gabe, Axular'ek beti izan du, baita izango ere, toki bakana gure literaturan.

Duda-mudarik bada aren deituraz, ez bait dakigu ziur nola idatzi bear dugun, Axular ala Atsular. Ainhoa'n bada, Arantzako kapera gaiñean, Atsulai izeneko mendia; baiña Axular *axnri-larre'tik* edo datorkigu; gaur Axular idatzi arren, gaiñera, ta aren sortetxeak izen ori eraman, amaseigarren gizaldiko paper zaharretan Axularrena agertzen da; itz au dugu, beraz, etorki eusgarri ta guri ere obe zaigu orri oratzea, Axular idatzirik.

Axmlar ez da aren abizena, jaiotetxearena baizik; antxen dago, gaur ere, barriztua, Axular basetxea. Idazle ospetsuaren egiazko izen-abizenak auek dira: Piarres Agerre ta Azpilkueta, aren gurasoak Piarres Dagerre ta Maria Azpilkueta baitziran. Urdazubi'n (Urdax), napar mendi-zoko gordean jaioa dugu, Lapurdi ta Napparroa tarteko muga-mugan. Noiz? I556'an, uste danez.

Deus ez da aren gaztaroaz dakiguna. Nun egin zitun ikaskizunak? Urdazubi'n bertan lenengoak noski; antxiña batean ba-zan an prailletegi bat, gazteai asi-ikasiak ematen zizkiena; Salvatore bakartegia. Gorago jo nai zutenak, ordea, Ikastetxe

nausietara joaten ziran, Paris'era, Tolosa'ra, Bolonia'ra, Salamanka'ra, edo-ta Oiñati'ra. Nun egon zan Axular? Salamanka'n bear bada; bere eskola-maixu bezela Zumel ospetsua aipatzen du beintzat.

Dena den, omitu zitun bere apaiz-ikasketak, an-or ibillirik. Iruña'n egin zan apaizki 1584'an, eta bertan artu zuen Epístola 1595'an; urrengo urtean, ots, 1596'an, Lerida'n Ebanjelioa arturik, Tarbe'n apaiz egin zan. Salvar d'/harce bastidatar Apezpiku euskaldunaren eskuz.

Auxe emendik errez atera dezakeguna: Axular ez zala Ikastetxe baten bakarrik ibilli bere ikaskizunak osatzen. Ebanjelaritzeko garaia eldu zitzaionean, egia, /ruña'n etzegon gotzaiñik, baiña urrago ba-zkun Kalagurri'n, Jaka'n, Ueska'n, Zaragoza'n eta abar. Zeaztasun guztioi au gaiñerutzen die M. Lekuona'k: «Lerida'ko ibilliaz gaiñera, gure Apezgaiak Tarbe'ko bere Apaizgitean, eta andik aurrera beti ta beti, Prantzi-alderako azaldu zuan makurtasun eta joaiera eten-gabeak, olako zerozer esan nai du guretzat: azkeneko ikastaldiren batzuek Prantzi-aldean ere egin ote zituan» (*Gero*, Zarautz, 1954, XII/).

An edo emen, Axular'ek jakinduri ederra iritxi zuen, Batxilera izena eramateraiñokoa iritxi ere. *Gero* bere liburu sonatuan erakusten digun jakituri sakona ez da, izan ere, Urdaubi'n bakarrik artua, kanpoan lortu zuena baizik. Urte askotan ibilli zan, dudarik gabe, ikasi ta ikasi, 40 urte zitula apaiztu bait zan. Zortorrak izan ote zitun apaiz izateko? Zoriak irriñorik ez egiten? Ala alderdi txarrekoak zitun aurka? Sorgiñak?

Ezetz dirudi. Ez digu beiñik-bein bere liburuan sorginerririk aipatu ere egken. Baiña bada, orraitio, aretzaz sorginerrizko ipui bat, urdazubitarra patu gaiztoko biurtzen duena. Axular Salamanka'n ikasle zala, deabruak an omen zeukan bere eskola leize zulo batean. Urtero, ikasleetatik bat, txarrena, beretzat artzen omen zuen. Leize-barruan zan bein Axular ere, ta andik irtetzerakoan, berau ei zan lerroan azkenengo. Deabrua zan atezai, eta denak txandaka ateratzean, «Ar zak ene ondo-

koa» esaten zuten. Axular'ek ere, guztien atzenak noski, deabrua leize-orman eguzkiak egiten zion itzalera bota zuen; Axular libre joan zan, baiña itzalik gabe. Orrezkero itzalikan gabe dabilkigu; au da: Axular itzalik gabeko eguzki zabaJa dugu. Gizon jakintsua zalako, norbakzuk esan oi dute deabruagandik zerbait ikasi ote zuen.

Sara'n il zan, 1644'garren urtean, bertako erretore zala. Oraindik ere irakurri ditzakegu ango eleizan Bonaparte printzeak ipiñi zuen illarrian dauden itzok: «Pedro Axular euskaldun izkribatzalletatik iztun ederrenari, nik Luis Luziano Bonaparte euskerazaleak au ipiñi nion. Ez dago atsedenek ta odei gabe egunik, zeruetan baizik. 1865».

ARIMAZAI.—Egin zitula egin zituen lekuan' bere eliz-ikas-kizunak, Axular, apaiztu ondorean, arimazai daukagu bertatik Donibane Lohitzune'n (1595-1600). Zeukan arazorik ez dakigu, zerbitzari ala agintedun. Andik bost urtera, 1600'an, Sara'ko arimazai Juan Douamet gaixotu zalako, urdazubiarrari eman zioten ango erretorgoa, eta Bertrand d'Etxaus baigorriarrak eman ere: Axular'ek oni eskeiñiko zion geroago bere *Gero*. Axular orduko, emendik ageri danez, naiz-ta ikastaro bitartean arat-onat ibillia izan, meza eman aitzinetik Baiona'ko eliz-barrutiko eginda edo goterki ontan errotua zegoen.

Etzitzaion xamiirra izan Sara'ko erretorgoan sartzea. Muga lurraldeak ditugu aiek, eta ezta arrigarri: urte aietan ez zebiltzan ain paketsu Prantzi ta Espaiña arteko gauzak. Au da, baziran alderdiak eta alderdi bakoitzak bere eskabideak, edo eskubide antzekoak, su ta ke aldeztu oi zituzten. Axular'i ere etzan zerbait ezarri zioten: mendiz onuzkoa zala nunbait. Ala dirudi beintzat.

Eta Sara'ko elizaren zuzendaritza artu ta ille batzuetara, «pujatzaille» bat agertu zitzaion: Harostegi zeritzan Donibane'ko apaiz bat. Axular Baiona'ko apezpikuak izentatua zan; Harostegi'k, ordea, Erroma'tik atzeman zuen; Axular seguru

xamar ba'zegoen ere, erronkaria goragotik zebillen. <dn jraudem> tranpian? —galdetzen du M. Lekuona'k—. Ez jakin. Gertatu oi ziran orduan olako saltsak eta goraberak... Bi esku-bidedun zeuden leku bakar baterako; bata, lenengo sartua, Axular; bestea, ondoren, berandutxo etorria, Harostegi. Lenengo sartuak, ordea, beti ere eskubide ohea: *melior est conditio possidentis...* indarrak laguntzen badio batez ere» (*Gero*, XVII).

Urdazubiarrak, orrez gaiñ, ba-zuen adiskide indartsurik; bat Prantzi'ko errege Endika IV pauetarra. Eta Sara'n sartzetakoan zeuzkan istillu ta auziak zuritzeko, oiñez ala zaldiz ez jakin, Paris'erañño joan oimen zan, Erregearekin egotera; baita aregandik bere aldeko erabakia lortu ere. Endika IV'garrenak, Idazki baten, au esaten zion: «Naparroa'ko erreñuak nere menpeko baititut eta baitira, nai degu ta agintzen degu, Axular'ek ukan eta goza dezala Sara'ko erretorgoa, SORTzez Naparroa goitikoa dala beste kontrarik ez baldin badu... Paris'en, 1601'garren urtean». Errege jator, lendik ere, *Navarrae Rex* —Naparroa'ko Errege— jartzen zuen bere idazkietan. Eta izengoiti onek eta Erregekin zuen adiskidetasunak asko balio izan zioten Axuiar'i bere auzian, Bordele'ko auzitegian erabaki bear zan ontan, batez ere. M. Lekuona'k: «Dana dala, gorabera guztien buruan —Paris eta Bordele jo-ta gero—, gure Axular gelditu zan Sara'ko Erretor».

Etzuen txarto burutu bere egitekoa. Idazle ez-ezik, Izlari, «predikari» sutsu genduan, omen aundikoa euskal erri osoan; «irakurri gaitzekoa», gure baserritarrak esan oi zutenez. Langille porrokatua. Pozik zeuden erritarrak. Eliz-barrutiko arimazaintzan beti agertu zitzaigun zentzudun eta gizatiar. Sara'ko elizak garai artan 298 Sukalde edo familia zeuzkan. Erretorez gain, zerbitzari bat zeukan. Parroki au garrantzi aundikoa zan, eta bertako erretora gotzaiñak izentatua izan oi zan. Saratarrak, itxas-gizon batzuk kendu ezker, nekazaritzatik bizi ziran. Arimazaia maite zuten, eta Duvoisin'ek dioskuna egia baldin bada, elizari amarrenak ordaintzen txit jator agertzen omen

ziran, eta eliztarrak ainbat sagar eramaten ziotelako, dolare bat eraiki omen zuen erretorak, sagardoa egiteko (Haristoy, *Les paroisses du Pays Basque*, I ade, 237 orr.).

Idatz-arloan, urteak joan urteak etorri, itzaldi ta nota pi-Uoak zeuzkan bere gelako mai ta arasaetan. Ezer argitara gabe oraindio. Baiña aren lanak, txukun bezain sakon egiñak, etziran lakaripean eukitekoak; eta, onek aolka ta arek zirika, gure erre-tore zakarra atzenez bere lanak bildumatu ta liburu mardo ba-tean argitaltzera etorri zan. Axular 87 urteko zala, 1643'an, azaldu zan irrika biziz itxaron zuten lana: *Gero*.

Arrera txeratsu ta beroa egin zioten denak. Baiona'ko go-tzaiaren iritzi-emaille Dizanetxe'k onela dio: «Authore Domino Pedro de Axular, viro meritissimo in nostra Cantabria». Eta Pedro d'Urtubie'k: «Meritissimo oJim rectore». Itxura danez, 1644-4-8'an il zan Axular; baiña orduko izen-abizen berdiñeko bat zan Sara'ko erretore, Axular'en illoba noski. Aipatutako bi iritzi-emailleak, beintzat, lenengoak diño: «celebri nuper rec-tore de Sara», eta bigarrenak: «olim reotore». Bi itzok esan nai dute: «arestian», «oraindik orain».

Urtez abaildua, aomenaren gaillurrean zegolarik, joan zitzai-gun mundu ontatik. Sara'ko eliz-gurdi ugelak etzeuden esku txarretan; antxe bertan il zan au ere, ots, Pedro Axular. M. Lekuona'k illobi baten ikusten ditu osaba-illobak, illik ere, alkar besarkatuta. «Sara'ko eleizan —dio— bertan dago lur emana (Axular). Arri leundu bat gaiñean. Bere illoba, 1653'an illa, apaizaren ondoan. Osaba-illobak, biok batean. Biok izen berekoak —Pedro de Axular—. Biok Sara'ko erretor izanda-koak. Biok obi batean... Zeruan ere biok batean izango bait-dera» (Loc. cit.).

«GERO».—Euskal Literatur galtzarrean ez dugu nolanaiko lana, danetatik bear bada aipatuena baizik. Alaz eta ere, ezta

geiegi argitaratua izan: iru gizaldi ta emcretzi urietan bost ekoizpen (edizione); 1643, 1660?, 1864, 1954 ta 1964'an; eta an-emengo euskalkietara egiñiko itzulpen batzuk.

Liburuaren titulua: *Gero, bi partetan partitua eta berezia* (Bordele, 1643), G. Millanges'enean, edo erregeren inpraitzaillea baitan. Baiona'n etzan 1665'rarte irarkolarik; Iruña'n, berriz, 1489'tik ezaguna zan; Baiona eliz-barrutiko liburuak, ala ere, geienak beiñik-bein Bordele'n argitaratzen ziran.

Liburu mardula zan *Gero*, 623 orrialdekoa. Ez dakigu zenbat aleko argitalpena izan zan lendabiziko au. Bat-batetan saldu ziran beintzat ale guztial^, eta berriro egin bear izan zuten beste argitaratze bat. Oraingoan «Geroko Gero» tituluarekin, eta azalean Bordele'n egiña dala dion arren, ez dakar urterik: lenengoa ta bigarrena oso berdiñak dira, itxuraz. Bigarren au lenengoa baiño txukunagoa, askoren iritziz; baiña euskalari jatorrentzat ainbat garrantzi ez duena. Ba-ditu utsune betetze batzuk ere; eta «uste bait-degu —dio M. Lekuona'k— zin-zin-ñetan, argitaltze au egin zuanak, Axudar beraren esku-idatziaik begi aurrean euki zituala... Birrargitatzaillea, Egilearen illoba berbera —ots, Axular gaztea— ote zan ere susmorik bai bak-degu...» (Loc cit., XIX orrialdean).

Irugarrenez 1864'an argitaratu zuten, titulu au emanik: GUEROCO GUERO edo arimaren egitekoen geroko uzteak zenbat kalte eta zorigaitz dakarken. Gogomenak, eskritura saindutik, elizako dotoretarik eta zuhurren liburuetarik Axular, Sarako Erretorak bilduak.—Edizione berria, garbitua, xuxendua eta bere baitako ordenan emana». Baiona'n, Lamaignere alargunaren moldekintzan. Baiona'ko gotzai Lacroix jaunaren baimenez eta Intxauspe kalonjearen ardurapean omidua izan zan argitaratze apain eta buruzko au. Gaiak eta atal batzuk aldatu egin zizkigun zerbait Intxauspe'k, baita, aurrerago A. Añibarro'k bizkaieraz jartzean bezela, aragiari buruz gordiñegiak zerizkion esaldi batzuk moztu ere. Kritikalariaik, beraz, ez diote balio aundirik egozten argitaraldi oni.

Laugarren argitalpena (Zarautz, 1954) Itxaropena irarkolan egin zan, Euskaltzaindiaren ardurapean, M. Lekuona apaizak gertatu ta aitzinsolastua. Ekoizpen oni dagokionez, oiartzuar jakintsuak au dio: «GERO'ren argitaratze berri au, guztiontzako era errezean, Euskaltzaindiaren idazkeran eta ortographian antolatuz... eta Bizkaian eta Gipuzkoan ez bait-degu /i'rik erabiltzen, Zenbait *h* kenduaz; beste Zenbait bere artan uzten baditugu ere». Aditz joko Zenbait eta itz ezezagun mordoxka orrialde ertzetan agiri dira. Oso txukun emana dugu laugarrengo au ere,

Bostgarren ateraldia GERO •—Despues— izenburuarekin Donostian Izarra'ren irarkolan egin da, 1964'garren urtean; «Espirituales Españoles»-ek bere *Textos* bilduman XVI'garren alea osotu du Peru Axular'en liburu eder onekin. Sarrera ta gaztelerazko itzulpena Aita Villasante euskaltzaindikoarenak dituzu. Ogei ta zazpi orrialde ditu sarrera gisan, Axular eta aren ingurua ta lana sakonki azertuaz. Guztiz 783 orrialde. Barru ta kanpo, guztiz ederra.

Onezaz ostean, J. Urkixo'k facsímil gisan argitaldu zuen bere RIEV delakoan, zatika, IV'garren aletik —1910— asita; baiña etzan Axular osoa argitara eman, 1936'an bada argitaratzea urratu zan, eta lan guztia amaitzeko 200 orrialde pald ziran oraindik. Orobat esan genezake A. Antonio Añibarro prantziskotarrak —1820'garrenerantza— bizkaieraz ipiñi ta J. Urkixo'k RIEV aldizkarian XIV'tik aurrera egin zuenaz: etzan osorik agertazi. «Euskal Esnaleak» ere, 1909'rantza, gipuzkeraz argitara zitun Axular'en zati batzuk.

ZER DUGU GERO?—Gaiari begi eman ezkeru, mistika baiño asketika liburu geiago duzu. Oroz gaiñ fedean errime daudentzat egiña, kilikolo dabillanak ere laprast - arriskuan zein arriri oratu ugari bertan aurkituko baditu ere. Elbutu berezi

bat du gogotan: pekatariaren Jainkoagana biurtzea; lera ta pekatua dana utzirik, kristau bizitza osatzen duenarekin egiaz besarkatu.

Liburu baliotsu onek iruxogei kapitulu ditu, bakoitza iru bat ataltxotan bananduta. Ona, laburki, bere guna:

Ekintzarako jaioa da gizona; alperkeriak, ain zuzen, ainbat kalte dakazki, naikunde utsaletan denbora joanik. Geroko *segurantzarik* ez dugu, ta Jaunagana biurtzea gerorako utzi ezker, geroago ta gaitzago zaigu pekatutik jaikitzea. Gerotik gerora gabiltzala bete lekiguke pekatuen neurria. Gaitz-urre dugu, beraz, geroko baterako gauzak uztea (I-IX).

Errukitsu da Jainkoa. Baita zuzena ere. Ta onek, ots, zuzentasunak darabil Aren errukia. Pekataria, etzera bildur Jainko zuzenaren aurrean? Uskerietan galtzen duzun aldia, ezin dezakezu berriz eskuratu; ez luza penitentzi egitea. Seaskatik iilobira, ondoz ondo dabilkizu eriotza. Noiz ilko zera? Gaur? Biar? Une seguruz ortan biurtuko al zera Jainkoagana? Ez! Egin limosna ta beste obra kontzientziaz zor dituzunak (X-XVIII).

Eragozpen auek kendu bear dituzu: birauak, asarreak, ezin ikusiak (XIX - XXVII). Zergatik parkatu bear diozun zeure etsaiari, eta biotzez maite izan: iru errazoi (XXVIII-XXX). Zenbat kalte egiten duen aragiaren pekatuak (XXXI-XLIV).

Gisa onetan pekatu bidez, gerotik gerora gabiltzalarik, gaiztotu egin zaigu kontzientzia, belar pozoitsuz lurra bezela. Arima bametik onak dakarkigun balce ezta uxatua da. Beraz, geroko begira egon gaberikan, ontasunaren ein gozatsuan irautera egin bear dugu. Ifemuko bidea gaitza baita, gerotik gerora ibiltzea utzi ta andik iges egiten saiatzea egoki zaigu (XLV-XLVIII).

Ez duzu zailla zerurako bidea. Nola segi bertatik? Gerotik gerora ez utzi, arren, konfesatzea; maiz aitortu, probetxugarri

da-ta. Luzatu naiez dabillanak bidegabea dagio Jainkoari, baita aingeruai, bere buruari, bere kristau lagunai ta munduko gauza guztiai ere (XLIX-LV).

Iferñuko neke-oiñazeak gogotan erabilteak iaburtu egin oi dizkigu Jaunagana biurtzeko darabilzkigun aiko-maikoak. Su-leizeko miñak! Ez da andik irtetzerik! Zergatik zigor ain luze ta sekulakoa? Zer dala-ta ez die Jainko errukitsuak an daudenai parkatzen? (LVI-LX).

Auxe dugu saillez sail *Gero* ospetsuaren mamia.

Gomendiozko karta baten bitartez, leo Baiona'ko gotzai eta gero Tours'ko Arzipizpiku izanari, ots, Bertran d'Etxaus jaunari, «Frantzia'ko Lehenbiziko Erremusinari, Ordenako Aito-nen Seme eta Erregeren Kontseillari famatuari» eskeiñi zion liburua, gizon argi ura liburua azaldu orduko illa izanik ere. «Neure laun maitea —diotsa—: Ioan zatzaizkit iairretik, baiña ez gogotik, ezta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu igurild. Ordea eneak dira faltak, enea da hobena. Gerotij gerora ibilli naiz, eta hala dabillanari gerthatzen oi zaikana egin zait niri ere». Naiz-ta liburua erri xearentzat borobildua izan, Axular'ek ba-zekian jakitun maillara igotzen ere.

Zer oni buruz A. Irigarai'k onela dio: «GERO liburua humanista bete baten (gizatiar baten, esate baterako) kumea da. Garai aietan, aro ta sasoi orretan ziren, greko eta erromanoen idurira izkiribatzen zuten, eta Axular'en liburutik *gizatasuna* dario alde guztietarik. Montagne, Fr. Luis de Granada, Bossuet ere humanistak ziren, baiñan laister gero aintzineko autoreen imitazione ori kritikarua izan zan, Boileau'ren «Querelle des anciens et des modernes» delakoaren garaian. Axular'ek oraiño klasikoak imitatzen ditu, eta Idazlari aien edergailuak onesten, eta aien birtuteak laudorioz aipatzen, paganoenak izanik ere, Renacimiento-aro edo Berpizkunde-aro delakoaren seme egiazko batek bezala» (*Egan*, 1-4, 1953).

IZKERA EDERRA.—Eder al dugu Axular'en izkera? Bai, alegia. Au, ordea, gora-itzez baiño obeki adieraziko dugu egille ber-beraren idatzi-zati batekin. Ona VI'garren kapitulutik artuta zatitxo au: «Errazago bada ere on bahituaren ateratzea, eta koberatzea, salduaren baino, edireiten da guztiarekin ere bere onak bahitzen bezala, saltzen ere dituenik. Eta haur beror gertatzen da arimako gauzetan ere. Beldur direla, bere konzientziak alha zaiztela, bekatu bat edo bia baizen ezutela eginen erraiten dutela; eta heken ere utzteko gogorekin dabiltzala, bekatuak egiten dituztenek, bahitzen dituzte bere arimak. Baiña beldurtasunik gabe, jainkoz, konzientziaz, eta munduaren erraitiaz ere konturik egin gabe, antsikabeki dabiltzanek saltzen dituzte. Bahi bat tabemara amozun igortzen duzunean, gaztigitzen diozu tabemariari eduki dezala Zenbait egunez babi hura, eta heken buruan aterako duzula. Baiña zuk nola aterako duzun ezen barrenago sartzen duzu: egunetik egunera bahiaren gaiñean, amo gehiago hartzen duzu, halako moldez ezen azkenean ikusirik bahiaren balioa edan duzula, bahi guztia tabeman uzten baituzu. Bada haur beror zeure arimaz ere egiten duzu. Erraiten duzu, bahi bai, baiña neholatan ere eztezakezula sai. Erraiten duzu bekatu bat eginen duzula, eta ez gehiago. Ordea bat egin eta bat hari, hanbat iratxekitzen diozu bere ondotik; halako moldez eta suertez arimaren gaiñean, bekatuaren zorra berretzen eta kargatzen duzu, non azkenean, bahi guztia, zein baita zure arima, tabeman, deabmaren eskuan, eta boterean gelditzen baita, hartzaz, nork bere gauzaz bezala, nahi duenaren egiteko» (*Gero*, VI kapitulua, I).

Zati onetatik errez atera genezake nola idazten zuen Axular'ek, eta nolako eder-bitxiak erein zizkigun bere *Gero* mardulean; baita bidenabar, lan osoa begiz jo ezker, or-emen agiri diran akatsak —eunetik zazpi bat, Orixe'ren iritziz— oartu ere. Lan atsegingarria, egiaz. «Libum oparoa —dio M. Le-kuona'k—; luze eta zabal. Oparoa gaiaz, oparoa eraz. Oparoa mamiz, oparoa azalez. Ixuri ugariduna, benetan. Ixuri erreze-

koa. Euskal *Literaturan fucile princeps*. Ongitxoz guztien gañetikoa, gorena, ederrena, jantziena, jakintsuena, jatorrena, erreza, txairua, apaña... *fucile princeps*. Oparoa esan det. Eta benetan. Eta edozeñen eskutarako gañera. Guztiontzat «duana». Ez euskal-zaleentzat bakarrik —Euskera jatorraren ur bizia iturburuan bertan xurgatu nai duanarentzat bakarrik—; baita zuretzat ere, Apez Jaun, zuretzat, Midiku Jaun, zuretzat, Jaun Abokat... Zerana zerala: guztiontzat. Guztiok arkituko degu Liburu onetan nun edan, nun goza, nun ase. Olakoxea da» (Loc. cit., XX).

Bada oraindik beste zeozer ere Axular jator egiten duena. Zer baiña? Argi idazten du, nabasirik gabe, leun eta berdin; labur ere bai; ez, ezta bat ere esakun4uze zale. «Sorta txiki asko dun itzaldia degu aren itzaldia», dio M. Lekuona'k. Aren idaztankera —estiloa— ezta, alere, amas estuloa, ebakia: badaki zati laburra luzeakin uztartzen, gaiak eta belarriak nola eskatu. Artista dugu idazkortza erabiltzen, eta pentsamentuak luze-laburtzen. Zer nai, axe dagi. Ta ementxe dago, ain zuzen, Axular'en ezkutua: bizia ta gaztea darabilen izkera.

ETA AKATSIK?—^Baita. «Zeren», «ezen», «zeiñek», «hain» eta olakoak darabilzki bear ez dirala. «Latinismo oietaz gañera —dio oiartzuarrak— ba-du gure Axular'ek beste latinismorik ere. Itzen joskeran '—itzen egokieran— batez ere. Ezta arritzeko ta, Axular'en pentsaera, iatin-antzatxo ibilli oi da askotan. Aren mendeko eskribitzallerik geienena bezela» (Loc. cit). Eta Axular beraren zatiño bat aldatzen du adibide bezela: «Haur da erremedio ona, etsaiari barkatzeko eta pairatzeko, aren eginerranez konturik ez egiteko, nola eta zer moldez dagoen, kolera dagoenean, kontsideratzea». Au erantsiz: «Axular'en zatiak, latin-usai geitxo du. Baserritar arruntak, zati au jatorkiago josten du».

Orixe'k, berriz, oiartzundarrari erantzunez, dio: «Ain zuzen ere latin jatorretik latin kaxkarrera, gaztdanira, aldegiten du-

lako ari da gaizki Axular. Gure baserritarren kzurrena latinik jatorrenarena baiño jatorrago da. Zer bada, diokezu? Latiña ta euskera bkk bat al dira kzurrenean? —Bai, jaunak, eta ez arritu. Baizik ere, euskera zarrago dala. Beraz, latiñak euskerari artu al dio kzurren ori?— Ez, biak lenagoko bati; ausaz lenlenengo izkuntzari. Euskerak esan dezake latiñarengatik, arako anai arek beste anaiarengatik ziagona: «anai al duzu olako?», eta, «ez, arek nau ni anai»... Euskera ta latin jatorraren itzurrena berbera da, eta euskal idazile berriena jatorrago oraindik, baserritarrekin elkar artzen dutela. Or esaten diran eguneroko jarduneko utsen gaiñetik, baserritarrak euneko ia eun aldiz itzurren jatorra du, ots, gaiderari dagokiona; idazle berriagoak ere bai» (*Euskera*, 1958, 17 orr.).

GURE EEEDU.—Oni gagozciola, beraz, idazle berriok, au da, Axular'en ondorenguko, aren utsak albora utzirik, dauzkan bixiak urre-ale bezela jaso ta zaitu bear ditugu. Cervantes'ek ere baditu bere Kixote sonatuan akatsak, eta ez gutxi, baiña gaurko espaiñiar idazleak ez darabilzkite aiek. Urteak dira joanak arrezkero, iru gizaldi ta erdi bezelatsu, ta gizonak beti ere aitzina jo bearra du. Axular, ba, ez bekigu itsu-ksu jarraitzeko maixu, eredu baizik.

Ered, bai, orraitio; gaur guztiok darabilgun euskal batasunaren kezka bipilean batez ere. Batasun-zale dagerkigu Axular. Zein euskalkitakoa ote da berak bere liburuetan utzi zigun euskera? SORTzez naparra zalarik ere, aren euskera lapurditarrago dugu, itxura baten. «Gure Axular'ek bi edo iru izkelgi nahasian erabiltzen ditu», dio M. Lekuona'k.

Ba-zezagun euskeraren batasunari dagokion auzia. Ta koska au zerbait berdintzeagatik edo, osatu zuen bere *Gero*, andik eta emendik artutako itzez eta gramatika-formaz adelaturik. Guk ere orrela jokatu bear genuke, ez gero taldetxo batek olan edo alan nai duela-ta, irkziak eta indarrak uztartu ondoan, guztion artean arturiko batasun-erabaki gotorrez baizik.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 22 a.; J. Urkixo, RIEV, 1911, 538-655 orr.; Ibar, *Genio y lengua*, Tolosa, 1936, 103 orr.; M. Le-kuona, *Gero*, Zarautz, 1954; J. Etxaide, *Amasei seme Euskalerriko*, Zarautz, 1958, 21 orr.; A. Irigarai, *Egan*, 1-4, 1953; L. Mitxelena, HLV, 72 orr.; L. Villasante, HLV, 72 orr., ta *Gero*, itzulpena, Gráficas Izarra, Donosti, 1964; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lora-teria*, Donostia, 1969, 32 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 166 orr.).

11—BERTRAND ZALGIZ

Hugonote zalduna. Zuberotarra. Zalgize'ko gazteluan sortua; Zuberoa'n betran il zan, 1640 urtea baiño lenago alegia. Politika auzi ta naaskerietan arras murgilduta ibilli zan.

Euskal arloan ezagunak dira aren esakunak. Zalgize'k bildutako «Euskaldunen erran zaharrak» Jaurgain'ek arkitu zitun eta J. Urkixo'k argitara eman, «Los Refranes Vascos de Sauguis» izenarekin, erderara itzuli ta eraskiñez omituak noski (RIEV, II, 677 orr., ta III, 144 orr.).

Badu onek neurtitzik ere, Oihenart'i bialdu zizkionak, esate baterako. Mauletar lege-gizonak, izan ere, Zalgize'ko jauna aipatzen digu, euskaldun poeta bezela. «Onek zaarragoa izanik, eman bide zion leen bultzada», L. Mitxelena'k aitortzen digunez. Ala ere, ez dugu oraiñokarren, aren olerki-lanen azta-renik.

flkus J. Urkixo, RIEV, 1908, 677 orr.; L. Villasante, HLV, 59 ta abar; Auñamendi, *Literatura*, I, 181 orr.).

12.—JAKUE BELA (I586-I667)

Zuberoa'n sortua, I586-2-I5'an. Buruz argia baitzan, Tolosa (Frantzia)'ko Ikastetxe nausian, 1606'garren urtean, maixu

titulua iritxi zuen Lege-jakintzan. 1614'an Lestarre'ko kortean artzen dute, ta 1631'an Errege-epaikari izendatzen. Erlijioz, Leizarraga ta Zalgiz bezela, protestantea genuan.

Euskerari emanik ainbat idatzi zigun, iztegi, gramatika ta beste, baita enziklopedi bat ere, «Tabletes» zeritzana. Lan auek, baiña, tamalez ez ditugu gaur ezagun, galduak bait dira ziur asko. Aren ekiñetatik irtena, auxe dazagu gaur bakar-bakarrik: euskal esaera sorta bat, Bela'k bildua. Sorta au, Gve. Clement-Simon'en liburuan —*Le Protestantisme et Verudition dans le Pays Basque au commencement du XVIII siecle*, Paris, 1896— argitaratu zan.

(Ikus L. Villasante, HLV, 93 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 181 orr.).

13.—SILVAIN POUVREAU (...1640...)

Ourges (Berry) izan zuen sorterrri apez jakintsu onek. Etxe apaleko semea izan arren, J. Duvergier de Hauranne —Saint-Cyran— ospetsuaren zerbitzari izan zan lenengoz, eta gero luzaro aren idazkari egona, «jakitate haundikoa». Ugazabaren etxean euskeraz zekitelako, berak ere poliki ikasi zuen; eta ez euskeraz soil-soil, latin, gaztelera ta ebreo ere bai. Idazten esku ederrekoa genuen eta, Saint-Cyran'ek berari aldatuazi oi zizkion Eliz-gurasoen zati aundiak.

Nausiaren teoloji-ustekizunak, alere, etzioten akats esateko-rik urratu Idazlari mutillari, eta eliz-karrera ikasten joan zitzai-gun Paris'ko Unibersidadera. An osotu zuen apaiz-karrera, baita orduko gizon ospetsuekin ar-emanean sartu ere: Paul'go Bizente doneakin, Fouquet gotzaiarekin eta, P. Lafitte'k dionez, Bossuet izen aundikoarekin.

Fouquet Baiona'ko gotzai zalarik, emengo eliz barrutira etorri zan, 1640'tik 1644'ra Bidarte'ko erretore egonik. Baiña 01-tze (1644-1681), Iholdi'ko semea, Baiona'ko gotzai izendatu

zutenean, Silvain, Bidarte'ko arima artzaintza utzi ta bere jatorrizko eliz-barrutka, Paris'era, biurtu zan, antza danez. Argatik ere laket zitzaion noizik-beinka Euskalerrira itzultzea. Adiskide iniñak zituen emen, Oihenart baitik bat. Paris'en il zan, ez dakigu ziur, baiña 1670 edo 1680'rantza.

BERE EUSKAL LANAK.—Euskeraz iru liburu agertazi zitun:

1) *Guiristinoaren Dotrina* (Paris, 1656). Richelieu kardinal jaunak, Lucon bere eliz-barrutirako egin zuen Kristau /rakaskintza —*Instruction du Chretien* (Poitiers, 1621)— zan euskerara itzulita. Argitaratzeko bainlenak Fr. Dominicus de Bidegaray, Petrus de Hirigoitz eta Baiona'ko gotzai Jean d'Olce'k damazkiote. Liburua, berriz, kardinal ospetsuaren illoba Richelieu mariskalari eskeintzen dio.

2) *San Francés de Sales Genevako Ipizpicuaren PHILOTHEA eta Chapeletaren Andre dana Mariaren ohoretan deuotionerequin erraiteco Antcea* (Paris, 1664). Ginebra'ko santu jakintsuaren *Introduction a la vie devote* (Lyon, 1608) dugu euskeraz emana. Salestarra 1622'garren urtean il zan, eta 1661'an zoriondun eta 1665'an santu egiña izan zan; gertakari onen biran osotu zuen Pouvreau'k bere itzulpena; sarrerako kartan, liburua eskeiñiaz, orduko Aita Santu Alejandro VII'garrena eskertzen du, euskaldun erria ta euskaldun semeen fedea ere goi-goi jartzen duelarik.

3) *Gudu Espirituala, il Padre don Lorenzo Scupoli Chierico regolare Teatinoc italienez eguina* (Paris, 1665). Berein aldiz argitara ekarri izan dan *Combattimento spirituale* (Venezia, 1589) da euskeraz jarria. Liburu au, ederki azaldua, garai artan Baiona'ko jaurlari zan Antonio Gramont dukeari eskeiñita dago. Iru liburu auek Bourges'ko goterkian bizi zala argitaldu zizkigun. Beste lan batzuk ere atera zitun argitara. Zeintzuk?

Beste iru esku-idatzi ere ba-dira Pouvreau'renak Paris'ko Laterri-liburutegian, kelta-euskaidun deritzan arasan. Iztegi bat

—*Dictionnaire basque-français*—, argitara gabe oraindik; Leizarraga, Oihenart, Axular eta beste batzuk maiz aipatzen ditu onen orrialdeetan. Bigarren, gramatika bat —*Grammaire*—, oarrez, toki-izenez eta itzaldiz apainduta; J. Vinson'ek agertazi zigun au *Revue de Linguistique* (XIV, 1881, 109 orr.) dalakoan, eta geroago banaka beste zati batzuk. Eta azkenez, *Imitazione* bat —*Imitation*—, Kempis euskeraz. Pouvreau'k berak Alejandro VH'garrenari *Philothea* opetsiaz adierazten digunez.

Nolako euskera ote zuen euskaldun berri onek? Haraneder'ek berriz euskeraratu zitun *Philothea* ta *Gudu Espirituala*, esango dugun bezela, ia mende bat geroago. Au dio Pouvreau'ri buruz: «Egia da bada, Diozesa huntako Jaun Apezpiku zen batekin Pariseko partetarik Baionarat etorri izan zen jaun apez batek, eskaldunei zerbitzu errendatu nahiz, eskara ahal zakien bezala ikasirik, Liburu hau eta bertze Zenbait ere eskararat itzuli izan zituela, eta Parisen inprima arazi. Ordean eskara gaitz batean itzuliak direnaz landa, hekien exenplario guti herri huntarat etorri izanez edo bertzek, gutiak dire orai Liburu hek dituztenak, eta hañitzak izan nahi luketenak» (*Philothea*, 1749, III). Berdin dio *Combat spirituel* (Tolosa, 1750, 5^{gn}. orr.) dalakoan ere. Aita Zabalak, ordea, bere *Noticia de las obras vascogadas* (1856, I, 3 zenbk.) Haraneder'en idazkera aitatuaz dio: «es de poco mérito su lenguaje». Nolako gauzak!

Esanak esan, Silvain'en euskera ezta ain kaxkarra, urbildik so-egin ezkeru. Euskaldun berri zan, eta alere euskera jatorra darabil geienik, aditzari naiz gramatikari begiratuaz batez ere. P. Lafitte'k, arrotzaren Zenbait Ierro erakusbidetzat eskeiñiaz, onela dio: «Lerro auek erakutsiko dute Pouvreau'ren eskuara etzela Haraneder'ek zion bezain gutiestekoa».

flkus D'Aranatz, *Curiosites du Pays Basque*, I, 232 orr.; J. Vinson, «Gure Herria», 1921, 167 orr.; P. Lafitte, *Loretegia*, Baiona, 1931, 43 orr.; S. Onaindia, MEOE, 216 orr.; L. Mitxelena, HLV, 70 orr.; L. Villasante, HLV, 83-86 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 181 orr.).

14.—AILLANDE OIHENART (1592-1667)

Garibai ta Oihenart dira oraiñarte aipatu ditugun euskal idazlarietatik eliz-gizon ez diranak. Eta oni atxikirik, mintza dedilla, arrituta bezela, L. Mitxelena. «Ezta eliz-gizona —dio, Oihenart gogoratzean—. Detxepare bezala esatera noan berriz ere; oker, dakizutenez. Baiña besterik esan nai nuen: Detxepare'k ere bertsotan berea eman ziola munduari, bere baiño geixeago ere bai, bear bada. Eta oni nagokio. Ongian ez omen diteke geiegirik izan, eta ezin esan gure literaturan deboziozko liburuak geiegi direnik. Diogun, bada, bestelakoetan eskas gabiltzala. Nolanai ere, au da egia: elizako ezten ale bakanen bat begiz jotzen dugunean, lasterka bizian oldartzen gatzazkiola, baita Mongongo Dassança chimistaren «Laborarien abisua» ba'da ere».

Gutxi ta guzti ere, ezin ditzakegu bioi uka benetako gizontasuna ta euskaltasuna. Arrasatetarra aintziña bateko euskal gauza zaharren arduraz iñarrosia ibilli zitzaigun; Oihenart, ordea, «bide okerretik ibillia dugu geinbat —idazten du L. Mitxelena'k—, gure egunotan dirdai berriz agertu zaigun literaturtradizio andi-zabaletik urruti, alegia. Detxepare'ri bezalaxe, badario beraz, heresi-usaia ez ezik, alako heresi-kiratsa ere» (*Arnaut Oihenart*, BAP, 1953, 445 orr.).

Barneko mintza-bearrak eraginda edo, Oihenart'ek naiago zuen, bai, bere bidetik ibilli. Edo-ta, orduan ere, euskerari, euskal gaiak ta euskal olerkiak buruz bereziki, gaurkoz bezelako ezin-egona ote zuen, eta bide berriak urratu gurarik ibillia ote dugu? Daitekena, noski. Aldiak nolako, gizakiak alako. Gizona, egia, garaiko seme dugu: gizarte-giroak egin oi gaitu, eta Ondorioz alda-naiak ere sarri larritzen gaitu, betikoa utzi ta berriri putz-eman naiak nunbait. Ez al dugu gaur onakorik txalotzen? Eta zer dala-ta ez Oihenart'en egunetan?

BIZITZA.—Aren bizitzari buruz argitasun batzuk. Oihenart Maule'n, Zuberoa'ko uriburuan jaio zan 1592'garren urtean. Semeetan bigarrena izanik, azibide ezin-obeia artu zuen etxean; aitaren ogibidearen jarraile, Bordele'n ikasi zuen eskubidezkoa, lege-gizon egiñik. Karrera bukatu ondoan, jaioterrian gelditu zan egotez; Zuberoa'ko irugarren estatuko sindiku aukeratu zuten 1623'an, eta lenbiziko bi estatuak, ots, aitoren semeak eta eliz-gizonak, gogor egin zioten arren, kargu orretan iraun zigun urte mordoan.

Jator-buruz ez dakigu aundiki zanik, baiña ezkontzaz orrelako egiña dugu. 1627'an, bada, Joana Erdoi aberatsarekin ezkondu zitzaizun; alarguna zan aitor-aiaba au, ta naiko gaztea; onen ondasunak lilluratu ote zuten Oihenart? Alare, emazte oni, Joana'ri, ondu zizkion olerki sutsuak maite-mindurenak dirudite. Ezkondu ta gero, Naparroa beereako Donapaleu'n bizi izan zan Aillande; an izan zitun bere karguak ere: Naparroa'ko Parliamentuko eta uriko ziñegotzi. Kargu auetan erritarren alde jokatu omen zuen beti. 1653'an alargundu zan, eta 1667'an utzi zuen mundu au.

IDAZLANAK.—Idazle bizi ta joera berri-zalea genuan. Esana dugu. Ernai zebillen eguneroko gauzetan ere. Zuberoa'ko sindiku zala, askotan izan zitun naigabeak, orduko aitor-semeen geiegikeriz bizi bait ziran. Ingurukoakin ere zur jokatu bearra zuen, beametar eta baxenapartarren aurka batez ere, auek bada sarri jabetu oi ziran, arrapari gisan, zuberotarren abere taldez. Baita izan zituen erri arteko ta nazio arteko istillu ta goraberak ere. Ogeitamairu urietan, sindiku zala idatzi ta argitaratu zuen prantsesez idatzitako au: «Declaration historique de l'injuste usurpation de ia Navarre par les Espagnoles» (Paris, 1625).

Oihenart'ek asko idatzi zuen. «Liburu asko utzi ditu —dio P. Lafitte'k— bai latinez, bai erdaraz, bai eskuaraz». Baiña aren ianetatik ezagunenak, auetxek ditugu:

1) *Notitia utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitaniae* (Paris, 1638). Esan nai du: «Bi Euskalerrien berria, bai Iberia'ko ta bai Akitaniko'arena»; txera aundia izan du beti ere latinezko lan «garai eta ezagun» onek. Bigarrenez ere, Paris'en, egilleak naikoa ukutua, 1656'an agertu zan. Bigarren argitaraldi au begi aurrean zuela Aita J. Gorosterratzu'k gaztelera jarri ta Eusko-Ikaskuntza'k argitara ekarri zuen, 1929'an, izenburu onekin: «Noticia de las Vasconias, la Ibérica y la Aquitanica».

Ego ta ipar, Euskalerra osoaren edestia da liburu onen mami, iru zatitan emana: amalau atal ditu lenengoak, amazapi bigarrenak eta amairu irugarrenak. *Lenengo* zatia, lan guztiaren atari lez dugu; aspaldi bateko euskotar eta kantauritarrak dakazi gogora, aien lurra, oiturak eta izkuntza gorai patuz; Arabakoak, Bizkaikoak eta Giputzak bereziki. *Bigarren zatiak*, aintziñako napar erresuma edesten du, bertako erregeen etorki ta belaualdiak zeatz-meatz emanik; geigarri bezela Aragoi'ko ta Bizkai'ko kondeen izen zerrenda dakar. *Irugarrenak*, azkenez, Akitania'ko eusko-semeak aizatzen ditu, ango eskualdeak eta sendi jaurliaren ixtoria oroz gainetik.

Zogi ta zentzun aundiko agertzen zaigu Oihenart liburu eder onetan: edestigille bizkor, egizale aundi. Euskalerra barruan idatzia izan zan Aita Moret naparraren ixtoria ere; baiña gai onetan, Oihenart'ek, bere gizaldian egin zan lanik bikaiñena burutu zuela, aitortu bear dugu. Saratar Etxeberri'k eta M. Larrameiadi'k bestera esanik ere, F. MichePek diño: «Liburu au nomairen galdekizungarri da, aldi artakotan araztenarik eta zentzuzkoenarik baitugu ezpai gabe Oihenart'en auxe» (*Le Pays Basque*, 455 orr.). Berau izan ezpalitz, galduak zitan onezkeru, betiko galduak bai, Zenbait euskal gauza jakingarri.

2) *Les Proverbes Basques, recueillis par le Sr. d'Oihenart; plus les poesies basques du mesme auteur* (Paris, 1657). Titu-

lúa prantsesez daramanagatik, euskerazko zati bi ditu, ondo berezituak: a) *Atsotizak* edo *Rejrauak*, eta b) *O. ten Gastaroa neurthizetan*.

ATSOTITZAK.—Auetariko asko dakazki, 706 guttiz, eta ba-koitzak dagokion prantses itzulpena du ondoan. «Nere sorterriarri zerbitzu egingo niola uste nuen —dio— gazte-gaztetandik erriaren aotik jasotzea aski ezteela, ezagunago eta iraukorrago biur ba'nitza, inprimatzea dela bide». Eta lan au gizon ikasiena ere ba-dala adierazteko, lan ortan bere aurretik ari izan ziranen izen-erreskada aundia dakar.

Berak bilduak al ditugu denak? Izango zitun noski laguntzailleak mugaz andik eta emendik. Zuberotar olerkari Bertrand Zalgizek beiñik bein, iztegi txiki batekin 205 erri-esaera zahar ere igorri zizkion. Dana dala, naiz berenez naiz iñoren laguntzaz bilduak izan, esakun Sorta baliotsua dugu ark utzi ziguna, gaurko euskalarientzat ere zer ikasiz aztundua dagoena: lexi-koari ta aditz-jokoari gagozkiola batez ere, urre-bitxiz josita daukagu.

Jatorrak ote? Esakunen mamiari datxikiola, onela mintzo da L. Mitxelena: «Olako zuur-itzen zuurtasuna, ezagun danez, antzekoa izaten erririk geienetan, bai ingurukoetan, bai urru-tiagoetan ere. Mami euskal-mami garbi ez ba'da ere, euskal-azal ederrez jantziak agertzen zaizkigu. Eta geroago berriz aipatu bearke dena, gure aurretikoek etzuten, agi denean, begi-lauso andirik gaizkiari, estalirik zegoenean ere, antzemateko, ezta eragozpenik mingaiñean bere izena emateko» (BAP, 1953, 448 orr.).

Euskal gauzetan ongille aundi izan genuan F. Michel'ek egin zuen bigarren argitaraldi bat (Bordele, 1847); atsotizak eta olerkiak irarrazi zitun. Prantsesez eta euskeraz du titulua; euskerazkoa: «Uskarazko zuhur-hitzak Aillande Oihenartek bildiak, zoinen ondoti jiten baitira nskaraz egin zituen neurt-hitzak). Olerkiak, Artxu'k prantsesera egindako itzulpena da-

karte, baiña ezta itzulpen egokia, Artxu'k ez bait zuen ondo ezagutzen euskal esaera zaharren guna; F. MicheFek gutxiago oraindik. Eta L. Mitxelena'k: «Ba-zekiten, gutxi gora-bera beñik-bein, zertaz ari zen Oihenart; ahapaldi osoak ere adituko zizkizuten batzuetan. Baiña kritikaren oiñarri nagusia, itz eta esaldien mami izkutua atzemaatea, geienetan falta zitzaien» (Loc. cit., 449 orr.). Lan au zala-ta, geroago argitaldu zituzten beste bi beintzat: 1) *Atsotizen Urreenquina*, ta 2) *Notice sur les Proverbes basques* (Paris, 1859). Eta azken orduko Rene Lafon'en itzulpena, 1936'an RIEV dalakoak Tolosa'n egiñiko fac-símile bat eta Larresoro'ren *Oihenart* (1970) Uburua.

NEURTITZAK.—Aitaturiko liburu onen azkenerantza «O. ten gaztaroa neurt^hitzetan» dator. Izan ere, liburuak ongi dio, Oihenart'ek gaztetan borobilduak dira emen datozten olerkiak, naiz-ta batzuk —*Ezkontidearen hil-kexua*, adibidez— geroxeagokoa izan. Gaztetakoak izanik, ibillera zoroen frutua, nai ta ez? Neurtitzen azala zein barrua maitasuna da; eta, «Jainkoaren eta Elizaren manuak», «Eguberri koplak», «Nunc dimittis», «Vexilla Regis» jainkozkoak, eta «Lur karbarien eresia» ta bi «Ilhartitz» kendu ezker, gaiñerako guztiak maitasuna dute gai. Gaztetan maite-suak joa genduan bear bada, ta ortik ustutzen zuen bere biotz aztoratua bertso xotilletan. Neskatzan izenak ere ba-damazkigu: «Margarita», «Argia», «Xuria», «Graziana», «Beltxarana»; guztiok bere irudimenak sortuak noski; oso zeatz bereizten ditu aien soin-atalak:

Ahoño, mihi ozena,
hortzik den aratzena,
begi bizi; so hutsaz
maitarazi diroena.

«Joana» zan bere egiazko emaztearen izena; au il zitzaionean, olerki eder bat, bere garaiena bear bada, idatzi zuen: «Ez-

kontidearen hil-kexua». Gogaiz, irudikizunez ta biotz-zartadaz txk ederra. Musak dute ura galduaren errua; baiña «musai eskertsu bear luke egon —dio J. Etxaide'k— aien goi-amasa jasorik olerki bikain bati sortzea eman ziolako». Ona asiera:

Andreak, luzez zerbitzatu
zaituztet, eta nik hospatu
dut herri hautan zuen izena,
lehen guti ezagutu zena:
Nik zuen azturak et'atunak
gu baitan orano ez entzunak,
argiratu'tut ilhunbeti,
et'aterarik herratzeti
guretu, et'eman hek euskara
kobla hontzalen eskuetara.

Jainkozkoak ez dute, izkuntza giarra darabilenarren, ainbesteko oler-indarrik. Eguberri koplak, gaiñera, itzuliak ditu.

NOLAKO OLERKARIA?~Iiakur iritzi-izpiño auek. F. Michel'ek: «Oihenart poetak eztu merezi, ene ustez, Oihenart historia-lariari zor zaion laudorioa; bi doai oiek, ordea, elkar ezin ikusi dutenak izaki, apika» (*Le Pays Basque*, 456 orr.). Orixe'k, berriaz, ez ditu bazter uzten aren neurtitz4anak; zorretan gaudela dio mauletar olerkari trebearekin, «poeta landuxe izanik, neurtitz politak utzi zizkigulako. Etxepare baiño landuagoa, zailuagoa, ariñagoa... Ba-ditu burutapen ugari, erderatik artu arren, euskerara ederki egokitzen dituenak.., Gaur den egunean ere lanik aski Oihenart'en neurtitzak baiño legunagorik, landuagorik, jasoagorik egiten» (*Euskal Esnalea*, 1927, 210 orr.).

Nori siñetsi? galdetzen du L. Mitxelena'k, eta erantzuten: «Orixe'ri noski, etxekoen begi-belarriak emeagoak izaten baitira Olakoetan kanpotarrenak baiño. Zalantza andirik gabe, gaiñera» (Op. cit., 449 orr.). Eta A. Irigarai'k: «Bertso laburrez idazten

du geienik: euskera garbia darabil, erderakada ez sartzeko arre-ta bizia: gaur erriak ez darabiltzan aditz-forma batuak dakazki» (RIEV, 1928, 71 orr.). L. Mitxelena'k berriz ere aren biotz-ondo ugaria dala-ta: «Negarrak, zinkuriak, zauriak eta eriotza aipatu arren, eztingu alako biotz-ondokorik ematen. Axalekoak dirudite Detxepare'ren itzen ondoan. Onenak, soillagoak eta zakarragoak izanagatik, kementsuago iñarrausten gaituzle finaitasunezkoak alegia), obeto ezagutzen baitzuen amorioaren indar purrukatzaillea eta maitemiñak jo duen biotzaren ezintesia» (L. c, 456 orr.).

Oihenart, nire ustez, bere idazlanak, ixtori-gaiezkoak eta abar, osorik begitu ezketiño, jakituneta iritzi-emaille zorrotz agertzen zaigu. Olerkiak mamiz, maite-poema geienak lekuko, sakontasun aundirik ez ba'dute ere, euskeraz ondu diianetatik ederrenetakoak ditugula aitor bearrean aurkitzen naiz. Azalez, ordca, ots, egituraz, bere itzurren eta joskera ez-oituagatik, bixikeri iruditu arren, gaur ere atsegin zaigun zer barez jantzita daude. Aitzol zanak bere aldizkingi «Yakintza»-n argitara zitun Oihenart'en bost olerki: «Erranen duta?», «Margarita», «Argia deritzanari», «Zuzaz bertzerik» eta «Nik ez dut ehor maite», giputz-izkelgira ere itzulita. Sarrera belaza au jartzen die: «Euzkadin izan diran olerkaririk yaioenetakoa XVIIIPgarren mendean bizitako Oihenart auxe degu. Gure olertiaren edertasunak irakastearren antziñako olerki oiek «Yakintzan» argitaratzen ditugu» (*Yakintza*, 1936, Loreil-Garagarrilla, 170 orr.).

Oihenart'en olerkerak, egia esan, etzuen eragin bizirik izan. Etzigun ark aurretikoen lortatzez ibilli gura izan: orduko koplarien lanetatik urruti zegoen zerbait zebilkion barruan dantzari. Olerki ikasia, landua, itz garbalak eta irudikizun sakon aberatsak nai zituen; Lizardi'k eta Lauaxeta'k 1930'rantza egin zuten antzeko zerbait, noski. Baiña auek biok jarraitzaille be-roak izan ba'zituzten ere, Oihenart, bere berpizte nai kemen-tuan, bakarrik utzi zuten orduko euskal olerkari zabarrak. Gi-rorik ez nunbait.

L'ART POETIQUE.—*Zer* dugu au? 1665'gko. maiatzean Oihenart'ek Lapurdiko apaiz bati bidali zion ldazki baten datoren lana. P. Lafitte apaiz euskaltzaiñak argitaldu zuen, 1967'an, «Gure Herria» aldizkarian. Olerki-arazorako badu interesa ta garrantzia, ta ez gutxi. Olerkerak ditun arau ta legeak aipatzen dizkigu, latinez, frantsesez, gazteleraz naiz italeraz. Auek, nola sartu euskal poesian? Garai artan euskal olerkigintzak zeukan egoera garbi azaltzen digu. Ementxe bereizten ditu silaba emeak eta arrak; berdin amaitze edo riman nola jokatu bear dan, gazteleraz bezela •—*querido, divertido*— ala euskeraz, silaba ta erdi gutxienez —*etzezan, nezan*—, ta orrela. Oihenart bera rima oso zalea dagerkigu bere olerki-lan guztietan.

Mauletar argi onek badu oraindik beste lan aipagarri bat, Silvain Pouvreau'ri bialdu zion iztegi txikia, ta RIEV'ek (220-232 orr.) argitara emana.

flkus J. Vinsorij *Essai Bibl. Basque*, 20, 26 eta 362; J. Jaurgain, *Amaud d'Oihenart et sa familie*, Paris, 1885; P. Lafitte, *Loretegia*, 37 orr.; S. Onaindia, MEOE, 201 orr.; L. Mitxelena, HLV, 74 orr.; L. Villasante, HLV, 86 orr.; J. Etxaide, *Amasei seme Euskalerriko*, 145 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 183 orr.; J. M. Leizaola, *Estudios sobre la Poesia Vasca*, 31 orr.).

15.—AITA BERNARDO GAZTELUZAR (1619-1701)

Ziburun jaio zan, 1619-3-12'an. Gutxi ezik ez dugu aren bizi-zeartasunik: 1640'an Jesus'en Lagundian sartu zala, ta bere egunetan predikari ta arima-zai ona izanik, Pabe'n il zala, 1701-4-15'an. Orrela Aita Somervogel'ek *Bibliothèque de la Compagnie de Jesus* deritzan liburuan. Bizitz-aldirik geiena, itxura danez, Pabe'n igaro zuen.

BERE LANA.—Bizi-aztama gailenik utzi ez ba'zigun ere, kaizu ederreko gizasemea izan zan Aita jesuñta lapurtar au. Ez diñot soiñez, ez bait dakigu, baiña bai gogoz, adimenez eta

biotz-ondo. Liburu eder bat borobildu zuen: *Eguia catholicac salvamendu eternalaren eguiteco necessario direnac* (Paue, 1686); Joanes Desparatz, Erregeren inprknatzaillea baitan. Baiona'ko gotzai Gaspar Priale'k, Jesuiten Aita nagusiak, Orzai-ze'ko A. Basili'k eta A. Jakue Oihenart'ek ematen dute baimena.

Bertsoz eginda dago liburu guztia, lenengo orrietan itz lauz ere zerbait ekarri arren. 479 ditu guztiz. Eta zortzi zatitan bananduta dago: a) Sarrera bezela, 1686'tik 1715'raiñoko egutegi ta jai aldakorren ondoan, kristauak bete bear dituan gauzak dakazki: meza, letani, eresi ta atsalde-otoitzak (14-18); b) koplak Jesukristoren jaiotza, nekaldi ta eriotzari dagozkienak (85-206); d) Aldareko Sakramentua (207-262); e) Andre Mariaganako eraspén eta jaiak (263-316); f) gizonaren lau azken edo azagak (317-410); g) erretako Zaindari santuak (411-438); i) bakoitzaren lanbideari dagozkien otoitz eta eskariak (439-459), eta j) kristau ikasbidea ta askotariko erreguak (459-479).

Kopla auetatik jatorrak ditu geienak, eta itzuliak beste batzuk. Jatorren artean auek dituzu ederrenak edo: «Urrun adi Pamaseko», «Musa zahar profanoa», «Erraguzu, Maria», «Ihiztaria», «Leku sainduak»... eta itzuiitakoen artean: «Ama zegoen tristea», «Dies irae», «Creatura damnatua», eta abar.

Liburu oso bakana. Gaur Donostia'ko Diputaziñoko liburutegian daukagu ale bat.

IRITZIAK.—Egun aietako eliz-gizonak ba-zuten erria eskolatzeko bide berezi bat: bertsoan zetozten erri xearen eskuetan ipiñi bear zituzten liburuak. Edu ortan jokatu zuten Argaiñaratz'ek, Harizmendi'k eta Ziburu'ko Etxeberri'k; eta Gazteluzar'ek badu, ain zuzen, zer ikusia, zein odolez zein elez, Joanes Etxeberri'rekin.

Gazteluzar gogoratuz au dio P. Lafitte'k: «Axular bezain miresgarria zaiku, non ezten gorago ere ezarri behar, hain baitu eskuara Jaño, bakun, bero, jori eta gurbil» (*Loretegia*, 51 orr.). Eta ondoren, Etxeberri'rekin berdinduz: «Gazteluzar, Joanes

Etxeberri baiño erauntsi-ezago, andi-ezago da, baiña ordaiña artuz, aztun-ezago, txukunduago ere bada, garbi, argi, ugariago ta igi-neurri (ritmu) ohea duena. Erabat, XVII'garren mendeko poetarik leunena dugu» (*Le Basque et la litterature d'expression basque*, 39 orr.).

Eta L. Mitxelena'k, F. Michel'i jarraituki: «Olerkari samurra degu, baita bertso-neurkerak barraiatzatzen trebea ere; ontan, ba'liteke berak jakin gabe, Oibenart ibilli zan bidetik doakigu. Bere bertsoak, erriari erakustea elburu izanagatik, jakintsuak dira naiz egituraz naiz jantzi dion mitoloji-soiñekoz, Aita jesulagunak arrotzasun auxe ezesteko bakarrik jantzi ba'zitzen ere. Ola liburuaren len-bertsoetan:

Urrun hadi, Pamaseko
Musa zahar profanoa;
eta zu zato zeruko
Musa berri dibinoa» (HLV, 77 orr.)

Eder, gogoko zaizkigu, egia esan, A. Gazteluzar'en olermen lanak. Bigun ta zaintsu, errez ta ao-goxoz dagizki denak. Neurkera sotilla du, lau bertsokoetan geienik: 9/8 edo-ta 8/8. Neurri osoa, ia beti, Oihenart'ek opa zuena. Irakur bederen *Kreatura damnatua* dalakoaren atalño au:

Hire pena zertan datza,
Zerk darozkik zilatzen
arima eta gorputza?
Has adi ba agertzen:
erraguk, erraguk:
argitu nahi gaituk?

Gaur eguneango Lizardi, Etxaniz, S. Mitxelena ta antzekoen itxura du, arin ta bame-xamur Izatean. Orixegatik edo, dakigunez, oso antziñatik 1763'tik 1846'ra 22 argitaraldi izan

dituzten *Kantiko Izpiritualak'etan* beti agertazi dira Joanes Etxeberri'n eta A. Gazteluzar'en neurtitzak (*Kantikak*, Baiona, 1948, XVIII orr.).

* * *

Zer asmu ote zuen olerkari bikain onek bere eraspén liburu bertsoz egiterakoan? Berberak diosku *Abisu* edo sarrerán: «Denbora hautan —dio— hañitzik hañitz liburu eder argira eman tuzte: ezta bada hau bertzeak baño ederragoa; bañan nola, bertze gauzetan bezala, deboziónean gustu diferentak baitire, iduritu zait hañitz deboten artean batzuek huntan gustu hartuko dutela, gustiz mariñel debotek, eta hek prinzipalki konsideraturik, deliberatu dut liburu hunen egitera... Ezen nola plazer hartzen baitute itxasoan latiñez Elizako himnoen kantatzeaz, atsegin gehiago izanen dutela himno beren eskaraz errateaz, aire berean eskaraz eman tut: eta gaiñerako bertsuen airea komunzki gustiek badakite» (11-12 orr.).

Gazteluzar'ek, beraz, bere liburuko euskal kantak idatzi zitun, latiñezko eresien airera, batez ere itxasaldeko mariñel jendeak beren eguneroko arima-ekiñetan abestu zitzen. Ezagutzen ditugu aurreragoko kantak, bertso ta guzti. Noiztik kantatzen ote ziran? Ez dakigu. Baiña, naiz-ta argibiderik ez, lendik ere oso zaharra zan kanta oiek oiuzkatzeko aztura, elizbarruan eta itxas-gaiñean berariz.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 39; P. Lafitte, *Loretegia*, 51 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 223 orr.; L. Mitxelena, *HLV*, 77 orr.; L. Villasante, 90 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 194 orr.).

16.—KRISTOBAL HARIZMENDI (...1660...)

Idazle argi onetzaz ere ez dakigu Sara'ko semea zala ta euskerazko liburu bat opildu zigula baizik. P. Lafitte'k dio: «Sarako jaun bikario eta predikari zen Harizmendi apeza, amazpigarren mende erditsutan».

Berri auetatik, ordea, zer geiago ere atera dezakegu; Axular Gero'ri jarri zion itzaurrean onela mintzatzen zaigu: «Egun batez, konpaiñia on batean, eskualdunik baizen etzen lekuan nengoela»... Orduan eman omen zioten liburuia egiteko kargua, lenengo keiñuz eta aieruz, eta gero klarki ta agerriz.

Nortzuk ote ziran konpaiñia au osatzen zutenak? Urte aietan beren liburuak laburdieraz ager-azi zituztenak noski baiño noskiago: Axular bera, Materre, Ziburu'ko Etxeberry, Argairaratz, Gillentena, Haranburu, Harizmendi ta abar. Idazle-talde gartsu onek, gaur oi dugunez, bata besteari eskeiñi zion bere begikotasun maitekorra: Argaiñaratz'ek, adibidez, Etxeberry'ri eskeiñi zion bere olerkitxoia, baita K. Harizmendi'k Haranburu prantziskotarrari ere, bai Olerkiz bai *Debozino Eskuarra* deritzanari, bigarrenez argitaratu zanean, egiñiko aitzin-solasez.

ZER IDATZI ZUEN.—Liburu bat beintzat idatzi ta argkaratu zuen: *Ama Virginaren Officioa* (Bordele, 1658), G. de la Court inprimatzaillaren baitan. Bigarrenez ere Bordele'n argitaratu zan, 1660'an; eta irugarrenez J. Vinson'ek, titulu onekin: «L'Office de la Vierge Marie en basque labourdin» (Chalon-Sur-Saone, 1901). Liburu guztiz onartua.

Hariztegi'k, eliz-baimena ematen zuela, au zioan: «Nik loannis de Hariztegi Ziburuko erretor eta theologian profesorak irakurri dut Ama Virginaren Offizioa Molde Harizmendi Sarako Iaun Bikarioak eta predikariak euskama bihurtua: ez tut ediren gure fede sainduaren kontrako gauzarik, eta bai nihor debozinora mouietzeko doktrina leiala, eta iuiatzen dut merezi duela imprima dadin eta argira eman dadin. Ziburun Martxoaren hamekan 1658».

Liburuia itzulia da, beraz, eta bertsotan egiña, azkenengo azterketak izan ezik. Ezta, orraitio, itzez-itzez itzulia, azke samar eta itz-inguruka baizik. Andre Maria'ren Arrendia, Pio V'garrenak berriztatu zuenez, 1595'an irarri zan latinez, eta 1618'n frantsesez: oetaz balia izan zan noski Harizmendi bere itzulpena

antolatzeko. Darabilen izkera ezta osorik lapurtarra, giputzusaia ere badu, ta ez gutxi; aiek, esaterako, *nazione* diote, ta saratarrak *nazio*, giputzen antzera darabilkigu. Azkue'k bere /ztegian aipatzen du onen lana.

Liburuaren mamia: Oizko titulu ta illen izenen ondoren, *Matutinak* (35-96) datoz; *Laudeak* (97-114); *Prima* (115-124); *Terzia* (125-132); *Sexta* (133-139); *Nona* (140-146); *Bezperak* (147-166); *Konpletak* (167-182); *Bazkoetan* (185-186); *Bestez* (188-190); *Examena* (195-198); *Intenzinoez* (199-201); *Kofesa aitazinean* (202-204); *Errezibi aitazinean* (206-208); *Errezibi ondoan* (209-215); *Sakramenduko* (226); *Bere patroinaz* (227-228); *Aingeruaz* (229-230).

Ba-zekian euskeraz, baita bertsoak jasez aokatzen ere. Ona nola itzultzen digun *De profundis* dalakoaren bigarren bertsoa:

Idekazu belarria,
zure bihotzarena:
aditzekotzat oihua,
ene othoitzarena.

Bein edo beste ba'liteke gaintxotik ari izatea, baiña argi ta ederki aragituak ditugu aren ahapaldiak. Etxeberri'ri bezela atsegin zaio 8/7 nastea. *Offizioa'ti* buruz P. Lafitte'k: «Lan maite bezain aiphagarria».

(Ikus *Loretegia*, 46-47 orr.j J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 551 orr.; G. Garriga, *Inv. Bibl. Vasca*, *Bol. A. E. V.*, 1953, 124 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 217 orr.; L. Villasante, *HLV*, 91 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 198 orr.).

17.—JOANES TARTAS (...1624...)

Zein urietan ziur ez jakiñik ere, 1610'tik 1612'ra bitartean dator mundura zuberoraz len-liburua idatzi zuena: Juan Tar-

tas. Soheta, Maule'tik urbilleko erritxoan nekazari izan zan bere aita, dakigunez. 1624'an, Leskar'eko Bamabitarren ikastetxean egiten ditu bere estudiorik beiñenak; andik urteetara, Olorone'ko Andre Mari elizako zerbitzari zala, Arue'ko erretora izendatzen dute 1641'an, titulu onekin bait-dizkigu firmatzen bere eliz-lanak; 1662'tik, antza danez, Mitikile ta Ospitale ere berak zeramazkin. 1673'ko maiatzetik Arue'ko ta Atarratze'ko erretora dugu, baiña urrengo gabonilleko 15'tik, ogeta amasei urtetan, lenengo titulua bakarrik darama.

Tartas'ek ba-zuen entzutea bere egunetakoen artean. Au dakusagu beintzat bere liburutik; argitara ateratzeko baimena eman zion Baiona'ko gotzai Joanes Oltze apezpikuak diño: «Merezi du lehen bai lehen imprima dadin», eta garai artan Camblong eta Susmoin'eko arimazai zan Joanes Baguarie jaunak, 7/7'ko bertsoan itz goralpentsu auek jarri zizkion liburuaren sarreran eta bukaeran:

Euskal berriak Tartas
lauda doktor handia.
Euskaldun orok hartzaz
dugu libru hautia;
sainduki bizitzeko
hark doktrina saindia,
zelurat ioaiteko
emaiten du bidia.

Bere liburu omen da Tartas'en argazki. Ta arduraz irakurri ezker, orixe dugu. Lan au, izan ere, jatorra da naiz tituluz naiz mami-azalketaz. Bigarren ateraldia zuberotarraren bizi-argitasunez ta oarrez omitu zigun Darricarrere'k onela: «Idazkera da gizona, idazle argi batek esan duenez, eta esakun au J. Tartas'i egotzi dezaiokegu: laister ikusten dugu ikusi ere esku artean dugun liburu onek, liburua bera asmatu ta idatzi zuen egillearen irudia damakiguia, jator ta zeatz: egiazki esan

dezakegu gizona, au da, idazlea, antxe daukagula mami ta ezur, bere izkera bizian; aditzaileak eskolatu ta sustatzeko aukeratzten ditun adibide ta gertakariak naiko argi azaltzen dute, bai, egillearen bizikera; baita munduko gizaseme danez, pentsatu ta maite duena ere».

BERE LANAK.—Liburu bi utzi zizkigun euskeraz.

1) *Onsa hilceco bidia* (Orthez, Biamon, 1666); Iakuez Rouyer, Erregeren inprimatzailia baitan. Monein'eko jaun markizari eskaiñia. Argitara emateko izan zuen eragozpenik. Azaldu-baimena irixteko edo... Dana dala, lendabizikoz Atarratze'ko erretora zan A. de Conget'ek eta Idauz ta Mendi'ko arimazai zan B. Jauregiberri'k eman zuten, 1657-12-10'an; gero Dax'ko bikario jenerala ta Utziate'ko nagusi zan D. Irunberri'k, 1659-12-6'an, eta azkenez, Baionako gotzai Joanes Oltze'k, 1665-7-1'an, jarri zuen bere siñadura.

Tituluak dionez, liburuaren mamia auxe duzu: ongi iltze-ko bidea. Egilleak, uda batez, zugaitz aundi baten itzalpean egune-ko *orenak* esaten zegoelarik, loak artu ta amets bizi bat izan omen zuen. Goitik gizon eta emakume taldea zerura igotzen ikusi zitun; beetik, ordea, beste talde aundiago bat ifemura jeisten. «Iratzartu nintzan —dio— eta hartu luma eskura euskaldunen faboretan euskeraz porogatzeko, onsa hiltzeko bidia dela, herioaz eta hiltziaz ardura orhitzia, eta salbatzeko eztela bide hoberik mundian» (Irakurtzaliari, 4 orr.).

Tartas'ena, beraz, ondo iltzeko asketika liburuia dugu. Iltze onik ezta bizitza onik gabe: ondo il nai duenak, ondo bizi bear du. Auxe da kristauaren jokabidea; au baieztu ta indar-azteko Aristotele, Seneka, Agustin deuna, Jeronimo deuna ta olakoak dakazkigu gogora, esan zutenekin bere esanak sendoagotzeko. Ortarakoxe darabiltza jazoerarik asko ere, era guztikoak. Irakur: «Evagrius filosofa paganoa zen ••—dio—; eta Synesius apezpiku saindu batek, fede honiala konbertiturik, jesan zaukon eta enpruntatu hirur hogeit libera urbe prauber emateko, (kon-

dizionerekin, bertze mundian filosofoa hark) eman zaukon promesa bat eta zedula bat bere eskuiaz siñaturik. Denbora laburretan filosofoa hura jin izan zen hileria eta hil baino lehen eman zian kargu espres bere domestikoer, zedula hura eta promesa, haren bi eskuien artian estekaturik, haren gorpitza hoberat eta tonbalat etzan lezaten. Erran bezela egin...».

184 orrialde zitun guztiz lenengo argitalpenak. Bigarrenak, ordea, Darricarrere'n oarrakin RIEV'ek (Paris, 1911) egin zuenak, 108. Azken orrialdean olerki bat dakar —bost ahapaldi, sei bertsoko—, orduan Parlamentuko adokatu ta Barkoitz'eko Mugia zan P. Darhetz'ek Mosde Tartas erretorari eskeiñitakoa.

2) *Arima penitentaren occupatione devotaq*: Orationia, Barura eta Amoyna (Orthez, 1672); Hirur Iriko jaunaren seme Montirande deitatzen dan jaun Anadeari eskeiñia, ta Jakue Rouyer Erregeren inprimatzaillia baitan argitaldua. 135 orrialde. Eliz-baimenak eman zituzten: Bonnecase, Maule'ko arimazaiak eta Aita Nezezor kaputxiñoak, 1668-8-23'an, eta Arnaud-Prantzisko Maitie, Olorone'ko gotzaiak, 1668-10-26'an.

Liburuaren mamia. Iru kapitulu ditu. Lenengoan au dakar: «Orazionia zer den, haren nezesitatia, nolako behar dian izan, zer bertute eta indar dian Jinkoa baitan»; bigarrenean: «Barura zer den eta haren indarrak zer diren»; irugarrenean: «Zer den amoina, nola eta noiz eman behar den, zer den haren indarra eta bertutia». Azkenez, iru olerki dakazki egilleari eskeiñiak, latíñez, pratsesez eta euskeraz; euskerazkoa Jean Baguarie jaunarena dugu.

Darabilen euskera nungoa ote dugu izkelgiz? Zuberotarrez da geien bat, baiña badu beste Inguruko izkelgiatarik ere. Adi berari: «Ene euskera eztaikit aprobatiatzen denez; bai ala ez, badu orotarik zerbait, Zuberoak, Baxanabarrek eta Lapurdik

eman drauko zerbait, baina ez oro; Arue'n egin dut neure pieza pobria, hanko lengagia ezpada aski eder, hanko euskerak du ogena, eta ez euskaldunak» (5 orr.).

Latiñetiko itz asko sartzen ditun arren, eta bere gisako agertu, Amikutze'ko euskeraz, ots, Zubero ta Baxebanarra tartekoz, poHki antolatzen da: akats artean ere, badu bitxi ederrik. P. Lafitte'k onela: «Xuberoko mintzaire berezia fiintsez eta erotik nahi duenak ikertu, behar ditu bata nola (Tartas'en liburu biak noski) bertzea artazki iragan, eskuratzen ahal baditu segurik: ezen li-li arradoak dira» (*Loretegia*, 48 orr.). Ei liburu auen zati batzuk J. Vinson'ek, prantsesera ere itzulita, *Revue d'e Linguistique* dalakoan (VII, 1874, 70 orr.; XVIII, 1885, 215 orr.; eta XXII, 1889, 299 orr.) argitara zitun.

(J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 33 ta 34; J. Jaurgain eta J. Urkixo, RIEV, 1907, 25 orr.; D'Aranatz, RIEV, 1927, 295 orr.; L. Villasante, HLV, 91 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 199 orr.).

18.—JEAN OLTZE, BAIONA'KO GOTZAIA

Jean d'Olce euskal odoleko azken gotzaia izan zan Baiona'ko eliz barrutian (1643-1681). Iholdi'ko semea ta Bertrand Etxaux jaunaren illoba. Boulogne'ko gotzai izentatu zuten 1633'an, eta gero Agde'koa 1643'an, baiña urte onetan aldatu egin zuen Frantzisko Fouquet jaunarekin, bere jaioterrira urragotzeagatik. 1660-6-3'an, beronek onetsi zuen Donibane Lohitzune'n Frantzia'ko Luis XIV'garren eta Austria'ko Maria Teresa'ren ezkontza. Gotzai gotza luzea izan zuen Baiona'n, 38 urtekoa noski,

J. Oltze'k arreta bizia erakutsi zuen bere zaipeko artaldea-kin. Bere mendeko apaiz eta eliz-gizonai zorrotz agintzen die, 1666'gn, urteko Eliz-Batzarrak ontzat arturiko arau ta legeen bitartez, erri xeari erakursi dezaiotela Erroma'ko kristau-ikas-bidea, igandeko mezetan, nagusian batez ere. Erri txikietan,

onako ordu batean, eguerdi ostean eliztarrak bildu ta taldeka dotriña irakatsi bearra zuten *apaizak*. Aurrentzat, ordea, Irakasle bereziak nai zitun.

Asmu orrekin liburuak ere agertarazi zitun. Euskeraz ere bai. Ez dakigu nor egiña dan, baiña Ortarako azaldua dugu: *Pregarioac Bayonaco diocezacotz, loannese d'Olce Bayonaco laun Ahezpicuaren manamenduz ordenatuac eta imprimiraciac* (Bordele, 1651), G. de la Court, inprimatzailea baitan. 28 orrialdeko liburuxka bat duzu. Kristau dotriña, bertsoan osatua. Onela edo:

Ezteik egiñen eztuzu
denbora eztenean zilegi.
Hamarrenak paga etzatzu
premiziakin zuzenki.

Urte berean argitalpen bi egin zituzten: *Pregarioak*, laburdieraz, eta *Pregariak* baxenabarreraz; bi liburuxkak dakarte gauza berdiña: sarrerako oar batzuen ondoan, solas-otoitzak (1-24), eta Baiona'ko gotzaiak beretzat berezituriko kontzientzi-kasuak (26-28). Otoitz-jardunok beste bi aldiz ere (Baiona, 1866 ta Londres, 1866) L. L. Bonaparte prinzipeak argitara ekarri zitun.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 23; R. Moreau, *La Religión des Basques*, Baiona, 1964, 117 orr.).

19.—ARNAULD - FRANÇOIS de MAYTIE

«De Maytie direlakoen familia —diosku P. Lafitte'k— arras aipatua izan da. Bi apezpiku ere atera dira etxe hortatik: Arnaud I (1598-1623) eta Amaud II (1623-1646). Beraz mende erdi batez eduki dute osaba-ilobek Oloroneko apezpikugoa»

(*Loretegia*, 115 orr.). Amaud 1 mauletarra zan etorkiz, Pierre Maitie'ren semea, Zuberoa'n eta Bearnen protestanteen jazarpen latza egari ondoren, kristautasunaren alde gogotsu jokatu zuenarena noski. Eta Maitie II'garrenaren illoba Amaud Franzisko Maitie IH'garrena ere, Maule'ko gotzai (1659-1681) izan zan. Arimazai argia dudarik gabe, Matalas'en basati-taldeari eustaga sendoa jarri ziona.

Garai artan Oloroneko apezpiku zan Maitie IH'naren aginduz liburuxka bat agertu zan: «Pronus singulis diebus Dominicis clare et distincte immediate post Evangelium populo legendus» (1676). 33 orrialde ditu. Itzaldi ordez edo, erriari irakurtekoa da. Ta au dakar: 1) iganderoko erri-otoitzak (1-27), eta 2) jaietarako, illetak egiteko ta abar eskariak (28-38). Zuberotarrez. Joskera ona. Antoni Abbadie'k egin zuen bigarren argitaraldi bat, titulu onekin: «Les prieres du prone en basque» (Baiona, 1874).

flkus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 36).

20.—MIGEL SUESKUN

Ikas-maillan Lizenziadu titulua zeraman euskal idazle au ez dakigu nor zanik. Olerki bat bederen ezaguna dugu, berak euskeraz jarria: Lope de Vega'ren *Yo para que nací* zortzikoa.

Ni Zertako jaio nintzan? Salba nedin.
I1 bear baitiket nik? Bai, gertu date.
Jainkoa ez nezan ikus, kondena al nedin,
gauza tristea lizake, or badate.
Badate, eta farra, lo, eta josta nedin?
Badate, eta ikusi alaz nai al naite?
Zer ari naiz? Zertan nabil? Arritu al naiz?
Erotu ni bide naiz, Santu ezpanaiz.

Isasti'k dakar lendabizi bere *Compendio historial de Guipúzcoa* (Donosti, 1850) 1625'garren urtean idatzitako liburuan, 171'garren orrialdean. Eta betegarri bezela bear ez diran apur batzuk euki arren, ez dago ain gaizki biurtuta: aspaldikoa dala ere, badu gaurkotasuna.

(Ikus J. Manterola, *Cancionero Basco*, III saila, 282 orr.; S. Onaindia, MEOE, 216 orr.).

21.—PIARRES ETXEBERRI (..1677...)

Ez dakigu ziur nor dugun idazle au. Hariztoi'k dionez Etxeberri ziburutarak iru anai ziran: Joanes *Manual debozionezkoa* idatzi zuena, onek liburu berberaren sarreran aipatzen duen osagillea, ta «Dorre» deitzen zioten itxas-gizona, Oiarzabal'en liburuia euskeraz jarri zuena. Esan au alere ezta guztiz ziurra.

«Dorre» onek idatzi jakingarri bat utzi zigun: *Itxasoko nabigazionekoa*: Martin de Hoyarzabalek egiña franzezez eta Piarres Detxeberrri edo Dorrek eskararat emana. Eta zerbait gehiago abanzatuba (Baiona, 1677). Ezta jatorra, beraz, itzulia baik. Prantses liburuaren izenburua: «Les Voyages aventureux du capitaine Martin de Oyarzabal, habitant de Cibiburu» (Bordele, 1633). Euskeraz: «Capitan d'Oyerzabalen Biaya venturosak».

Mamia. «Liburu hau da —dio itzultzaileak— Hoiarzabaletik ateratuba. Aitaren eta Semearen eta Ispiritu seindubaren izenean. Alabiz. Jakkeko duzu liburu hunetan konprenitzen direla arrutak, lekoak, zundak, eta marea kontubak eta entradak, ezagutzak eta halturak; hala nola: Lebantekoak, Espainiakoak, Frantziakoak, Bretaniakoak, Normandiakoak, eta Pikardiakoak, Flandreskoak, Angeleterrakoak, Irlandakoak, Eskoziakoak eta Temubakoak; hala nola baitire segidan islaibatubak, plazer duten maistrubentzat edo Pillotubentzat, edo itxasoan nabigatzen

dutenentzat, perilletarik goardatzeko; eta lehenbizikorik, Le-bantekotz berzeak segidan ditubella». Liburu onek badu ga-rantzirik, gaiari begiratu ezkeru batez ere.

{Ikus F. Michel, *Le Pays Basque*, 468 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 37; L. Mitxelena, HLV, 78 orr.; L. Villasante, HLV, 94 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 204 orr.).

22.—ETXEBERRI

Joanes Etxeberri ziburutarraren anaia, Hariztoi'k dioskunez. Soin-garbiketa gai zuelarik, bertso yai oak ondu zizkigun, ganr nundik nora diran ez dakigunak. Uztaritze'ko Seminarioan omen dago esku-idatzi bat, gorputz-osasunari buruzko bertsoe-kin eratua. Ziburutar miriku onena, bear bada.

(Ikus P. Lafitte, *Copiage bio-bibliographique autour du poete «Jean d'Etcheverry»*, G. H., 1968, 129 orr.).

23.—JEAN ETXEBERRI

Idazle onetzaz Michaud'ek, bere *Biographie Universelle* (1815) dalakoan, ematen dizkigu zeinbat berri, baiña duda-mudazkoak. Naparroako Tafalla'n sortu omen, amaseigarren gizaldiren erdirantza. Apaiza ta teolojian Irakasle; baita poeta ere: «euskal olerkarietan ospetsuena». Gaztetan jalgi omen zituen bertsuak, eta gero, elduago zalarik, Kristo'ren bizitza, fedeko ezkutapenak eta Santuen bizitza batzuk ere bertsoz antolatu omen zizkigun. Izadi-zale dugu, olermen-indar bizikoa, lerdena ta garbia. Guzti au, berriz, Baiona'n argitara omen zuen 1640'garren urtean (Ikus III alea, 414 orr.).

Nor ote dugu euskal idazle jator a-u? Tafalla'k eman izan al du olako olerkaririk? Litekena da; amaseigarren mendearen

erdirantza, ba, tafaHarren oizko izkuntza euskera zan. Egun aietan, gaiñera, ba-zan nasterik Naparru-goï aldean, Lapurdin eta Bearne'n, Naparruko gudu ta zirriborroak zirala-ta. Edo ziburutar J. Etxeberri bera ote dugu? Joanes Etxeberri'ren lenengo bertso liburua, alere, 1645'garrenerarte etzan atera, dirudienez.

(Ikus P. Lafitte, «Gure Herria», 1968, 123-128 orr.).

24.—ARANBILLAGA (... 1684...)

Ahetze'ko semea. 1684'an, Ziburu'n zegoen arimazai; ez dugu, tamalez, beste bizitz-zeztasunik amazazpigarren mende azkenetako idazle ontaz.

Liburu bat argitaldu zigun: *Jesu Christoren Imitationea* (Baiona, 1684); Antonio Fauvet, Erregeren, Ipizpikuaren eta Hiriko inprimatzailea baitan egiña. Ezta Kempis osoa, III eta IV liburuak baizik. Baiona'ko gotzai Gaspar Prielle'ri eskeiñita dago, taE.de Sorhaindo, Xurio ta Elizagarai'ren baimenak dakazki.

Itzulpen au etzan lenena. Silvain Pouvreau'k, Saint - Cyran'en idazkari ospetsuak, egiña zuen lan berdiña, esan dugunez; baiña etzan oraindik irarkolara iritxi. Beraz, Aranbillaga'rena itzulpenik zarrena ez, baiña argitalpenik zarrena dugu. Ortaz, liburu au atsegiñez artua izan da euskal literaturan. Baita geroztik maiz itzuli ta argitara emana ere: Xurio'k, Donibane Lohitzune'ko arimazai argiak egin zigun, 1720'an, len-dabiziko biurpen osoa Pouvreau'k lapurtarrez idatzi zuen berea, baita Aranbillaga'k eta Xurio'k ere; Maister'ek egin zuen zuberotarrez (Paube, 1757) aurrenik, eta Etxeberria'k gipuzkeraz, 1829'an.

Ona ahetzetarrek itzulitako zati bat: «*Jesu Kristok*: Ene seme edo alaba, etzaitzela asarra, baldin zenbaitek zure kon-

trako Zenbait pensamendu badute, eta zuk nahi eztuzun bezala Zutaz mintzaten badire.—Hek baiño zuk gaizkiago zure buruaz oraiño juiatu behar duzu, eta sinhetsi zu baiño presuna flakoagorik munduan eztela.—Bizitze bamekoan eta lainkoaren begietan bizi bazare, guti penetan emanen zare haizeak daramatzan hitzez.—Prudenzia handia da errekuontra gastotan ixilik egotea, eta bere baitan sartzen dela, ene ganat konbertitzea, munduko solas eta jujamenduez trublatsu gabe.—Zure bakea eztadilla dependí gizonen solasetarik: nahiz ungi, nahiz gaizki, zuk egiten eta erraten ditutzunak explikatzen baituzte ere, hartatik etzare bertze presuna suette bat, zarena baizen.—Non da bake eta gloria egiazkoa, ene baitan baizen?—Bake saindu batez gozatuko da gizonei plazer egitera desirarik eztubena, eta hala-ber hei desplazer egiterat beldur eztena.—Aniudio erregelatua eztena eta beldurtasun banoa, bi iturri dire, bihotzeko kexadura eta ispirituko distrakzione guziak kausatzen dituztenak» (76-77 orr.).

Txairo idazten du Aranbillaga'k, ezeren eragozpenik gabe darabil bere luma. Alere, itzulpen onetzaz J. Urkixo'k au dio: «Aranbillaga'ren hburua, polikeri gabe idatzia dago, baiña badiu prantseskadarik naiko, lapurditarrentzat ulerterreza dalarik ere; liburu hura argitaratu zanetik 234 urte (1918'an idazten zuen au) igaro diran arren, ezin dezakegu bera euskera ederraren eredu bezala aurkeztu».

(Ikus J. Urkixo, RIEV, 1918-19, 226-235 orr.; L. Villasante, HLIV, 93 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 203 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 38).

25.—RAFAEL MIKOLETA (1611- ?)

Bilbao'n jaiotako Mikoleta, 1611-11-19'an. Miñ de Mikoleta ta Maria Zamudio izan zitun guraso, biak bilbotar femili onekoak. Beronen liburutik dakigunez, Lizenziadun tituhia ar-

dietsi zuen aurrenik, eta gero apaizgoa; Bilbao'ko artxibuetako agiri-liburuetan sari agertzen dan arren aren maixu-titulua, ez dakigu nun ari izan zan arima-zaintzan, ez nun eta noiz il zanik ere. San Anton'go elizan bataiatua izan zan.

Besteak beste, bilbotar jakintsu auxe dugu euskal gramatika osotzen len-lenen saiatu zana. *Modo breve de aprender la lengua vizcayna* idatzi zuen 1653'an. Etzan bere egunetan argitaratu: Londres'ko Museo Britaniku dalakoan aurkitzen da gaur ere Mikoleta'ren esku-idatzia. Nundik eta nola joan zan ara? Bizkaiak eta Inglaterrak alkarrekin zeuzkaten ar-eman eta salerosketagatik, bear bada. Lenengo Sir Thomas Browne'na izan zan, eta gero zelan ez dakigula London'go liburutegi ospetsura jo zuen. Argitaratu berriz Barzelona'n egin zan lenengoz, Salvador Sampere Miquel'en pentzutan, ango «Revista de Gencias Históricas» deritzanaren- orrietan. Bigarren argitaldi bat ere an bertan egin zan, 1880'an. Eta irugarrena Dodgson euskalariak osotu zuen Sevilla'n, 1897'an.

Zazpi zatitan banatzen du Eguzkitza'k Mikoleta'ren liburua: a) /zen, eraskin eta izen-ordeak; b) «egin», «izan» eta «egon» aditzak; d) iztegi laburra; e) Dodgson'en oar batzuk; g) zenbakera ta asteko egunen izenak; i) euskal bertso ta neurririk, eta j) eun eta irurogeita iru adizkera. Gramatika bezela—lenengo tirlitorlo baita— gauza aundirik balio ezpadu ere, badu bere garrantzia barnera so-egin ezkerok: bizkaitar izkelgiko itz ederrez josita dago, ta adizkera bikaiñez. Orrela diño Dodgson'ek, baita Mitxelenak eta Viliasantek ere, ari jarraituaz. Egilearen asmoa etzan, alere, bizkaiera ondoen erakusteko bide bat urratzea baizik.

Darabilen euskerari begira ere txalogarri dugu Mikoleta'ren lanav Bilbotarrak egun aietan aoan zerabilten izkera berezian idazten ditu alkar-izketa gatz-ozpinduak, olerkitxoak eta gaiñerakoak; tokiko esaera zahar gardenez eta txoko artan sortuaz zijoazten itz berriz beterik daukagu euki ere. Lan osoari gain-

begitu bat egin ezkeroz, laister konturatzen gera, egillearen xedea etzala elizti edo gramatika bat egitea, Larramendi'k, esaterako, bere *Eziña Egiña* idaztean euki zuen antzera. Ba-ditu, ta ugari, erderatik artutako itz eta esakunak; baiña, geienik, badu aren lanak gatza ta bizitasuna.

Itzak neurtzen ere ba-zekian Mikoleta'k, eta euskal poetika nola izan bear duen erakutsi nairik ari danean, berak asma-turiko maite-olerkitxoak sartzen ditu, adibide bezela. Poema bi dakaz adierazgarritzat. Lenengoaren asiera:

Amoren kontentak/ eztaude irauten,
kanpoan lorak legez/ dira galtzaiten.

Bertsogiñerako bi era artzen ditu aotan, biak rimaz osotuak. Lenengoa, goiko bertso au dugu; bigarrena, berak diñoanez, luzeagoa da, sonetu gisan, eta auxe dakar adibide bezela:

Denpora baten/ on oi neretxun,
baia mudatu/ nindia,
zerren penatan/ bior ekidan
emon zengidan/ zoria.

Biak bat datoz, erdizka beintzat, gaurko gure zortziko nausi ta txikiakin. Eta jaltingarri dan berri onekin amaitzen du: «Kantauri Pamasoan gaur-egun ere batzuk idatzi dituzte ama-rrekoak, lirak eta sonetuak euskeraz, erderaz dauzkaten mingor eta konsonanteekin, baiña dirdai urriko bidea duzute, neurri oiek eta abar euskeraz ulertzen dituztenak gutxi bait dira».

Zortziko au, 5/5, 5/3, Bizkaian beintzat zaharrena dugu, beñola bateko bertsolariak sarrienik erabilli zutena. 7/6, 7/5 ezta ainbestekoa, ta ez dator bat, osotoro beintzat, gure zortziko txikiakin, naiz-ta kideko izan. Gaurko bertsolarien antzera jo-katu zuen nunbait Mikoleta'k, bere bigarren poema au egite-

rakoan. Eta bertsolariak, dakigunez, Iñoizka doiñuak eskatu baiño itz geiago sartu oi dituzte beren kantu-neurtitzetan. (Ikus S. Onaindia, *Gure Bertsolariak*, Bibao, 1964, 110 orr.).

Azkue jaunak ez zeukan txatxartzat Mikoleta'ren liburua: 41 bider aipatzen du bere *Morfologia'n**

(Ikus P. Fita, RIEV, 1913, 570 orr.; Villabaso, RIEV, 1913, 568 orr.; E. S. Dodgson, RIEV, 1908, 255 orr.; 1913, 564 orr.; 1930, 565 orr.; J. B. Eguzldtza, RIEV, 1930 468 orr.; S. Onaindia, MEOE, 232 orr.; L. Mitxelena, HLV, 63 orr.; L. Villasante, HLV, 97 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleari Lorategia*, 40 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko Euskal Idazleak* Bilbao, 1970, 26 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 208 orr.).

26—ATANASE BELAPEIRE (...1696...)

Apaiza. Teolojian Irakasle. Zubero'ko ofiziala ta Sorhoetako erretoa. Protestanteen naste artan, belatarrak, batzuk katoliku sutsu agertu zaizkigu eta beste batzuk protesta - zale. Onen alta, Jakue, Bela'tar Gerardo'ren semea, euskal esatera zaharren biltzaillea, protestantea zan arren, oso eramankorra genduan bere iritzietan. Atanasi Belapeire izen aundikoa zan bere garaian, gotzaiarekin izan zituen auzi, zezio ta eztabaida latzen-gatik batez ere.

Bere euskal lana: *Catechima laburra, eta Jesus-Christ goure Jinco jaunaren egagutcia, salvatu igateco* (Paube, 1696). Zati bi dira; denengoak 176 orrialde dauzka ta 134 bigarrenak; Trento'ko Eliz-Batzarrak agintzen zuenez, Olorone'ko apezpiku jaunak eskatu zionez egiña. (Ikus F. Michel, *Le Pays Basque*, 495 orr.; Vinson, *Essai Bibl. Basaue*, 564 orr.; L. Mitxelena, HLV, 77 orr.; L. Villasante, HLV, 93 orr.; Auñamendi, *Literatura*, 1, 204 orr.).

Oarra: Belapeire'k bere dotriña laburrean beste antzeko liburu baten aztarrena ere ematen digu. Bere *Katexima labu-*

rra'ren lenengo zatiko 2l'garren orrialdean onela dio: «nola ere haboroek ezpaituzie hon ediren herri hontako Apez gazte batek guztiz honat uskarala utzuli dian Katixima, eta ezpaitzireie hartzaz zerbutxatzen...» 1686'an argkaratua zan dotriña au, ta zuberoraz zegoen.

Clkus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 41").

27.—JUAN BERIA/N (...1632...)

Napar idazlea. Ez dakigu zer aundirik berari buruz, eta dakiguntxo ere argitaratu zuen liburu-aurretik jasotakoa dugu. Lizenziduna zan, eta 1602'tik aitzina eliz-ogipekoa Iruña'tik amazpi kilometrora dagoen Uterga errixkan, araimazai edo abata.

Sortzez ere Beriain'goa zan, itxura danez; onako abizen-dunik aski baita an inguruan, eta ez litzateke arrigarri euskal idazle au angoa izatea. Nun lizenziatu ote zitzaigun? Etzeukan egiaz urrun joan bearrik, sasoi artan Iruña'n bertan erakusten zuten, bada, teolojia ta moraia; Iratxe'en ere Ikastetxe nagusia zegoen, eta Oiñati'n.

Arimazai zala, etzuen arima-zaintza bakarrik bere lepo, beste zeregin eta erri-arloz ere arduratzen zitzaigun. Olandain'go ezeuki ta beartsuei laguntzeko, adibidez, aikaite bat sortu ta antola zuen: «Fundación del Vincula del lugar de Uterga y Olandain». Olandain'go nekazariena zan batez ere.

Aita Legarda'k dionez, 1632'an agertzen da Uterga'ko eliz-liburuetan Beriain jaunaren azken-firma; aren eskuak galdna zeukan, orduko ere, lenago zuen kemen kiriotsua. Garai artan egindako Ikustaldian —1632-5-26'an— nagusiak «abatari ta onen laguntzailleari» erabat jarriak dira Berri Ona ta Kristau Ikasbidea euskeraz azaldu dezatelako agindua. Uterga'n etzuten

eraman illen libururik 1638'rarte, eta ez dakigu beraz noiz il zan Beriain'go arimazaia, baiña ango eliz-liburuetatik atera ditekenez 1635'tik 1638'ra bitartean il zan.

BERE LANAK.—Bi liburu idatzi zitun, euskeraz ta erderaz. Bata: *Tratado de como se ha de oir Misa, escrito en romance y bascuence* (Iruña, 1621). Karlos Labaien'en irarkolan, 124 orrialde. Bestea: *Doctrina christiana* (Iruña, 1626). Amazazpi-garren menderantza, Iruña inguruan, gaur gure Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko erritxu askotan legez, ez ilko bai ilko zegoen euskera. Min ematen zion onek Uterga'ko abatari ta, jakiña, jatarrizko izkuntzan eskolatu nai zitun bere erritarrak, erlijio-gaie-tan batez ere, arimai ta euskerari mesede aundia egiñaz. Auxe eskatzen zuten, gaiñera, bein eta berriz Iruña'ko gotzai ta nagusiak, Trento'ko Eliz-Batzarrak agindu bezela.

Goi-napar eraz idatziak daude bi iiburuak. Egilleak berak adierazten digunez, auxe bait zan Iruña aldean erabiltzen zan izkera. Eta ele bitan argitaratzen zitun bere liburuak, irakurlea —berak diosku— beste era bateko euskera egiten dan tokikoa balitz, itz ez-berdiñak erderaren bidez argitu al izan ditzan, eta orrela bere errian mintzatzen dan euskerara jo. Euskera jakin-garria du, gauza sotil askoz jantzia. Ona zatitxo bat:

«Gauza ziertoa eze gauza bat eginen badu persona batek ongi bear duela jakin zer gauza den, eta nola bear duen egin, berzela eztuela eginen, edo eginen duela gaizki. Ala bada Meza ongi enzuteko, zeñetan baitirade misterioak ain andiak, bear du jakin zer den, eta nola bear duen enzun, berzela eztu enzunen ongi» (Lenengo ataltxoaren asiera).

Larramendi'k bere Iztegian (XXXV) aitutzen du, baita *Co-rografía de Guipúzcoa* (67 orr.) dalakoan ere.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 13, ta 539 orr.; A. Legarda, BAP, 195S, 17-37 orr.; L. Mitxelena, HLV, 61 orr.; L. Villasante, HLV, 97 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 206 orr.).

28.—AITA FRANTZISKO ALESON (1635-1715)

Biana (Nabarra)'n jaio zan Jesus'en Lagundiko alta argi au, eta Logroño'n M zan 1715'an. Ordena barruan zeinbat gaietan —jakintza, eleder, teoloji— Irakasle izan zan; ikastetxe batzuk zuzendu zitun. Idazlari azkar, Aita Moret edestilariaren lana, beronek aunera eraman zuen, Orrezaz gaiñ «Historia de Navarra desde la muerte de Francia», «Gramática greco-hispana» ta beste batzuk idatzirik.

Ba-zekian euskeraz ere. Eta beste aren euskerazko lanik ezagun ez dugun anen, Espaiña'ko ta Portugal'eko errege izan zan Felipe IV'ganena (1605-1665), benogeta lau urtez enege izan ondoren, Madrid'en il zanean, eta Naparruko enege-kon-tesejuak aren goratzanez illetak omen aunditan egin, Aita Aleson'ek ondu zituen erregearen illobirako koplak batzuk. Gertakari ori zala-ta, liburu bat atera zuen Joakin Agirre'k: «Hombres funebres que hizo el real consejo de Navarra a la piadosa memoria del rey Philippo IV» (Iruña, 1665). Liburu ontan dator, 51-52 onialdetan, bianatarrak egiñiko olerki bat, geroago ere, 1863'rantz, Burgaud des Marets'ek argitaldua; titulu au du: «Elogio funebre al rey nmestro señor Felipe IV, el grande, en vascuence».

Napanoari mesederik egiña zan enegea. Onen aginte-azke-nerako, baiña, zoritxaneko bela zebilkion Inguruka kua biziz; oriatik edo dio Aleson'ek bere koplaren lauganen ahapaldian:

O Nafarroa leala!
Orai bear du akabatu;
onekin bizi izan da,
onekin ere hid bear du.

Bederatzi ahapaldi ditu guztira, ta gaztelanen zortzi sila-
bakoen antzera neurtu zitun, azken itzak zonotz edo leun,

ar edo eme, bere ariora egiñik. Ortan espaiñar olerkari ospetsu Lope de Vega, Tirso de Molina, Calderón de la Barca, Góngora, Quevedo, Gracian, aro artakoen antzean eratuak daude, bulkoz eta neurriz.

i
Clkus S. Onaindia, MEOE, 229 orr.; L. Villasante, HLV, 96 orr.; Auñamendi, *Literatura, I*, 98 orr.).

29.—MONGONGO DASSANÇA

Baxenabarrakoa. Kimi - gaietan aitua. P. Lafitte'k onela; «Gaztanbide, Donibane-Ziburuko haren adisldde jakintsun batek eman zion baimenaz badakigu, 1692'ko udan agertu zitekela *chimista* onaren liburuñoa» (*Loretogia*, 60 orr.). Bertan *azaltzen* ditu abere ta patarien gaixorik berezienak, ardiarenak baitik bat, baita oien sendatzeko osabiderik asko exe.

Ona, idia xarmaduraz joa dagoelarik, zer egin bear dan, nola erakusten digun: «Idia edo behia xarmatua denean ezagutuko duzue idiaren trublezia handia, eta guziz bere akzio-neak egin nahi fiubenean, non orduan laburzki argaltzen eta mehatzen baita, hetikatua balitz bezala. Hargatik du nezessario prunki erremedioak egitea: hartarakotz ezagutu duzuenean idia xarmatua dela, emozue lehen-bait-lehen ur huntarik sudurrean, zeina eginen bai duzue ahur bat sofre, eta gero trenpa ur epelean hogoi eta laur orenez; irazi dtizuenean, balia zaitezte hortaz, goizetan eta arratsaldetan, sudnrretan barna emaiteko hori, egin bezain sarri; preparatuko diozue erremedio miragarri hortaz, zeinak kenduko baititu xarmak eta ozatura guziak».

Baxenabarreraz idatzia dago liburua, naiz-ta noizean bein lapurtarrez ere esaera batzuk or-emenka erein. Ez du izkera txarra, P. Lafitte'k «ahal bezalakoa... ez hanbatekoa» duela

esanagatik. Gaiak, berriz, ezpain-ertzean irriparra emerazteko mudura edo, azaitzen dizkigu geien bat. Daranatz'ek bigarrenez atera zigun RJEV aldizkarian, V alea, 585-600 orrietan.

(Ikus J. B. Daranatz, *Curiosites du Pays Basque*, Baiona, 1927; F. Fafitte, *Eskualdunen Loretegia*, 60 orr.; L. Mitxelena, HLV, 78 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 205 orr.).

30.—MARTIN OTXOA KAPANAGA (.-1661)

Eliz-liburuetatik atera dezakegunez, UrkMa azpiko Mañaria erri txotillean ugari-ugaria da Kapanaga abizena. Berton datza oraindik ere Kapanaga basetxea. Abizen au ugaria baita Durango'n ere, XVI eta XVI/garren mendeetan.

Emengoa genduan Martin Otxoa, noiz jaio zan ez jakin airren. 1658'tik eriotzararte, ots, 1661-2-8'te, bere jaioterrian egon zan arimazai. Lizenziatua. Zein ikastetxetan iritxi ote zuen titulu ori? Gramatika maixu ere izan zan Durango'n, Tabira'n alegia.

Kajpanagak liburu bat argitaratu zuen, erderaz eta euskeraz. Bere titulua: *Exposición breve de la doctrina christiana compuesta por el P. M. Gerónimo de Ripalda de la Compañía de Jesus* (Bilbao, 1656). Kalaorra ta Kalzada'ko gotzai Joan Joaniz eta Etxalaz jaunari eskeiñita dago. Ango Bikario jeneralak eman zion argitaratzeko baimena, 1656-12-9'an. Guztiz X-155 orrialde ditu. Abetxo bitan dator testua, ezkerrean erderaz eta eskuman euskeraz. Bizkaieraz. Mamia: Ripalda'ren dotriña (21 - 85); aitortza, azterketa ta damua (87-120); aldiaz nola balia (120-129); leku Santuetako eskariak (130-133); Agurtza edo errosarioa nola esan (133-136); eliz-jantziak (137-141); Meza-ko zeremoni ta ezkutapenak (141-149); eriotz-otduan gaixoi laguntzeko era (150-155).

Liburu onek izan ditu argitalpen berriak ere. Dodgson'ek egin zuen bat Portugale'n (Viseu, 1888); baita idatzi zuen beste lan bat ere «Academy» dalako aldizkarian, 650 garren orrialdean: «Capanaga's traslation of the Spanish Catechism of Ripalda» (1894). Kapanaga'k darabilen Bizkai-aditzari dagokiola, berriz, J. B. Eguzkitza'k badu «Euskera»-n (1925, 136-144 orrialdeetan) lan eder bat: «Bizkai'ko euskeraren eta, batez be, bere adizpiakearen aldakuntzak».

Irakur eliz-jantziai. buruzko azalpena:

«Amituak (zein da pañu bat lenengo sazerdoteak bururean lepora ifinten dabena) erakusten deusku pañua edo euna ifini eutsena Kristo gure Jaunari pasifioko gabea judeguak burla egiteko.

»Alba zuriak erakusten deusku Herodes Erregeak burla egiteko ifini eutsan erroa zuria.

»Zinguluak (zeinegaz eta lotuten dan gerriti Sazerdotea) erakusten deusku azoteak zeintzukaz azotadu eben Kristo gure Jauna.

»Manipuhiak (zein dan eskubitur ezkerrekoan Sazerdoteak ifinten dabena) erakusten deusku soka zeintzukaz eta gure Jauna lotu eben eskuetari abe bateri azotadu ebenean.

»Estoleak (zein da Sazerdoteak ifinten daben idunerean bukrretara kurutzez) erakusten deusku sokea lotu ebana idunetati; eta Kurutzea lepoan eroan ebana Kalbarioko mendira, eta agaiti ifinten dau Sazerdoteak Kurutzearen moduan idunerean bularretara.

»Kasuleak erakusten deusku erropea purpurazko ifkii eutsena Kristori burlatzat.

»Koroa buruan Sazerdoteak dakarrenak erakusten deusku Koroa arantzazkoa ifini eutsena Kxisto gure Jaunari, eta alan jantzki dagoanean erroa sagraduakaz, eztau burua ifiori era-

kutsiko, guztien artean daukan nagusitasuna gaitik orduan; eta Meza esaten daben artean eztau estaletan burua erakustearren ze reberenziagaz Meza esan bear daben» (137-140 orr.).

Lan baliotsua dugu dudarik gabe Kapanaga'k utzi ziguna, Bizkaiko aditza nola zerabilten jakiteko, batez ere XVII'garren mendean. Beraz, ez dago zertan esanik: euskal literatura zaleak oso maite dute mañaritar argiaren lana. Txairo darabil euskera. Eguzkitza jaunari atsegin zaio, ta Azkue'k bere *Morfologia-n* 29 aldiz aipatzen du.

flkus J. B. Eguzkitza, *Euskera*, XI, 1925; L. Villasante, HLV, 91 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 24; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 30 orr.; Mikel Zarate, *Bizkai'ko euskal Idazleak*, 24 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 14 orr.; Auñamendi, *Literatura*, 1, 208 orr.).

31.—AITA DOMINGO BIDEGARAI (.-1679)

Aita prantziskotarra. Nor dugu? XVII'garren mendeko predikariren bat? Ditekena da. Dana dala, merezi du emen irraizeko aipamen bat bederen.

Paube'ko komentuan zegoelarik, antza, euskeraren lengai edo asimasiak idatzi zitun, eta iztegi bat; iztegia etzan nolanaikoa, ogei urteko izerdia baizik, eta iru izkuntzetan zegon, au da, euskeraz, prantsesez eta latiñez. Gaur bezela orduan ere, baxenapartar gazteak zerbait ikasi nai izan ezkeru, beren erritik kten bearra zuten. Etzitzaion begiko ori A. Domingo'ri, eta ortarakoxe batez ere idatzi zuen bere liburu iru eletakoa: gazteak euki zezaten Ikasbide bat, erritik aienatu gabe, bear zituzten ikasketak osatzeko.

Miresgarria zan burutu zuen lana. Nola argitara eman? Etzuen dirurik; eta 1675'an, Naparruko erresumara jo zuen aurrenik. Etzuen an aurkitu opa zuenik. Baiña <—A Villasante'k

dioskunez— argatik etzan gelbotu, ez okildu. Gazteleraz omitu zuen bere iztegia, eta, 1676'an, berriz lengo eskabidera. Eta oraingoan aintzat artu zituzten bi liburuak, baita argitaratzeko bear zuen dirua eskeiñi ere.

Etzuen orraitio A. Domingo'k bere idaztirik argitaratuta ikusi; 1679'an il zan, eta Paube'ko prantziskotarrak gelditu ziran aren lanak argitaratzeko. Baiña Olakoetan sortu oi diran mokoka ta eskatima batzuegatik etzan dirurik eldu, ta or geratu ziran Aita euskaltzale ta langillearen lanak argitara atera gabe. Esku-idatzioek ez dira gaur ageri. Berea ornen du lau izkerako—euskerera-espaiñera-frantses-latiñezko— iztegi aundi bat.

Aita Bidegarai etzan nunbait nolanaiko gizona. Euskal barrutian ba-zuen entzutea. Silvain Pouvreau'ren *Philothea* argitaratzeko berak eman zuen on-iritzia (Dubarat (V), *Le Dictionnaire Basque et les Rudiments du P. Dominique Bidegaray*, RIEV, VIII, 6 orr.; L. Villasante, HLV, 106 orr.).

Oarra: Bada beste dotriña bat, ez dakiguna norena, gorago aipatu dugun Kapanaga'rena baiño zaharragoa, Aita J. I. Arana'k dionez: *Compendio o suma breve de la Doctrina Christiana*»; euskeraz oso-osorik. Bizkai ta Araba sarkaldeko izkelgian dago (J. Vinson, *Essai bibl. Basque*, 24 bis).

XVttt M®mi®a

«Badugu, bera euskal idazle bikaina izan ezik ere, ezpaitzian lanbide orri erautsi, bere eragitez eta bultzakaz euskeran ildorik edo atzerik bamera utzi zuena: Larramendi beinki».

(Orixe, 1927)

AMAZORTZIGARRESS MIENDEA

LABURPEN

i.° *Beste loratze bat*. Lehen mugaz andikoa zan, ots, Lapurditarrena —Axular, Etxeberri...— eta zerbait beheraxeago, Zuberotarrena —Oihenart, Tartas—. Orain gipuzkoarrena —Larramendi, Kardaberatz, Ubillos, Mendiburu— dala aitortu bear dugu. Gipuzkoarrak, bai, jaiki zitzaizkigun egazkada bizkorrean. Lo zeudenak, esnatu. Giroa sortu emen ere, barruko zer ixil batek eraginda.

2.° *Larramendi*. Ebroz andiko erdaldun batzuk —Mariana ta Maryans'ek zirikatuta euskaltzale porrokatu egin zitzaigun Larramendi.

Andoain'en jaio zan, 1690'an. Amazazpi urtekin Jesus'en Lagundian sartu zan, eta eliz-karrera amaitu ondoren, Palenzia'n, Valladolid, eta Salamanka'n azaldu zitun Filosofi ta Teoloji-gaiak. Bizia, alaia ta urduria zan izaeraz. Asko idatzi zuen; erderaz geiena; *El Imposible Vencido* (Salamanka, 1729), «Eziña Egiña», eta *Diccionario trilingüe* (Donostia, 1745), bere lanik ederrenak.

Bera etzan euskal idazle, esatekoa beintzat; baiña bai eragitez eta bultzaz euskal alorrean goldatz ederra iriki zuena. Orixe'k: «Mendiburu'ri, Kardaberaz'i, ta beste Zenbait giputzi, bai Bizkaitarri ere ar-Uekoa ba dite Larramendi'k» (*E. Esnalea*, 1927, 149 orr.). Ederto zekian euskeraz, baiña etzun idatzi gutxi baiño.

3. *Larramendi'ren giroa*. Euskal idazle ezpa-dugu ere, giro sortzaille dugu, ta ez makala. Axular'ek giroa sortu zuen, eta giro ortatikoak dira gorago aipatu ditugun aren aurreko, Inguruko ta atzeko idazleak. Larramendi'k ere berdintsu, giroa arrotu zuen, lo zeudenak itzartu zitun.

Aren liburuak, Iztegiak eta *Eziña Egiña*'k batez ere, eman zioten sua Kardaberatz, Mendiburu, Lardizabal, Iztueta, Arrue ta onako askori. Emen ere auxe diogu: Akats eta guzti, andoaindarrari zor euskerak bere bizi erdia.

Oraintsu arte, XX'garren gizaldirarte noski, Gipuzkoa'ko ta Bizkaiko idazlerik urtenenak ari zor diote geien bat. Naiz neurtitzak ondu, naiz eliz liburuak antolatatu, aren irakatsiak zituzten aurrean.

4. *Larramendi'ren belaunaldia*. Gauza aundietarako gizon eragileak bear izaten ditugu, gizaseme azkarren akuillua. Orrela bait zan Larramendi, guztion esker ona merezi du: baita onen antzeko beste guztiak ere, kondaira zear agertu diranak eta agertuko diranak.

Auek dira aren jarraile edo Inguruko bezela: Gipuzkoa'n: Otxoa Arin, Juan Irazusta, Xabier Lariz, Agustin Kardaberatz, Jose Arakistain, J. Antonio Ubillos, Domingo P. Meagher, Sebastian Mendiburu, Xabier M. Munibe, ta abar, gizonez gizon zenbatuta. Bizkaia'n: Nikolas Zubia, Martin Arzadun, Agustin Basterretxea, S. Antonio Gándara, Bartolome Olaetxea.

5. *Bidasoa'z andik*. Gizaldi ontan Gipuzkoa ta Bizkaia mendikaskoan lez euskal literaturan aurkitu arren, Ipar-aldeko euskaldunak, naiz-ta pixkat motelago, beren kultura arloan jarraitzen zuten.

Jarraitzaille oietakoak dira: Jakue Maitia, Sara'ko Joanes Etxeberri, Fierre Urte, Mixel Xurio, Martin Harriet, Joanes Haraneder, Martin Maister, A. Mihura, Bernard Larregi, Ander Baratzart, López, ta beste.

Auek guztiok, Joanes Etxeberri'z landa, apaizak dira; baita aurreko bi mendeetakoak ere. Beraz, egiaz dio I. Sarasola'k: «Euskal literatura euskal apaizen literatura dela esan daiteke. Ikusi dugunez, XVI-gn. mendeko bi idazleak apaiz dira, halaber XVII-gneko guztiak, Oihenart ezik, eta XVIII-gnekoak, Etxeberri eta Barrutia ezik. Hiru mendeak hartzen badira, % 90 apaiz direla ikusten da» (*Euskal Literaturaren historia*, 24 orr.).

Nun zeuden erri-gizonak? Eta nun daude gaur ere? Len eta orain, paper zaharretatik ageri danez, erri-jakintsuak eta erri-agintariak baiño naikoa geiago egin dute euskeraren alde Elizeak eta eliz-gizonak. Baiña origatik, ederki dio I. Sarasola'k: «Eliza Katolikoari ez zaio ezer eskertu ez reprotxatu behar». Egin bear zuena baiño, eztu egin.

a) GIPUZKOARRAK

1—AITA MANUEL LARRAMENDI (1690-1766)

Euskal literaturan ere, gizon erraldoia benetan. Euskeraz etzun berak askorik idatzi, baiña euskal arloari eman zion eragin biziagatik, guztiz aintzagarrri dugu andoaindar argia. Orixe'k euskal literaturan iru bkibilki jarririk: Axular'ena, Larramendi'rena ta Arana-Goiri'rena, Larramendi'ri buruz au diño: «Bera euskal idazle bikaiña izan ezik ere, ezpaitzion lanbide orri erantsi, bere eragitez eta bultzakaz euskeran ildorik edo atzerik bamena utzi zuena: Larramendi beinki». Larramendi ezta euskal idazle, baiña bai idarazle. Zergatik? Orduko euskeraren etsaiak azpiratzeko egin zuen lan ederragatik. Orixe'k berriz ere: «Ederrago ba derizkiozu, Mariana ta Mayans eta Ebro'z aindiko erdaldunak eragin zioten euskera etdi-galduari. Izker a «totela ta lazkarra» ginuela; erderatik artu ginuela geren izkuntza, gure jabetasunaren ardiesteko; erri asto bat ginela, «asna nación», eta olako astakeri oriek esnarazi zuten euskera. Mingarria da Larramendi'k euskeraz geiago ez idatzi izaita. Argitaratzko neke aundia zela dio garai artan, eta ala izan bear zuen ere. Erderaz iarduki zuena euskeraz iardukitzen alegin balu J. Etxeberri'k bezala, euskerak indar aundiagoa artuko

zuen bear bada. Bear bada diot, alegia, idatzi ta ere ezpaitzuten irakurriko erdaldunak gure izkeraren alde esaten zuena, ta ez euskaldunak ere; orain bertan ere neke baita irakurtzea» (*Euskal-Literaturaren atze edo edesti laburra*, «Euskal Esnalea», 1927, 228'orr.).

GIZONA.—Andoain'en, «Garagorri» basetxean jaio zan Aita Manuel, 1690-12-24'an. Aren gurasoak: Txomin Garagorri ta Manuela Larramendi. Zergatik etzuen erabili bere altaren deitura? Ederrago zitzaion bear bada amagandikoa. Orrela, «Larramendi» darabil beintzat jesuíta sartu zanetik.

Amazapi urtekin, 1707-11-6'an, Jesus'en Lagundian sartu zitzaigun Bilbao'n: 1709-10-13'an egin zuen bi urterako eskeintza. Gero, Villagarcia de Campos'en eliz-botuak egiñik, Palenzia'n, Valladolid'en eta Salamanka'n azaldu zitun Filosofi ta Teoloji-gaiak. Salamanka'n jesuiten ikastetxean erakusten zuen lenengo ta Unibersidadean gero; ta ondo erakusten zuelako nunbait, Irakasle aundi deitzen zioten; gaur ere an erakusten dute andoindarraren irakastegia. Izlari bezela ere omen aundikoa genduan.

Izaeraz bizia ta alaia zanj aiurritz urduria. Berberak bere idatzietan aitortzen digunez, nun-ze-berri ta konta-katillu gaiñera. Ikasteari oso emana beti; literatura gaiak zaizkion atsi-giñenik, eta olako jairen bat iñun ba'zan, an zegoen Aita Manuel ere. Ta ez entzule soil bezela: Aita Losada bere maixuagandik ikasi zuen nunbait eztabaidakari izaten, eta zoli-zorro-tza zan ezkeru, atsegin zitzaion lipiztaren bat sortzen zanean, zirt eta zart gauzak astindu ta erabakitzea. Orduantxe, Salamanka'n maixu zala idatzi ta argitaratu zitun ango mingain gaiztoen kontrako bi liburu auek: *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España* (Salamanka, 1728) ta *El Imposible Vencido* (Salamanka, 1729). Baita beste lan batzuk ere jansenisrar, kesneliar era febroniarren aurka.

Iru urietan lez, 1730-1733, Karlos II'garrenaren alarguna zan Maria Ana Neuburg erregeiñaren aitorle izan zan. Baiona ondoko, landetxe batean bizi zan erregeiña, ta bere zartzaroko egunetan poztasun apur bat izan zezan, aitorle bat eskatu zion Jesus'en Lagundiko nagusiari, ta onek Aita Larramendi auke-ratu zuen, egiteko ori iñork baizen ongi onexek beteko zuela-ta. Orduantxe fdatzi zuen, antza, *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria* deritzaion lana, naiz-ta geroago argita-ratua izan. 1734'tik ara, Loiola'n daukagu egotez; ementxe bizi izan zan lan eta lan urte mordoz; eta ementxe il zan, 1766-1-29'an, Aita Kardaberatz alboan zuelarik. Eta urrengo urtean, ain zuzen, Espaiña'tik bota zituzten jesuitak, Karlos IH'garrenaren erabakiz.

Gogoko zaigu baita olako gizasemeak soin-orrazi ta islaz ere nolakoak izan ziran jakitea. Aita Fidel Fita (1835-1917) jesulagunak onan dagi Larramendi'ren giza-antza: «Tantaia zan gorpuzkeraz, itxura ederreko, bame-zozkodun, zein begietan zein bekokian bere jeinu argiak dizdiz zegion gaillenki. Mende erdi dalarik, Azpeiti ta Azkoiti'ko baserrietan bizi ziran Aita Manuel'en gorputz-azbegiak ondo baiño obeto gogoratzen zituzten zahar agurgarriak; auek bait zizkioten bein eta berriz ari eskuratu doi-doi galdurik zebiltzan zeinbat itz, *Diccionario Trilingüe* zeritzan iztegi ederra aberastu zezan» (*Galerías de fesuitas Ilustres*, Madrid, 1880, 266 orr.).

BERE LANAK

a) ERDERAZKIOIAK—Egia dio Orixe'k, Larramendi'k euske-raz geiago ez idatzi izatea mingarri dala esatean. Euskeraz eder-ki zekiala ere, erderaz ari izan zitzaigun, dotore ta duinkiro ari ere. Ona bere erdel-lan batzuk:

1) *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas len-*

guas: Demostración previa al Arte, que se dard a luz de esta lengua (Salamanka, 1728). 170 orrialde. Urrango urtean argitaratu zuen euskal gramatikaren aurrelari bezela zan; maixuki idazten du, barruko ta kanpoko etsaiak ixil-erazteko moduan. Lan au irakurtzean batzuk, bear bada, parra egingo diote, baiña berak karkara ta irri-zafla... Ezta ez euskera, jakin beza A. Mariana'k, izkuntza zakar traketsa, leun, eder eta zoragarri baizik; zemaitarako gai dana noski. Ezjakiñak eta xoxoak, naiz-ta gangor gorri agertu, ez dute azpi-susterrik. Nola erasten ditun andoaindarrak, etsaiak jartzen dizkioten «baiña», jardespen eta korapillo guztiak! Euskeraren una txit bikaiña da, izen-jokoa, aditza ta beste; edozein gaitarako guztiz aukerakoak. Idatzi gutxi duela? Eta aozko literatura? Munduan ba al da izkuntzarik onek aiña duenik?

2) *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada* (Salamanka, 1729). «Eziña Egiña» itzuli zigun Orixe'k. Erriak itz zegian, baiña euskeraz ari zan erri orrek ba ote zekian euskera ori, gogo emanez, ausnartzen? Au adierazi gogo zuen Larramendi'k bere euskal gramatikarekin. Euskera ezta arau ta lege gabekoa; ba-ditu bereak griegoak, latiñak, frantsesak, gaztelarak dituzten bestekoak. Or, bada, eziña egiña, bere maxiolari ta gaizki-esaleak mututu zitezen. Aren lan jakintsuak, ezta dudarik, dardara sartu zuen, eta etsaiak ixiltzeraiño sartu ere. Lan ederra bait zan. «Aita Larramendi'ren gramatika —dio A. Villasante'k— ona da zuzenld, baita guztiz ona ere. Arri-garri da lenbiziko euskal gramatika, aalaz, orren zeatz osoa irtetzea. Berton ageri du egilleak zein sakonki ezagutzen duen euskera. Aren ikasi ta ezagutzea, orraitio, ez datza bere zan gipuzkeran bakarrik, baita laburkiro beintzat aztertzen zitun Bizkaï'ko ta Lapurdi'ko izkelgietan ere» (HLV, 128 orr.).

3) *Discurso histórico sobre la antigua y pimosa Cantabria Cuestión decidida si las provincias de Bizcaya, Guipúzcoa y Álava estuvieron comprendidas en la antigua Cantabria* (Madrid, 1736). Pedro Peralta'k, bere *Historia de España'n*, ain-

tziñako Kantabria, Santander eta Asurias alderdi bat bakarrik zala zioan; onen aurka jaiki zan Larramendi libura au idaztean, beiñola erromarren kontra burukatu ziran kantauritarrak euskaldunak zirala erakutsi nairik. Larramendi'ren garaikoentzat, izan ere, euskaldun eta kantauritar berdintsu ziran: Frantzisko Xabier donea (1506-1552) eta Bertrand Etxauz, Baiona'ko go-tzaia, ta beste euskaldun izen aundiko asko ta asko, kantauritarrak ziran, bere ustez. Oihenart eta Moret, ordea, bere aurretik ere, Peralta'ren iritzikoak genkun. Eta egiazki, Larramendi'ren denboran bi izen berdintsuak ziralarik ere, aspaldi bateko kantauritarrak euskal erritik sarkalderantza bizi izan ziran.

4) *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin* (Donostia, 1745). Bi aletan, 436 ta 392 orrialde bakoitzak ditula. Auxe Larramendi'ren sekulako lana. Iztegi bat dugu, iru izkuntzatan: Gaztelar Akademiaren iztegia, erdal-itzari dagoz-kion euskerazko ta latinezkoekin. Aurretik du, sarrera bezela, 220 orrialdeko aitzin-solas luzea. Era bitako itzal dauzka:

1) Eskuan zitun liburuetatik eta erriaren agotik jasorikok, eta 2) egilleak berak asmatutakoak. Auxe da andoaindarrari arpe-gira botaten diogun gaitza: ez digula iñoiz ere esaten Zeintzuk diran berak asmaturiko itzak. Eta beste au: itz bakokza zein izkelgitan erabiltzen danik ere ez digula egundo aitortzen. Zergatik egin zuen orrela? Berak diosku itzaurrean: «batzuk eta bestezuk euskal erri osoan edatu ditezen». EuskalM guztien batasuna nai zuen. Uts auek gorabera, eragin ikaragarria, izan zuen, bere ondorean, iztegi irukoitzak.

Aren izerdien frutua izan zan, ain zuzen, iztegi-arloan len-nengoz lurra aitzurtu zuena; aurretik etzun iñork olako lanik burutu, lan txikiren batzuk, Landuccio'rena ta esaera zaharren batzuk kendu ezkerro. Gerozkoan eratutako iztegi guztiak, ots, Pedro Novia Salzedo'k, Aizkibel'ek, Harriet'ek, Hiribarren'ek, J. Van Eys'ek, Azkue'k, Bera ta López Mendizabal'ek, P. Lhan-

de'k, Arbelaitz'ek, Toumier-Lafitte'k, Araneder'ek, Muxika'k, Auñamendi'k, Ekin'ek eta «Ikas»-ek egindako lanak, Larramendi'ri begira osotuak dirala esan genezake.

5) *Corografía o descripción general de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa* (Barcelona, 1882). Aita Fita'k agerrazi zuen lendabiziz *La verdadera ciencia española* zalakoan, XIX'-garren alean; 298 orrialde. Eta «Ekin» argitaldaria (Buenos Aires, 1950) atera zuen bigarrenez. Amazortzigarren gizaldiko Gipuzkoa jartzen digu begipean, orduan ark zuen indar osotan; soin eta arima noski; bizi ta pipermiñez edesten digu orduko olagizon, nekazari, artzain eta eliz-gizonen bizitza; orduko lege ta oiturak, izkera... Labur: giputz erria zer zan eta zer nai zuen. Emetik dagerkigu nola maite zituen ark euskera ta bere sort-lurra.

Ona adigarritzat zatitxo bat, gipuzkoar andiki ta jauntxoek kontrakoa, euskeraz ain zuzen ere: «...Zer diozute, ero-putzak, buru ariñak, zer darauskizozute? Artzen badet aitzurra, ta hori geiegi da, artzen badet jorrai txiki bat, bigarren zotalean agertuko dizutet, ez tratalari ezen, ez nekazari ezen, baita argin, arotz, olagizon, dendari, okin, sagardo-saltzalle, ikazkin, zuen etxeetan jaiokak, aziak eta biziak. Gipuzkoan izkunde oriek? Eta alegia, Gaztelan aditzen zaiotela ta emen ez dakigula odol onaren berri. Ler eztagizutela, merezi badezute ere. Utzi, utzi Gaztelako hitzera txoralda orri: Mairu kutsu> judu kirats, beltz eta billau usai geiegi dabil erri horietan. Oar zaitezte, etxean, Gipuzkoan dezutela, iñotara joan bage, erbestean arkituko ez dezuten garbitasuna. Eta hau onela dala obe dezute alaba txukun hori ezkondu emengo tratalari aberats batekin, ezen ez Gaztelako eta besteetako aize, zagi galbardun askorekin. Ez ni saiatu, ta orain agur» (*Corografía*, 1882, 137-138 orr.).

6) *Argitara gabeak*.—Ba-ditu oraindik beste idatzi batzuk, teoloji gaiak, kartak, amaitu gabeko euskera-erderazko iztegia, euskal dantza ta jolasen aldeko lan bat, Gipuzkoako edesti laburra, ta abar. Aita Fita'k dioanez, Larramendi'rena da gaiñera:

Nueva demostración del derecho de Vergara sobre la patria y apellido secular de San Martín de la Ascensión y Aguirre, Madrid, 1745 (Ikus Corografía, 293 orr., oarrean).

b) EUSKERAZKOAK.—1) *Mendiburu Aitari eskutitza* (/kus «Jesusen Biotzaren debozioa», itzaurrea; «Euskalerria», X/II, 1885; P. Lafitte, *Loretogia*, 64 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 236 orr.).

2) *Sebastian Gandara'ri egin ziona* (BAP, 1966, 2'an, 161 orr.).

3) *San Agustín'en goraipamena* («Euskal-Erria» XIII, 1885).

4) *Astete'ren Dotrina*, izenburu onekin: «Ikasbidea. Kristauen doktrina, azalketa laburrakin galdeaz ta erantzuteaz. Len alta Gaspar Astete Jesusen Konpañiakoak gaztelaniaz ta orain beste jesuíta batek euskeraz ezarria (Burgos, 1757); Konpañiako hizkiroian; 48 orrialde. Ez dakigu ziur berea dan ala ez (Ikus «Euskal-Erria», XI, 1884-8-20, 158 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl Basque*, 63).

5) *Iztegian eta Corografian* sartzen ditun euskerazko zati batzuk (*Corografía*, 1882, 268 orr.).

6) *Olerki batzuk* «Eziña Egiña»-ren azken orrietan datoztenak.

LARRAMENDI OLERKARI.—Ba ote? Jesuítak jakintsuaren gramatika zar-tankeraz egiña daukagu, au da: izena, izen-ordea, onen jokua, aditza (18-142 orr.); joskera, mintzaera (prosodia) ta abar; guztiz 201 orrialde.

Amaitzerakoan, ordea, geiagarri bezela, euskal olerkiaz diardu. Larramendi lekuko, garai artan, gaur lez edo, nai zutena egiñaz zebiltzan poetak: silaba ta kontsonanteak etzieten gorarik eman nai. Banaka batzuk, alan ere, zorrotz zaitzen zituzten izkera olerkitsuak eskatzen ditun legeak. Auen artean bat Joanes Etxeberri zan, eta onen bi neurtitz dakazki eredutzat: «Ino-

losa'ko Ensebio Lopez'enean (1885) argitaldu zan. Valmedia-no'ko markesa andre Maria Mikaeia Idiakez, Xabier ta Loio-la'ko txit argiari eskeiñita dago.

8) *Mezaco sacrificio ta Comunio sagraduaren gañeco do-triña ta beste devocioen egercicioac* (Tolosa, bigarrenez 1782). 240 orrialde. Gero ere, lau aldiz beiñik-bein, argitara atera zuten, Tolosa'ko La Lama alargunaren moldiztegian, J. B. Agi-re'ren liburutik arturiko gauza batzukaz geituta.

9) *Escu liburua, ceinetan arquitzen dira cristau onaren eguneroco egercicioac* (Tolosa, 1826). 238 orrialde gutxi gorabera. Gerora ere, 18 aldiz beintzat, argira ekarria, Tolosa'ko Mendizabal, López, Gurrutxaga ta Mugerza'ren moldiztegie-tan. Gipuzkeraz daude argitalpen guztiok; baiña bizkaieraz ere egin zan argitaratze bat, titulu onekin: *Escu Liburua, zeñetan dagozan meza, confesiño eta comuniñoco, goiseco eta gabeco, eta beste deboziño ascoren ejerzizioac* (Tolosa, 1889). 368 orrialde, izki aunditan.

10) Bada beste Hburu bat ere, antzekoa, urteak aurrerago azaldua: *Cristaubaren eguneroco ejercicio edo Aingura... geien bat Aita Agustin Cardaveraz-ec animen oneraco ipiñiac* (Tolosa, 1714).

11) *Ama Veneragarri Josefa sacramentu guciz santuarena ceritzanaren vicitza eta virtuteac* (Tolosa, 1882). 254 orrialde. Aita Arana'k argitara emana. Ama agurgarri au Azkoiti'ko Bri-jidetako konbentuan bizi ta 1721'garren urtean ildakoa zan.

12) *Loyolaco aita San Inazio-ren bederatzi-urrena* (Azpei-tia, 1885). P. Martinez'en irarkolan. 18 orrialde.

13) *Azpeitico erri chitez noblearen gloria paregabeac edo Aita San Ignacioren bizitza laburra* (Tolosa, 1901). Liburu au lenagotik argitaltzeko, Iruña'ko Auzitegiak eragozpen batzuk jarri zituen; Karlos III'garrenaren ministru zan konde Aranda'k ontzat artu zituen eragozpen oiek. Gazteleraz izan ezik, ezin zitekean ezer argitaratu, berari esan gabe. Ori zala-ta, ainbat liburu egon ziran azaldu eziñik.

14) *Liburu ederra* (Baiona, 1856). 282 orrialde. *Aita San Ignacioaren Egercicioac* dira Duvoisin'ek Lapurdiko euskerara itzuliak, baiña H'garren eta IV'garren zatiak bakarrik.

Ba-ditu oraindik beste argitalpen batzuk, izengabe egiñak eta.

Aipagarri dira, orrez gain, bere deboziozko liburuetan dotozen olerkitxo labur bezain txairoak ere (Ikus S. Onaindia, MEOE, 241 orr.).

«EUSKERAREN BERRI ONAK».—Aparteko aipua merezi du liburu onek. Beste lanak, geienak beintzat, jainkozkoak ditu; auxe bakar-bakarrik gramatikaz ta erretorikaz egiña. Bederatzi zatik osatzen du, ta ortografiari dagokionean ezta fo'rik onartzen. «Ken ortik! —dio—. Gure Euskera suabe eztizkoarentzat ez da soñu ori». Morfologiari begiraturaz, ordea, ez du aipatu ere egifen *bait* zatiñoa, ezta Larramendi'k ere; bai, ordea, Mendiburu'k. Baita ba-dugu erretorika ere, ta euskeraren apolojia. Euskera beste edozein izkuntza bezain gai dugu edozein jakintza-gai erabiltzeko eta adierazteko, «baita gairik meien eta zaillenak ere». Zarra ere baita, ez baiña norbaitzuek esan oi duten aiña. «Txantxetan esan oi da —dio—, edo euskaldunak esan oi dute, Jaungoikoak Paradisuan Adan gure Aitari euskeraz, «Adan, non zera?» esan ziola, euskera Jainkoaren gauza bezala, arako ta edozein lekutarako diña bazan, Jainkoak ola nai izan balu, Baña gauza ziertoa da, Jaungoikoaren izketa Paradisuan, ta gero ere, Hebreoz izandu zala...».

Ori ta guzti ere, ontan Axular, Etxeberri ta antzekoai jarraituz, euskera guzriz *garbia* dala dio, ta arritzekoa derizkio nola ez ditun langille geiago, euskal idazle geiago, bera landu ta edertu dezaten. Larramendi irakurtzeko diotse eliz-gizon eta maixuai, egunero mingaiñean darabilten euskera eder jaikiagoa izan dedin. Zertarako gogo du argi ta garbi irauñ dezan? Adi bere itzak: «Gure pobretxuon askoren animak salbatzeko, euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du». Jainkoaren itzala du

euskerak, beste izkuntza guztiak lez, eta Ark nai du bizi dedin. Baiña gure laguntza pitiña ere gura du, ta Ark nai izanagatik, guk laguntzen ezpadiogu, gere zabarkeriz ilko zaigu. Emaniarrak: «Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskerak iraugo du. Esan oi dena: oiei lepoa ebaki edo bizia kendu gabe euskera ezin utzi edo kendu diteke». Zer esango ote luke gaur?

Liburu estimagarria, benetan. Ortik, askotan ikusi izan du argia. Dodgson euskalariak atera zuen bigarrenez (Tolosa, 1896), eta gero Azkue'k *Euskalzale* (Bilbao, 1897) aldizkarian, eta laugarrenez. A. Zabala'k *Auspoa* (Zarautz, 1964) bilduman, «Aita Agustin Cardaberaz Jaincoaren zerbitzari andiaren *Berri Laburrak*, apaiz batek eusqueraz jarriac» (Durango, 1908) Florentino Elosu'ren etxean, lenengoz irarri zana, itzaurre bezela dakarrelarik.

IRITZIAK.—Ogeitamar urtez errkik erri mintzatu ta Hburumordoxka idatzi ditunak ba-du bere garrantzia, ta merezi du gure itzala dudarik gabe. Baiña nornairi ere akatsak billatzen ibilli oi gera, ta norbaitzuentzat Kardaberatz'en idazkerak ere ba-ditu bereak. «Aren euskera —diosku F. MichePek— ez da oso garbia, egia da, baiña esaera eder askoz gaiñezka daukagu; idazkera lerdena baitu, aren lanak merezi dute irakurtzea, *Kristauaren Bizitza'k* batez ere. Auxe duzu bere okerrik nabarmenena, erdal-itx askotxo sartzen ditulakoa».

Eta L. Mitxelena'k: «Ez da idazle ditzikor, ez txukun, baiña bai bizja ta ugaria, eta beti izan ditu irakurle asko».

P. Lafitte'k, ordea: «Hil zen saindu bat bezala, goxo goxo eta geroztik Dohatsuen lerroan ezarri du Eliza Ama Saindual. Eskualtzale suhar Dohatsuak zerutik geriza eta begira dezagula, hain ontsa zerabilkan eskuara». Eta M. Lekuona'k: «Gauza bat aitortu bear degu, Aita Kardaberatz'en liburuai etzaiela orain arte, gure artean bear bezelako ixtimaziorik ekarri, erabiltzen duen lexikoan erdal-itx askotxo sartzen ditualako nun-

bait. Bañan, egia esan, ori gora-beera, Aita emaniarraren prosa oparoari, mami ta ixuri ederra aitortu bearra daukagu: mami bioztun, eta ixuri leun. Ez bait luke gaizki emango gure A. Agustin'en edozein liburuk, euskerazko beste libururik ederrenen artean».

Arrotu utsune auek ora-bera, ots, erderakada geiegi sartu ta idazkera ere ain jatorra euki ez arren, euskera aberatsa ta joria du A. Kardaberatz'ek. Bi maitasun zitun bere baitan: Jainkoa ta Euskalerrria. Eta bete zuen bere jomuga. Jainkoa aldarrikatu zuen bizi-bizi; Euskalerrria ta Euskera jasotzeko, berri, ainbat liburu agertazi zizkigun. Biak Jainkoa ta Euskalerrria, txibistin gozoz lotuak, goretși nai izan zituen bere lurrean.

Aren izkera ez da mordoillo, ez garbiegi, bai bien arteko. Buruan zekarrena egoki ta argi ulertzen emateko erdal-itzen bearra ba'zuen, etzitzaion ahalkizun ari oratzea. Larramendi'rekin dankide genduan, baiña ez uneoro ta noranai itsu-itsuan ari jarraikika. Bere nortasuna iñoiz ere utzi gabe.

(Ikus Julian Fonseca, *Vida del P. Cardaveraz*, Madrid, 1862; F. Michel, *Le Pays Basque*, 503 orr.; J. Urkixo, RIEV, 11, 1908, 313 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 64, 74, 91-96, 103, 107, 131, 212, 562, 600; P. Lafitte, *Loretegia*, 82 orr.; Pérez Goyena, *Ensayo Bibl. Nav.*, III, 520 orr.; L. Mirxelena, HLV, 100 orr.; L. Villasante, HLV, 141 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal idazleen Loretegia*, 51 orr.; Auñamendi, *Literatura*, 1, 242 orr.; S. Onaindia, MEOE, 240 orr. ta KARMEL, 2-1971, 79 orr.; M. Lekuona, *Zeruko Argia*, 1971, uztaillak, 18; *Kardaberaz Aitari Omenaldia* (Zarautz, 1972).

6.—AITA JOSE ARAKISTAIN (...-1765)

Deba'koa ala Itziar'koa genduan? Ez dakigu ziur. Karmeldarra; oso jakituna. Jesus Maria'ren Aita Jose esaten zioten Karmen'go Amaren Lagundian. Euskalerrriko karmeldar Pro-bintziko nagusi izan zan, ta Aita Lendakariaren aolkulari. 1765'an il zan.

Ez dugu Aita Arakistain aitzu bear XVIII'garren mendeko euskal idazleen artean. Badu, egia esateko, bere nortasuna ta sarri aitatua da euskal Hburuetan. Erderez berak bildu zituen, gero Pedro Aldazabal'ek, *Breve Historia de la aparición del mds luminoso astro, la milagrosísima imagen de Maria Santísima de lciar* (1767) izenez, A. Arakistain ilda bi urtera, argitaratu zuen libururako agiri ta lanak.

Larramendi'k ainitz lan eta nota utzi zizkigun argitara atera gabe; baita itz-zerrenda galantak ere. Nota, itz-zerrenda oieta-rik batzuk osatzen dute *Suplementos al diccionario trilingüe* deritzana, ta Aita Fidel Fita'k 1881'an, Barzelona'ko *Revista de Ciencias históricas* zalakoan (II, 416 orr., eta III, 113 ta 350 orr.) argitaratua. Ementxe datoz A. Arakistain karmeldar-rrak Larramendi'ri bialdu zizkion itz-zerrendak; itzotatik 64 ziran Erronkari aldean bilduak eta 1425 Naparroan eta Gipuzkoan batutakoak. Baita ementxe dator euskeraz, Aita Jose'k ari itzak bialtzerakoan Iruña'tik, 1746-8-15'an, egin zion eskuti-tza, eta Aita karmeldar berberonen euskarazko poesi bi.

Olerki saillean badu beste bat ere. Gizaldiak zear, eten barik, abestu oi dugun

Agur, Itziar'ko
Birjiña ederra;
Agur, Ama maite,
Itxasoko izarra...

kantua, berea du. Berak, biotz-dardarti, egiña.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 195 orr.; Auñamendi, *Diccionario*, II, 268 orr.; *Zeruko Argia*, 1971, urtarrillak, 17, 8 orr.).

7.—JUAN ANTONIO UBILLOS (1707-1789)

Aita K. Iturria'k Donosti'n egin zuen itzaldi baten, onela: «Etzan gure Ubillos nolanaiko gizona, jakintsu aundi oietako baizik; gai sakonetan zearo murgildua». Eta prantziskotar jakintsu onek latíñez, gazteleraz eta euskeraz idatzi zitun lanak aipatzen dizkigu ondoren.

BIZITZA.—Amasa errixka, Billabona aldamenean, muiño txiki baten gain datza; emengoxea dugu A. Ubillos (ur-bil-ots?). Amasa'koa zan bere ama Maria Arano, ta Andoain'goa alta. 1716'an, mutil koskorak bederatzi urte bete gaberik zegoela, il ziztaion alta; ama, berriz, 1723'an, andik sei urte ta erdira noski. Juan Antonio'k orduko urte bete zeraman Arantzazu'ko komentuan, aurreko urtean prantziskotarren jantzia artu zuen eta.

Ona A. Iturria'k, beiñola norbakek «Euzko-Gogo»-n idatzari erantzunik, Ubillos gazteari buruz zer ziñoan: «Apaiz ta prailleok Euskalerriko semerik onenak guretzako artzen omen ditugu. Ez nuke nik ori egi utsa danik esango, ez apaiz ez prai- Ueei begira, ezta zuei begira ere. Ori esan zuna bera, naiko aundi ta jakintsu izan arren ere, eztegu elizgizon. Baiña gure Aita Ubillos'ekin, beintzat ori gertatu zala esan genezake».

Nobizio-urtea bete ondoren, 1723'an, eskeiñi zitzaion Jainkoari iru erlijio-ziñitzak egiñaz. Orduan bere garairik kartsue- nean zegoen Arantzazu, bertan bizi ziranak ia eun prailleraiño eldurik. Ementxe osotu zitun Ubillos'ek, beste gazte mordoska batekin, meza emateko bearrezko zitzaizkion latin, Filosopi ta Teoloji-ika&teak. Auek bulotu ta meza berria emandakoan, buru argikoa baitzan, AUkala de Henares'ko Ikastetxera bialdu zuten nagusiak. Zer ikasi zuen an? Jakintza-gaiak noski.

1755'rantza, Tolosa'ko prantziskotar ikasile gazteen Teoloji- irakasle daukagu. Lan eta lan dagi. Aurretik ere Filosoñ-gaiez naikoa idatzi ta zeukan, eta urte ontan bertan, argitaratu zuen

bere lenengo Filosopi-liburua. 1755'an asita, iru ale edo tomu atera zitun urrenez urren; bigarren zatian, 1758'garren urtean azaldu zuenekoan, «Lector jubilatus» zala adierazten du. Ta ohorezko aipamen au irixteko, gaiak beetik gora erkausi bear izaten ziran, au da, Filosopi-gaietatik asi ta urte batzuk geroago. Teolojia irakatsiaz.

Bere irakaste-lanari loturik, urte askotan Tolosa'n bizi zala, aldikada baten bertoko nagusi ere izan zan; baita Kantauri'ko prantziskotar Probintzi guztiko Aita Nagusiaren urrengo ere. Geroago, Arantzazu'n agertzen da bertoko nagusiaren aolkulari bezela. «Ala zanez, urtero urtero, 1768'tik 1786'ra, jarri oi zun bere izena euskal gazteak Arantzazu'n praille egin, prantziskotar jantzia artu ta profesa egiten zuteneko agiritan». Komentu ontan il zan, agi danez, 1789'garren urtean, Prantzia'ko matxinada urtean, ain zuzen. Bertoko kanposantuak gordetzen ditu amasatar jakintsuaren gorputz-ezurrak. Zaartua ere, letra argi ederra zuen.

BERE LANAK

a) LATIÑEZ.—Jakitura ezta geienik mingaiñez azaltzen, idatziz baizen. Orrela, paperean likaturik, adierazten da adimenaren sakontasuna. Aita Ubillos'ek, beerago aipatuko dugun euskal liburiaz landa, ba-ditu iru latiñezko ere, idatzi ta argitara ekarriak. Obeto: liburu bakarra da, iru zatitan banaturik. Liburu sakon eta funtsez moldatua.

1) *Philosophia Rationalis* (Donostia, 1755). *Summulas edo* bilduma txikiak eta Lojika datoz ale aundi onetan. 509 orrialde ditu. Etzuen bakarrik osotu: irakasle-lagun zuen mondragoitar A. Frantzisko Elejondo'rekin batera egin zuen lenengo ale au. Beste biak, ordea, bere-bereak ditu osorik.

2) *Philosophia Transnaturalis et naturalis* (Donostia, 1758). Metafisika ta Fisika orokorra. 718 orrialde. Gai sakonok maixu gisan azaltzen dizkigu,

3) *Philosophia naturalis* (Gazteiz, 1762). Fisikaren bigarren eta irugarren zatiak. 536 orrialde ditu. Orduko Fisikan gaurko zientzi-gai asko sartzen ziran: Izarrizti, Mekanika, Kimika, Osakuntza, Lutelesti, Landare-izti, Metal-gaiak, Abelizti, Antropoloji ta olakoak. Eskeintza bi dakaz irugarren onek: San Luis Gonzaga'ri bata, ta Xabier M. Munibe ta Idiakex Peñafiorida'ko kondeari, bestea.

Aita Ubillos'en Filosopi au, urte askotan, prantziskotar ikasle gazteen liburu arrunta izan zan. Jakiña, Prantziskotarren «argi, izar eta gidari» dan Eskoto'ren erakusaldien arabera egiña dago; aintziñako jakitun Aristotde, Sokrate, Platón eta kidekoak bazter utzi gabe, orraitio.

b) EUSKERAZ.—Liburu bat idatzi zuen euskeraz: *Christau Doctriñ berri-ecarlea, christauari dagozcan eguia sinis-beharren berria dacarrena* (Tolosa, 1785). 224 orrialde dauzka.

Zati bi ditu. Lenengo zatiak dakar Jainkoaren Lege zarrean eta berrian gertaturiko gauzen berri laburra. Eta bigarrenak, 29 ikasgaitan, kristauak jakin eta Siñistu bear dituan egien erakustea.

Ezta liburu jatorra, itzulpena baizik. Juan Klaudio Fleury'ren *Catechisme historique* (Paris, 1679) euskeraz jarrita. Franses apaiz argiaren idatzi au naikoa edatua zan amazortzigarren gieldian: ptantsesez eta gazteleraz sarri argitara emana noski. Aita Ubillos'en itzulpenak ere izan ditu bere argitaratzeak; lendabizikoaren gaiñ, Azkue jaunak eman zuen bigarrenez (Bilbao, 1897), dzkera ederrekoa zerizkiolako. Irugarrenez ere bai, izenburu onekin: *Kristabaren Ikasbidea* (Tolosa, 1909). Aita Ubillos'ek, bestalde, ba-zuen ar-emana Peñafiorida'ko kondearekin, eta dotriña auxa artu zuten testu bezela zalduntxoak Bergara'n zeukaten Mintegian.

Zeregin artean, «gaur artu ta biar utzi» egiña izanagatik, badu gatza itzulpen onek. Ezta itzez itz euskeraz jarria: Ubillos'ek orain laburtu, gero luzatu egin oi ditu Fleury'k dakaz-

ten gauzak. Au mamiari gagozkiola. Ta izkerari buruz, idazle txukuna gertatu zitzaigun; bere garaiko klasikua dugu. Aditza lasai darabil, baita sintetikua deritzaioguna er'e: 24 aditz darabilzki era onetan; auek dituzu A. Iturria'k kontatuak: «jakin», «erakutsi», «erabilli», «egoki», «ikusi», «eraman», «iritzi», «euki», «jardun», «jarraitu», «etorri», «ibilli», «igon», «esan», «egon», «ekarri», «egin», «iraun», «jardun», «edan», «etzan», «egotzi». Zeinbat bitxi-pikor diran, iraurrita, bere dotrinan euskal esaera jatorrai buruz ere!

Eder-kezkak larritua zebillen nunbait. Bakoitza geure mendeko gera-ta, A. Ubillos amazortzigarrenekoa dugu. Ortakoz, «mendetar jatorral< izanik, mendeko ondasunak eta gaitzak gu-rekin izan bear». Izan ote zuen artu-emanik M. Larramendi'rekin? Biak ibilli ziran, garaiko bezela, Ikastetxetan ikasten eta irakasten. Dena den, A. Ubillos'ek aurrean euki zuen andoaindarraren Iztegia, asti-une ta txolarteetan egin zuen dotri-ña-itzulpena antolatzerakoan, aren itzok bait-darabilzki: «Jakiunde» (sabiduría), «araututs» (barbarismo), «itzuen» (solecismo), «aintzura» (imagen), «gaiztaki» (maldad), «maitantz» (caridad), «Irutasun» (trinidad), «diñatasun» (dignidad), «garbitoki» (purgatorio), «ikastegi» (clase), ta abar. Baita ba-ditu mugaz arunzkoen itzak ere: «ipizpiku» (obis'po), ta beste. Laregi'ren *Testamen Zaharreko eta Berriko historia* (Baiona, 1775) ezagutzen zuela dirudi. Akatsik aipatzekotan, 59 bider darabilen *zeren* eta beste erderakada batzuk, «ala nola», «zenbat ainbat», Zergatik erantzukizun danean, eta olako gutxi batzuk.

IRITZIAK.—Aita Zalaba'k bere *Noticia* dalakoan onela: «Euskera eder-ederra dn ntin-naitik begiratuta». A. Villasante'k: «Larramendi'k sortutako itz batzuk gorabera, aren izkera errian tinkatua da: garbia da, ta aberatsa ta bizia erabat». I. Omaetxebarria'k: «Aren izkuntza guztiz auta, txukuna ta gain-gaiñekoa dugu». Azkue'k bere *Iztegian* aipatzen du.

Ala ta guzti ere, Aita Karmel Iturria'k eio digu iritzi-ema-terik ederrena. «Ubillos ezta —dio— idazle garai oietakoa. Baiño alere idazle ona da. Gipuzkoa'ko izkelgian ditugun aldi artako idazleen arrear onenatarikoa. Ubillos'en euskera erri-izkeran sendo tinkatua dago. Erri-izkera du zimendu ta oiñarri antzo. Baiña ba-daki emendik eta andik bear dana edo bear duna artzen ere. Eta alaxe, nola-alako *Gipuzkera osotuan* idatzi zula esan genezake. Bai bait-daki bizkaieratik, baita naparrena ta lapurdiera ta beste Bidasoaz arunzko euskalkietatik zerbait artzen ere. Ez noski Azkue zanak-eta, eta oraingo beste askok nai duten Gipuzkera osotuaren pareko, baiña bai olako zerbait. Jakitez ta zer zegikeana oartuz egin ote zun ori, ala oartzeke?». Aditz-formetan badu, gaiñera, bere zer berezia.

Gure amasatarrak maiz-xamar dabilzkigu itz esan-nai berdin antzekoak, edo sinonimuak. Asmo onareldn egingo zuen au, zerabilzkin gaiak obeto aitzen emateko irakurleari; baiña bein ta berriz geiegi erabiltzeak ere ba-du bere gaitza ta okerra. Aspertu ez ote? Aita prantziskotar argi au, bestaldetik, bera aiñako gizon eskolatu bati dagokionez, oso zeatza dugu barnean daraman gogapena, ideia azaltzerakoan. Labur: euskal idazle piña, jario ederrekoa dugu Ubillos.

(Ikus F. Michel, *Le Pays Basque*, 513 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 126; G. Garriga, *Bol. Amer. E.* V., 1951, V, 57 orr.; K. Iturria, «Euzko-Gogo», 1956, 76 orr.; L. Mitxelena, HLV, 102 orr.; L. Villasante, HLV, 150 orr.; I. Omaetxebarria, *Euskera*, Zaraut», 1959, 224 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal idazleen Lorategia*, 62 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 274 orr.).

8.—DOMINGO PATRIZIO MEAGHER (1703-1772)

Gurasoak jatorriz irlandarrak zirala ere, Donostian jaio zan Aka Meagher, 1703-2-17'an. Amalau urtekin, ots, 1717-10-14'an, Jesus'en Konpañian sartu zan, 1736'an profesa egiñik.

Buru argiko gizona zanez, Santiago Konpostela'n Filosofia irakatsi zuen, Salamanka'n eta Valladolid'en ostera Teologia. 1767'ranta beste jesuita askoren antzera erbesteratuta, Boloña'n il zan 1772-9-2 Tan.

Itz lauz ta Olerkiz naikoa idatzi zuen erderaz: Fray Gerundio txarretsiaz, Porrugal'eko Maria Barbara Espaiña'ko erregeñari Illeta itzaldia, Frantzian 1760'tik 1761'ra jesuiten kontra agertu ziran Hburuetzaz, XVII'garren gizaldiko oroitzapenak, eta abar.

Baiña gure artean aren izena ospetsu egin zutenak, donostiar argiak gaixo-aldi batean, osalariak aginduta, artzen zuen ardao beltzari atera zizkion euskal olerki gatz-ozpindu bi dituzu, batez ere: *Ardoari ta Ni naiz txit gauza goxoa*, matsaren zumuari eskeiñitakoak.

Aren ahapaldi zartatsuak ba-dute oraindik ere gaurkotasuna. Irakur, ao-gozagarri:

Agure zarrak, nai ta ez,
eta atso zarrak gutxi ez,
neska lotsagabeak,
mutil ardo zaleak,
goizetik d'rade asitzen
ukal-ondoak goratzen.

Bi auek zortziko txikiz asmatuak diran arren, beste bat, *Ardo zarraren kantak* deritzana, sei puntuko ahapaldietan dago, au da, puntuok sei silabadunak dira geienetan,

Or-emengo bertso-sorta ta bildumetan sarri agertu izan dira olerki bakotiarrok. Baiña ez beti berdin: bakoitzak ezarri dizkie bere egokierak, ahapaldi batzuk moztu ta beste batzuk erantsiaz.

(Ikus, *Euskalerrria*, II, 84 orr.; J. Manterola, *Cancionero Basco*, len-sailla, III, 51 orr.; S. Onaindia, MEOE, 244 orr.; L. ViUasante, HLV, 151 orr.; I I. Iztueta, *Gipuzkoa'ho Dantzak*, Bilbao, 1968, 372 orr.; Añamendi, *Literatura*, I, 249 orr.).

9.—AITA SEBASTIAN MENDIBURU (1708-1782)

Aita Villasante'k idazten du; «A. Kardaberatz gipuzkoar bat dugu Bizkaira begira, o'la esan al bada; bere apostolutzarik geiena beñik bein Loiolatik sarkalderuntz zuzentzen zala dirudi. Aren beste senide ta adinkide au, gipuzkoar bat dugu Naparrura begira. Onen jaioterria —Oiartzun— bera ere beti euki izan dugu, izkeraz, napar garaikotzat; eta A. Mendiburu ia bizitza guztian Iruña'n bizitu zan ezkeru, errez ulertu dezakegu zein izan bear zuen aren mixio-lanen eta nekeen barruti maiteena. Aren liburuak, beraz, napar kutsu ezaguna ixuri bear».

BIZITZA.—Oiartzuarra dugu, an bait zan sortu 1708-9-2'an. Adimen argi ta zima onekoa agertu zitzaigun Umetatik, eta amazapi urte zitula, 1725'an, Jesus'en Lagundian sartu zan. Eliz-ikasketak amaitu zitunean, Iruña'ra bialdu zuten nagusiak, eta ementxe Filosofia irakatsi zuen sei urtez, eta gero Teologia beste iru urtez; eta gramatika. Baiña mixio-deia zuen bere baitan pilpilka, ta bame-su orri ezin eutsirik, ogeitamar urte guxtienez eman zituen Kristo'ren itza aldarrikatzen.

Epe luze orretan amaika itzaldi eder entzunak ziran, ziur asko, an Inguruko erritxoak. Neguan ezin ba'zuen, udan, oporaldietan zebillen erriz erri, Napar garai aldekoetan batez ere. Aomen aundiko izlaria genduan A. Mendiburu; ta ez ango euskaldun errietan bakarrik, Iruña'n bertan ere bai, garai artan Iruña'n euskaldun askotxo ziran eta. Ander Lizartza'k onela: «Iruñan, San Zemin deitzen dioten elizan, solasaldiak euskeraz egiten zitun Garizuma'ko iganderik geienetan, euskaldun utsak ziran morroi ta neskameendako. Baiñan, Mendiburu'ren izketa garbi ta suarra entzuteagatik bertze aunitz ta aunitz, euskeraz mintzatzen ezpa-zekiten ere, aditzeko ainbat ba-zekitenak, aren predikutara joaten ziren» (*Bigarren Euskal-egunetako Itzaldiak*).

Ondo zekian "Umetatik ere euskeraz; baiña obeto ikasi zuen bere eliz-egikizunetarako, eta guztioi maixu egiazkoa izan zitzaigun. Kikero euskalduna esaten zioten, eta ba-zan izan ere zerbait eta geiago, naiz elizetan mintzatzean, naiz euskal liburuak tajutzean. Bietarako, euskera sakon eder apaiñaren jabe zan. Gai sakonak errez ta lau azaldu oi zitun; eta, jakiña, jendea parrastan zijoan ari entzuten. Izlari trebe ez-ezik, bizikera latz eta santuan ere, Kardaberatz'en kideko, eredugarri dugu.

Kristok irakatsia erein ez bakarrik, Aren Biotz santuazko jaiera zabaldu ta Alkarte bereziak eratu ta indar-azten ere berebiziko garra ta azkua erakutsi zitun beti ta beti. Ontan, esan dugunez, etzion gutxi lagundu A. Kardaberatz'ek. Azkeneko bi gizaldiotan Euskalerrriak Jesus'en Biotzari izan dion eraspenero, Aita biok zabaldu ta oiñarritua dugu, ezpairik gabe.

Noiz ez? Ta odei beltzak moltzotuaz zijoazten jesuiten aurka. Agiri-agirik errazoi gabe, borboitar erregeak, Espaiña'n, Portugal'en, Frantzia'n eta Sizilia'n, erabaki latza artu zuten: beren erreñuetatik jesuitak botatzea, ta olan egin zuen Espaiña'ko errege Karlos IH'garrenak, 1767'an. Korzega ugartera jo zuten lenengo euskaldun jesuitak, beste askorekin; geroago Bolonia ta Ferrara eskualdetara zabaldu ziran. 59 urte zituen gure Mendiburu'k erbesteratu zutenean. Eta, 15 urtetan atzerriaren samia iruntsi ondoren, Bolonia'n il zan 1782-7-14'an,

Gorputzez kaizu onekoa ta lerdena zan A. Mendiburu. Oiartzun'en ikusi dezakegu aren giz-irudi ederra, Errapel Pikabea oiartzuar argiak eginda. 1922'garren urtean ospatu ziran aundikiro, giz-irudia agertzea zala-ta egiñiko erri-jaiak.

BERE EUSKAL LANAK.—Mendiburu'k, iztun bakarrik etzalako, itzaldietan erabillitako gaiak, apain eta gozo, liburuetan utzi zizkigun. Aren idaztirik ezagunenak:

1) *Jesusen Compañiaco A. Sebastian Mendiburuc euskeraz eracusten duen Jesusen Bihotzaren Devocioa* (Donostia,

1747), Bartolome Riesgo Montero'ren irarkoian. 387 orrialde. Lau liburutan banaturik dago. Ementxe dator Larramendi'k Loiola'tik igorri zion gutuna ere. Auxe da A. Mendiburu'ren libururik ederrena, «idaztankeraz eta euskalkiz», diosku Orixe'k. Jesus'en Biotz donearen eraspina ta kristau-egiak zaintsu ta diztikor azaltzen ditu. Ta merezi zuen bezela, lau argitaraldi beintzat ikusi izan ditu: bigarrena Iruña'n, 1751'an; 393 orrialde; Loiola'ko Iñaki deunaren eta Frantzisko Xabier'en bederlatzi-urrenak dakaz azkenean: irugarrena Tolosa'n, 1882'n «Jesusen lagundi bereko Aita euskaldun batek, amimen onerako, arretaz ikustatu eta utsegiñak kendurik, obetu ta geitu duena». Laugarrena, berriz, Gregorio Arrue'k gipuzkerara biurtu ta argitara eman (Tolosa, 1883) zuena da. Dodgson'ek, azkenik, agerrazi zuen Mendiburu'k bertan darabilzkin milla ta berreun adizkerazko aurkibideakin.

2) *Jesusen Amore-nequeei dagozten cembait Otoitz - gai* (Iruña, 1759-1760). Bi irarta'ldi egin ziran, itxura danez, bata amaika liburuxkatan eta iru liburu nagusitan bestea. «Ikaskizunez eta azkuz beteagoa» dala dio Orixe'k. Tituluak dionez, 88 gogarte dira bertan luze ta edadura aundiz azaltzen dizkigun gaiak. Gaiok, bereak ala itzuliak ote?, itandu oi da. Ez dakit Zergatik. A. Mendiburu'k ba-zuen, ba, urte askoz ga'i sakonetan Irakasle izan zan ezkeroz, ori ta geiago burutzeko lain jakituri. Nun idatzi zuen? Azken orrazketak beñik bein Iruña'tik kanpo; Loiola'n bear bada. P. Orkaiztegi zanari esker, berriz ere (Tolosa, 1904-1905) argitaratua izan zan, iru aletan, Ensebio Lopez-en etxean.

3) *Euskaldun onaren videra, mezaren entzun-vide labur erreza, errosarioco amarrecoen asiera eta cembait bederatzurrun* (Iruña, 1762), 'liburugille J.osep Rada'ren etxean. 236 orrialde. Bigarrenez ere Iruña'n argitaldu zan, 1765'an.

Aita Zabala'k bere *Noticia* dalakoan dakarrenez, Jesusen Biotzaren kofradikoen araudia ere A. Mendiburu'k osatua da. Aita Ander Lizartza kaputxiñoak dioskunez, Kristau Ikasbidea-

ren azalpen bat ere idatzi zuen, iru aletan; baiña etzan argitaratu, bear bada A. Kardaberatz'i jarri zizkioten beaztopo berberak aurkitu zitulako. Ba-ditu oraindik urteko igande ta jai guztietarako *Irakurgaiak*, bi liburutan, oraindio argitara gabe daudenak, damurik. Eta olerki batzuk.

IRITZIAK.—«Lan klasikua ta ederki egiña—diño Sorrain'ek—. Izkedgiz gipuzkera da, egillea bizi zan Naparruko izkera erikoiaren fcutsu ta urrin pixkarekin». Eta F. Michel'ek: «Gipuzkeraz dago, bete-beterik idatzita; ba-ditu kanta batzuk ere, bertso errez berezkoetan».

Orixe'k: «Euskal-idazlerik oberena au uste dute zenbaitek eta Kikero euskalduna izena ipiñi diote. Axular'en ondo ondoan beintzat tokia merezi du, Euskera garbiagoa du, Oiartzuarak Urdazubiarralc baiño; ez orde ugariagoa». Eta geroago, Kikeron euskalduna Mindiburu'ri esatea geiegi zala-ta, onela idazten du: «Luis Eleizalde zanari eskerrak, Mendiburu'ri gora aundia ematen ikasi genun eta, uste genezaken, oraindik, erderakeriak ukan arren, ez zala Axular bezain erdalzale edo erdaldun. Pitagoras'ek beste aldera erakutsi digu. Kikeron'en izen aundia Axular'i utzi bearra dauka Mendiburu'fc, apalago gelditzen baita. *Zeren* eta *ezen* orietan, Axular baiño urriago ditteke; baiñan itzurrenean asko kentzen dio Urdazubitarrak».

Mintzo «jori, bakun eta ederra» duela aitortzen digu P. Lafitte'k. L. Mitxelena'k, ordea: «Mendiburu da zalantza gabe izkera txairo ta apain izkuntza erabilli dutenatariko bat. Doai bat ufcatu zioten: kemena. Bame-mamiz bere idaz-lanak nolanaiko otoitz liburu askiegi dute, irakurlearen sentipenetara jotzen bait du larregi ta era bereko».

Eta J. Etxaide'k: «Mendiburu'k, sermolaritzari ez-ezik, euskeraz idazteari ere ekin zion eta bildurrik gabe esan deza-kegu, Mendiburu, bere aldiko euskal idazlerik garaiena izan zela Bidaso'z onuzkotan beintzat... Mendiburu'ren prosa ulerterreza ta leguna da, eta bere euskerak etorri ta aberastasuna

dario nun-naitik. Joskera, bere aldiari gagozkiola iñork baiño jatorragoa darabil, nire ustez, eta galdegarriak ere oso nekez erabiltzen ditu galde-esakunetatik lekore. Ontan, aurrera aundia eman zion Mendiburu'k euskera idatziari, eta erri-euskerarekin lokartu-bidean jarri zun».

L. Villasante'k, azkenez: «Aita Mendiburu'k ez darabil, noizpeinka ezik, Larramendi'ren itz berririk; baiña ezta gaztelarazko edo latinezko beste itzik ere. Ba-daki euskal itz jatorjatorrak aukeratzen, eta lasa ari da eurekin».

Iritzi auetatik atera dezakegunez, euskal Idazlari bikaiña dugu Mendiburu, bere garairako batez ere. Mundua aurrera doakigu; ez teknikaz bakar-bakarrik, baka erti-arloan gustu ta ao-xuriz ere. Ordukoentzat eder zana, gaur etzaigu orren eder, aldaketa ta eboluzioaren erruz. Ondorengo egunetan ez ote dute gero, gugatik, berdin samar esango?

Gaiak saiets utzi ta euskerari soilki gagozkiola, au zan aren asmoa: Zenbait Izlari zebiltzan orduan beren sermoiak gaztelaniazko ta latinezko itzez iguingarriro zanpatzen... Oieri erakutsi nai zien Mendiburu'k. Nola? Eliz-gai danetan itz eskukoi ta jakiñenak, garbi ta txukunenak erabilliaz. Euskera edozertarako ere gai ta gauza dala aditzen emanik, noski baiño noskiago. Ortik zion Orixe'k: «Euskeraren garbitzen orainotsu ez da Mendiburu'k adina alegin duenik».

(Ikus J. Vinson, *Bssai Bibl. Basque*, 76, 90, 97; Sorrairain, *Catálogo...*, 271 orr.; L. Eleizalde, RIEV, 1907, I, 67, 210 ta 464 orr.; P. Lafitte, *Loretegia*, 70 orr.; S. Onaindia, MEOE, 241 orr.; Orixe ta Oiartzabal, «Euskera», 1958, i9 orr.; J. Etxaide, *Amasei...*, 133 orr.; L. Mitxelena, HLV, IOI orr.; L. Villasante, HLV, 148 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal idazleen Lorategia*, 57 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 258 orr.).

10.—FRANTZISKO XABIER MARIA MUNIBE ETA IDIAKEZ, PEÑAFLOIDA'KO KONDEA (1723-1785)

Azkoiti'n jaio zan gizon argi au, 1723'an; aziera ona izan zuen Umetatik, Espaiña'n eta Frantzia'n osoturik ikaste nagusiak. Bere erriko alkate izan zan, baita Espaiña'ko korreetan Foru-alduna ere. Egun aietan —eta noiz ez?— arriskuan zeuden Gipuzkoako foruak eta auek giputz-erriari ematen zizkioten eskubide ta legeen alde ausart baizen setati jokatu zuen Munibe'k, batez ere Madrid'eko Batzar-etxean.

Ernai ta zoiia zanez, edozertaz arduratu zitzaigun: bizitzarako jakite, elerti, arte-gai, nekazaritza, industri ta gaiñerako zer guztietzaz. Antsi ta kezura bat zuen ark ere, larri-min antzera: Euskalerrria kulturaz jantzia ikusi nai zuen. Bere erria zan, eta aldatz-gora egiten zitzaion berau atzera ikustea. Ortarako, euskal erria eskolatzeko', laguntzailleak billatu bear. Eta bere errian, Azkoiti'n zeuzkan ezin obeak. Orduko oitura zanez, sarri eratzen zitun bigira, mintzaketa ta gau-batzarrak; zaldun ikasiak eta eliz-gizonak deitu oi zitun gisa ortako bilkureta.

Itz, asmo ta erabaki, ona baten sortu ta mamintzen asi zan euren artean Euskalerrriaren egiazko adiskideen Alkarte bat. Eta or «Sociedad Bascongada de los Amigps del Pais» deritzan alkarte. Iru azkoitiar ziran beronen amasa ta gurgpil: Munibe, Altuna ta Egia. Etziran geroztik alperrikakoak gizaseme jator oien batzar eta lanak. Akademi bat sortu zuten bertatik, eta gaur edestia zuten mintza-gai, biar musika, etzi pisika ta etzidamu matematikak. Orrelaxe, azterketak-eta egiteko bear zituzten tresna bereziak erosirik, zientzi-ikastetxe eder bat eraiki zuten epe laburraren buman; Orrelaxe, baita, Europa'ko zientzi-aurrerakuntza guztietaz baliaturik, Euskalerrriari, ekonomi alde-tik bereziki, bultzada ikaragarria emango zien. Ortik eme zan geroxeago, Kondearen kemenez, Bergara'ko Mintegi ospetsua. Kimika ta metaiurji-gaiak ementxe erakutsi ziran Espaiña osoan lenengoz.

Gi-zon jakitun erri-zale auen lana etzan lendabizi ondo ikusia izan. Aita Jose F. Isla'k (1703-1781), irri-mirrika alegia, «Azkoitiko Zalduntxoak) deitu zien, eta M. Menendez y Pelayo'k (1856-1912) geroago, siñiste-ausle edo heterodoxuen artean sartu zitun. Baiña, J. Urkixo'k argi ta garbi utzi zuenez, Europa'ko jakite-aurrerapenez jabeturik ere, etziran iñundik garai artako filosofuen gogai ta pentsakera okerrezt kutsutu. Larramendi'k, antza, zaldun gogo-landu auek zitun gogotan jazoera au edesten digunean: bein mezatan zeudela, meza laguntzailleak zeregin bat betetzen joan bearra izan zuen; an zegoen zaldunetarikoa bat urreratu zan meza erasteko asmuz, baiña ezin zion erantzun meza ematen ziarduanari. Ba-dator sakristaue, ta kinka onetan gauza ikusiaz, diotsa: «Munduko berriketa guziak ba-dakizkizu, eta Meza laguntzen ez?» (*fiorografia*, 1882, 27 orr.).

Esanak esan, Alkarte aurreralari onen len-aroa (1764-1785) amas aundikoa izan zan. Munibe'k etzuen iñoiz utzi bere sor-terria. Ta azkenik bertan il zan, 1785-1-13'an,

BERE EUSKAL LANAK.—Naiz-ta euskal adiskideen alkargo-koen elburu beiñena euskera arloa ez izan, Euskalerritari zego-kion beste milla gauza baizik, zalduntxoak alere etzuten utsean euki gure izkuntza arazoa. Oni begira ere ba-dituzte beren saioak. Aurren-aurrenik, Alkarte orren irasleak berak idatzi ziz-kigun: 1) *Opera* bi, izki ta musika, bata prantsesetik itzulia ta bestea jatorra, euskal-gaiez egiña; eta, 2) *Gabon-sariak*.

Bere lanik ospetsuenak au du izenburu: *El Borracho burlado* (Bergara, 1764). Azkoiti'n bertan antzeztu zan, itxura danez, lenengotan; eta gero, 1764'an, Bergara'n, Murua sendiaren jau-regian, San Martin Agirre donetu zuteneko jaiak zirala-ta. Fé-lix M. Samaniego Yurreamendi, arabar ipuilaria, Pedro Balentin Mugartegi markinarra, egillea bera ta beste zalduntxo batzuk ziran antzelari, komediante. Kondeak irakatsi zien besteai nola bete bear zuen bakoitzak bere papera.

Kantuak eta olako zati batzuk euskeraz dauzka, euskera bizi emegarrian; erderaz gaiñeratikoa. Muhibe'ren len-asmoa, alere, euskera utsez egitea zan. Zergatik aldatu ote zan iritzian? Berberak dio sarreran: «Nire lenengo asmoa opera guzti au euskeraz ematea zan; baiña gero oztopo jarri zaidan zein euskalgitan egin. Azkoiti'koan ba'nengian, etzitzaien eder izango Prantzia'ko mugaideraifnoko guztiai, Goi-erriko euskerari dioten nazkagatik; eta Tolosa, Ernani, Donosti ta Inguruko izkera ba'nerabillen, irrigarri utziko nitun antzelariak, zailla izango bait-zan guztiak ari ondo erantzutea. Auxegaitik, ba, kantatua jarri nuen euskeraz, ta antzetua erderaz».

Txit erreza da opera au oretzen duen gaia; egilleak asma-tua, noski, itzaurrean aitortzen digunez. Erri-giro bikaiña du gunean. Antzetzariak ere erritik jasoak, garai artako kutsuz naasiak: «Txanton Garrote», «Maritxu», «Martintxu Zapaterua», «Diego Zaldun baten etxezaiña» ta beste. Oar ongi: irri-opera au dugu arabar Barrutia'renaren ondoren, euskal literaturako bigarren teatru lana. *Pastoralak* eta kendu ezkeru, jakiña.

Edozein alderditik begiratuta, aundi dngu Peñafiorida kondea. Ona ari atera ta aren egitsariak biltzen ditun olerki bat; J. deY.'k dionez, Paulo Astarloa durengarrarena —zalduna au ere— ornen da. Irakur:

«Nola gerrari pozez/ neban besarkatu/ zortziko polit bigun/zeustana bialdu/ eta gerozti soñu/martiz bat auturik/kanta ta kanta nago/ zisne biurturik.

»Ain gozo, ain ezti da/ ain andikitu da ze/ ezin alta izan leike/atxloratuz beste./ Au dogu euskaddunok/ seme ta guraso/, onek deusku euskera auspastuba jaso.

»Atxloratu eder au/ menderen mendian/ eztedilla aiartzatu/ guztien onian. Eldu zakidaz maite/ gutar zarianak/, erregu egin daigun/ entzun gaizan Jaunak.

»Atx eder Orretarako/ egi zabaletan/zabilzan gazteeria/ aga-
arri orretan/ baturik alkarregaz/ eska egizubee/ zerubak degi-
zula/ alta on au gorde.

«Lelengo euskal gozo/ zortziko eztieta/ zenbat seme geunkazan/ itxas-gizonetan/ ixpillu baten legez/ eutzun erakutsi/ martiz bide martitza zengian ikasi.

»Gau ta egun lanian/otzune bagarik/ zuben onian dago/ beria azturik/; semetzatu ondu zan/ ta nola alta on/ gaur deutzu erakusten/ gidatzat Crillon.

»Jarrai zakioz gizon/ gerrari oneri/ guztiok eraldi au/ aztu бага iñori/, euki daiguzan nosbat/ ainbat Crillon gugan/ zenbat zaldun doguzan/ irurak bategan.

»Agur, enaz geiago/; agindu nagizu/; beti zeuria beti/ nazana bakizu. Durango'n gerrariyan/ illen seigarrena/ urte lauretan ogei/ bigarren doguna».

Nor dugu Astarloa'k olerki ontan aipatzen duen Crillon? Crillon dukea, noski, prantses-espaiñar guda-ontzidiaz inglesak zeukaten Mahon uria, 1782'an, artu zuena. Munibe arri biurturik gelditu omen zan aren adorea ikusirik, eta gero, errege-agintariak eta erriak berak egin zioten arrera boizti ots aundi-koa jakiñaz.

Oar oraindik. Errez somatzen da olerki ontan alako kezka bat, Alkarte aren kezka dudarik gabe. Astarloa'k *Atxloratu* itzultzen du Peñaforida. Ta *martitz* (marcial), *mende* (siglo), *aizartu* (marchitar), *egi* (dehesa), *aga-arria* (pasto), *eraldia* (época), *irurak-bat* (sociedad), *gerrayen illa* (marzo), ta abar darabizki, euskera garbian idatzi nairik. Eta kezka zerabilen Alkarteko adiskideak, eta 1781'ko Iraillean Bilbao'n euki zuten batzarrak iztegi bat egiteko erabakia artu zunean, «arduraz ibilli zitezte-la» —agindu zuen— antolatuko zan iztegian euskal itz utsa etzanik ez sartzeko.

GABON-SARIAK.—Izen osoa: *Gavon-sariac edo aurtengo gavonetan Ascoytico eleiza nagusian cantutuco diran Gavon-cantac edo otsaldiac* (Azkoiti, 1762). 36 orrialde. Miserikordiako Luisak izenpetzen du; lan au egiteko lagundu diote, doiñuetarako Martin Beltz batek eta musikarako Melor eta Laurentzi Dan-

txaria maixuak. Bilbao'ko Misericordia'ko Ama Birjiña Bakartadekoari eskeiñita dago. (*kus Euskalerrria*, VIII, 406). Azkoiti'ko Misericordia etxean argitaratu zan liburuxka au. Iru zati ditu artzai opereta antzeko onek, bakoitzak bi edo iru kanta ditularik. Izkera errez jorian egiñak daude: Bergili'ren laugarren egloga dakarkigute gogora.

Nor ote dugu, ordea, liburu onen egillea? Aita Arana'k dio¹, bere ustez, Azkoiti'ko Misericordian bizi zan emakume batek egiñak dirala, ots, Misericordia'ko Luisak. Litekena da, XV'garren gizaldian eta aurretik ere bai, emakume bertsolari bikaiñak ba-genuzen Euskalerrrian, eta gerora ere, bertsolari-erostari aietakoak XIX'garren azkeneraiño ezagutu izan dira gurean.

Jose Manterola'ren ustez, ordea, Misericordia'ko Luisa ori Peñaflorida kondearen izen-ordea besterik ezta. M. Lekuona'k, bestalde, A. Larramendi'ren eskua dakusa kantutegi ontan. Nik ere, *Milla euskal Olerki eder* idaztean, edo antolatzean, nere aletxoa jarri nuen kanta aueri buruz; Maria Luisa lekaimea egin nuen abesti oien egille, Azkoiti'ko Erruki-Etxeah monja zegoena nunbait. Gaur ez daukat esku artean datu oiek jaso nitun idatzia, baiña auxe daitort ieialki: nik jarriak ez dirala, nunbait bilduak baizik. Orduko serorai ere padar, lekaima, monja deitzen zien (Ikus Larramendi, *Corografía*, 115 orr., eta A. Seberino Agirrebeitia, *Nuestra Señora de Andicono en Berriz*, 123 orrialde).

Pizkaka, baiña, agertuz dijoaz gauzak. Ikusiko dugunez, J. I. Telletxea'k, 1966'an, Gernika'ko *Gabon kanta bat* ager-azi zingun, Sebastian A. Gandara'k M. Larramendi'ri bialdutakoa; onek ere, bere aldetik, beste kanta sorta bat igorra zion, esku-titz batekin. Aita Larramendi'k eskutitz ortan dio norenak diran *Gabon-sari* oien letra ta musika. «Irakurri ditut Gabon kantak —diotsa Gandara'ri—... Ordaiña bialtzen dizut Azkoitian aurten kantatu diranak, musika kilikorra batean, Peñaflorida'ko Kondeak egin dituenak, eta berak musikan paratu dituenak» (BAP, 1966, 2, 162 orr.).

Beraz, amazortzigarren niendean oitura zanez, 1762'an, Azkoiti'n irarri ta kantatu ziran Gabon-sariak ba-dakigu nor duten egille: Munibe'ko Xabier M. jauna, Euskalerriko Adiskideen Alkartea sortu zuena.

(Ikus, *Peñalforida*, RIEV, 1907, 382 orr. eta 1930, 317 orr.; J. Urkixo, RIEV, 1925, 551 orr. eta 1926, 565 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 98; S. Onaindia, MEOE, 243 ta 251 orr.; M. Lekuona, «Egan», 1956, 31 orr.; L. Mitxelena, HLV, 105 orr.; L. Villasante, HLV, 121 orr.; J. Iriarte, BAP, 1966, 191 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 264).

b) BIZKAITARRAK

1.—NIKOLAS ZUBIA APAIZA (...-1694)

Gizon jakituna zan, Irakasle (Doctor) bait darama beti bere izenak. Ez dakigu bere biziaz beste zer aundirik. Durangokoa zan, antza, jaiotzez, eta ementxe il zan 1694-11-7'an. Uribarri'ko Andra Maria elizan bazan 1654'garren urtean oiñean ezarrita olako Abade Anaigokoa, bertoko apaizak bakarrik osotzen zutena. Anaidi ontakoa zan Nikolas Zubia ere 1676-6-25'tik.

BERE EUSKAL LANA.—*Doctrina christiana en Bazcuence* (Donosti, 1691) argitaratu zuen, Pedro Huarte'ren irarkolan.

Bigarren argitaraldi bat ere izan zuen. Josep Lezamiz, Mexiko'ko katedraleko apaizak *Vida del Apóstol Santiago* (Mexiko, 1699) argitaratu zuenean, Nikolas Zubia onen dotrina ere, bere liburuaren irugarren zatian (281-426 orr.) sartu zuen, bere «erri-

tarrak», au da, euskaldunak poztutzearren. Josep Lezamiz au, Mexiko'ko apaiza, lizenziadua, Durango'ko Andra Mariko apiz-Anaidikoa zan, eta bertan il zan 1708-12-23'an.

(Ikus J. Vinson, *Revue de Linguistique*, XXI, 57-74, orr. eta *Essai Bibl. Basque*, 42; N. Kortazar, *Cien Autores Vascos*, Donosti, 1966, 70 orr.).

2.—MARTIN ARZADUN (1675-1741)

Martin Arzadun eta Ubidea Durangokoa zan eta durangarren semea. Amaren aldeko aita-jaunak durangarrak ziran, baiña altaren aldekoak azpeitiarrak. Uribarri'ko Andra Mari elizan bataiatu zuten 1675-6-15'an, I. Ibañez Zabala ta Madalena Ubideak besoetan arturik.

Ogetasei urteko zala, 1701-6-19'an, Durango uriko Abadeen Alkartean izena eman zuen. Alkarte au, esana dugunez, Uribarri'ko Andra Mari elizan zegoen, 1654'an irasia. Arzadun apaiza «Durango'ko uriko eleixetako benefiziadu ta arima jagolia» izan zitzaigun, berak bere dotriñearen azalean jarri zuenez. II zanean, Andra Mari elizan eman zioten lurra, 1741-7-23'an.

Bere liburua: *Cristinaubaren dotriniaren explicacina* (Gazteiz, 1731). Amazortzi ta emeretzigarren gizaldietan —1731-1905— probetxu aundikoa izan zan dotriña au; Bizkaian Kristau-Ikasbide batasuna egin zan arte, auxe izan zan ikasiena, errikoiena ta zabaldnena. Larramendi'k bere *Corografía 'n* aipatzen du, 266'garren orrialdean, zati au jarririk: «Izanik kristinauen señaleara kurutze santea, dalako Kristo Kruzifikaduen figura, zeinetan erredimidu ginduzan bere odol prezio bakoagaz, bear dau jakin egiten señaleara au, zeñatuten dala ta santigetan dala ondo. Zer da zeñatutea? Egitea iru kurutze eskumako eskuko orkoroagaz, ta urrengo atzagaz ifinirik kurutzez, beste iru atzak geldietan direala artez. Nun egingo diraz iru kuru-

tzeok ta zer berbagaz? Lenengoa bekoki ganerik sur puntara, ta bekokien ezkerreko alderik eskumakora, esaten dala: «Kurutze Santean señalearagaiti»; bigarrena sur puntarik okotzera, ta aoen ezkerreko alderik eskumakora, esaten dala: «geure arerioetarik libradu gagizuz»; ta irugarrena okotzerik bularrera, ta ezkerreko sorbaldarik eskumakora, esaten dala: «geure Jauna ta Jaungoikoa». Zer da santigetea? Egitea kurutze bat eskumako eskuko bost atzakaz, ifinten direala artez. Nun eingo da kurutze au ta ze berbagaz? Bekokirik bularrera, ta ezkerreko sorbaldarik eskumakora, esaten dala bekokian, «Aitien»; bularrean, «ta Semien» ta «Espiritu Santuen izenean».

Sarri ere sarri argitarazia izan da. N. Kortazar'ek amasei argitaraldiraiño kontatzen dizkigu: 1731, Bartolome Riesgo y Montero'k, Gazteiz; 1758, Matias Rada'k, Iruña; 1815, Apraiz'ek, Bilbao; 1830, J. A. Jaurgei'k, Bilbao; 1841, Adolfo Ponte'k, Bilbao; 1855, Bilbao; 1856, A. Depont'ek, Bilbao; 1858; 1861, Julian Pastor'ek, Valladolid; 1869, J. Pastor'ek, Valladolid; 1873, J. Pastor'ek, semeak, Valladolid; 1890, J. Elizalde'k, Bilbao; 1895, Florentino Elosu'k, Durango; 1900, Roberto Soloaga'k, Durango; eta 1905, F. Elosu'k, Durango.

Bere egunetan, eta gerora ere, izan zuen ba garrantzia Arzadun'en dotriña onek. Nikolas Etxezarreta Santiago Ordenako zaldunari eskeiñita dago. Ta F. Michel'ek bere *Le Pays Basque* dalakoan aipatzen du.

(Ikus J. Urkixo, RIEV, 1907, 82 ta 416 orr.; N. Kortazar, *Cien Autores Vascos*, 69 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 217 orr.).

3.—AGUSTIN BASTERRETXEA (1700-1761)

Izpazter'en jaioa, 1700-11-22'an (23?). Esan bearrik ez, gu-rasoen Sukalde goxoan aziera arretatsua izan zuenik. Len-eskolak bere errian eta Lekeitio'n eginda, Umetatik barruan oar

zuen deiari erantzunaz, Jesusen Lagundian sartu zan 1716-10-25'an. 1734'an euki zuen profesa nagusia. Aurrenik, maixu be zela, Literatura, Filosofi ta Teolojia irakatsi zitun, bidenabar mixiolari ere ibillirik, Bizkaiko erriak barna batez ere. Orduña'ko ta Lekeitio'ko Ikastetxeetan nagusi izan zitzaigun, eta azkenez, Lekeitio'n, nagusi zalarik, mundu au utzi zuen, 1761-11-18'an.

IDATZ-LANAK.—Euskal mixiolariak metaka euki oi izan dituzte Sermoe ta Itzaldiak. Aita Agustin'ek ere izango zitun ola-koak, baiña gaur ez ditugu ezagutzen. Bai, ordea, atera zitun iru lantxo auk: 1) *Jesu-Christo gure Jaunaren Pasioa, euscarazco versoetan* (Bilbao, 1777); 2) *Guisonaren acabuco lau gausac* (Bilbao, 1881), eta 3) *Anima penitente baten negarrac*.

A. Basterretxea'k iru lanok bizkaieraz idatzi zituen arren, lenengoa ta bigarrena A. Kardaberatz'ek gipuzkerara itzuli zizkigun, eta izkelgi ortan ezagunagoak dira, ta orrela agiri zaizkigu aspaldiko eiiz-libururik geienetan. Baita gero, A. Agustin'ek gipuzkeraz osotu zitulakoan, lenengoa ta bigarrena, nos' ki, bizkaieraz jarri zituzten. Ain zuzen, 1832'n egiñiko irarpenak titulu au dakar: *Jesucristo gueure jaunaren pasiño santua, Aita Basterrechea Izpazter-tarrac ta Yesuiteac Guiputz-euskerazco bersoetan imini evana. Orain urtetan dau Bizcaicoetm garbiago, leunago, neurtuago eta bizcorsheago* (Tolosa'n, Yoan Ignacio Mendizabalen etxean). 24 orrialde. Bigarrena ere, geroxeago, Jose A. Oar'ek jarri zuen bizkaieraz.

Bertsotan mamindutako iru liburuxka auetatik lenengoa, ots, *Jesukristo Gure Jaunaren Nekaldikoa* izan da argitaldirik geien ikusi dituna. Aita R. Caldos eibartarrak, 1928'an, onen ekoizpen berria egitean, ogei bat aurreratiko jartzen dizkigu lerroz Ierro; baiña da-dira antza geiago ere. Uriarte jesulagunak diosku lenengoz Bilbao'n argitaratu zala, ta 1760'garren urtea baiña

len. Azken-urteotan., A. Galdos'ek iker-lan ederrez omitu ta bikainki argitara emana (Donosti, 1928), bizkaieraz ta gipuzkeraz daukazu.

Bertso-sorta auek, beti ere, atsegin izan zaizkio gure erriari. *Pasiñoa* deritzana oroz-gaiñ. Irurogei ahapaldi dira guztiz, zortziko nagusitan. Bederatzi punrukoen sunda dute. Ta maizenik, onela idatzita agertzen dira liburuetan:

Jesu-Kristori/ kendu ezker
pekatuakin/ bititza,
baldin ezpadet/ negar egiten
arrizkoa det/ biotza:
guztiok lagun,
kanta dezagun
bere penazko/ eriotza.

Gaurko egunean ere, Gipuzkoan, Bizkaian eta Napparroan, sarri aditu oi dira kantu erdiragarri onen izki-doiñuak, Aste Santuz atan ere. A. Basterretxea olerkari piña dugu, zabu ta ezmeze gabe oiñarriturik, biotzil ezitia barruraino sartzen diguten ahapaldi sakonak jalgi zituna.

(Ikus J. Urkixo, RIEV, XXII, 211 ta 150 orr.; R. Galdos, S. J., *Yosukisto gure Jaunaren Nekaustea euskerazko neurtitzez*, Donosti, 1928; S. Onandia, MEOE, 246 orr.; A. Irigoien, *Euskal Kantak*, Bilbao, 1959, 17 orr.; L. Mitxelena, HLV, 116 orr.; L. Villasante, HLV, 120 orr.; N. Kortazar, *Cien autores Vascos*, 95 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko euskal idazleak*, 37 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 225 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 116).

4.—SEBASTIAN ANTONIO GÁNDARA (...1764...)

Ez dakigu Gándara au nungoa danik baiña Gernika aldekoa dala iruditzen zaigu. Ta aspaldidanik ixil-ixil zegoenak zapart

egin digu orain euskal literaturaren eremura. Arestian J. Iñazio Telletxea Idigoras'ek Madrid'eko Kondaira Akademian arkitu digu ark Larramendi'ri bialdu zion *Gabon-kanta* deritzan eresantzerkitxo bat. XVIII'garren gizaldian, esan dezagun berriz ere, ekandu zan lege ortako abestiak opildu, kantatu ta noizik bein antzeztu ere egitea. Bilbao'n, Gernika'n, Durango'n, Azkoitia'n... ornen aundikoak ziran oietakoak.

1764'ko abenduaren 20 zan. Gabon aurretxeoa. Urteetako oiturak eta gaiñ zetozen jaien irridurak eraginda bear bada, euskaldun jakitun bik bertso-txortak trukatu zituzten beren artean: Gandara'k bialdu zion berea A. Larramendi'ri, Gemika'tik Loiola'ra, eta Larramendi'k bialdu zion berea Gandara'ri, Loiola'tik Gemika'ra. Larramendi'k, 1762'an Azkoiti'n argitaratu ziran *Gabon-sariak* igorri zizkion, eta Gandara'k bere aldetik, «neure mexu gustizkoa» deitzen dio andoaindarrari, onela bukatutzen duelarik: «Ontzatuten deustazula jakitea izango da nire atsegin betea: eta berau gonburutoko yat, ezertakotzat euki nai ba nozu». Aurreko urteetan ere egin oi zuten, gure iduriko, bertso trukatzte au.

Larramendi'k oso adeitsu ta biozti erantzun zion. Nolako karta! «Irakurri ditut —diotsa— Gabon kantak, eta azkenean paratu diotet *imprimatur*, ain daude ederrak, gozoak, kilikorrak. Etzaiteala aurrerako nagitu, ez alpertu; itxeki sail oni, molda itzatzu orrelako asko ta ugari, esna ditezen lotiak, eta urte osoetan ezer danik egin bage bizi diranak. Ordaña bialtzen dizut Azkoitia'n aurtan kantatu diranak, musika kilikorra batean, Peñafloidako Kondeak egin dituenak, eta berak musikan paratu dituenak».

Gauza labur bat da Gandara'ren au; Gabon-kanta, jolas anteatru egiña. Dakigunez, elizetan abestu oi ziran onakoak, elizteatru antzean, Belen'go ezkutapenen ingurumari. Gernika'ko au alkar izketa txanbeldiña dugu, bizkaierazko bertsotan osotua.

Bi pertsona Belen'go estalpean: bata bizkaitar jator-jatorra, ta *etorpio* bat bestea, euskal geizto edo euskeldun berri bat Edo obeto, egilleak deitu bezela, *Bizkaitar* eta *Muxil*.

Amabi dira bion artean, txandaka, abestu bear dituzten ahapaldiak; baiña mamiñera jo aurretik, *sarmen* bat dute, gaurko irrati esaleak egin oi dutenez, amabi puntutan. Koruak ondoren au aldarrikatzen du:

Galanto, eretxian,
omiduko da kantea;
bakotxaren aldi
izango da euskerea
dagokion zorian.

Onen ostetik amabi ahapaldiko alkar izketa bizi-bizia. Muxil'ek, jakiña, ez du ain ondo ezagutzen euskerearen jita; Bizkaitarrak, ordea, zoragarriri darabiltza esaldi bete-beteak. Metrika aildetik, azken bukatzean, oso aberatsa dugu, Oihenart, Aita Basterretxea, A. Meagher, Xenpelar'ek, eta... darabilzkiten neurkerak gogoraziz.

(Ikus J. I. Teletxea Idigoras, BAP, 1966, 2, 157-171 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 239 orr.).

5.—BARTOLOME OLAETXEA (...1763...)

Mungia'tik bertan, mendi galdorrean dago Laukariz. Erri txo ontan arimazai zegoelarik jai ta domeketan jendeari Olaetxea'k azaltzen ziona dugu euskal literatura zelaian naikoa ospe duen dotriña bat. M. Zarate'k: «1775-garren urtean lenengoz argitaratu zanik ona, amalau aldiz gitxienez argitaratu dan liburua, gure erriak gizaldiz gizaldi, oraintsurarte, irakurri dauan eliz-liburu entzutetsua» (*Bizkai'ko euskal idazleak*, 35 orr.).

Liburuaren titulua: *Cristauben Dotrina* (Bilbao, 1763). 184 orrialde lez daramazki. Olaetxea'k berak, oraindik Laukariz'ko erretore zala argitara ekarri zuen, geroztik ere sarritan, Gazteiz'en eta Tolosa'n, azaldua. 1787'an Tolosa'n, Frantzisko de la Lama'ren etxean egin zanak 226 orrialdetik gora dauzka, eta 1855'an egin zana Liberio Olano'k obetu ta geitua izan zan. Nik eskuetan daukadana zortzigarren argitalpena duzu (Bilbao, 1846), 334 orrialdekoa.

Idazti begiko onek dotrina izena daramagatik, ba-ditu beste gai batzuk ere: Eguneango kristau-jardunak, meza entzuteko gogarteak, Garizuma Zertako dan, Kristoren Nekaldia, Gurutz-bidea, errosarioaren ezkutapenak gogartez orniduta —bertsotan noski—, ondo iltzen laguntzeko era luzea, meza erasotzeko modua, ta abar.

Liburu au A. Kardaberatz'en idatzietatik jasoa dala dio A. Zabala'k. Baiña esan onek, ez dut uste, funtsezko sustrairik duenik. Beste liburu bat bai bada, «Aingura», Esku-liburu ospetsua, eguneroko jardun, azterketa, aitortza, jaunartze, meza santu, bezpera ta kalbario ta olakoakin orniduta, «geien bat Aita Kardaberaz'ek animen onerako ipiñiak» dioana. Onako batek, 1914'an Tolosa'ko F. Mugerza ta Semeen moldiztegian irarri zanak 423 orrialde dauzka. Baiña bi liburuok —Olaetxea'rena ta Kardaberaz'ena— buruz buru lerrokatu ezkeroz, auxe dakusagu: iru-lau otoitz berdin samarrez landa, oso bes-telakoak dirala biak.

Azterketak sakonki egitea egoki litzakigu sarri. Zoritxarrez, kritika lana dagigunean ere, iñoren agoz mintzatu oi gera ez gutxitan. P. Lafitte'k, bere *Loretegian* ager-azi zuen Olaetxea'ren zatiño bat, ondoan au erantsiz: «Haren eskuara ez da segur hanbatekoa». A. Zabala'ren esanera makurtuaz dio au naski, eta ondoren beste guztiak, Laukariz'ko arimazaiaren dotrina irakurri gabe, berdintsu bota dute. Liburu au, Gipuzkoan beste edozeiñena bezain erabillia izan da Bizkaian.

EUSKERA ONA.—Gozo ta eder idazten du geienik; garbi ere bai, ordukoen antzera erderakada barik. Siñispidez irakur zazu pusketa-izpi au; mezaren balioa nola goresten duen:

«Meza emoten dan artean dagoz zeruak zabalik: dabiltz joan ta etorri geure eskariakaz Aingeruak. Baia, zer diñot? Jan-goikoa bera jatorku mezara: zerutar guztien laguntzaan jasten da Jesukristo, barriro aragitu ta litera legez, diño San Agustinek. Orregaiti bada, ondo entzunak izan doaz gure eskabi-deak; parkatu joakuz pekatu arinak: eransten jakuz Jesukristoren irabazi andi neurribakoak, eta emon joakez ondo dantzue-nai gorputzerako eta arimarako ondasun ugari ezin obeak. —Ai bada! Balekije fededunak, zer dan mezea, eta zeinbat irabazten dan meza bakartxu bat entzuteagaz! Eguna bagarik egongo litekez Blexatetan mez-emollearen begira: aztu egingo leki-joe barausten: eta gpx-guztia emongo leuke Elexan, urten bere bagarik» *Kristinauben Dotrina*, 176 orr.).

Olerkari ere al genduan Laukariz'ko apaiza? Bere dotriñan beintzat, ainbat neurtitz eta bertso sartu zituan. Liburuaren sarrera-sarreran *Abisuba* zortziko txikiz, 7/6, egiñiko ahapaldiak dakazki. Lenena:

Goixian esnatuta
aurrenengo lana
biotza jasotia
zeure Jaunagana.

Gurutz-bideko egonaldi bakoitzean lau puntuko, 6/5, ama-lau ahapaldi jartzen ditu, ta amaieran, Agustin Basterretxea'ren *fesukristo gure Jaunaren Pasiñoa*, bere 60 estrofakin. Errosarioaren amabost misterioak ere zortziko nagusitan, 5/5, 5/3, egiñak; danok ederki landuta. Bereak ote ditu? Ditekena da.

Oar: Bartolome Olaetxea'ren dotrina au, nik eskuetan daukadana, Bilbao'n (1846) argitaratuta dago, Delmas eta Semien sillutegian. «Orain zortzigarrenez —diño— imprimidua ta añadiduba bear dan legez». Azkenean, berriz, 331'garren orrialdean irarkola artan saltzen ziran liburuen izen-zerrenda bat; ementxe dator au ere: «Cristinau doctrinea bere esplicaciño laburragaz, itaune ta eranzueracaz alta Asteteren liburuchutic aterea bizcaitar barrucuentzat». Delmas'ek Correo kalean, 16'gnean, zeuzkan bere irarkola ta iiburutegia.

Norena ote dugu dotriña au? Gaspar Astete (1537-1601) jesulaguna zanak *Doctrina cristiana* deritzan Kristau Ikasbidea idatzi zuen, oso entzute aundikoa, 1599'an ienbizikoz argitan jarritakoa, ta arrezkero gaztelaniaz 600 ateraiditik gora ikusi dituna. Euskalerrian ere ongi bai ongi artua izan zan, kontaezin alak euskeraz jarri baitute igarotako iru mendeetan.

(Ikus F. Michel, *Le Pays Basque*, 498 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 115; J. Urkixo, RIEV, XV, 21 orr.; L. Villasante, HLV, 119 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 254 orr.).

6.—«D. L. U.» (...1737...)

Letra oien azpian nor ezkututzen dan jakin nairik, ainbat alegin egiñak dira gure N. Kortazar eta beste batzuk. Ondorenez au diote: D. (Diego) L. U. (Urldzu) izan bear duela, ziu-rrenik. Durango'ko semea, ta iñoiz bertan alkate izana.

Zer idatzi zuen.—Tabira'n otoitz-leku bi daude, kapilla bi, bata sarreran eskumatik San Pedro'rena ta bestea ezkerretik Errosarioko Andra Maria'rena. Biok ospatsu, aintziñatik.

Dalako Urkizu onek liburu bat osotu zuen durengarrentzat batez ere. Onela deritzaio: *Liburu Virgina Santissimien Errosario Santuena, nun dagozan bere esplicazinoa, da amabost Misterioen ofrezimentuac, da verso debotoac cantetan daneco, beste orazino asco, da Ama Virginien Letaniagaz: zein emaiten*

deuse Euscaldunai, euren on, da probechuraco Durangoco lírico deboto batec. Tabira'ko kapilla ederrean dagoen Errosarioko Andra Mariari eskeiñita dator, 1737'an. 88 orrialde ditu ta Iruñā'n argitaldu zan Josepe Joakin Martinez-en irarkolan.

Errosarioak ditun amabost misterioen azalpena duzu lenengo 26 orrialdeetan datorrena: zer dan, nola esan bear dugun, dauzkan induljentiak. Gero misterio bakoitzeko gogarketa bat; baita, abestu nai danerako edo osterantzeko edozein abagunerako, bertso ta kopla egokiak ere ba-dakaz, zortziko nagusitan naikoa ondo egiñak. Ona Oiñazezko-etatik laugarren ahapaldia:

Ai!, Ama triste Dolorosia,

Zeure peniaren azia!

Kurutze orretan zeure Semiak

Emon biar dau Bizia.

Arbola batek ekarri beban

Ain kalte negargarria,

Arbola orrek irabazi dau

Galduta eguan grazia.

Diptonguak eta sinalefak gazteleraz lez egiten ditu; bestelan, bertsolari-kutsua ba-dute liburuan datozen amabost ahapaldiak.

d) BIDASOAZ ANDIKOAK

L—JAKUE MAITIE KALONJEA (...1706)

1706'tik 1735'rarte Olorone'ko gotzai izan zan Josep Revol jaunak dotriña bat egin zuen prantsesez bere eliz-barrutirako: *Catechisme*. Eta bere mendean euskaldunak eta beamesak ere ba-ziralako, auzentat ere bere dotriñearen itzulpenak egin zitzatela agindu zuen. Gizon jakintsu bi aurkeratu zitun Ortarako: Fierre Lailhacar, Leguignon'eko arimazaia, ta Jakue Maitie,

Olorone'ko kalonjea ta Zuberu osoko bikario jenerala; ark itzuli zuen biamesera ta onek euskerara. Eta iru dotriña auek —prantses, biames, euskeraz— izan ziran 1706'tik 1820'rarte Olorone'ko eliz-barrutian erabili ta jendeari erakutsitakoak. Prantzi'ko Matxiñada bitartean ere, berdin, aurretik egiñikoen antzantzera ateraldi berriak ixilka osoturik.

/par euskal erria, matxiñada aurretik, eliz-arazoetarako iru barruti edo diozesatan banandurik zegoen: 1) Baionakoa, ta Lapurdi ta Paxenapartu egoaldea artzen zuen; 2) Akiz (Dax)-ekoa, prantses napar iparraldea arturik, eta 3) Olorone'koa, Zuberu osoa, ta Bearne'n Leskar ta Tarbes artzen zituela. Olorone'ko gotzai edo apezpikuak: Josep Revol jauna 1706'tik 1735'-ra; onen illoba Frantzisko Revol 1742'tik 1783'ra, ta Joan Baptista Augusta Villoutreix Faye 1784'tik 1790'raiño. Frantziko matxiñada bitartean: Bartolome J. B. Sanadon, beneditarra, 1791'tik 1796'ra ta Saurine bearnetarra 1797'tik 180rra; biak gubemuak ipiñita. Matxiñada aldian, gaiñera, Baiona, Dax eta Leskar'eko eliz-barrutiak kendu ta Olorone'koa utzi zuten bakar-bakarrik. Elizak eta eliztarrak oso aizatuak izan ziran, asko ta asko Espaiña'ra ta Ingalterra'ra igeska joanik. Izuak agintzen. Latza noski. Matxiñada ostean, Paul T. Dabid Astros jauna Baiona'ko gotzai (1820-1830) zalarik, aipaturiko iru eliz-barrutiakin bat osotu zuten: Baionakoa. Eta lengo dotriña zahar guztiak kendurik, berri bakar bat, 1823'an argitaratu zana, jarri zuen eliz-barruti osorako. Geroztik, sarri azaldua, auxe erabili izan zan XX'garren gizaldi onen lenengoetararte.

Jakue Maitie kalonjeak itzuli ta argitaratu zuen dotriñak, au du izenburu: *Catechima Oloroeco Diocezaren cerbutchuco* (Paube, 1706). 112 orrialde. Zuberoko euskeraz dago. P. Lafitte'k: «1709-ko buruilaren hama-hiruan Joseph de Revol Oloroneko jaun aphezpikuak bere katichima, eta ez bertzerik, izan zadin irakasias eskualde guzian, manatu zuen» (*Loretegia*, 115 orr.). Gerora ere, zortzi aldiz beintzat ager-arazi zuten.

Argitaratze guztiak etzituzten, ala ere, beti berdintsu egi-ten, urterik urte aroak eskatzen zitun orrazketak sartuta baizik. 1743'an egiñiko ateraldian Frantzisko Revol orduan Oloroneko gotzai zanak au jartzen zuen dotriñaren sarreran: «Badakizie, ene anaie ezinago maitiak, diak hogeit urte perfekt eta konplitu ziren guziak, eztiela uduri egun badiela ber gustia, ber indarra eta arranjatzeko ordian eman zayen ber xahutarzun eta agra-damentia». Joskera egokia du.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 44; P. Lafitte, *Loretegia*, 115 orr.; L. Villasante, *HLV*, 93 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 202 orr.; Roland Moreau, *La Religión des Basques*, Baiona, 1964).

2.—JOANES ETXEBERRI (1668-1749)

Bi euskal idazle bikain, eta izenkide; leendik aipatu du-guna Ziburukoa ta au Sarakoa. Baita abizenkide ere, biok Etxe-berri. Ura apaiza, au sendalari. Aundi ta zaindun biok. Sara-koagatik Orixe'k: «Lapurdi'ko literaturan ezin-utzia da Etxe-berri». Eta Ibón Sarasola'k: «Lapurtar klasikozko hoberene-tatik bat». Axular Sara'n ari izan zan arimazai, Etxeberri an sortua dugu. Sara'ko euskera zekien, beraz; «Eskual-herri gu-zian ospe handitakoa» esango digu.

Axular'ek, eliz-gizon zanetik, eliz-gaiak erabili ta aizaratu zitun bere lanetan. Etxeberri'k Axular irakurri zuen etengabe, ta idazle biak ba-dute alkarren kutsua. Orixe'k: «Axular ira-kurri ta Etxeberri irakurri, ezin uka diteke antza badutela». Alere, esan dugu, bata eliz gauzetan murgildua zebillela, bes-tea, ots, Etxeberri jakin-gaietan dabilkigu pentsalari, onen eta aren esanak eta asmoak ederki jaso ta urkuldurik. Eta euskeraz esanik. Ortarako Axular zuen buruzagi, ondo-ondotik jarraitu ziona. «Axular —diosku berak—, Sara'ko erretora, eskuarazko autoretarik hautuena eta famatuena». Pozik aitortzen digu, gai-

ñera, bera Axular'ek erabili zuen pont-arrian bataiatua zala. Biak Irakasle (Doctor): Axular Teolojian eta Etxeberri Osakintzan. Lau izkuntza ere ba-zekizkin naikoa ondo: euskeraz, la-
tiñez, prantsesez eta gazteleraz.

BIZI-ZEAZTASUNAK.—Sara'n jaio zan 1668'an. Bere errian eta Paube'ko jesuiten ikastetxean biribildu zituen bere len-ikaste urteak, osagille karrera ere bertan egiñik. Ikastaroak amaitutakoan, bere jaioterrian jarri zan sendalari. Ementxe ezkondu zan Katalina Itsasgarate'rekín, onegandik seme-alaba batzuk izanik; euron artean Agustin, aitari osalaritzan jarraitu ta Motriku'n sendagille egon zana. Ementxe idatzi zuen bere lenengo euskal lana ere: *Lau-urdira gomendiozko karla*: Barnean zeukan espa bat erauzteko, ezpairik gabe.

Erritxo ura begiko ta eder zaiolarik ere, pozik etzegoen bertan. Sarri etorri oi zan mugaz onuntz, Bera'ra, ta onaxe aldatu zitzaizun 1716'garren urtean. 1723'rarte Bera'n egin zuen miriku-lana, gero Ondarribi'n, 1723'tik 1725'rarte, ta azkenez, Azkoiti'n 1725'tik 1749'rarte. Bere egitekoa artez betetzen alegiñak egin arren, Azkoiti'n bizi zala baitik bat, sortzen zitzaizkion buruko min eta zer esanak. Askotan joan bear izaten zuen urrutietako baserrietara, baiña auetakoak kexaz ziran sarri bear bezelako arretaz begiratuak etziralako. Mirikuak, ordea, zuri-keta ta atxaki auxe jartzen zien: irabazia urria zuen; ez zeukan zerekin zaldi bat erosi, ta onako barik neketsua zitzaion urrutiko baserrietara irixten. Itxura danez, artista ta jakintsu askoren pareko, zer guztietara sasoiz eldu ezinda zebilkigun.

Azkoiti'n bertan il zan, 1749'garrenean.

EUSKAL LANAK.—Lau liburu utzi zizkigun Joanes Etxeberri'k, eta bat izan ezik, beste irurak, argitara ezarri gabe egonak ditugu luzaroan. J. Urkixo'ren esku zabalari esker, Irakur ditzakegu gaur J. Etxeberri'ren euskerazko lanak; 1907'an —158 urte geroago, beraz— argitaratu zitun, titulu oneldn: «Obras

Vascongadas del Doctor Labortano Joannes d'Etcheberri» (Paris, 1907). Sarreran saratar urduriaren bizi-zertzelada naikoa damakigu, baita ark idatzitako lanena ere: nolako ortografi ta idazkera darabilen, bere erritar Harizmendi ta Aranburu'rekin eta batez ere bere erretore onarekin noraiño zer-ikusia duen, eta gaiñekoak.

1) *Lau-urdiri gomendiozco carta edo guthuna* (Baiona, 1718). Mateo Roquemaurel inprimatzailea eta liburu-saltzailea baitan. 40 orrialde. Larramendi'k bere *Diccionario trilingüe* dalakoan, XXXVI garren orrialdean, aipatzen du. Ta Lapurdi euskal eskualdeari gagozkiola, Etcheberri'k *Lau-Urdi* idazten digu beti. Zergatik? Ez ornen da, Oihenart'ek uste zuenez, *Lapur-di*, «lapur-toki», edo *Laburdi*, *Lau-Ur*, «ur askoren lekua» baizik: lau ibaik barruan artzen baitute eskualde ura, Bidasoa, Nive, Nivelle ta Bidouze bertatik itzuli-mitzuli igaroaz.

Zer dugu liburuxka au? Uztaritze'ko Biltzarrari bialdutako gutuna. Ango Biltzarrak jaurtzen zuen garai artan Lapurdi ta onek onartuko zuela, uste zuen, berak egiten zion eskabidea. Zein eskabide? Betikoa, noski: bere lanak argitaratzeko laguntza. Bere seme Agustin igorri zuen gutunakin Uztaritze'ra, Biltzarrari bera erakutsi ta, arren bai arren, Biltzar aregandik bear zuen diruzko laguntasuna iritxi zezan. Euskera egoera larrian dagoela dio bere kartan, gauza asko ditula idatzita euskerari laguntzeko; baiña etzuen dirurik, sosik, lan oiek argitara emateko.

Biltzarrak etzion jaramonik egin, edo obeto, ezetz biribila eman zioten orduko Biltzar ura osatzen zutenak. Eta Etcheberri mirikuak, euskal langille porrokatuak illobiraiño eramane zuen nunbait arbuiatze aren arantze zaurtua. Orixegatik ez ote zuen gero Sara erritxo utzi ta Bera'rako bidea artu? Lo zegoen ondikotz euskal erria ta lo zeuden baita agintedunak. Garbiki dio Etcheberri'k: edozein gai dala, erria bere izkuntzaz eskolatu bear da, Euskalerrria euskeraz; orixe dagokio berezko izanez.

Ta auxe da ta ez besteik ark bere gutunaren bidez lortu nai duena. Euskal kultura guztia erriari euskeraz, eman. Ai, nolako aurrerakuntza, erria ta agintariak garaiz esna balira!

2) *Escuararen Hatsapenac*. 1712'rantzaidatzia. Euskeraren aldeko lana, ederki egiña. Geroago ere askotxo ari izan zitzaizu ortan. Apoloji lan oni ezin ukatu bere berritasuna. Zertan? Euskeraz dago, ez antzekoak bezela prantsesez edo gazteleraz. Badu, beraz, bere aunditasuna ere. Gaizki-esaleak nainon zebiltzan egun aietan, gure izkuntza zala-ta. Ez Mariana bakarrik. Eta Etxeberrik garbi asko aitzen ematen du euskera «gai dela kulturarako ez-ezen jakingaietan ere irakurtzeko». Etxeberrik Larramendi'k baiño urte batzuk aurrerago, andoaindarrak erderaz eman zituen gairik geienak euskeraz eman zizkigun.

Zabal diardu euskeraren jatorriasunaz jabetu ta barruan itsatsirik daraman aunditasun bete-betea adierazten. Kondaira zear burruka latzak ikusita ere, eskualde estu ta itxi onetan noski, beste anitz izkuntza betiko suntsitu diran arren, euskereak zindo dirau. Ainbat zeaztasun, bai, gure izkera zakarra ta ederra dala argitzeko: «euskeraren zuhurtziaren frogak, eskuara garbia dela, noblea dela, zenbat gisetakoa den eta nondik elduden, eskualdunen mintzaira diferentea dela, ta eskuara guztietan bat dela». Konturatu zan, egia esan, izkelgien koxkarekin ere: euskera zatituta bezela daukagu, ta idaztean beintzat, izkelgi, dialekto bat bear luke, inguruetako erresumetan izkuntzak iritxi duten loratze naroa euskerak ere iritxi dezan. Azkenik, gazterriari dei ta deadar dagio, nagikeria utzi ta euskal kulturaz jabe-tzen ordu geiago eralgi ditzaten; «zaretan Jainkotiar eta estudiora emanak», dio berak.

3) *Eskual-herriari eta eskualdun guztiei eta eskuarazko hatsapenak latin ikasteko*.—Aurreko biak enskeraren alde dira; irugarren au latiña irakasteko gramatika. Irakas-lana, elebiko gramatika; euskeraz dago latin erakusteko. Auxe dugu egillearen xedea: latin ikasteko, ezta beste edozein gai ikasteko ere, ez dago zertan geure lurretik alde egin: berton ikasi genezake

nai dugun guztia. Jakite ugariaren jabe agertzen zaigu Etxeberri; latíñezko aditz-erak, esate baterako, euskerazko ordeakin omitzen ditu, bere aurretiko idazle Axular, Ziburu'ko Etxeberri, Oihenart eta Pouvreau'ren ulerbide ta idatzi-zatiakin bere esana indarturik.

Etxeberri'ren liburu oni buruz edo zebillen Kardaberatz, aurrai euskeraz idatzi bear zaiela esanik, idatzi zuenean: «Ikusten deguna da: gazteak latin gramatika ikasten dutenean, naiz gaztelaniaz, naiz frantzesez, naiz euskeraz itzegiten dute, ta ori eragozten ez diete. Gramatikako maisu famatu bat gure egunean izan zan, latin gauzak ere euskeraz erakusten zituena; ta frantzes euskaldunai gramatikako erreglak euskeraz adirazi ta erakusten diezkate. Ala, ez eskolan ta ez gramatikan, euskera beñere utzi bear ezta». Nor ote zan maisu au? Etxeberri, bear bada? Osagille egon zan errietan gramatika erakusten ote zuen? (Ikus *Auspoa*, 37, «Euskeraren Barri Onak», 74 orr.).

4) *Diccionario cuatrilingue*.—Lau izkuntzatan dago: euskeraz, gazteleraz, prantsesez eta latíñez. Etxeberri'ren esku-idatziak Zarautz'eko prantziskotarren komentuan idoro zitun J. Urkixo'k, baiña iru aurrenenak bakarrik, au da, *Lau-urdiri* ta latin irakasteko beste biak. Laugarren au etzan agertu. Larramendi'k alere bere Iztegiaren sarreran aipatzen zuen: Azkoiti'n bidez zegoelarik, bi eguneroko utzi ziola ta lapurdierazko anitz solas ta berba jaso zitula bertatik. Andoaindarrak, ba, eskuetan euki zuen Etxeberri'ren iztegia, ta ederra iruditu zitzaion gaiñera. Bada garai artako iztegi bat, lau izkuntzatan ain zuzen, beiñola Sharbi'ren eskuetan eta gaurko egunean J. Urkixo jaunaren liburutegian datzana. Dodgson'ek uste zuen auxe gendula Etxeberri'k egiña. Baiña Urkixo'k zalantzan jartzen du (Ikus RIEV, 1934, 605 orr.).

ADIBIDEZ ZERBAIT.—Gidari bezela Axular artu zuen Etxeberri'k, eta bere maisu aundia aupatu nairik, au biribildu zigun: «Egun, beraz, arrazoin gehiagorekin katolikoen artean Axularri

zor zaio, hil ondoan bederen, eman dezagun merezimenduen aitorra eta ohorea. *Si post fata venit gloria, non propero*, dio Marzialek; baldin hil ondokotzat bada laudorioen loria, enaiz lehiatzen. Erran nahi du hil ondoan bederen izanen zela laudatua eta onetsia, eta ordu artearainokoan etzuela berantesten bere laudorioa; zeren ordinariozki gizona hil ondoan landatzen baita. Bitartean Axularrek duelarik hirur hogoi eta hamabi urte Jainkoak deitu zuela mundu huntarik, ezin erran diteke gure predikarien artean merezitu duela, Marzialek hil ondokotzat bere buruari prometatzen zioena; aitzitik lehen erran diteke ohore gehiago egiten diotela gentil batzuei, hala nola Platoni, Vigiliori eta Ovidiori, zeinen izenak maiz eta naharo entzuten baitugu aipatzen tuztela, eta non? baizik batzuetan hark bere denboran manaiatu eta gobematu zuen teatro sailduan, haren beraren hezurren aitzinean.

«Ordea —darrai—, hau hunela ikustea ezta ukigarri eta erdiragarri?; ezen nor izanen da ez xoilki Sarako elizan, baina oraino Eskual-Herrian ausardiza hunen ikustez, eta entzuteaz beraz, Ovidiorekin batean bihotza erdiraturik erranen eztuenik?

*Tunc jlevi, rupique sinus et pectora planxi;
Et secui madidas ungue rigente genas.*

«Ezin nagoke negar egin gabe, eta ene bihotz zaurtuaren auhenak eta dolamenak erakutsi gabe, ikusirik gentilek gure predikari batzuek baino errespetu gehiagorekin behatzen ziotela ja denbora luzez supuan zuhundurik eta pipiatirik daudezin presuna haren hezurrei:

Grandia effosis mirabitur ossa sepulchris.

«Baldin altxa badezazu tonba horren azpian dauntzan hezur handiez espantatua geldituko zara, dio Virgiliok: zuk ere bada konsidera zenez, Axular Eskual-Herriko Esdras handi haren

hezurrak tonba horren azpian dauntzala, eta hortik ere mintzo direla, agian hobekiago orhoit zindezke errespeturekin zor zaioen ohorearen emaitera. Eta bertzek egitea da, lehen erran dugun bezala, Basilio Sainduak dioenaren kontra obratzea».

IRITZIAK.—Sendalari jakintsu ontaz ari izan diran guztiak goretsi izan dute —nola ez?— euskal idazle txalogarri onen lana. Ezin kendu lezaioke, ez, duen jatorrasuna: bere orriak irakurri-ala lenengo lerrotik olako lillura atseginkorra piztu-azi oi dugu-ta. «Ezta —diosku J. Vinson'ek— itzulpen bat, ezta egokitze edo eguneratze soil bat ere; Axular'ena bezela, lan jatorra,, egilleak euskeraz pentsa, eio ta antolatua; ez dira askorik osotasun au irixten dutenak». Eta A. M. Labaien'ek: «Eskolatu ta liburu zale aundi degu Etxeberri, eta artean iñork egin ez zuena, gazteak Latiña ikasteko Gramatika egin zuan. Lan ontan Larramendi ta Urte'ri aurea artu zien, eta sari-garriago da oraindik Latin ikasteko bide ori, euskera utsez mol-datua bait du» (*Eusko Jakintza*, 1949, 103 orr.).

P. Lafitte'k Axular'ekin berdintzen du, oso-osoan ez bada ere. «*Eskuararen Hatsapenak* —dio— irakurtean, egiazko latin jakitea miresten dugu, lapurtar autore zaharraren ezaguera aundia, erri joskeraren zentzu txit zorrotza. Axular'en goresle ziña, ikasle au doi-doi dago bere maisuaren azpitik. Goxoa dugu aren antzera, oparotsua aren antzera, doiñutsua aren pareko. Axular sakonago dugu, betiko egiak esku artean darabiltean eta bere garaian, oi ez bezelako giza-mukulua da. Etxeberri zeatzago dugu, lerdena; Izlari dugu, tankera zale» (*Le Basque et la litterature d'expression basque*, 45 orr.).

Eta M. Mitxelena'k: «Etxeberri, argi ta garbi, berenen artean eta bere garaian, oix ez bezelako giza-mukulua da. Etxeberri'k orduko ainbat euskaldunen buruzki, beren izkuntzarekin maite-minduak oso, baiña onek ezer ere landu gaberik bere fruituak ekarriko zitula uste zutenak nunbait... Etxeberri, vox

clamantis in deserto, guztizko zentzun aundiko ta zeatz ager-
tzen zaigu aurrean. Eskolatzeagatik ark somatzen zuen kezka
ta ardura ere, guzandik urbillagoko aldietakoak zirala dirudi».

Ugari ta jario betekoa da aren itz laua. Gaia ezagun du;
naiz-ta soil eta abstraktu samarra izan, bere aurretik iñork landu
gabea noski. Euskeraz pentsatzen du ta euskeraz adierazten
dizkigu barruan ditun oldozpen, bulko ta pentsamentuak. Iz-
kera, berriz, umetan ikasia darabil ezti ta naro bere iru idaz-
tietan. Urte askotan, tamalez, auts artean egondako lanok me-
rezi dute guk irakurri ta ikastea. Akats eta guzti, idazle zabala
dugu, ezin utzia.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 47, ta RIEV, I, 38 orr.;
J. Urkixo, RIEV, I, 37 orr.; Th. Lischmann, RIEV, III, 1909, 99 orr.;
G. Garriga, *Bol. Amer. E.* V., 1955, 229 orr.; L. Mitxelena, HLV,
89 orr.; L. Villasante, HLV, 101 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I,
209 orr.).

3.—PIERRE URTE (1664-...)

Donibane Lohitzune'koa, emen baitzan sortu 1664-1-2'an,
antza danez. Ziur ez dan arren, urte auxe da J. Vinson'ek ar-
gitara eman zitun artxibu-araketzatik ateraten dan ziurrena. Be-
re gurasoak: Jean Urte ta Maria Kamino, donibanetarrak. Lau
edo bost Fierre Urte dira garai artan itxastar erri dotore ontan
agertzen zaizkigunak. Baiña auxe dugu, noski, gure euskal
idazlea.

Bere len-ikasteak Donibane'n edo egingo zitun. Geroxeago,
orduan lurralde aietan, Baiona'n, Maule'n eta beste, izen aun-
dia zuten kaputxiñoen jantzia artu zigun. Garai artan, ba-da-
kigu, indarra artuak zeuden protestanteak Prantzi osoan, baita
Lapurdi'n, Baxenabarra'n eta Zuberoa'n ere, eta onako batean
Urte alta kaputxiñoa, katoliku Siñistea ta bere praille-jantzia

erantzirik, protestante bilakatu zan. Zeinbat urteren buruan Ingalterra'ra aldatu, an bizi ta il zan. Ez dakigu aren eriotz urterik. 1706'an, Londres'en bizi zan oraindik, bere etxeokakin.

An ezkondu zan urrean, eta bi aldiz ezkondu ere. Lenengo emazteakin eta seme batekin bizi zalarik, ango Laguntza Batzorde batek, 1717'ko bagillaren 21'an ospatu zuen batzarrean, Urte jaunari ere 6 librarekin laguntzea erabaki zuen; baiña beiñolako buruñurdun Izanak, bigarrenez ezkondu ta lenengo emazteagandiko semeakin iges egin zuelako, kendu egin zioten aurretik zeukan diru-laguntasuna.

BERE LANAI—Bame-kezka artean ere euskal arloari lotua ibillia dugu. Iru liburu bederen —bere bizitzan argitaratu gabek— utzi zizkigun, eta emendik atera genezakenez, xede zabaleko gizasemea zan, alegia. Liburu oetatik bi, egillea il eta urte askotxo geroago, atera zituzten argitara.

1) *Biblia Saindua*. Izen aundia au duenagatik, Testamentu Zaharreko zati batzuk baiño ez dira. *Etorkia* osorik eta *Ilkitzea* 'ren 22 kapitulu. Or-an ibilli ondoren, esku-idatziak Shirburn Castle'ko liburutegira jo zuen; John Rhys jaunak eta L. L. Bonaparte printzipeak idatzi zuten onetzaz, 1884'ko iraillaren 13'gneko ta azaroaren 8'gneko zenbakietan, *Academy* dalako aldizkarian, eta andik amar urtera *Anécdota Oxoniensia* deritzane koan (Londres, 1894) argitaratu zuten osorik. 163 orrialde. Sarrera, oar batzuk, *Etorkia*, *Ilkitzea*'tik 92 ataltxo, euskal aditzkerak, euskerara itzuli diran Biblia oso edo zatien zerrenda, ta abar. Donibane Lohitzune'ko euskeraz dago.

2) *Grammaire Cantabrique basque*, W. Webster eta Ll. Thomas jaunak argitaratua. Bagnères-de-Bigorre'ko *Bulletin de la Societe Ramond* dalakoan (1895, 199-230 orr.) dator bere berria. 568 orrialde ditu, Euskal gramatika da prantsesez egiña. Gai ugaria du ta jardunketak eurrez. M. Larramendi'rena baiño lenago osotua, noski; «onena baiño aberatsagoa», diño L. Mitxelena'k.

3) *Dictionmium latino-cantabricum*. Eztu oraindio argirik ikusi, al izan. Au ere Ingiaterra'n dago berekiko liburutegi batean, baiña ba-dute baita Donostia'ko Euskal Fiioloji Mintegian aren aldaki bat, mikrofiimez egiña. Erdi-egiñik daukagu damuz; lan zeatzegia burutu nairik edo, lenengo iru izki edo letrak baiño etzizkigun Urte'k utzi.

Idazteuna itzultzean darabilen euskera lau jatorra dugu. Ona zatitxo bat, adierazgarri: «Jainkoak, beraz, kreatu zuen gizona bere imajinara, Jainkoaren imajinara kreatu izan zuen: barra eta emea kreatu zituen. Eta bedinkatu zituen Jainkoak eta erran zioten, berret eta hauñitz egin zaitezte, eta bete zazue lurra, eta azpira zazue, eta erregiña zazue itsasoko arraiñen gañean, eta zeruetako hegaztiñen gañean, eta lurraren gañean higitzen diran bestia guzien gañean» (*Etorkia*, 27-28 ataltxoak).

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, I, 23 orr. ta II, 526, 661 ta 809 orr.5 L. Mitxelena, HLV, 87 orr.; L. Villasante, HLV, 107 orr.; H. Valentín Berriotxo, BAP, 1964, 1-2, 172 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 214 orr.).

4.—MIXEL XURIO (...-1718)

Azkain'en jaio zan, Martze-enia etxean. Apaiz-ikasketak amaitu zitunean, Donibane Lohitzune'ra bialdu zuten bikario bezela; gero, 1702-5-9'tik erri bertako erretora egiñik. Arimazai ona, jakitez ta zurtasunez bikaindua. Harriaga bere bikarioaren eskuetatik Elizako azken sakramentuak artuaz, 1718-4-26'an il zan, santu antzera.

Lan eder bat utzi zun euskeraz: *Jesu-Christoren Imitacionea* (Bordele, 1720); bera il ondoren ager-azia, Guillame Boude Boe inprimatzaille ta liburu-merkataria bakan. Ander Druillet gotzai jaunal ematen dio baknena, 1719-12-5'an. 426 orrialde. Ez omen zuen osorik itzuli, ta esan oi danez, 'laugarren liburua bere arrebak euskeraztua omen da. Geroztik ere, maiz argitara

emana izan da; bere mendean lau aldiz, Bordele'n eta Baiona'n, eta urrengo gizaldian ere bai, bost bider beintzat, Baiona'n eta Frantziko Tolosan.

P. Lafitte'k: «Jadanik Pouvreau-k gure mintzaierat bihurtu zuen lan aipatua, ez ordean argitarat eman. Arambillaga deitu apez batek 1684-ean *Imitazione* bat egin zuen eskuaraz. «Egin» erran baitugu, «huts-egin» erran beharko ginuen. Beharrik Chourio-ren liburua agertu baitzen. Nahiz geroztik hunat eskuarazko *Imitazione* hoberik moldatu den, hau ez daukagu batiere gutiesteko» (*Loretogia*, 62 orr.).

Irakur zati au. «Presuna batzuek ni bere bihotz guziaz maitatu izan zuten ene ganik Jainkozko gauza handiak, eta hetaz mintzatu dire miragarri. Haiñen zuhurtzia geiago ardietsi dute gauza guziei uko egiñik, gauza ederrak eta gorak estudianturik ikasiko zuten baiño. Batzuei gauza ardurazkoak erraten diotzatet, bertzei irakasten diotzatet goragoak; batzuei agertzen natzaiote itzalen eta figuren azpian, eta bertze batzuei ene misterioak argi handian erakusten diotzatet. Liburuak gauza bera erraten diote guziei; baiña eztituzte guziak orobat argitzen, Zeren ni barrenean nainaz egiaren irakaszaillea, bihotzaren zundutzaillea, eta nik bat-bederari partkzen baitiotzat argiak merezi duela jujatzen dudan bezala» (III garren Lib., 43 cap.).

Itzal so egiñik erderakada politikak dituen arren, idazle bikaiña dugu Xurio, arin ta jariotsu bai darabil luma. Lapurdieraz ikasteko maisu dugunik ezin uka dezakegu.

(Ikus F. Michel, *Le Pays Basque*, 483 orr.; J. B. Daranatz, *Curiosities du Pays Basaue*, 50 orr.; L. Mitxelena, HLV, 85 orr.; L. Villasanté, HLV, 107 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 215 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 49, ta II, 570 orr.).

5.—MARTIN HARRIET (...1741...)

Larresoro'ko errege-notari. Bertako tul-oial saltzaille ospetsu Joanis Harriefen semea ta Maurizi Harriet euskal idazlearen aitona.

Bere euskal lana: *Gramática escuaraz eta francesez compo-satua, frances hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* (Baiona, 1741). Fauvet alarguna eta J. Fauvet erregeren inprimadoriak baitan. 512 orrialde. Guna; lau itz irakurleari (3-4), gramatika, euskeraz erdia ta frantseseraz beste erdia (6-267), euskal-frantses iztegia (268-323), frantses-euskal iztegia (324-440), euskeratzaz Oarkizunak (441-500), euskaldunai gomendio (506-507), utsak arteztu, ta abar. Baimenak azkenean dakazki; Robín, Milafranga'ko arimazaiak 1742-10-20'an eta J. Darretxe, Ziburu'ko arimazaiak 1742-11-3'an euskeraz; eta Larresoro'ko Ikastetxean nagusi zan Dagerre'k 1742-11-4'an, prantsesez.

Notari-lanetan ari izanik ere, ba-zuen Harriet'ek kezka bat bio<tz-zolean ozka. Zer kezka? Euskera jaso ta zemaitarako bidean jarri nai zuen. Auxe bera ez ote zan Saratar Etxeberri samintzen zuena ere? Onez gaiñera garbitasunak dizdiz dagi urteide zitzaikigun idazle bi auengan. Ona nolako itzak asmatzen dizkigun Harriet'ek gramatikazko izenen mota edo jene-ruak adierazteko: «ordotxa» (ugatz-abere arra), gizonezkoena adierazteko; eta «urrixa» (eme), emakumezkoena adierazi nai dugunerako. Bat baizik ez danean, «bakarrak» dio, ta asko diranean, «hainitzak». Geure egunetako eztabaida noski, azken-urteotan euskal idazleok somatu dugun garbi-zalekeria, zalan-zarik gabe.

Nai euskeraz nai frantses ikasteko balio duen gramatika errez ontatik apur-izpi bat baiño ez dugu argitara zuena, lau aletan osatu gogo zuenaren lenbiziko zatia. Ia bukatuak zeuzkan lau aleak, baiña etzituzten lanak atera, bat bakarrik baiño;

ta gaur ez dakigu nundik diran beste irurak. Larramendi'k bere Iztegian aipatzen digu lan au, ta Aita Añibarro'k ere esku artean erabilli zuen.

Beste bi lan ere burutuak zitun nunbait: 1) *Grammaire basque-espagnole*, eta 2) *Laburdi'ko Oitura edo Forua*, euskerara itzulita. Bion berririk ez dugu gaur. Baiña berak ematen dizkigu *Gramatica'ren* azken abisuan argitasun auek: «Usted —dio— laster izanen dela imprimatua, Escuaraz eta Espainolez egiña dudan Iztegi bat. Baita berze liburu bat Lapurdiko kostuma eskuararat itzulia, berze Zenbait eskualdunentzat gisa den gauzarekin».

(Ikus F. Michel, *Le Pays Basque*, 509 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 61; L. Mitxelena, HLV, 90 orr.; L. Villasante, HLV, 108 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 217, orr.).

6.—JOANES HARANEDER (1669?-...)

«Hariztoy zenaren arabera, 1669'an ala orduantsu sortu zen J. de Haraneder», diosku P. Lafitte'k. Ziur ez dakigu, beraz, noiz era nun jaio zan; ezta miresgarri ere, urte aietan ezpaitzan jaiotz4ibururik oitutzen. Alere, Donibane Lohitzune'koa ornen genduan, eta «aitoren semetarik». Baita jakintsua ere, baiña ez nunbait Irakasle; P. Lafitte'k: «Ez dakigu hatik Vinsonek eta Fr. Michel-ek nundik atera duten Doktor zela».

BERE LANAK.—Iru lan eder moldatu zitun, irurak itzulpenak. Donibane Lohitzune'n egin zuen bere arima-zaintza, ta eliz-gizonok ederki dakigunez, ezta Olakoetan norberak nai adiña asti izaten ian jator sakonik burutzeko; itzulpenak eta ariñak, aspen-arte ta asti-orduetan moldatu oi ditugunak askozaz errezagok dira. Gisa ortan jokatu zuela dirudi J. Haraneder'ek ere.

1) *Testament Berria*. Lan au 1740'rako amaitua zan, baiña gaur ere -argitara gabea, osorik beñik bein. Uztaritze'ko

zor zaio, hil ondoan bederen, eman dezagun merezimenduen aitorra eta ohorea. *Si post fata venit gloria, non propero*, dio Marzialek; baldin hil ondokotzat bada laudorioen loria, enaiz lehiatzen. Erran nahi du hil ondoan bederen izanen zela laudatua eta onetsia, eta ordu artearainokoan etzuela berantesten bere laudorioa; zeren ordinariozki gizona hil ondoan lantzen baita. Bitartean Axularrek duelarik hirur hogoi eta hamabi urte Jainkoak deitu zuela mundu huntarik, ezin erran diteke gure predikarien artean merezitu duela, Marzialek hil ondokotzat bere buruari prometatzen zioena; aitzitik lehen erran diteke ohore gehiago egiten diotela gentil batzuei, hala nola Platoni, Vigiliori eta Ovidiori, zeinen izenak maiz eta naharo entzuten baitugu aipatzen tuztela, eta non? baizik batzuetan hark bere denboran manaiatu eta gobematu zuen teatro saildian, haren beraren hezurren aitzinean.

«Ordea —darrai—, hau hunela ikustea ezta ukigarri eta erdiragarri?; ezen nor izanen da ez xoilki Sarako elizan, baina oraino Eskual-Herrian ausardiza hunen ikustez, eta entzuteaz beraz, Ovidiorekin batean bihotza erdiraturik erranen eztuenik?

*Tunc jlevi, rupique sinus et pectora planxi;
Et secui madidas ungue rigente genas.*

«Ezin nagoke negar egin gabe, eta ene bihotz zaurtuaren auhenak eta dolamenak erakutsi gabe, ikusirik gentilek gure predikari batzuek baino errespetu gehiagorekin behatzen ziotela ja denbora luzez supuan zuhundurik eta pipiatirik daudezin presuna haren hezurrei:

Grandia effosis mirabitur ossa sepulchris.

«Baldin altxa badezazu tonba horren azpian dauntzan hezur handiez espantatua geldituko zara, dio Virgiliok: zuk ere bada konsidera zenez, Axular Eskual-Herriko Esdras handi haren

hezurrak tonba horren azpian dauntzala, eta hortik ere mintzo direla, agian hobekiago orhoit zindezke errespeturekin zor zaioen ohorearen emaitera. Eta bertzek egitea da, lehen erran dugun bezala, Basilio Sainduak dioenaren kontra obratzea».

IRITZIAK.—Sendalari jakintsu ontaz ari izan diran guztiak goretsi izan dute —nola ez?— euskal idazle txalogarri onen lana. Ezin kendu lezaioke, ez, duen jatorrasuna: bere orriak irakurri-ala lenengo lerrotik olako lillura atseginkorra piztu-azi oi dugu-ta. «Ezta —diosku J. Vinson'ek— itzulpen bat, ezta egokitze edo eguneratze soil bat ere; Axular'ena bezela, lan jatorra,, egilleak euskeraz pentsa, eio ta antolatua; ez dira askorik osotasun au irixten dutenak». Eta A. M. Labaien'ek: «Eskolatu ta liburu zale aundi degu Etxeberri, eta artean iñork egin ez zuena, gazteak Latiña ikasteko Gramatika egin zuan. Lan ontan Larramendi ta Urte'ri aurea artu zien, eta sari-garriago da oraindik Latin ikasteko bide ori, euskera utsez mol-datua bait du» (*Eusko Jakintza*, 1949, 103 orr.).

P. Lafitte'k Axular'ekin berdintzen du, oso-osoan ez bada ere. «*Eskuararen Hatsapenak* —dio— irakurtean, egiazko latin jakitea miresten dugu, lapurtar autore zaharraren ezaguera aundia, erri joskeraren zentzu txit zorrotza. Axular'en goresle ziña, ikasle au doi-doi dago bere maisuaren azpitik. Goxoa dugu aren antzera, oparotsua aren antzera, doiñutsua aren pareko. Axular sakonago dugu, betiko egiak esku artean darabiltean eta bere garaian, oi ez bezelako giza-mukulua da. Etxeberri zeatzago dugu, lerdena; Izlari dugu, tankera zale» (*Le Basque et la litterature d'expression basque*, 45 orr.).

Eta M. Mitxelena'k: «Etxeberri, argi ta garbi, berenen artean eta bere garaian, oix ez bezelako giza-mukulua da. Etxeberri'k orduko ainbat euskaldunen buruzki, beren izkuntzarekin maite-minduak oso, baiña onek ezer ere landu gaberik bere fruituak ekarriko zitula uste zutenak nunbait... Etxeberri, vox

clamantis in deserto, guztizko zentzun aundiko ta zeatz ager-
tzen zaigu aurrean. Eskolatzeagatik ark somatzen zuen kezka
ta ardura ere, guzandik urbillagoko aldietakoak zirala dirudi».

Ugari ta jario betekoa da aren itz laua. Gaia ezagun du;
naiz-ta soil eta abstraktu samarra izan, bere aurretik iñork landu
gabea noski. Euskeraz pentsatzen du ta euskeraz adierazten
dizkigu barruan ditun oldozpen, bulko ta pentsamentuak. Iz-
kera, berriz, umetan ikasia darabil ezti ta naro bere iru idaz-
tietan. Urte askotan, tamalez, auts artean egondako lanok me-
rezi dute guk irakurri ta ikastea. Akats eta guzti, idazle zabala
dugu, ezin utzia.

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 47, ta RIEV, I, 38 orr.;
J. Urkixo, RIEV, I, 37 orr.; Th. Lischmann, RIEV, III, 1909, 99 orr.;
G. Garriga, *Bol. Amer. E.* V., 1955, 229 orr.; L. Mitxelena, HLV,
89 orr.; L. Villasante, HLV, 101 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I,
209 orr.).

3.—PIERRE URTE (1664-...)

Donibane Lohitzune'koa, emen baitzan sortu 1664-1-2'an,
antza danez. Ziur ez dan arren, urte auxe da J. Vinson'ek ar-
gitara eman zitun artxibu-araketzatik ateraten dan ziurrena. Be-
re gurasoak: Jean Urte ta Maria Kamino, donibanetarrak. Lau
edo bost Fierre Urte dira garai artan itxastar erri dotore ontan
agertzen zaizkigunak. Baiña auxe dugu, noski, gure euskal
idazlea.

Bere len-ikasteak Donibane'n edo egingo zitun. Geroxeago,
orduan lurralde aietan, Baiona'n, Maule'n eta beste, izen aun-
dia zuten kaputxiñoen jantzia artu zigun. Garai artan, ba-da-
kigu, indarra artuak zeuden protestanteak Prantzi osoan, baita
Lapurdi'n, Baxenabarra'n eta Zuberoa'n ere, eta onako batean
Urte alta kaputxiñoa, katoliku Siñistea ta bere praille-jantzia

erantzirik, protestante bilakatu zan. Zeinbat urteren buruan Ingalterra'ra aldaturik, an bizi ta il zan. Ez dakigu aren eriotz urterik. 1706'an, Londres'en bizi zan oraindik, bere etxeokakin.

An ezkondu zan urrean, eta bi aldiz ezkondu ere. Lenengo emazteakin eta seme batekin bizi zalarik, ango Laguntza Batzorde batek, 1717'ko bagillaren 21'an ospatu zuen batzarrean. Urte jaunari ere 6 librarekin laguntzea erabaki zuen; baiña beiñolako buruñurdun Izanak, bigarrenez ezkondu ta lenengo emazteagandiko semeakin iges egin zuelako, kendu egin zioten aurretik zeukan diru-laguntasuna.

BERE LANAI—Bame-kezka artean ere euskal arloari lotua ibillia dugu. Iru liburu bederen —bere bizitzan argitaratu ga-beak— utzi zizkigun, eta emendik atera genezakenez, xede zabaleko gizasemea zan, alegia. Liburu oetatik bi, egillea il eta urte askotxo geroago, atera zituzten argitara.

1) *Biblia Saindua*. Izen aundia au duenagatik, Testamentu Zaharreko zati batzuk baiño ez dira. *Etorkia* osorik eta *Ilkitzea* 'ren 22 kapitulu. Or-an ibilli ondoren, esku-idatziak Shirburn Castle'ko liburutegira jo zuen; John Rhys jaunak eta L. L. Bonaparte printzipeak idatzi zuten onetzaz, 1884'ko iraillaren 13'gneko ta azaroaren 8'gneko zenbakietan, *Academy* dalako aldizkarian, eta andik amar urtera *Anécdota Oxoniensia* deritzanekoan (Londres, 1894) argitaratu zuten osorik. 163 orrialde. Sarrera, oar batzuk, *Etorkia*, *Ilkitzea'tik* 92 ataltxo, euskal aditzkerak, euskerara itzuli diran Biblia oso edo zatien zerrenda, ta abar. Donibane Lohitzune'ko euskeraz dago.

2) *Grammaire Cantabrique basque*, W. Webster eta Ll. Thomas jaunak argitaratua. Bagnères-de-Bigorre'ko *Bulletin de la Societe Ramond* dalakoan (1895, 199-230 orr.) dator bere berria. 568 orrialde ditu, Euskal gramatika da prantsesez egiña. Gai ugaria du ta jardunketak eurrez. M. Larramendi'rena baiño lenago osotua, noski; «onena baiño aberatsagoa», diño L. Mitxelena'k.

3) *Dictionmium latino-cantabricum*. Eztu oraindio argirik ikusi, al izan. Au ere Ingiaterra'n dago berekiko liburutegi batean, baiña ba-dute baita Donostia'ko Euskal Fiioloji Mintegian aren aldaki bat, mikrofiimez egiña. Erdi-egiñik daukagu damuz; lan zeatzegia burutu nairik edo, lenengo iru izki edo letrak baiño etzizkigun Urte'k utzi.

Idazteuna itzultzean darabilen euskera lau jatorra dugu. Ona zatitxo bat, adierazgarri: «Jainkoak, beraz, kreatu zuen gizona bere imajinara, Jainkoaren imajinara kreatu izan zuen: barra eta emea kreatu zituen. Eta bedinkatu zituen Jainkoak eta erran zioten, berret eta hauñitz egin zaitezte, eta bete zazue lurra, eta azpira zazue, eta erregiña zazue itsasoko arraiñen gañean, eta zeruetako hegaztiñen gañean, eta lurraren gañean higitzen diran bestia guzieren gañean» (*Etorkia*, 27-28 ataltxoak).

(Ikus J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, I, 23 orr. ta II, 526, 661 ta 809 orr.5 L. Mitxelena, HLV, 87 orr.; L. Villasante, HLV, 107 orr.; H. Valentín Berriotxo, BAP, 1964, 1-2, 172 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 214 orr.).

4.—MIXEL XURIO (...-1718)

Azkain'en jaio zan, Martze-enia etxean. Apaiz-ikasketak amaitu zitunean, Donibane Lohitzune'ra bialdu zuten bikario bezela; gero, 1702-5-9'tik erri bertako erretora egiñik. Arimazai ona, jakitez ta zurtasunez bikaindua. Harriaga bere bikarioaren eskuetatik Elizako azken sakramentuak artuaz, 1718-4-26'an il zan, santu antzera.

Lan eder bat utzi zun euskeraz: *Jesu-Christoren Imitacionea* (Bordele, 1720); bera il ondoren ager-azia, Guillame Boude Boe inprimatzaille ta liburu-merkataria bakan. Ander Druillet gotzai jaunal ematen dio baknena, 1719-12-5'an. 426 orrialde. Ez omen zuen osorik itzuli, ta esan oi danez, 'laugarren liburua bere arrebak euskeraztua omen da. Geroztik ere, maiz argitara

emana izan da; bere mendean lau aldiz, Bordele'n eta Baiona'n, eta urrengo gizaldian ere bai, bost bider beintzat, Baiona'n eta Frantziko Tolosan.

P. Lafitte'k: «Jadanik Pouvreau-k gure mintzaierat bihurtu zuen lan aipatua, ez ordean argitarat eman. Arambillaga deitu apez batek 1684-ean *Imitazione* bat egin zuen eskuaraz. «Egin» erran baitugu, «huts-egin» erran beharko ginuen. Beharrik Chourio-ren liburua agertu baitzen. Nahiz geroztik hunat eskuarazko *Imitazione* hoberik moldatu den, hau ez daukagu baltete gutiesteko» (*Loretogia*, 62 orr.).

Irakur zati au. «Presuna batzuek ni bere bihotz guziaz maitatzu ikasi tuzte ene ganik Jainkozko gauza handiak, eta hetaz mintzatu dire miragarri. Haiñen zuhurtzia geiago ardietsi dute gauza guziei uko egiñik, gauza ederrak eta gorak estudianturik ikasiko zuten baiño. Batzuei gauza ardurazkoak erraten diotzatet, bertzei irakasten diotzatet goragoak; batzuei agertzen natzaiote itzalen eta figuren azpian, eta bertze batzuei ene misterioak argi handian erakusten diotzatet. Liburuak gauza bera erraten diote guziei; baiña eztituzte guziak orobat argitzen, Zeren ni barrenean nainaz egiaren irákaszaillea, bihotzaren zundutzaillea, eta nik bat-bederari partkzen baitiotzat argiak merezi duela jujatzen dudan bezala» (III garren Lib., 43 cap.).

Itzal so egiñik erderakada politikak dituen arren, idazle bikaiña dugu Xurio, arin ta jariotsu bai darabil luma. Lapurdieraz ikasteko maisu dugunik ezin uka dezakegu.

(Ikus F. Michel, *Le Pays Basque*, 483 orr.; J. B. Daranatz, *Curiosities du Pays Basaue*, 50 orr.; L. Mitxelena, HLV, 85 orr.; L. Villasanté, HLV, 107 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 215 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 49, ta II, 570 orr.).

5.—MARTIN HARRIET (...1741...)

Larresoro'ko errege-notari. Bertako tul-oial saltzaille ospetsu Joanis Harriefen semea ta Maurizi Harriet euskal idazlearen aitona.

Bere euskal lana: *Gramática escuaraz eta francesez compo-satua, frances hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* (Baiona, 1741). Fauvet alarguna eta J. Fauvet erregeren inprimadoriak baitan. 512 orrialde. Guna:, lau itz irakurleari (3-4), gramatika, euskeraz erdia ta frantseseraz beste erdia (6-267), euskal-frantses iztegia (268-323), frantses-euskal iztegia (324-440), euskeratzaz Oarkizunak (441-500), euskaldunai gomendio (506-507), utsak arteztu, ta abar. Baimenak azkenean dakazki; Robín, Milafranga'ko arimazaiak 1742-10-20'an eta J. Darretxe, Ziburu'ko arimazaiak 1742-11-3'an euskeraz; eta Larresoro'ko Ikastetxean nagusi zan Dagerre'k 1742-11-4'an, prantsesez.

Notari-lanetan ari izanik ere, ba-zuen Harriet'ek kezka bat bio<tz-zolean ozka. Zer kezka? Euskera jaso ta zemaitarako bidean jarri nai zuen. Auxe bera ez ote zan Saratar Etxeberri samintzen zuena ere? Onez gainera garbitasunak dizdiz dagi urteide zitzaikigun idazle bi auengan. Ona nolako itzak asmatzen dizkigun Harriet'ek gramatikazko izenen mota edo jene-ruak adierazteko: «ordotxa» (ugatz-abere arra), gizonezkoena adierazteko; eta «urrixa» (eme), emakumezkoena adierazi nai dugunerako. Bat baizik ez danean, «bakarrak» dio, ta asko diranean, «hainitzak». Geure egunetako eztabaida noski, azken-urteotan euskal idazleok somatu dugun garbi-zalekeria, zalan-zarik gabe.

Nai euskeraz nai frantses ikasteko balio duen gramatika errez ontatik apur-izpi bat baiño ez dugu argitara zuena, lau aletan osatu gogo zuenaren lenbiziko zatia. Ia bukatuak zeuzkan lau aleak, baiña etzituzten lanak atera, bat bakarrik baiño;

ta gaur ez dakigu nundik diran beste irurak. Larramendi'k bere Iztegian aipatzen digu lan au, ta Aita Añibarro'k ere esku artean erabili zuen.

Beste bi lan ere burutuak zitun nunbait: 1) *Grammaire basque-espagnole*, eta 2) *Laburdi'ko Oitura edo Forua*, euskerara itzulita. Bion berririk ez dugu gaur. Baiña berak ematen dizkigu *Gramatica'ren* azken abisuan argitasun auek: «Usted —dio— laster izanen dela imprimatua, Escuaraz eta Espainolez egiña dudan Iztegi bat. Baita berze liburu bat Lapurdiko kostuma eskuararat itzulia, berze Zenbait eskualdunentzat gisa den gauzarekin».

(Ikus F. Michel, *Le Pays Basque*, 509 orr.; J. Vinson, *Essai Bibl. Basque*, 61; L. Mitxelena, HLV, 90 orr.; L. Villasante, HLV, 108 orr.; Auñamendi, *Literatura*, I, 217, orr.).

6.—JOANES HARANEDER (1669?-...)

«Hariztoy zenaren arabera, 1669'an ala orduantsu sortu zen J. de Haraneder», diosku P. Lafitte'k. Ziur ez dakigu, beraz, noiz era nun jaio zan; ezta miresgarri ere, urte aietan ezpaitzan jaiotz4ibururik oitutzen. Alere, Donibane Lohitzune'koa ornen genduan, eta «aitoren semetarik». Baita jakintsua ere, baiña ez nunbait Irakasle; P. Lafitte'k: «Ez dakigu hatik Vinsonek eta Fr. Miehel-ek nundik atera duten Doktor zela».

BERE LANAK.—Iru lan eder moldatu zitun, irurak itzulpenak. Donibane Lohitzune'n egin zuen bere arima-zaintza, ta eliz-gizonok ederki dakigunez, ezta Olakoetan norberak nai adiña asti izaten ian jator sakonik burutzeko; itzulpenak eta ariñak, aspen-arte ta asti-orduetan moldatu oi ditugunak askozaz errezagok dira. Gisa ortan jokatu zuela dirudi J. Haraneder'ek ere.

1) *Testament Berria*. Lan au 1740'rako amaitua zan, baiña gaur ere -argitara gabea, osorik beñik bein. Uztaritze'ko